

# OIHENARTEREN IV. MENDEURRENA

## IVème. CENTENAIRE D'OIHENART

### IV CENTENARIO DE OIHENART

IRAILA 1992 SEPTEMBRE

#### NOTITIA VTRIVSQUE VASCONIÆ IVM IBERICÆ, IVM AQVITANICÆ,

AVTENTICIS ET VERIS MONUMENTIS  
scilicet digna, NAYASARÆ Regis Cæteranimpicæ, in illis  
insignium virtutibus & dignitate familiarum Romanarum  
ex probatis Auctoribus & veteris monumentis  
exhibemus.

*Accedant Catalozi, Ponsifera Vasconia Aquitanica,  
hactenus editis pleniores.*

Auhtore N. B. MAULEON, MAULEONENSIS.



PARISIIS,  
Sumpibus SEBASTIANI CRAMOISI Typographi Regij,  
viâ Jacobæ, sub Ciconis.

MDCCLXXII.  
CVM PRIVILEGIO REGIS.

#### LES PROVERBES BASQUES RECUEILLIS PAR LE S' D'OIHENART,

PLUS LES POESIES  
*Basques du même Auteurs.*



#### EGETARALA

MULTEN, 21. BILBAO.	MEKATZAI INDIAREN BILTARRA
MULTEN, 21. ANTOIHOA.	ETSKALTZAINDIAREN BILTARRA VII. BILTZARRA N. BILBAO.
MULTEN, 22. ANTOIHOA.	BILTZAINDIARRA
MULTEN, 23. ANTOIHOA.	ANTOIETZAINDIARRA
BONAPAIEN, 24. ANTOIHOA.	HISTORIA
25. ANTOIHOA.	HISTORIA

#### PROGRAMME

MULTEN, DIMANCHE 20.	APPEL ET DISCOURS DE FAUCONNET
MULTEN, LUNDI 21.	SEANCE DE LA COMMISSION D'ORGANISATION DE LA BILTZARRA DE BILBAO
MULTEN, MARDI 22.	LUNDI
MULTEN, MERCREDI 23.	PARADES DE L'EGRET
SAINTEPAIS, JEUDI 24.	HISTOIRE
25. ANTOIHOA.	HISTOIRE

ETSKALTZAINDIAREN  
ACADEMIA DE L'UNIVERSITE  
BORDELEKOTZAINDIAREN  
UNIBERSITATE BORDELEKOTZAINDIAREN  
ETSKALTZAINDIAREN  
UNIBERSITATE PAYS BASQUE



ETSKALTZAINDIAREN  
NATURBARRAZAINDIAREN  
BILTZARRA DE BILBAO  
BILTZARRA DE ANTOIHOA  
BILTZARRA DE ANTOIHOA  
BILTZARRA REGIONALE DE SAINT-PAIS  
CONSEIL REGIONAL DES PAYS BASQUES

### Euskaltzaindiaren XII. Biltzarra

Maule / Mauleon, 1992. IX. 20-23  
Donapaleu / Saint-Palais, 1992. IX. 24-25

**OIHENARTEN LAUGARREN MENDEURRENA**  
CUARTO CENTENARIO DE OIHENART  
QUARTIÈME CENTENAIRE D'OYHÉNART

**IKER 8**



**EUSKALTZAINDIA /**  
Real Academia de la Lengua Vasca /  
Académie de la Langue Basque  
**BILBO**  
**1994**

### **Babesleak / Patrocinadores / Protecteurs**

- Eusko Jaurlaritza / Gobierno Vasco
- Nafarroako Gobernua / Gobierno de Navarra
- Arabako Foru Aldundia / Diputación Foral de Alava
- Bizkaiko Foru Aldundia / Diputación Foral de Bizkaia
- Gipuzkoako Foru Aldundia / Diputación Foral de Gipuzkoa
- Conseil Général des Pyrénées-Atlantiques
- D.R.A.C. (Direction Régionale d'Action Culturelle)
- Syndicat de Soule
- Euskal Herriko Unibertsitatea / Universidad del País Vasco
- U.R.A. 1055 du C.N.R.S., Bordeaux III

© Euskaltzaindia / R.A.L.V.  
Plaza Barria, 15. 48005 BILBO

ISBN: 84-85479-73-4

Legezko Gordailua: BI-1022-94

Fotokonposaketa: IKUR, S.A.  
Cuevas de Ekain, 3, 1.º - 48005 BILBO

RONTEGI, S.A.L. Grafikagintza  
Avda. Ribera de Erandio, 4 - 48950 ERANDIO (Bizkaia)

**AURKIBIDEA  
INDICE  
INDEX**



Jean Haritschelhar, <i>Aitzinsolasa</i> .....	13
Jean Haritschelhar, <i>Avant Propos</i> .....	15
Jean Lougarot, <i>Mauleko auzapezaren mintzaldia</i> .....	17
Jean Haritschelhar, <i>euskaltzainburuaren mintzaldia Maulen</i> .....	21
Beñat Oihartzabal, <i>Oihenart, euskal gramatikarien aitzindaria</i> .....	27
Miren Azkarate, <i>Oihenart-en lexiko-sorkuntza</i> .....	49
Patxi Altuna, <i>Oihenarten neurtitzetako adiztegia</i> .....	79
Emiliana Ramos Remedios, <i>Consideraciones sobre el léxico pretendidamente vasco de la Notitia</i> .....	103
Rosa Miren Pagola, <i>Hizkuntzari buruzko Oihenarten zenbait ideia</i> .....	115
Jean-Baptiste Orpustan, <i>Gramatikaz Oihenarten neurthitzetan edo gramatika 'ta neurtitzaren egitura Oihenarten olerkietan</i> .....	135
Patxi Altuna, <i>Oihenarten euskal prosodia</i> .....	161
Nerea Arrizabalaga-Patxi Altuna, <i>Oihenarten grafia</i> .....	175
Xarles Videgain, <i>Oihenarten atsohitzak eta gaurko fraseologia Oztibarren</i> .....	181
Estibaliz Bedialauneta, <i>Oihenart y su aportación a la discusión sobre los límites geográficos del Vasco Antiguo en la Notitia utriusque Vasconiae: en torno al vascoiberismo</i> .....	189
Alfonso Irigoyen, <i>Gnomica oihenartiana</i> .....	203
Jean Haritschelhar, <i>Emaztea Oihenartek bildu atsotitzetan</i> .....	273
Patri Urkizu, <i>Oihenarten atsotitzak eta poetika berrirakurriz</i> .....	295
Andres Urrutia, <i>Oihenart: euskal errefrauak eta foru zuzenbidea</i> ....	329
Luis Maria Mujika, <i>Oihenarten amodiozko neurtitzen tematika</i> .....	351
Aurelia Arkotxa, <i>Oihenarten amodiozko poesien azterketa konparatiboa</i> .....	401
Jean-Baptiste Orpustan, <i>Bernat Etxepare 'ta Arnalde Oihenart: ondorio-tasunetik harat</i> .....	451

Txomin Peillen, <i>Oihenarten eragina Egiategirengan (Oihenarten itzala Egiategiren obran)</i> .....	467
Patxi Altuna, <i>Lapurarrak Oihenartekin haserre?</i> .....	477
Renée Goulard, <i>Le Livre I de la Notitia utriusque Vasconiae: la méthode historique d'Oihenart</i> .....	485
Manex Goihenetxe, <i>A. d'Oihenart historien: aspects de son profil social, politique, culturel</i> .....	497
Renaud d'Elissagaray de Jaurgain, <i>Un aperçu sur un historien du Pays Basque, historiographe d'Oihenart: Jean de Jaurgain</i> .....	509
Bernard Lassalle, <i>Donapaleuko auzapezaren mintzaldia (1992ko irailaren 24ean, Oihenart karrikaren estrenatzekari)</i> .....	525
Jean Haritschelhar, <i>Donapaleuko mintzaldia</i> .....	527
Monseigneur le Mareschal de Gramond, <i>Catalogue des livres de la Bibliothèque de Bidache</i> .....	529
Ricardo Cierbide, <i>Fuentes historico documentales de la Notitia utriusque Vasconiae y papeles inéditos de Arnaud d'Oihenart</i> .....	575
Ricardo Cierbide, <i>Creación de la Senescalía de Saint-Palais 1639</i> .....	613
Josette Pontet, <i>Arnaud d'Oyhénart, sa famille et les nouvelles élites de son temps</i> .....	627
Joseba Agirreazkuenaga Zigorraga, <i>A. Oihenarten Notitia utriusque Vasconiae: berrikuntza eta eragina euskal historiografian</i> .....	643
Anne Zink, <i>La vie en Soule au temps d'Oihénart</i> .....	653
Jean-Baptiste Orpustan-Clément Urrutibehety, <i>Annexe: Documents sur Arnaud d'Oyhénart et sa famille</i> .....	673
Oihenarten IV. mendeurrena: <i>Ondorioak</i> .....	691
IV centenario de Oihenart: <i>Conclusiones</i> .....	693
IV-ème Centenaire d'Oyhénart: <i>Conclusions</i> .....	695

OIHENARTEN IV.MENDEURRENEKO BATZORDE AKADEMIKOA/  
COMMISSION ACADEMIQUE DU IVe. CENTENAIRE d'OYHENART:

*Buru/Président:* Juan M<sup>a</sup> Lekuona  
*Kideak/Membres:* Patxi Altuna  
Manex Goienetxe  
Jean Haritschelhar  
Jean-Baptiste Orpustan  
Txomin Peillen  
Euskal Herriko Unibertsitatea/Universidad del Pais  
Vasco: Endrike Knör  
Deustuko Unibertsitatea/Universidad de Deusto: Rosa  
Miren Pagola

OIHENARTEN IV.MENDEURRENEKO ANTOLAKIZUN BATZORDEA/  
COMMISSION ORGANISATRICE DU IVe. CENTENAIRE d'OYHENART:

*Buru/Président:* Jean-Louis Davant  
*Idazkari/Secrétaire:* Jose Luis Lizundia  
*Kideak/Membres:* Pierre Xarritton  
Jose Antonio Arana  
Juan Jose Zearreta  
M. Beraxagar (Sü-Azia)

*Antolakizun laguntzaileak/Organisation auxiliaires:*

Ricardo Badiola Uriarte  
Agnes Dufau

*Prentsa zerbitzua/Bureau de presse:*

Nerea Azurmendi  
Itziar Rekalde

## AITZINSOLASA

Jean HARITSCHELHAR  
euskaltzainburua

Agertzera doa *Iker 8* liburua, Euskaltzaindiaren XII. Biltzarraren emaitzak zabaltzen dituena. Liburu mardul eta ederra, zortzi ehun bat orrialdekoa.

Derradan berehala XII. Biltzarra izan dela Iparraldean egin den lehena. Parada ederra zeukan Literatura batzordeak erakusteko nahi zituela gure idazle zaharrak goraiatu, biltzar nagusi bat apailatuz, Arnaud Oihenart ziberotar idazleak betetzen zuela sortzearen laugarren mendeurrena. Hortakotz Iparraldean, hortakotz Maulen eta Donapaleun, Maulen sortu delakotz Oihenart, Donapaleun ezkondu eta gehienik bizi izan delakotz.

Liburu honek erakusten duen bezala, itzal haundiko gizona zen Oihenart: legegizon, historialari, atsotitz biltzaile eta olerkari. Oihenart-en aurpegi horiek aztertuak izanak dira agertzen diren mintzaldi eta txostenetan. Horretarako, Euskaltzaindiak bildu ditu Euskal Herriko, Frantziako eta Espainiako unibertsitateetan Euskal Herriari buruz ikertzen ari diren erakasleak. Orotara, hogeita hamar baino gehiago, artikulak sakonak eskaini dituztenak. Har ditzatela gure goresmenik beroenak.

Ez da bakarrik Euskaltzaindia Unibertsitate ikasle-ikerleen biltzaile; jadanik Euskal Herriko Unibertsitatearekin eta Bordeleko Unibertsitatearekin (U.R.A. 1055) sinatu ditu hitzarmenak. Bi unibertsitate horiekin jokatu da, haien diru laguntza eta babesa lortuz. Eskerrak zor zaizkie.

Lehen aldikotz, biltzar horretaz baliatuz, Euskaltzaindiak herri, erakunde eta botere publikoen babesa ere ardietsi du: horiek dira Maule eta Donapaleuko udalak, Ziberoko Sindikata, departamenduko Kontseilu orokorra eta D.R.A.C. (Direction Régionale de l'Action Culturelle) Kultura Minixteritzaren Akitaniako adarra. Nahi ditut hemen agurtu eta eskertu.

Ene eskerrik zintzoenak merezi dituzte Maule eta Donapaleuko XII. Biltzar nagusiaren antolatzaileek: batzorde akademiko eta batzorde eragileko kideek, ahantzi gabe prentsa-bulegoko langileak.

Jalgitzen da kanpora liburu gotor hau. Erakusten du Euskaltzaindiaren lana, euskaraz, euskal literaturaz, euskal historiaz, hots, hitz batez euskal kulturaz arduratzen direnak ez direla debaldetan lanean ari. Azaltzen du liburu honek eusko-ikerketara, sekular baino indartsuagoa eta emankorragoa.

Aurrera doa Euskaltzaindia. Segi beza urratu duen ildotik, euskara eta euskal kulturaren inguruan dauden indar guziak bilduz.

## AVANT PROPOS

Jean HARITSCHELHAR  
Président d'Euskaltzaindia

*Iker 8*, livre des Actes du Congrès Oihenart, publie les contributions de ceux qui participèrent au XIIème congrès d'Euskaltzaindia, un beau et imposant ouvrage de plus de huit cents pages.

C'est le premier congrès organisé par Euskaltzaindia en Pays Basque Nord, excellente occasion pour la Commission de Littérature de montrer que l'un de ses buts est de rendre hommage à nos auteurs classiques, en l'occurrence Arnaud d'Oihenart, écrivain souletin, pour le quatrième centenaire de sa naissance. D'où le choix du Pays Basque Nord, de Mauléon et Saint-Palais, Mauléon lieu de sa naissance, Saint-Palais où il s'est marié et a longtemps vécu.

Ainsi que le montre ce livre, Oihenart était un homme de grande envergure, avocat, homme public, historien, parémiologue et poète. Toutes les facettes de l'oeuvre d'Oihenart ont été étudiées au cours de conférences et de communications qui paraissent dans cet ouvrage. Pour ce faire, Euskaltzaindia a réuni les enseignants-chercheurs d'Universités du Pays Basque, de France et d'Espagne qui s'intéressent aux études basques. Plus de trente personnes au total, qui ont fait part de leurs recherches. Qu'elles reçoivent nos chaleureuses félicitations.

Euskaltzaindia ne se contente pas de rassembler les chercheurs en études basques; elle a signé aussi des conventions avec l'Université du Pays Basque/Euskal Herriko Unibertsitatea, ainsi qu'avec l'Université de Bordeaux III, par l'intermédiaire de son équipe de recherche associée au C.N.R.S. (U.R.A. 1055) qui, en outre, lui ont apporté leur contribution financière. Des remerciements leurs sont dus.

Pour la première fois, grâce à ce congrès, Euskaltzaindia a tissé des liens avec des villes, des collectivités territoriales et les pouvoirs publics: les villes de Mauléon et Saint-Palais, le Syndicat de Soule, le Conseil Général des

Pyrénées-Atlantiques et la Direction Régionale de l'Action Culturelle, antenne régionale du Ministère de la Culture. Nous tenons à les saluer et à les remercier de leur aide.

Les organisateurs du XIIème congrès méritent aussi les plus sincères remerciements: les membres de la commission académique responsable du programme, les membres de la commission d'organisation, ainsi que le bureau de presse, qui ont rempli leur rôle à souhait.

Cet imposant ouvrage voit le jour. Il montre le travail d'Euskaltzaindia, il montre aussi la qualité des travaux des chercheurs en linguistique, littérature et histoire basques, de ceux qui s'intéressent à la culture basque, la recherche en ce domaine s'avérant de plus en plus solide et féconde.

Euskaltzaindia va de l'avant. Puisse-t-elle suivre le sillon qu'elle a tracé, rassemblant autour d'elle les forces vives des passionnés de langue et culture basques.

## MAULEKO AUZAPEZAREN MINTZALDIA

Jean LOUGAROT

Monsieur le Président,  
Monsieur le Vice-Président,  
Madame et Monsieur les Membres de l'Académie de Langue Basque,  
Mesdames, Messieurs,

L'événement qui nous réunit aujourd'hui dans la capitale de la Soule s'inscrit sans nul doute dans l'histoire de cette maison, de notre Cité, de notre Province.

Merci de tout coeur à ceux qui l'ont provoqué, merci de tout coeur à ceux qui ont choisi de le vivre avec nous en ces lieux chargés d'Histoire.

Je crois avoir souvent affirmé combien j'étais attaché à ces témoignages du passé qui ont été le décor de mon enfance, près des Allées de la Soule, combien j'étais attaché à nos traditions, à notre identité, à notre culture.

J'avoue cependant une lacune regrettable. A la manière d'un mélomane, j'entends, j'aime et je comprends le souletin pour avoir été plongé dès mon jeune âge, et grâce à mes parents, dans sa délicate musicalité. Mais je n'ai, hélas, jamais su jouer correctement de l'instrument.

C'est dire que, chacun attendant ici du Maire de Mauleon, qu'il donne, en quelque sorte, le ton, je vais essayer malgré les difficultés qui me guettent, de m'exprimer l'espace d'un instant en souletin:

Ülhüntze huntan, Mauleko herriko etxia, eüskal kültürari, bere huntarzün osuan, bethi danik aiphatia, largoki eskentzen dü bere atherbia.

Lau-ehün urthen bürian, uhuratzen dügü egün, mauletar seme bat: Allande Oihenart.

Hürrüntik jin zide gure herria eta Xiberua laidatzera, prefosta ohart etxekiren dügü lüzaz zien eginbidia.

Erraiten deiziet, Mauleko aitzindarien phartez, Mauletarren phartez, agur eta hunki jin.



Partikularzki heben, etxen zide.

Othoi, pharka ezaziet, bena ene mintzaldi arrasta, emanen deiziet fransesez, zeren ez beniz segür enthelegatürrik izanen nizala, eta lotsa nüzü beharri zunbaiten mankhazia.

A cette première rencontre marquant l'ouverture du Congrès consacré à Arnaud Oihenart vont succéder des travaux qui, durant toute la semaine, à Mauléon et à Saint-Palais, tendront à mieux cerner la vie et surtout l'oeuvre d'un Basque d'exception: juriste, historien, écrivain, parémiologue et homme public.

C'est, depuis que je suis Maire, la seconde fois que j'ai l'honneur d'accueillir l'Académie de Langue Basque et cela témoigne de la place privilégiée que la Soule, la plus petite des 7 Provinces, occupe dans la culture et l'identité du Pays Basque et au niveau de leur plus éminente instance.

Certes, nul n'est prophète en son pays, et c'est si vrai qu'Arnaud Oihenart serait particulièrement méconnu des Souletins d'aujourd'hui, si le village de Musculdy, voici 7 ans déjà, ne lui avait consacré une très belle pastorale... Oeuvre d'Arnaud Aguergaray-Bordachar, mise en scène par Battite Urruty, jouée par les Muskuldiar groupés auprès des frères Berçaits, elle a connu hier soir un magnifique prolongement lors du spectacle donné au Jaï Alaï de Mauléon, avec ferveur et talent.

Ainsi devons-nous un grand merci à Musculdy comme à l'Académie de la Langue Basque, à ses membres et à son Président, Mr Jean Haritschelhar, pour avoir ravivé le souvenir d'une de nos plus illustres personnalités née au pied du vieux Château-Fort qui, sans doute pour se faire pardonner ses excès de pouvoir d'autrefois, arbore fièrement aujourd'hui les couleurs basques de l'Ikurriña.

C'est pour combattre ces excès de pouvoir qu'Arnaud Oihenart s'engagera dans la défense de sa petite Patrie en devenant Syndic de Soule, en s'opposant au Parlement de Navarre et aux prétentions du Comte de Trois-Villes, s'acquittant de ses fonctions avec la plus grande conscience et la plus forte énergie. Parallèlement, il découvrit sa vocation d'historien, son goût pour les proverbes et la poésie, tout cela étant servi par son érudition, son amour de son pays et de sa langue.

Ne dit-on pas qu'il lisait le latin, le grec, le français, l'espagnol, l'italien et le basque? Un européen avant la lettre! —écrivain surtout en latin, français et basque.

...Loin de moi l'intention, sinon la fatuité, d'analyser ici, devant un tel cénacle de spécialistes, le rôle historique, le talent littéraire et l'apport culturel de l'oeuvre d'Arnaud Oihenart, malgré tout ce que j'ai pu lire depuis l'annonce, il y a un an, de la tenue de ce Congrès à Mauléon, tant il est vrai que j'ai pu mesurer ma profonde ignorance sur cet illustre compatriote.

J'ai également regretté l'absence de détails sur son enfance à Mauleon, dans une époque fertile en événements et en personnages importants tels les Sponde, Belzunce, Jacques de Bela, Jean de Peyrer, Arnaud de Maytie, entre autres.

Il y a là tout un champ d'investigations ouvert aux chercheurs qui se pencheraient sur la vie quotidienne de Mauléon et de Licharre à l'approche du 17<sup>ème</sup> siècle. Dans l'immédiat, et si le Congrès vous laisse un petit temps de loisirs, je puis vous suggérer une promenade sur les pas d'Arnaud Oihenart depuis l'emplacement présumé de sa maison natale, près du croisement de la rue Labat et de la rue du Fort:

Soit vers Mauléon, la Haute-Ville, avec son Eglise Notre-Dame qui fut à l'époque Cathédrale durant trente ans et le Château-Fort du Capitaine-Châtelain pour lequel je vous recommande un regard, ce soir, à la nuit tombée.

Soit en descendant, vers le vieux pont et son quartier du «Bout du Pont» où nous nous trouvons et où se dressait la maison des SPONDE, jusqu'aux limites de Licharre encore marquées par la Croix-Blanche et l'antique maison des Etats de Soule.

Ainsi chacun pourra-t-il essayer d'imaginer un jeune garçon dévalant les chemins de jadis et dont la destinée allait justifier 4 siècles plus tard un Congrès consacré à son oeuvre. Au moins, ai-je le privilège de partager un point commun avec lui, celui d'avoir vécu mes jeunes années sur le même coin de terre basque, façonné par l'Uhaitza, souvent caressé par l'Aize-Hegoa descendant du massif de l'Orhy et qui ne tardera pas à empourprer toutes les frondaisons de la vallée.

Je ne voudrais pas abuser de votre bienveillante attention mais, avant de conclure, j'ai encore trois choses importantes à vous dire:

1) à l'issue de cette exceptionnelle réunion, je compte sur chacun de vous pour prolonger, d'un moment encore, sa présence dans nos murs en s'arrêtant dans la salle voisine de celle-ci, pour partager un apéritif d'honneur... et d'amitié offert par la Municipalité de Mauléon;

2) soucieux de conserver un témoignage de cette soirée, témoignage qui sera encadré et exposé en bonne place dans notre Mairie, je vous prierai de bien vouloir, à la fin de séance, apposer votre signature sur le document que voici... en utilisant le stylo à encre indélébile que je tiens à votre disposition;

3) enfin, l'occasion m'est offerte de marquer la gratitude, le respect et l'amitié que Mauléon porte à Mr Jean Haritschelhar, Président de l'Académie Basque, fervent défenseur des pastorales et mascarades, auteur de nombreux ouvrages dont une remarquable étude sur Etxahun topet de Barcus, et à Mr Txomin Peillen qui, dans cette Académie, apporte le message de la Haute-Soule, ce pays où la splendeur sauvage des sites s'allie d'heureuse façon à la force des traditions et au fier courage des hommes.

Je suis heureux de leur remettre publiquement et au nom du Conseil Municipal de notre Cité, la Médaille d'Honneur de la Ville de Mauléon que Jean-Louis Davant, Académicien dont les Souletins sont à juste titre très fiers, a pour sa part reçue lors de la création de sa superbe pastorale «d'Abadie d'Arrast» jouée à Mauleon en 1990.

Ceci dit et en conclusion, il me reste à souhaiter à l'ensemble des congressistes qui, durant 4 jours, vont mettre en lumière l'oeuvre historique et littéraire immense, encore imparfaitement explorée d'un fils de Mauléon, un travail passionnant et fructueux dont les résultats contribueront, nous n'en doutons pas, à illustrer l'originalité, la qualité, la pérennité d'une culture ancienne et riche, mais aussi présente et vivante grâce notamment à la compétence et aux efforts des membres de l'Euskaltzaindia, celle du Pays de Soule et plus largement encore celle du Pays Basque et de ses sept Provinces.

## JEAN HARITSCHELHARREN MINTZALDIA MAULEN

Mauleko Jaun mera,  
Agintari Jaun-Andereak  
Euskaltzain kideak  
Jaunak eta Andereak,  
Agur.

Nehor ez da harrituko eta nehor ez da gaitzituko ere euskaraz hasten balin badut nire mintzaldia.

Eskerrak zuri lehenik, Jaun mera, egin diguzun «hunki jin» ederrarengatik. Eskerrak ere Mauleri eta denbora berean ere eskerrak Donapaleuri. Zertako hemen garen? Oihenarten goraiatzeko. Duela bizpahiru urte, Euskaltzaindiak hartu zuen erabaki bat, eta hauxe da: Euskal Herriak dituen idazleetan, bereziki jende haundienak, behar ditugula goraiatu, horiek baitira gure ondarea, horiek baitira gure altxorra, horiek konda baitira gure historian. Eta besteek egiten dutena guk ere egin behar dugu, erran nahi baita atzerat edo gibelerat itzuliz, ikusi behar dugula nor izan diren gure arbasoak, zer egin duten eta haiek behar ditugula goraiatu. Hortakotz, duela bi urte, Larramendi urtea zela erabaki zuen Euskaltzaindiak. Iaz, Louis Lucien Bonaparte printzeari eskaini diogu urtea. Hirugarren bat bazen aurtengo eta xuberotarra zen, hori zen Allande Oihenart.

Ez zen nor nahi Allande Oihenart. Jadanik behar den bezala erran digu Mauleko auzapezak nor zen Oihenart: legegizona, gizon publikoa, xuberotarren zuzenen zaintzalea, denbora berean historilaria, olerkaria ere eta atsotitz edo erran zahar biltzailea.

Gizon publiko gisa, zaindu ditu xiberotarren zuzenak. Nafarroa Beherean bizi zelarrik, gauza berbera egin du. Hemen, Maulen, hasten balin badugu eta gero Donapaleun segitzen balin badugu gure biltzar nagusi hau, XII. biltzar

nagusia, lehen aldikotz Iparraldean egiten duguna, da, alde batetik sortu zelakotz Maulen eta bertze aldetik, ezkonduz gero, bizi izan zelakotz Donapaleun.

Historilaria: idatzi du *Notitia Utriusque Vasconiae* delako liburua, latinez, latina baitzen orduan hizkuntza noblea eta denek erabiltzen zutena, bai Frantzian eta bai besteetan. Oroit naiz ikusirik tesi bat, XIX. mendekoa, Frantzian irakurtua eta latinez oraindik idatzia. Erran nahi baita latina izan dela denbora luzez gure hizkuntza noblea. Beraz latinez idatzi du. Espainolerat itzulia izan da, frantseserat ez oraindik. Beharko genuke hori ere ardietsi egun batez denek jakin dezaten zer historigile ederra izan den Oihenart, hartzen zuelarik Euskal Herri guziaz, bai Akitaniako Vasconia (Vasconia hitza erabiltzen baitu) eta bai Iberiako Vasconia. Orduan, harremanetan sartua zen frantses eta espainol historilari haundienekin. Artxibategi gehienak ikertu zituen eta badakigu ukatu ziotela sartzea Nafarroako artxibategian ez zuelakotz onartzen Nafarroa garaia Espainiaren menpean izaita.

Olerkaria: hor ditugu lekuko 1656.an agertarazi dituen olerkiak eta atsotitzak. Pariseko argitaletxe batean, olerkien zatiak daraman titulua delarik: *O-en gaztaroa neurthitzetan*. Badakigu ere zer ziren haren ideiak euskal prosodiari buruz. Barbaste familiak emanikako eskuskribu baten bitartez, Aita Lafittek publikatu zuen 1967 an, *Gure Herria* aldizkarian, «L'art poétique basque indiquée dans une lettre écrite à un curé du pays de Labourt au mois de mai 1665.» Idazki horretan ikus daiteke bereizten zituela bertsozintza herrikoa eta bertsozintza jakintsua, zeuzkan ideiak aplikatu dituelarik bere olerkietan. Bide nabar euskal literaturaren historia egiten du jakinaraziz ezagutzen ez genituen olerkariak, hala nola Jean d'Etchegaray *Artzain gorria* deritzan pastoral baten idazlea omen, eta Arnaud de Logras Utziatiko priorea, Amikuze eta Oztibarreko bikario nagusia.

Atsotitz biltzailea: 706 atsotitz bildu ditu eta publikatu, jadanik aipatu dudana liburuan. Paradaz baliatzen naiz erraiteko liburu horren edizio berri bat agertu duela egun hauetan Baigorriko Izpegi argitaletxeak, Jean-Baptiste Orpustan irakasleak paratua, hiru hizkuntzatan egina, frantses eta espainol itzulpenekin. Eskerrik beroenak merezi dituzte Izpegi argitaletxeak eta Jean-Baptiste Orpustan-ek.

Atsotitz biltzailea beraz. Ez da lehenbiziko biltzailea; bertze batzuk izan dira lehenago, baina 706 atsotitz bilduz lan ederra egin du, altxor paregabea baita guretzat.

Nahiz orain bertan eginen dugun kongresuaren irekitze ofiziala, aipatu nahi dut barda ikusi dugun ikusgarria. Duela zazpi urte, muskildiarrek eman zuten Allande Oihenart pastorala Agergaray-ek idatzia. Barda, bertze ikusgarri bat eskaini digute muskildiarrek, zoragarria noski, Oihenart goraituz. Arrakasta haundia ukan du eta esku zarta nasaiek salatu dute behatzaleen atsegina. Eskerrak beraz muskildiarrei eta bereziki Berçaitz anaiei. Badakit Donostiako

antzoki nagusian emanen dutela. Erakusten digu Muskildik, nahiz Zuberoako herrixka bat izan, badirela Zuberoan ahal haundiak. Zorionak jokolari guziei.

Lau egunez ariko gara lanean Oihenart-en obra eta haren garaia aztertuz: hizkuntzalaria, gramatikalaria, olerkaria eta atsotitz biltzailea, astearte eta asteazkenean Maulen; historialaria bereziki ortzegun eta ortziralean Donapaleun. Karia horretara biltzen ditu Euskaltzaindiak Euskal Herrian, Frantzian eta Espainian dauden unibertsitateko irakasle batzuk, Paris, Nanterre, Tolosa, Bordele, Paue, Baionatik etorriak, halaber Euskal Herriko Unibertsitatetik, Deustutik eta UNED Madrilekotik. Agertzen da beraz Euskaltzaindia irakasle-ikerleen biltzaille gisa. Helburu ederra, uzta ederra eman dezakeena, agertuko direlarik biltzar nagusi honen aktak.

\* \* \*

Monsieur le Maire, je voudrais vous remercier de l'accueil que vous faites à l'Académie. Je crois que tout le monde ici est conscient de la qualité de cet accueil. Et dois-je vous remercier personnellement de l'honneur que vous m'avez fait de m'attribuer le médaille de la ville de Mauléon. Croyez bien que cela m'est allé droit au coeur. Mais je profite de l'occasion aussi, parce que je vois Monsieur le maire de Gotein, votre frère, qui est aussi présent, pour vous dire à tous les deux le sentiment de sympathie que nous éprouvons pour la perte de votre père qui a eu lieu ces jours-ci et dont l'enterrement a eu lieu hier. Croyez bien que c'est de tout coeur que nous vous adressons nos condoléances.

Un certain nombre de personnes que nous avons invitées nous ont fait parvenir des messages d'excuses: M. Andrieu, préfet des Pyrénées-Atlantiques, M. Sapède, sous-préfet de Bayonne et M. le Sous-Préfet d'Oloron sont soumis à l'obligation de réserve, ainsi que M. Jutant, inspecteur d'Académie car, en effet, dimanche prochain ont lieu les élections sénatoriales et deux des candidats, M. Duboscq, syndic de Soule, ainsi que M. Dascon, président du Syndicat Intercommunal, m'ont fait savoir qu'ils ne pouvaient être présents; M. Valade, président du conseil régional, avait délégué M. Récapet, lui-même retenu par une réunion importante; autres excusés: M. Labarrère, député-maire de Pau, MM. Coumet, Destrade et Grenet, conseillers généraux, M. Poulou, Maire d'Urrugne, président du Biltzar des maires du Labourd, M. François Maitia, maire d'Ispoure, M. Antxon Laffont, directeur de la Chambre de Commerce et d'Industrie de Bayonne et du Pays Basque. Je m'apprêtais à excuser M. Lassalle, maire de Saint-Palais dont on m'avait dit qu'il était à un enterrement à Pau mais il vient de se joindre à nous et, par conséquent, je salue sa présence.

Je voudrais quand même ici excuser quelqu'un d'autre: M. François Bayrou, Président du Conseil Général des Pyrénées-Atlantiques, dans une lettre qu'il m'écrivait il y a quatre ou cinq jours, m'annonçait sa présence et me disait qu'il avait un certain nombre de choses à dire. Je l'ai eu tout à l'heure au téléphone. Il me téléphonait de Paris. Nous sommes au lendemain

d'un scrutin qui, je crois, a son importance, et m'a-t-il dit, je suis à Paris et nous sommes en réunion et il m'est impossible de venir vous rejoindre. Alors, je voudrais que vous disiez à l'assemblée qui sera ce soir à la mairie de Mauléon à quel point je suis navré de ne pas être là car j'aurais voulu parler devant tout le monde, mais je voudrais que vous disiez surtout à cette assemblée que de la même manière que j'ai reçu le bureau de l'Académie, à Bayonne, de la même manière je tiens à ce que l'Académie soit reçue au Parlement de Navarre, à Pau et j'assure que le Conseil Général des Pyrénées-Atlantiques prendra en compte l'Académie de la langue basque. Le message est donné. Moi je réponds «Hitza hitz» et je souhaite qu'effectivement les paroles que M. Bayrou nous a dites à Bayonne et qu'il m'a répétées tout à l'heure au téléphone soient prises en compte. Je sais qu'il doit venir aussi le 3 octobre à Irisarry et je pense que, effectivement là, il prononcera le discours sur la culture basque qu'il a l'intention de prononcer.

Je voudrais saluer la présence de certaines personnalités: Mme Mari-Karmen Garmendia, qui est la secrétaire générale de la politique linguistique au gouvernement basque de Vitoria. Mme Mari-Karmen Garmendia est ici mais je voudrais en même temps aussi faire part d'un télégramme qui provient du gouvernement basque. Je vous le lirai tel qu'il est: «Hil honen 21.ean (parce que, entre nous soit dit, c'est le basque qui est notre langage commun) Mauleko udaletxean Oihenarten 4. mendeurrena ospatzeko egingo den Euskaltzaindiaren XII. biltzar hasierako ekitaldi idekirat joateko konbidapena eskertzen dizut Lehendakariaren izenean. Lehengo hartutako konpromesua dituenek, Lehendakaria ezin izango dela joan esan behar dizugu. Agur bero bat». C'est signé Begoña Salinas-Solano, Gizarte eta Erakunde harremanetarako idazkari nagusia. Donc, cela vient directement de la part de M. Ardanza. Je voudrais saluer aussi la présence de M. Tomás Uribeetxebarria, qui est le responsable de la culture à la diputación forale de Biscaye, ainsi que celle de M. Jose Luis Mendoza qui vient ici au nom de M. Jose Maria Rodriguez Ochoa, le directeur de la politique linguistique en Navarre, avec les excuses de M. Pedro Ramos, le député responsable de la culture en Alava et de Mme Maria Jesus Aranburu, député de la culture en Guipuzcoa; l'ensemble de toutes les provinces basques est donc ici réuni.

Sans vouloir être trop long, je veux cependant profiter de l'occasion pour dire brièvement ce qu'est l'Académie de la langue basque. Depuis septembre 1918, date de sa naissance au premier Congrès d'Etudes Basques d'Oñate, jusqu'au 7 octobre 1919, au Palais de la Diputación de Guipuzcoa, à Saint-Sébastien où se réunirent pour la première fois les académiciens choisis, il convient de souligner que sur les douze académiciens, trois représentaient les dialectes d'Iparralde, ce qui signifie que dès l'origine, Euskaltzaindia prenait en compte l'ensemble des provinces basques, qu'elle se considérait comme une institution transfrontalière, qu'elle avait à veiller sur une langue et une culture prises dans leur unité. Depuis bientôt trois quarts de siècle le même

but est poursuivi avec plus de vigueur que jamais. En effet, depuis 25 ans, Euskaltzaindia s'est lancée dans la grande aventure du basque standard ou euskara batua, langue essentiellement littéraire dont les progrès ne cessent de s'affirmer de jour en jour, ainsi qu'en témoignent la production des écrivains dont certains atteignent une renommée internationale comme Bernardo Atxaga, grand prix des lettres en Espagne dont le roman *Obabakoak* est traduit en une dizaine de langues parmi lesquelles le français, l'anglais, l'allemand, l'espagnol, l'italien...

Au moment, où, à partir du 1er janvier 1993, avec l'Acte unique, les frontières sont appelées à disparaître, Euskaltzaindia se vante d'avoir annihilé la frontière entre le Nord et le Sud d'Euskal Herria depuis bien longtemps et désire continuer à oeuvrer pour que les barrières psychologiques, spirituelles et culturelles qui existent en chacun d'entre nous soient abattues définitivement par la prise de conscience de l'unité linguistique et culturelle.

Monsieur le Maire, je vous remercie à nouveau de votre accueil. Vous avez bien voulu dire qu'Euskaltzaindia honorait votre ville. Croyez bien que par la tenue de ce Congrès Oihenart, elle ne fait que remplir son devoir qui est, entre autres, de restituer aux Basques leur passé, leur histoire. Les jours à venir en porteront témoignage.

Mesdames et Messieurs, je vous remercie.



## OIHENART, EUSKAL GRAMATIKARIEN AITZINDARIA

Beñat OIHARTZABAL  
U.R.A. 1055  
C.N.R.S., Bordeaux III

Galdegiten delarik noizkoa den lehenbiziko euskal gramatika, edo nor izan zen lehenbiziko euskal gramatikaria, ihardespren desberdinak ematen ohi dira: gramatika denaz bezainbatean, P. Urtek 1712. urtearen inguruan Ingalaterran idatzi zuen, baina abantzu bi mende geroago publikatuko zen *Grammaire Cantabrique Basque* delakoa aipatzen ohi baita, eta bereziki hain famatua izanen zen M. Larramendiren *Arte de la Lengua Vascongada*, 1729.ekoa, azken hau izan baitzen lehen euskal gramatika argitara emana.

Ordean lehen gramatikariaren aipatzeko orduan, ez ohi dira ez Urte eta ez Larramendi izendatzen, ez eta ikasbide gisako lanei hatsarrea eman zieten Voltaire (= 1620) edo Micoleta [1653], edo oraino hamazazpigarren mendearen erdialde horretan bereziki idatzi ziren, baina guganaino iritsi ez diren gramatika lan batzuen egileak ere, hala nola J. Bela, S. Pouvreau, edo D. Bidegaray (Oyharçabal 1989). Alabaina, zuzenez, aitzinago jo behar da euskal gramatikagintzaren lehenbiziko urratsen hatzen aurkitzeko, aipatu azken autore horiek baino mende laurdentsu bat lehenago, biltzar honetan omeneratzen dugun A. Oihenartek baitzeukan jadanik gramatika sail horretan zerbait idatzirik eta argitara emanik, arras egoki baita —geroztik haren obraren parte hori ahantzia izan bada ere— euskal gramatikarien aitzindari gisa ezagut dezagun, Unamuno gazteak bere tesia idazterakoan [1884] jada egin zuen bezala<sup>1</sup>.

---

<sup>1</sup> Larramendi baino lehenagoko gramatikariez ari delarik Unamunok (1884/1986: I 19) Oihenarten *Notitia*-ko 14. kapitulua aipatzen du baina menturaz aurretik jadanik beste arte bat ere idatzia izan zela aditzera ematen du Isastiren lekukotasuna ekarriz (*Compendio historial dela M.N. y M.L. provincia de Guipuzcoa* 1 lib. 13. kap. 7. §, 1625). Voltaire eta Micoletaren ikasbideek gramatikazko paradigma batzuk eskaintzen badituzte ere (lehenak badu kapitulu bat *Spece de grammair* deitua (1620: 1-14), eta bigarrenak ere *xaun* hitzaren deklinabidea, eta aditz-jokabide batzuk ematen ditu ([1653]: I 3-10), ez dute aski hedadurarik eta barnatasunik, egiazko gramatikazko idazlan gisa har ditzagun hemen, eta Oihenarten lanarekin —azken hau ere arras laburra izanagatik— gonpara ahal ditzagun.

Oihenart historialari, zuhur-hitz eta atsotitz biltzaile, hitz neurtzaile eta hitz-neurgintzaren arau emaille gisa ezaguna genuen. Baina gramatikari gisa ere ote? Ba ote da hark utzi gramatikazko libururik edo esku-izkriburik? Ez, oraingoz dakigunaz bederen. Izan ote da beraz ondoko mendeetan gramatkaririk Oihenartenganako bere zorra aitortu duenik? Ez. Urtek ez dio deus ere hartaz, eta Larramendik, halaber, ez ditu batere aipatzen haren azterbideak bere gramatikan<sup>2</sup>. Hemeretzigarren eta hogeigarren mendeko gramatikarien artean ere, Saroihandik 1923.eko Euskal Biltzarrean irakurtu zuen idazkiaz kanpo<sup>3</sup>, aipamen guti kausituko da Oihenarten gramatikazko lanaz. Bada, galda diezaguke batek, gauzak horrela direlarik, nolatan hura egin daiteke euskal gramatikarien aitzindari? Berehala ikusiko dugu nola.

Egia da Oihenartek ez zuela gramatikazko obra berezirik idatzi. Holako lanen berri ez dakigu bederen. Ordean, *Notitia Utriusque Vasconiae* delako haren liburuan badira bi kapitulu —bat bereziki— euskal gramatika zuzenki hunkitzen dutenak. Lehena, 1. liburuko hamaikagarren kapitulua, euskarazko izenen eta izenondoen ondarrean kausitzen den formaz idatzia da. Bigarrena, berriz, hamalagarren kapitulua, ez dagokio pondu berezi bati, baizik eta euskararen gramatikaren, zuzenkiago errateko, morfologiaren aurkezpen orokorrari, hartan deklinabidea eta aditz jokadura oroz gainerik aurkeztuak izanik. Kapitulu horren tituluak honelaxe dio: *Euskal mintzairaren berezitasun batzuez*,

<sup>2</sup> Larramendik noizbait *Notitia*-ren berri jakin zuen eta Oihenarten izena ere eman zuen bere hiztegi aitzin solas famatuan erdaraz euskarari buruz idatzi zuten idazleen artean. Hala ere, iduri luke bere gramatika egin zuenean ez zuela oraino irakurtu, ez baitu han ez aipatzen, ez baliatzen ere. Batek pentsa dezake alabaina, Larramendik *Notitia*-ko 14. kapitulua irakurtu izan balu mugagabearen nozioa onaturik artikuluaeren azterketa bestela egingen zuela bere *Arte*-n. Eta hala-hala, kasu sistemaren azterketa ere. Ala iberismoaren eta baskonismoaren teorien arteko kontraktasunean zetzan etsaigoa politikoak esplikatzen ote du isiltasun hori? Ezin esan daiteke arras ezinezkoa dela hori (eta ohargarria da ez duela aipatzen oker ez banago ez atsotitz biltzaile ez eta olerkaria ere), baina, halere, gogorsko zaigu guri holakorik sinestea, besteak beste, ez baitirudi Larramendiren maneretan zela kontrakoen molde horretan gudukatzea. Buruz-burukako garaitzak maiteago zituzkeen, gisa horretako ez-galtzeak baino. Zergatik, bada, haren hitza dudatan jar, diolarik *Arte*-aren aitzin solasean *no he tenido guia, que vaya adelante, y me dirija, me ha preciso romper el camino, ...?*

<sup>3</sup> Saroihandy bere idazlanean, Oihenartek *Notitia* liburuaeren lehen argitalpenean eta olerkien aitzin solasean proposatu azterbideen biltzera saiatu zen. Oro har argiro egiten du aurkezpena, orduan batere landu gabe zegoen euskal gramatikagintzaren historia kontuan hartu gabe, naski. Ondorioz, zenbaitetan irakurtzaileak ez daki bilduman agertzen diren kontzeptuak norenak diren: Saroihandirenak ala Oihenartenak. Adibidez, transsitibotasunarena. Saroihandyri jarraikiz (§ 35 eta 37) iduri luke Oihenartek kontzeptu hori, gaur maiz egiten den moduan, erran nahi baitu ergatiboa dakarten aditzei aplikatzeko bazerabilela. Baina erran gabe doa Oihenartek ez zuela hola erabiltzen, eta transsitibo hitzari arras beste erran-nahia ematen ziola. Beste batzuetan bermoldaketa hori interpretazioa baino urrunago doa. Adibidez, Oihenartek gizonarik eta emaztearik bezalako formak ematen dituela aditzera ematen du Saroihandy (§ 26). Oihenartek ez zuen, ordean, holako forma desgramatikalik eskaini ereduazko paradigmatan. Are gehiago dena, haren argibideak irakurturik argi eta garbi uler daiteke zergatik ez den holakorik agertzen euskaraz: kasu negatiboa artikuluaekin ez daitekeelakotz ager hain zuzen ere.

eta euskal hitzen deklinatzeko eta konjugatzeko bideaz. Derragun, bada, hango lerro horiek irakurtzen dituen egungo gramatikaria baldituzik gelditzen dela sindiku izanak hamabost aurkezpen horretan erakusten duen argitasun eta zorroztasuna ikusirik.

Gramatika kontuetan beste jakintza sailetan bezala lanen balioa garaiko mota bereko obren arabera eta, halaber, jakintza sail horrek ondotik segitu bideen arabera preziatu behar da. Oihenarten lanaren balioaren neurtzeko, beraz, euskal gramatikaren historiografiaren perspektiban eman behar da, hastapeneko urratsei dagokienaz Larramendiren lana dugularik erreferentzia nagusi, ezin baztertuzkoa. Horra zergatik Oihenartek deklinabideari buruz idatzi zituenak aztertzerakoan, ondotikako gramatikarien eta bereziki Larramendiren ideiak ere gogoraziko ditugun eta Oihenartenekin kontrastean bezala jarriko, ikusiko baitugu horrela pondu askotan ez soilki lehenago, baina begi zorrotzagoz eta molde egokiagoan ere ikertu zuela zuberotar historialariak euskararen gramatika, haren ondotikakoei baino.

Hasi baino lehenago ohar bat baliatuko dugun erreferentziatzko testuaz. Dakigun bezala bi argitalpen izan zituen *Notitia* liburuak hamazazpigarren mendean Oihenart bizi zenean. Lehena 1638.ean eta bigarrena 1656.ean. Bi argitalpenen artean oro-har diferentzia handi-handirik ez den arren, ohargarria da arte horretan gehienik aldatua izan den kapitulu hamalagarrena izan dela, erran nahi baitu gramatikari dagokion hura bera (Goyenche, 1992, Larre 1992). Egia erran, Oihenarten azterkabidearen funtsa ez da gantiatu argitalpen batetik bestera, baina osoagoa da 14. kapitulu hori 1656.eko argitalpenean, besteak beste sartarazi baitzuten hartan Oihenartek hiru azpi-atal berri: lehena izenordainez (*De Pronomine*), bigarrena deklina-ezinezkoek (*De Indeclinabilibus*), eta hirugarrena bertsugintzako silaba-neurketaz (*De syllabarum quantitate*). Bestalde aditz jokaduraren aurkezpena ere osatu, hobekitu, eta berriz antolatu zuen. Zer nahi den ere, Oihenartek kapitulu horri holako aldakuntzen ekartzeak gai horrek harentzat garrantzi zerbait bazuela, eta behar bezala eta artoski landu gogo zuela ere erakustera ematen digu. Aurkezpen honetan lehen edizioa baliatuko dugu aldakuntzarik gabe egon diren gaien aipatzeko, eta bigarrena, berriz, baina beti seinalatuz, berrituak izan diren ponduen erabiltzeko.

Zernahi gisaz, ez ditugu Oihenartek azterkatu morfologiatzko arazo guziak aipatuko, luzeegi bailihoaguke. Aditzaren morfologiari dagokiona bereziki ez dugu hunkiko hemen, nahiz esperantza dugun laster beste lan batean egiten ahalko dugula. Hona, beraz, Oihenarten lana 17. eta 18. mendeko euskal gramatikarienekin erkatuz, zein izanen diren hemen ikertuko ditugun ponduak: 1. Substantiboen ondarreko **-a(k)** delakoaren kontua; 2. Mugatugabetasuna; 3. Kasu gramatikazkoak eta bereziki ergatibitatea; 4. Egun adberbialak direla erraten dugun kasuak.

## 1. EUSKARAZKO IZENEN ONDARREKO FORMARI BURUZKO EZTABAIDA

Lehen erran dugun bezala, *Notitia*-ko 1. liburuko 11. kapitulua arazo berezi bati eskaini zion Oihenartek, hartan auzitan jartzen baitzuen zenbait autorek euskarazko izenen ondarreko formaz plazaratu jeneralizazio bat, ordukotz aski zabaldua eta ondotik ere franko denbora luze iraunen zuena. Kapituluaren tituluak honela dio: *Euskaldunen mintzairaz, eta egia denetz, hartan izenak a-z bururatzen direla singularrean, eta ac-ez pluralean.*

Oihenartek eztabaidatu nahi zuen ustearen arabera, beraz, euskal izenek eta izenondoek ondarrean -a behar zuten singularrean, eta -ak pluralean. Azterketa horren alde agertu ziren hiru idazle aipatu ondoan: Lucio Marineo Siculo, Paul Merula eta Esteban Garibay, haien baieztapena zorrozki gezurtatu eta gaitzetsi zuen:

«Marineo Siculok badio hizkuntza horretako hitz gehienak a-z bururatzen direla singularrean, eta ac-ez pluralean (...). Makturrean da, ezen batzuetan a letra singularrean, eta ac silaba pluralean, euskal hitzen ondarrean artikulua gisa baliatzen dira (...). Horrela **guiçon** hitzak berez **hominem** erran nahi du. Baina artikuluaekin erran nahi bada, grekoek bezala, **ton andra**, frantsesek bezala, **l'homme**, espainolek bezala, **el hombre**, **guiçona** erran behar da, eta pluralean **guiçonac**, erran nahi baitu, grekoz **oi andrez**, frantsesez **les hommes**, eta espainolez **los hombres**. (1638:36- P7)»

Menturaz zenbaiti *naïveté* gisako zerbait idurituko zaio pundu hau. Baina ez zen batere hala agertzen duela lau mende, ez eta ondoko garaietan ere, Oihenartek horretaz idatzi zuen baino 90 urte geroago pondu horren berritza finkatzea behartu baitzitzaion Larramendiri (Oihenart aipatu gabe, haatik, ez baitzukeen oraino haren lana irakurtua, ik. 2. oharra). Are gehiago 19. mendean oraino aski zabaldua bide zen delako ustea, Darrigolek (1827) *cette persuasion commune que tous les mots basques finissent en -a* aipatzen baitzuen.

Uste dut, komeni den arazoño honetaz zerbait gehiago erran dezagun, zeren -a ondarreko teoriaren alde —azken ele hori itsasoz haraindian egiten duten modu zabalean erabiltzera haizu banaiz hemen— agertu direnetan, ez baitira soilik euskara ez zekiten autore arrotzak aurkitzen, edo euskararen gramatika iragaitz bezala ikertu zuketan Garibay-ren iduriko euskaldun idazleak, Oihenartek bere garaian uste izan zuen bezala<sup>4</sup>. Alabaina Larramendik

<sup>4</sup> Halere Garibay-ren ohar linguistikoak ez dira gutiestekoak eta badirudi Nebrija-ren gramatikaren berri ere bazekiela (Caro Baroja, 1972:82). Zer nahi den ere hemen aipu dugun arazo horretan Garibayren kasua berezia da. Alde batetik hauxe zioen: «Es cosa de notar en esta lengua, que todos los nombres comunes que no sean propios se acaban en singular en -A y en plural en AC siendo esta regla tan general, que no padece escepcion alguna (1571:77.o.)». Baina bestaldetik Zubiaurrek (1990:190-191) ohartarazten duen bezala, Garibayk euskal erretrauk hitzez-hitz itzultzen dituelarik, badirudi argi eta garbi ikusten duela ondar hizki horiei espainoleko artikulua dagokiela.

bere gramatika idatzi arteko idazle ia guziak agertu dira teoria horren —edo honetarik sortu aldaera baten— alde: bai, Micoleta, Etcheberri Sarakoa eta Urte bezalako tokiko euskalariak, eta bai euskara gutik bezala ikasi ondoan euskal gramatika bat idazten hasia zen S. Pouvreau [1660] bezalako autore bat ere (nahiz honen kasuan teoriak, elementu deskriptibo berak atxikiz, arras beste itxura bat hartu zuen). Are gehiago bide seguretik badakigu batzuek bederen Oihenarten oharra ezagutzen zutela, eta beraz haren erranen gatik agertu direla teoria haren alde. Hona zer zioen, adibidez, Etcheberrik:

«Oraino eskuarak badu bertze diferentzia molde bat, bertze hizkuntzek ez dutena (Oihenartok gure eskualdunak zernahi erran dezan arren, lib. 1 cap. XI p. 35), zeren izen gehienei ematen baitiote akhabantza a letra guztietarik lehenbizikoa, naturalena, eta gozoena (*Lan hautatuak*, 97- 98. o.)»

Nola konpreni daiteke jokabide hori? Zergatik autore horiek lehenagoko ideari jarraiki nahi izan zitzaizkion? Uste dut bi esplikabide mota eman daitezkeen. Lehena, orduko gramatikagintzaren egoeran funtsatzen da, bigarrena apologiazko ikusmoldeetan.

Larramendik eta Darrigolek -a ondarrekoaren teoriak mintzo direlarik azpimarkatzen duten bezala, euskaldunek gauzak izendatzen ditugularik, edo zuzenean, edo berdin erdal hitz baten itzulpena emanez, hitzari artikulua eratzikitzen ohi diogu. Luzaz eta luzaz, adibidez, euskal hiztegieta euskal hitzak —izenak edo izenondoak— artikulua zutela emanak izan dira hala sarreteran nola adierazpenetan. Adibidez, Lécuseren (1828) gramatikan oraino hitzak itxura horretan agertzen dira, hala nola Leizarragaren hiztegi laburrean, bai eta Landucchio eta Pouvreau-renetan ere. Horrela ematen ziren, halaber, Voltoireren (= 1620) eta Micoletaren [1653] ikasbideetan, bai eta Urteren gramatikan [1712] eta Harriet notarioarenean (1741) ere. Larramendik ere, -a ondarrekoaren teoria gaitzetsi zuen arren, artikuluekin eman zituen erdal hitzen euskarazko baliokideak bere hiztegi handian, euskaldunen egiteko ara natural eta jatorrari jarraikiz, beraz. Berdin egiten zuen Oihenartek meta-hizkuntzako aipu gisa zerabiltzalarik. Halatan guziz gisakoa zen, bereziki euskaldun ez zenarentzat, baina ez bakarrik harentzat, mintzaira horretako hitzak -a(k) ondarrean zutela ager zitezen.

Horiek hola, ongi ezaguna den pondu hori oraino barnago zilatatu behar dela uste dut, ez baita dudarik -a ondarrekoaren teoriaren iraupena, artikulua nozioak garai hartan sortarazten zituen anbiguiteei ere darraiel, partez bederen. Bi motatako anbiguiteak aipa daitezke.

Alde batetik, euskaraz artikulua kasu marken itxuran agertzen da, eta batzuetan kasu markarekin amalgamatua, harekin bat egina edo berdin hartan urtua bezala. Halatan oso zail gertatzen zaio -Ø forma duen kasu-markaren noziorik ez duenari artikulua identifikatzea, harentzat -a(k) bukaera, hitzak nominatiboan duen itxurari baitagokio, hala nola latinez izenak nominatiboaren

ondarkiarekin ematen baitira. Ordean, zero marka duen kasuaren teoria, edo kasu markatugabearen teoria, Astarloak sarrarazi zuen euskal gramatikagintzan (lehenago Oihenartek inplizituki baliatu bazuen ere, ik. 6. eta 10. oharrak). Nekez, beraz, balia zekizkiekeen aurreko autoreei azterbide horrek eskaini bideak.

Egia da Larramendik, zero kasuaren azterkabidea erabili gabe ere, hitzen forma behar bezala mugatzen zuela, ondarkiak eta hitzak berak elkarretarik bereiziz (*etxe/a*). Ordean, horren egiteko gaitza egiazki sendatu gabe, beste norabait, urrunxeago, eramaten zuen. Alabaina hark artikulua eta hitza nahasteko orde, artikulua eta kasu marka nahasten zituen, batere elkarretarik bereizi gabe. Harentzat artikulua ez zen gaur egun deitura horren pean izendatzen dugun morfema, baizik ere gaur egun Euskalzaindiaren gramatikan ondarkia deitzen dena; horrela Larramendirentzat *-á*, *-ák*, eta *-ik* eta *-rik* artikulua ziren : haren arabera nominatiboan kausitzen ahal ziren artikulua (1729:3 eta 8). Ikusmolde horretan artikulua soilik baitira deklinatzen, hitzaren forma agerian gelditzen da. Ordean, kasu marka bezainbat artikulua, eta are gehiago ere Larramendiren aztermoldean, kondatzen da.

<sup>2</sup> Bi argitalpen izan zituen, biak Parisen eginak: lehenengoa 1638. urtean. Bigarrena, *Edition emendata et aucta*, hizkuntzari dagozkion ataletan, batez ere, zabalagoa eta gehitua, 1656, urtekoa. A. Javier Gorosterratzuk gaztelarara itzuli zuen azken edizioa eta guk lan honetan jarraitzen duguna da (1926-28).

ko ideiak eta planteamenduak. Horrez gain, legegizona ere bazen, eta baliteke horrek ere eraginik izatea, ez hainbeste bere teoretan, baina bai lanean iharduteko eran. Zorroztasunez planteatzen du esaten duena eta, batez ere, esaten duen hori beti iturri idatzietan oinarritzen du, testu klasikoak ondo ezagutzen bait zituen, alferrikako literaturarik gabe, beti ere objektibitatearen mesedetan. Esan daiteke, beraz, traszendentzia bilatzen duela Euskal Herriko historia edo kronika idazten duenean; eta esaten dugunaren alde ere egongo litzateke, tradizio klasiko eta ofizialarekin jarraituz, latinez idatzia dagoela eta ez frantsesez beste lan batzu bezala<sup>3</sup>. Bestalde merezi du azpimarratzea historialari bezala izan zuen zorroztasuna, bere garaian ohi ez bezalakoa Caro Barojak dioenez: «su sentido crítico era mucho mayor que el de Garibay y otros historiógrafos posteriores» (1979, 15).

## 1. HIZKUNTZEN SORRERA. BALORAZIO LINGUISTIKOA

### 1.1. Kantabrismoa

Garai hartako hizkuntza-ideiei buruz hitz egiterakoan, ezinbesteko gertatzen da Kantabrismoaz mintzatzea hain hertsiki loturik ikusten bait zituzten orduko idazleek leinua eta hizkuntza. XVI. mendetik aurrera, hizkuntzaren apologiarekin batera, kantabrismoaren teoria defendatzen zen. Kantabriarrak eta euskaldunak batzen ziren. Lurraldearen morfologia fisikoa eta herriak elkarren ondoan aurkitzeak bazuen horretan eraginik. Euskal Herria Kantabriarekin bat egitera jotzen zen. Ideia honek, Espainia mailan, XVIII. menderarte iraun zuen, Aita Floresek argitu zuen arte hain zuzen<sup>4</sup>.

Euskaldunek elkarketa berdina egiten zuten beste arrazoi batzutan oinarrituz eta beste helburu batez. Erromatarren aurka egon ziren gudetan kantabroak euskaldunekin bat eginik burrukatu zirela defendatzen zuten, eta erabiltzen zuten hizkuntza bakarra zela, «lengua cántabra» alegia, euskara zelarik hizkuntza hori, noski. Hemendik inongo beste herrirekin ez zela nahastu eta, ondorioz, odolaren garbitasunari eustera pasatu zen. Euskaldunen artean, XVI. mendean

<sup>3</sup> Bi korrante kontrajarriak ager daitezkeela XVI-XVIII. mendeetako tarte horretan esan izan da. Bat katolikoena Laburdi eta Hegoaldean kokatzen dena eta protestanteena bestea, Behe Nafarroan eta Zuberoan. Bigarren honek bide bat zabaltzen du, zientifikoa, eta serioa Zalgise eta Bela buru direlarik, erretratuak, hiztegia, gramatika, olerkiak eginez. Eta, neurri on batean, Oihenart litzateke korrante honetan nabarmenena. Lehenengo taldekoak, aldiz, beste abiapuntutik ihardunetz, apologistak lirerateke nagusiki: Etxeberri Sarakoa, Larramendi eta gainerakoak. Dena den, Oihenart katolikoa zen eta, gramatika mailan eta hizkuntza idatzian behintzat, neologismo eta aditz trinko zalea. Bestalde, egin zituen etimologiaren azterketek ere, neurri batetan, aipaturiko bidetik urrutiratu egiten dute.

<sup>4</sup> Ikus A. Tovar (1980, 13). Laburpen zehatza eta ondo dokumentatua «Pervivencia de los mitos» deituriko atalean, A. de Mañaricuak (1973, 234-237) ematen du.



Esteban de Garibay eta Andrés de Poza Lizentziatua izan ziren ideia horren bultzatzaile garrantzitsuenak, eta geroxeago Baltasar de Echave ere bai<sup>5</sup>.

Tovarrek (1980, 54) honela iritzi zien Oihenarten ideiei teoria honetaz: «En la literatura de vascos sobre el país el libro es original, y representa la reacción de un navarro frente a la identificación que guipuzcoanos y vizcaínos habían generalizado, sin duda con precedentes anteriores de vascongados con cántabros».

Oihenartek iritzi kontrajarriak dituela dirudien arren, ongi irakurtzen bazaio, bere ikuspuntua aski garbi uzten du. Lehenengo liburuko 1. kapituluan, «vascos» eta kantabroak bat egiten ditu, baina beste idazleek azken hitz honi ematen zioten edukia baztertuz. Hona nola dioen beste idazle batzuen iturrietan oinarrituz<sup>6</sup> (1926, 143-44): «Con el nombre de vascos comprendemos también aquí a los que vulgarmente llaman cántabros; pues ya se ha introducido la costumbre, [...] que en latín se denominen cántabros a los que los franceses llaman Vascos o Vizcaínos, y los españoles Vascongados (éstos son propiamente los vascos)». Bereizi egiten ditu, beraz, «kantabroak» eta «bascos», hauek baskoien leinua edo adierazi nahiz, baina praktikan, goian esaten duen bezala, denak —vascos, vizcainos, vascongados—, bat eginez, eta, nolahi ere, apologisten ideietatik aldenduz. Bigarren liburuko 1. kapituluan, berriro ere garbi azaltzen du: «De los vascos, unos viven en la Iberia, aquende el Pirineo, otros en la Aquitania, allende el Pirineo. Viven a esta parte los navarros, jaccenses, alaveses, guipuzcoanos y vizcaínos; allende el Pirineo los gascones y los vascos. [...] Demos principio a los navarros, a los cuales corresponde principalísimamente el nombre de vascos; porque de ellos provino a todos lo demás, que llevan esta denominación» (1926, 475)<sup>7</sup>.

Beste batzuen iritziak ere eskeintzen ditu. Honela Kantabroak Gaztelako Erresumaren barnean urte askotan egon ziren lurraldeetako biztanleak baizik ez zirela esanez, hau da, bizkaitarrak, gipuzkoarrak eta arabarrak, nafarrak kanpoan gelditzen zirelarik<sup>8</sup>. Ambrosio de Moralesi buruz, berriz, «confunde del todo Cantabria con Vizcaya» dio; azkenik, beste zenbait idazleren ikuspuntua ere, beretik erabat desberdina, azaltzen du: Nafarroako Erresumaren menpe

<sup>5</sup> Nahastu gabeko herria zela eta euskaldunen odolaren garbitasuna sutsu defenditu zuena Larramendi izan zen. Hain gogorra eta indartsua izan zen bere ideietan, non, hori zela eta, Caro Baroja, honako hitz hauek esatera iritsi bait zen: «[...] podría tomarse como precursor de los modernos racistas» (1958, 89). Ikus Mitxelena ere (1960, 118-19, 16. oharra).

<sup>6</sup> Ideia honetakoak bait dira, Oihenarten esanetan: Jovio, Julio Scaligero y José Scaligero, Thuan, Ferrón, Florián de Ocampo, Pedro Mártir, M. Del Río y Mariano (1926, 143).

<sup>7</sup> Horrela, gainera, gure ustez, garbi gelditzen da hitz honen esanahia. Hona J. Gorrochateguik honi buruz egiten duen azalpena: «La diferencia entre vasco y vascón (Basque, Bascon) es la que corresponde a las existentes entre los casos sujetos y régimen en los dialectos galorrománicos; por ej., *emperere/empereor.*» (1984, 71).

<sup>8</sup> Florian, Mártir, Mariana (1926, 144).

zeuden herriek osatzen zutela Kantabria, kasu honetan ere Bizkaia, Gipuzkoa eta Araba sartzen zirelarik<sup>9</sup>.

Oihenartek ez ditu onartzen Kantabriari beste idazleek ematen zioten hedadura geografikoa eta irizpide historikoa, eta aipaturiko planteamendu desberdin horiek denak gaitzetsi egiten ditu<sup>10</sup>.

Iritzi propioa ematen duenean, berriz, deskribapen fisiko zehatza egiten du, bere ikuspegi Kantabria beste zerbait dela agertuz: «Aunque nosotros no podemos describir exactamente por todos los lados el lugar fijo de Cantabria, sin embargo nos atrevemos a afirmar que están en un grandísimo error los que la circunscriben con los límites de Vizcaya, Alava, Rioja y Guipúzcoa, ni una sola de las cuales deberá contarse como parte de ella<sup>11</sup>» (1926, 145).

Bere iritzia, testu idatzietan oinarritzen delarik esan bezala, garbia da. Ptolomeo, Mela, Plinio eta Estrabonen testuak lekukotzat hartuz, eta euskaldunen leinuen mugak ezarriz, honako galdera erretoriko hau egiten du: «Pero si admitimos a los cántabros en Vizcaya, Alava y Guipúzcoa, los cuales son los últimos pueblos, que terminan a España, por el lado del Pirineo ¿dónde tendrán sus moradas los Autrigones, Caristios y Várdulos, que las deben tener entre los Cántabros y la cima del alto Pirineo?» (1926, 145-146).

Nolanahi ere, baskoien leinuaren kokapena ez da hain eraginkorra eztabaida honetan, azken finean, ez duelako inork, ikusi dugun kasu bakarrean izan ezik, Kantabria delakoaren barnean sartzen. Oihenartek berak ere ez du zalantzatarako bide haundirik ematen: «Ciertamente, si atendemos a la verdad, veremos que los guipuzcoanos y alaveses corresponden a los Várdulos y Caristos, mas los Vizcaínos y Burebanos a los Autrigones, y en fin, los Riojanos a los Berones» (1926, 146).

3. kapituluan aurretik esandakoa osotu baizik ez da egiten. Lehen euskal leinuen eremua zein zen esan badu, orain Kantabriak hartzen duen hedaduraz mintzatuko da. «Se propone la descripción verdadera de Cantabria» izenburuz autrigoien leinua amaitzen zen tokian Kantabria herria hasten zela dio: «aseguramos que el principio de Cantabria se ha de poner en la línea que, partiendo de Villafranca, llamado Montes de Oca, va al puerto de Laredo, en el litoral del Océano Cantábrico; [...] respecto del occidente señalaremos los límites de Cantabria, [...] en el estuario del mar, denominado de Avilés, que está situado en Asturias de Oviedo» (1926, 147-148).

<sup>9</sup> «[...] eran cántabros los pueblos sometidos a los reyes de Pamplona, llamados vulgarmente navarros, cuya región en su mayor parte corresponde a la antigua Vasconia...». Eta irizpide honen zabaltzailea Prudencio de Sandoval izan omen zen «cuando hizo a Pamplona la Metrópoli de Cantabria, y describió a ésta dando por límites los montes Pirineos, y los ríos Ebro, Aragón y Gállego». (1926, 144).

<sup>10</sup> Besteak beste, Gipuzkoa, Araba eta Bizkaia, Errioxa eta Asturias hartu eta Kantabrierekin bat egiten zutenen aurka mintzo da (1926, 144-45).

<sup>11</sup> Azpimarratua geurea da.

Konturatzen da, gainera, hori defenditzea ez dutela denek onartuko, batez ere Euskal Herrian bertan, eta, agian, horregatik sartuko du tartean euskaldunen laudorioa: «No faltarán quienes desaprueben que yo distinga a los Vizcaínos, Alaveses y Guipuzcoanos, pueblos valerosos y belicosos, de los Cántabros» (1926, 155)<sup>12</sup>.

Esan daiteke, bada, Oihenarten iritziak aurrerakoiak izan zirela bere garaian, lortu ez bazuten ere behar zuten oihartzunik; zientifikoak, zorrotzak eta nortasunez azalduak, batez ere historiografiari dagokionez.

## 1.2. Hizkuntzaren aintzinasuna

### 1.2.1. *Errenazimendua*

Errenazimendua, hainbeste aldaketetarako hain garrantzitsua izan zena, hizkuntzaren historian ere abiapuntu aparta gertatu zen. Erdi Aroak izan zuen eragina ahazten ez bada ere, Errenazimenduak bideratuko ditu XVIII. azken hamarkadetan eta XIX. menderarte hizkuntzaren inguruan egingo diren azterketak<sup>13</sup>.

Ezaguna denez, herri-hizkuntzak duintzea eta kultur mailara jasotzea Errenazimenduari zor zaio, hizkuntza klasikoei bakarrik eskeintzen zitzaizkien begiramena eta azterketa gaindituz eta herri hizkuntzen ernatzea lortuz. Hauxe litzateke lorpen nagusia eta hurrengo mendeetan, XVI. eta XVII. ean batez ere, bide horri jarraitu eta jokabide hori garatu eta sendotu baino ez da egingen.

Herri hizkuntzak, beraz, hurbildu egin zitzaizkien Errenazimenduko jendei eta batez ere jakintsuei, hauei azterketa-gai bihurtzen zaizkielarik. Honela, hizkuntzaren jatorria<sup>14</sup> eta hedapena jakin nahi zituzten aurrena; eta horren ondoren, eta horrekin batera neurri batean, hizkuntzen aniztasunaren arrazoia bilatu nahi zuten eta hizkuntzen bilakabidea ezagutu<sup>15</sup>; horien inguruan sortzen ziren galderai erantzun nahi zieten batez ere XVI. mendean. Horren

<sup>12</sup> Alde batera uzten ditugu hain interesgarriak eta gaurkotuak gertatzen diren irizpide eta azalpen historikoak. Bertan, Erdi Aroan, bisigodoen garaian, Baskoien indarraz eta lurraldearen mugak zabaltzeaz mintzatzen da.

<sup>13</sup> Iritzi horretakoak dira hizkuntzalaritzaren historiaren egileak. Ikus, besteak beste, Robins (1974, 134).

<sup>14</sup> Erdi Aroko eragina garbia da kasu huetan guztietan. Elizako Aitek, San Agustin eta hurrengoek, dagoeneko defenditzen zuten ideia zen, hasiera batean hizkuntza bat eta bakarra zela, eta berau hebraiarra alegia, San Jeronimok zabalduko zuen eta ordutik denak, orpo orpo, segitu zuten.

Adierazgarria gertatzen da Sánchez Monterok, XVIII. mendean, zioena: «es común sentir de graves autores que, si creciesen dos niños en tal sitio que no oyesen hablar persona alguna, ni canto de ave, ni voz de bruto, que naturalmente hablarían la lengua natural que es la hebrea, por ser la primera que recibió la Naturaleza». Ikus, Lázaro (1949, 89).

<sup>15</sup> Bibliaren eragina ere bortitza da hemen. Bertan agertzen den *Erat terra labii unius, et sermonum eorundem* apurtu egingo da, Jainkoaren zigor bezala, gizonaren harrokeria eta gehiegikeriagatik, *Exodo* Liburuko X. kapituluko Babeleko pasartean oinarrituz.

ondorioz mitoak eta dogmak berez sortzen dira, literatura ugarirekin ornituak. Edonola ere, alderdi onak ere agertzen ditu garai honek eta arazo horiek, teoria mailan, hizkuntza bakarrean gertatzen diren banaketen edo zatiketen bitartez planteamendu garrantzitsuagoetara iristen bait dira. Bilakabide honi esker, hizkuntzalaritzak, ez beharbada zientzia mailara iritsiz, aurrera egingen du, denboraz metodo erkatzailea sortuko duelarik. Hori gutxi balitz, Errenazimenduan hizkuntzen sailkapenak eta, bide batez, hizkuntzen barneko deskribapenak, hau da, gramatikak<sup>16</sup> egitea ere lortzen da.

## 1.2.2. *Euskara Espainian*

### 1.2.2.1. AINTZINDARIAK ETA BILAKABIDEA

Garai hartan egiten zen hizkuntzaren azterketa eta kanpo historia humanismoak hartzen eta lantzen zituen gaiekin oso nahastua bilakatzen zen. Bestalde, herri hizkuntzak, orohar, apreziatzen eta aztertzen hasten den neurrian, norberaren hizkuntzaren estima ere goraka joaten da. Hori dela eta, Babeleko jatorriaren tradizioari jarraituz, uste zen lurralde bakoitzeko hizkuntza zela lurralde horretan, edo zabalagoetan, mintzatu zen hizkuntzarik zaharrena edo hizkuntzen nahasketatik sortutako lehenetarikoa<sup>17</sup>. Hizkuntza mito hauen garapen nagusia XVI. mendean lortu bazen ere, hurrengo mendeetan, XVII. eta XVIII. mendearen erdirarte, behintzat, eutsiak eta defendituak izan ziren<sup>18</sup>.

Ez zen euskara korronte horietatik at gelditu, agian alderantziz baizik. Hizkuntza berezia eta desberdina zenez, ideia horiek hari atsiki edo egokitzeke aukera erosoagoa eskeintzen zuen. Euskararen nabarmentasunak berak eragiten zuen ideia horiek euskarari sutsuago ezartzera. Agian, horregatik, Erdi Arorako ere euskararen aintzinasunaren aldeko testigantzak aurki daitezke<sup>19</sup>. Dena dela, Euskal Herrian ere, beste tokietan bezala, XVI. mendean indartzen da

---

Alde batera uzten dugu, bestalde, hizkuntzaren jatorriaz eta zabalketaz hedatua zen beste teoria, errazionalistena noski, banakako sorreran oinarritzen bait dute beren teoria.

<sup>16</sup> Denek ere, latinaren eskema eta metodologia jarraitzen dute; halere, ezin daiteke nabarmendu gabe utzi gertatzen den ugaritasuna. Kukenheimek, esaterako, XVI. mendean eginiko gramatikaren kopuruak ematen ditu: italiaraz 72, frantsez 55 eta gazteleraz 37. Dena den, garrantzitsuena gertatzen dena jarrera beraren aldaketa bortitza litzateke, Kukenheimek berak dioen bezala: «A l'époque de la Renaissance, le latin -mais alors celui des bons auteurs classiques- continue d'être objet d'étude, mais il n'est plus seul: s'y ajoutent le grec et l'hébreu et même l'étude des langues vulgaires» (1966, 21).

<sup>17</sup> Horrela defenditu zuten portugesekek, katalanek, espainolek, eta baita, frantsesek edo germaniarrek ere. Ikus, batez ere Frantzian gertatu zen mogimendurako, Dubois (1970, 68-69).

<sup>18</sup> Lázaro Carreter-ek (1949, 29) esaten duenez «Durante el siglo XVII continúa triunfando en España la explicación platónica ingeniosamente aliada con la Biblia».

<sup>19</sup> Badirudi Flavio Josefo izan zela lehenetarikoa eta, honekin batera, Nafarroako Gadeseko Rodrigo Ximenez de Rada, Toledoko Artzapezpikua, euskararen aintzinasun hori defenditu zutenak, Tovar (1980, 17-19); edozein modutan, nafararren argudioak oso garbiak ez dira ikertzaile batzu gaztelerarako ere berdin aplikatzen bait dituzte, ikus polemika honetarako, Zubiaur (1990, 70).

mogimendu hau Zaldibia, Garibay eta Poza euskal idazleekin<sup>20</sup>. Edozein kásutan, kontutan hartu behar da ez zela izan euskalduna euskararen aintzinatasun hori defenditu zuen lehena. Lucio Marineo Siculok<sup>21</sup>, garai zaharrea Penintsula osoan hitz egiten zen hizkuntza «lengua vizcaina» zela idatzi zuen. Horrekin batera, P. Merula eta J. Scaligero ere aipatzekoak dira, Marineo Siculoren ideiarri jarraituz, Iberoak euskaldun jatorrizkoak zirela esaten bait zuten<sup>22</sup>. Gaztelazko literaturan ere badago, XV. mendetik hasita, horri buruzko aipamenik, Gaztelako Erreinetako hizkera euskara izan zitekeela eta horren kontzientzia ere nabaritzen zela gizartean<sup>23</sup>.

Honako hauek ziren, laburbilduz, garai hartako idazleek mantentzen zituzten jokabide nagusiak:

1. Tradizio biblikoari jarraituz eta, lehen esandakoaren arabera, euskarari ere hizkuntzaren jatorriari eta aniztasunari buruzko garai hartako idciak ezarri zitzaizkion. Tubalen mitoa, esaterako, Zaldibiak eta Garibayk euskarari zuzenean aplikatu zioten; ordutik, ideia hau izan da gehien garatu dena eta duela gutxi arte, hein batean, irau duena<sup>24</sup>.

2. Aurreko puntuan esaten denetik jarrai daitekeenez, euskara hizkuntz babilonikotzat hartzen zen, lengua matriz edo 72 haietako bat alegia, eta, horren ondorioz, euskara hizkuntza haundia eta ederra zela, besteekin ezin erka zitekeena, noski.

3. Horren aldeko arrazoiak garbiak ziren:

- Euskara jatorri garbi eta noblekoa zela, beste inongo hizkuntzarekin nahastu gabea.
- Penintsula Iberiko osoan erabiltzen zen hizkuntzarik zaharrena eta aintzinako garaian zegoen bakarra.

Baieztapen horiek arrazoi linguistikotan oinarritzeko metodo etimologikoaz baliatzen dira. Andrés de Pozak, Espainia guztitik jasotako toponimiaren

<sup>20</sup> Garai hura aztertu dutenen artean bi lan daude ia klasikoak direnak eta ikuspegi aski berezikoak, bat: W. Bahneren laneko (1966) 5. kapituluak «El vasco y el problema de la lengua primitiva de España» (85-99. or.); A. Tovarena (1980) bestea, 2. eta 3. kapituluak batez ere: «Lucas y sombras del Siglo de Oro» eta «Vascos escriben sobre su país» (26-65. or.). Bestalde, aipatzekoa da J.R. Zubiaurren lana ere, XVI. mendeko hiru idazle hauei zuzendua baita (1990).

<sup>21</sup> Errege Katolikoaren kronikak idatzi zituen *Cosas Memorables de España* (1539); IV. liburuan, hain zuzen, honi buruz mintzatzen da.

<sup>22</sup> XIX mendean gorpuztu zen «Vasco-iberismoa»ren teoriaren oinarria hemen dago beraz; hemen eta apologisten lanetan, noski.

<sup>23</sup> Enrique de Villenak eta Alonso de Madrigalek aipatzen dute gaia zuzenean oinarritzen ez badute ere, eta Juan de Valdés ere mintzatzen da horretaz. Ikus Tovar (1980, 28-32).

<sup>24</sup> Neurri batean, «falso» Berostotik datozen mito hauetan oinarritzen diren genealogiak lirareke. Bestalde, XVI. mendearen hasieran Alonso de Madrigalek, *el Tostadok*, Tubalen mitoa garatu eta indartuko du besteei bidea zabalduz. Gero XVIII., mendean, Astarloak zabalduko du beste mitoa, Paraisoan erabiltzen zen hizkuntza euskara zela alegia; *Apologia de la lengua bascongada* liburua 1803. urte arte ez bazen argitaratu ere, bere ideiak arrakasta haundia izan zuten egilea bizi zenean ere.

azterketa eginez, euskal etimologiak ematen ditu, eta honen bidez euskara Penintsula guztian hedatzen eta erabiltzen zen hizkuntza bakarra zela frogatzen du. Gero, besteren artean, Baltasar de Echavek ere, XVII. mendearen hasieran, helburu berdinez metodo berau erabiliko du.

Idea hauetatik sortuko da hainbestetan aipatzen den euskararen apologia. Izan ere, mito tradizional horiek defenditzean, mende haietako idazleak euskararen apologistak bihurtzen dira ezinbestez. Horrez gain, Espainian bertan euskararen aurka sortu zen mogimenduaren kontrako erreakzioa ere izan zen euskal hizkuntzari egiten zitzaion defentsa hori<sup>25</sup>.

### 1.3. Oihenarten ikuspegia eta ekarria

Kantabrisimoari zegokionez hain berritzaile zen Oihenartek, ze hedadura ematen zion euskarari Aro Zaharrean? Aldentzen al zen kasu honetan ere garaiko jakintsuetatik? Ezetz esan beharko genuke Caro Barojari kasu egingo bagenio: «abandonando el criterio textual, sostiene que el vasco ha sido la lengua de toda la Península en un principio, engendradora en parte del español» (1979, 15). Gorrochateguik, ordea, ez du horrela ulertzen Oihenarten iritzia: «Oihenart no defendía la extensión del euskera por toda la Península, ni siquiera era partidario de que fuera la lengua patrimonial del actual País Vasco: pensaba que el vascuence era la lengua de los “Vascones”, pueblo definido con mucha precisión en las fuentes clásicas de las que poseía un conocimiento bastante bueno.» (1984, 70).

Bi ikuspegi horiek besterik aditzera ematen badute ere, Oihenartek bere iritziak azaltzeko erabili ohi duen metodologia nahiko zehatza eta, ia beti, berdina da: lehenengo, *status quaestionis* edo delakoa agertu eta, horrekin

<sup>25</sup> Ezaguna den bezala, XVI. mendean, Espainian, gaztelararen defentsa eta gorakada gertatu zen eta, bide batez, hizkuntza klasikoren beherakada eta zokoratzea, eta bide horretatik hainbat ekintza literario eta erligioso eman ziren eta erabaki ofizialak hartu ere bai gaztelararen erabilera bultzatuz, beti ere latinaren kaltetan. Ikus, honi buruz, Romera Navarro (1929, 204 eta hur.). Gaztelararen aldeko ihardun eta apologia sutsu hori zela bide, euskararen aurkako mogimenduak ere ikusten dira mendearen azken laurdenean. Honen lekukorik nabarmenena Ambrosio de Morales eta haren *Discurso sobre la lengua castellana* (1586) litzateke. Idazle honek ez zuen euskara Penintsulako hizkuntza zaharra zenik ukatzen, baina erabiltzen zen bakarra zenik ere ez zuen onartzen eta ematen zitzaion hedadura zabalaren aurka ere agertzen zen. Marianak ere hitz iraingarriak erabiltzen ditu euskararen aurka, baina euskara Espainia osoan hitz egiten zen aldekoa zen.

Ohartu gaituzten une beretsuan sortzen direla gaztelararen eta euskararen aldeko lanak: Moralesen liburua Garibayrena baino hamabost urte beranduago sortua zen eta Poza Lizentzia-tuarena baino urte bat lehenago.

Kontutan hartu behar da ere, garai haietarako galdua edo erdi galdua zegoela euskararen ospe soziala eta horren lekukotasunak literaturan ugari samarrak dira. Ikus, gai honi buruz, Echenique (1990, 123-124).

Bestalde, Echenique-k berak (1987, 92) honela definitzen ditu euskal apologistak: «eruditos (vascos en general), que ponen especial ahínco en defender la dignidad del vascuence como lengua frente a la concepción del euskera como variedad lingüística baja».

batera, beste idazleen ideiak eta zitak ekarri. Horren ondoren bere iritzia eskeintzen du, nahiz aldekoa nahiz kontrakoa dela, ez badu, behinik-behin, besteen iritziekin batera berea ere sartu, haiekin bat datorrela inplizitoki aditzera emanaz. Nolanahi ere, kontuz irakurri beharra dago Oihenarten zenbait pasarte, darabiltzan arrazoi bideak kontrajarriak diruditen arren, barnean, elkarrekin ongi loturik egon ohi direlako.

Lehen liburuko XII. kapituluko «De la antigua lengua de los españoles. -Si fué la misma que la actual de los vascos. -Se examinan las razones de Ambrosio Morales, que lo desaprueba.» titulupean, beti bezala, aurrena besteen iritzia jasotzen ditu. Lehenengo, Espainia guztian euskaraz baino ez zela hitz egiten defenditzen zutenen izenak ematen ditu: «El mismo Marineo y Garibay creen que en toda España no se habló en lo pasado otra lengua que la de los Vascos, o Cántabros, como ellos la llaman» (1926, 169-170). Mariana ere aipatzen du, ideia hori bera defenditzen baitzuen<sup>26</sup>.

Goraxeago esan dugu Morales ez zela iritzi horretakoa, euskararekin batera beste hizkuntza batzu ere hitz egiten zirela esaten bait zuen. Oihenartek gogor eta luze ihardesten du Moralesen iritzia, baina ideiaaren aurka doala dirudien arren, hark darabilen metodoaren aurka doala zuzenago esan daiteke. Horretarako Moralesen oinarriko tesia agertzen du: «[...] se esfuerza en probar, que es diversa la antigua lengua de los españoles de la actual de los Vascos» (1926, 174), eta ondoren, zein metodoz baliatzen den tesi horri eusteko: «Morales se esforzó en destruir esta sentencia -euskara España guztian hitz egiten zen hizkuntza bakarra zela, noski-, recogiendo de Plinio y otros algunos vocablos españoles, que según opina, no se encuentran en la lengua moderna de los vascos» (1926, 170).

Jarraian bi galdera erretoriko egiten ditu: «Pero aunque concediéramos a Morales que todos aquellos vocablos son puramente españoles ¿bastaría esto para que nos obligara a admitir por el hecho mismo que en aquella nación existieron muchas lenguas totalmente distintas entre si? ¿No pasa en otras lenguas que en el largo curso del tiempo, se muden las voces y los modos de expresarse?» (1926, 170).

Metodo lexikoaz baliatzen da, beraz, Morales, baina Oihenartek, planteamendu logikoz, ez du metodo hori onartzen. Klasikoen zitaz baliatuz, denboraren iraganaz hitzen balioak eta hitzak berak ere aldatuz eta galduz joaten direla frogatzen du, gero galdera hau egiten duelarik: «En cambio ¿qué argumento tiene Morales para dictaminar que las voces, por él coleccionadas, proceden más bien de la antigua y primitiva lengua de los españoles, y no

<sup>26</sup> Esan behar da, halere, J. Saroihandyk (1922, 451) agerian jarri zuen bezala, Marianak beste pasarte batean esaten duena, hau da, euskara ez zela Espainian egiten zen hizkuntza bakarra, beste batzuen artean mintzatzen zenetako bat baizik, hori Oihenartek aipatu ere ez duela egiten.

de la nueva y adoptiva, llamada Romance, porque provino de la romana, siendo así que es cierto e indudable, que aquella había caído en desuso antes de la edad de Plinio, y que ésta había prevalecido en toda la España que obedecía a los Romanos?» (1926, 172). Jakina, hemen latinaren eraginaren aurka agertzen da Oihenart eta, onartzen baditu ere Moralesek latinetik hartutako zenbait adibide, beste batzu euskaratik datozenak direla defenditzen du: «Por lo demás, de ninguna manera es verdad, que todas las palabras, que dan por españolas los antiguos escritores, faltan en la lengua actual de los Vascos. Se conservan todavía algunas, que proceden de la antiquísima y propia lengua de este pueblo»<sup>27</sup>. Hitz batzu baino ez ditu ematen: *lancea, gurdus, daureta, gesi*.

Kapitulua ez du burutzen bere irizpideak eskeiniz edo arazoa erabat finkatuz, Moralesen aurkako argumentazioarekin jarraituz baizik. Moralesek erabili zituen Tácito eta Sénecaren testigantzak jaso ondoren, Oihenartek bere alde itzultzen ditu: «Estas palabras de Tácito y Séneca arguyen, que los españoles, y quizás también los Cántabros, tuvieron su propia lengua, o dialecto; pero no prueban que fué distinta de la moderna lengua vasca»<sup>28</sup> (1926, 174).

Kapitulu honetan, beraz, Moralesen aurka ari denean ez du hainbeste Moralesen teoria eragozten, bere metodo lexikoa gaitzesten baizik, gero Oihenart bera, ikusiko dugun bezala, metodo horretaz baliatuko bada ere.

Hurrengo kapitulua, XIII. alegia, da garrantzitsuena Oihenarten iritzia jasotzeko. Bertan azaltzen du bere ikuspuntua izenburuan dioen bezala: «Opinión del autor sobre la antigua lengua de los españoles» (1926, 329). Horrela hasten du: «Ahora bien, en esta lucha de pareceres opuestos entre sí, yo, así como *no quiero mantener con demasiada pertinacia*<sup>29</sup> que fué una sola la lengua de todos los españoles en los tiempos pasados, sobre todo cuando Estrabón asegura, en el lib. 3, que hubo varias [...]», esaldiaren bigarren klausulan jarraitzen duelarik: «[...] tampoco admito que la vasca estuviese encerrada dentro de los mismos límites en que está actualmente; pues son muy estrechos». Edozein modutan ere, horri eusteko ematen duen arrazoa hizkuntzari buruzkoa ez bada ere zuzen zuzenean, ez daiteke uka euskararen izateari eta baliakizunari buruz duen iritzia garbi agertzen duela: «y por lo mismo no es verosímil que la sabia disposición de la naturaleza haya dado

<sup>27</sup> Pasarte honetan jasotzen ditu euskararentzako iraingarriak gertatzen diren beste idazle batzuk erakutsiriko irizpideak: «[...] no empero de la adventicia y nueva, a la que Sidonio llama escoria del lenguaje aborto del lenguaje latino» (1926, 173). Marianari buruz ari denean ere ez da isiltzen: «[...] cuyas palabras, que son elegantes y dignas de tan gran escritor (exceptuando aquello que dice, que es una lengua bárbara, y que no admite cultura, siendo así que él no la poseía)». Ez da harritzekoa, bada, Oihenart ere apologista bezala behin baino gehiagotan hartua izatea.

<sup>28</sup> Azpimarratua geurea da.

<sup>29</sup> Azpimarratua geurea da.



a un pueblo tan pequeño lengua propia, casi inadecuada para todo negocio, y para trato y fomento de consorcio con los pueblos vecinos incómoda» (1926, 329). Bidenabar esan daiteke Euskal Herria, txikia izan arren, herri bezala hartzen duela; baina ez da garbi ikusten zergatik dioen «izadi jakintsuak» ezin diezaiokeala eman hain herri txikiari inguruko herriekin harremanak izateko hizkuntza hain desegokia. Ziurrenik, honek agertzen du historialariaren ikuspegia, ez bait zen euskara *lingua franca* izan eta euskaldunak inguruko herriekin harremanik izatekotan hizkuntza erromaniko batez baliatu beharra bait zuten.

Dena den, arrazoi horretan oinarrituz bere tesi propioa ematera iritsi nahi zuen, beti bezala, historiaren haritik leinuak aipatuz, euskara Penintsulako Iparralde osora hedatzen duelarik: «Creo que ésta fué la lengua de todos los pueblos montañoses, que vivían en el Norte de España, es decir, de los Vascos, Várdulos<sup>30</sup>, Autrigones, Caristos, Astures, Cántabros, Gallegos y Lusitanos». Hemen ere iturri klasikoetan oinarritzen da: «pues ya que consta por Estrabón, que todos estos pueblos vivieron con las mismas costumbres y que practicaron la misma norma de vida, es justo creer que también tuvieron una lengua común»<sup>31</sup>.

Ongi ikusten da, beraz, Oihenartek ez zuela euskara Euskal Herrira mugatzen, baina ez du Penintsula osora ere zabaltzen, garbi esaten duelako ez zirela berdinak Espainiako iparraldeko eta beste espainiarren hizkuntzak: «que además, la lengua de los demás españoles no fué tan distinta, que no tuviera con las demás muchas cosas comunes». Hau da, hemen zehazki onartzen du latinaren aurretik mintzatzen ziren hizkuntzek bazutela euskararekin antzik, eta honetan oinarri daiteke Oihenart izan zela gero «vasco-iberismo» izenez deitua izan zen oinarritzko teoriaren lehenetariko aurkezlea. Caro Barojak garbi esaten du: «Hay que ver en Oihenart un primer expositor claro del vascoiberismo» (1979, 15); halere, hori soberaskotzat joko genuke, teoria bera baino teoriaren ideia nagusiak edo teoriaren muina jaso daitekeelako Oihenarten hitzetatik, hau da, garai zaharrea erabiltzen zen hizkuntza —iberikoa, alegia— eta euskara oso antzerakoak zirela, edo bazutela elkarrekin ahaidetasunik. Alabaina, ez dugu uste inon esaten duenik euskara Espainia osoan erabiltzen zen hizkuntza izan zenik<sup>32</sup>. Beraz, Caro Baroja, lehen jaso dugunez, Oihenartek

<sup>30</sup> Honekin garbi gelditzen da barduliarren hizkuntza zein zen eta Gorrochateguiren (1984, 70-71) iritzia ez dela hain egokia uste dugu.

<sup>31</sup> Mañaricuk (1971, 266) zehatz jasotzen du testua.

<sup>32</sup> Alde batera uzten dugu «Atsotizac edo Refrauc» (1935, 207) liburuari egiten dion sarreran dioena: «La Langue Basque (qui est la mesme que l'ancienne Espagnole, comme l'au montré ailleurs)». Bidenabar baizik ez du egiten komentario hori eta, egia esan, gure ustez orokorregia gertatzen den aipamena da. Bestalde, berak ematen duen erreferentea aurretik idatzitakoa da, hau da, aurreko urtean argitaratu zuen *Notitia*-ren bigarren argitalpenekoa eta hemen komentatzen ari garena. Horregatik, bada, benetan baliagarria den ikuspuntua, zehatza eta gartua gainera, *Notitia*-n azaltzen duena dela uste dugu.

Espainia osoko hizkuntza euskara izan zela dioenean, ez dugu uste erabat zuzen dagoenik, eta, beharbada, esaten duen hori «vasco-iberismoaren» teoriaren baitan ulertu beharko litzateke. Egia da Oihenartek dioela: «Y que se distinguían más como dialectos que como idiomas (como ahora se distinguen los Castellanos, Portugueses y Catalanes)» (1926, 329), baina alde batetik, ez du dialektuak zirela esaten eta konparazio bezala erabiltzen ditu hitz horiek, «dialecto» eta «idioma», elkarren artean zein antz eta lotura handia izan zezaketen aditzera emateko; eta bestetik, esaldi hori ere Oihenarten testuinguru osoan jaso behar da, eta ingurune horretan garbi agertzen du Espainian hizkuntza ezberdinak erabiltzen zirela.

Hitz hauen eta aurretik Moralesen aurka esaten zituenen artean ez dago, bada, kontraesanik. Laburbilduz, uste dugu Oihenart, puntu honetan ere, aintzintu egin zela eta urrats garrantzitsua eman zuela. Bestalde, Oihenartek hizkuntzalaritzaren historian ere aurrerakada handia suposatzen du, gero eraginik izan ez bazuen ere. Iturri klasikoetan oinarrituz historia errazionalista egiten du, mitoak baztertuz horien inguruan sortua zegoen mitologiarekin erabat apurtzen duelako. Kontutan hartzen baldin bada hori XVII. mendean egin zuela, lorpen handitzat iritzi daitekeela uste dugu. Esan bezala, ez zuen ez eskolarik sortu ez jarraitzailerik izan, eta hori bai dela deitoragarria.

## 2. OIHENARTEN ZENBAIT BARNEKO IDEIA LINGUISTIKOZ

### 2.1. Metodo etimologikoa

Oihenartek Moralesen metodologia erabat onartzen ez duen arren, berak ere bide beretsua hartzen du iritziei eusteko. Ez dio ongi irizten Moralesek euskarazkoak ez diren gaztelerazko hitzetan oinarritzea bere froga, baina berak, hain zuzen ere, gaztelerak dituen euskal hitzetan indartzen du argudiobidea eta hitz horiekin frogatu nahi du hizkuntzen ahaidetasuna: «me lo persuade el hecho de encontrarse en la composición de la lengua española actual ciertas reliquias o restos muy conformes a los elementos de la vasca, muchísimas expresiones puramente vascas, o sacadas de éstas» (1926, 329-330).

Egiaz, biak, Morales eta Oihenart, etimologiaz baliatu ziren; XVII. mendean egin zitekeen etimologiaz, zientziaz hagituz urruti eta gaurko ikuspegitik erabat desbideratua gertatzen zena, intuitiboa eta subjektiboa, hitzaren formari antzerako formaren bat bilatuz eta esanahaiak, berez edo bortxaz, horrek ez bait zuen axolarik, elkarrekin egokituz.

Bere zentzu estuan hitz baten etimologia<sup>33</sup> bilatzeko eta hizkuntza ezberdinen edo hizkuntz estratu ezberdinen arteko harreman etimologikoa finkatzeko fonetikaren aldetik sortzen diren korrespondentziek erregularrak behar dute izan eta, halaber, gerta daitezkeen bilakaera semantikoak ere bai. Hauek, dakigun bezala, ez ziren XIX. menderarte lortu, gramatika historikoa garatu zen arte, noski.

Edozein gisatan, etimologia lana berez ez da erraza, baina betitik izan du erakarpen eta xarma berezia, eta hizkuntzen ahaidetasunaren inguruan aritu diren egile gehienak baliatu dira etimologiaz beren teoriak finkatzeko. Helburua linguistikoa izan ohi zen maizenik: hizkuntza baten jatorria bilatu edo bi hizkuntzen artean izan daitekeen jarraigoa finkatu. Esan bezala, hitzen forma hutsez edo hotsen ebokazioaz baliatzen ziren, beti ere edukia edo esanahia elkartuz edo egokituz edo, gutxienez, justifikatzen saiatuz, noski. Baziren, azkenik, etimologiaz baliatzen zirenak hizkuntzalaritzatik kanpoko gaietarako arrazoiak eta oinarriak bilatzeko, hala nola, mitoak, leiendak eta abar sustraitzeko, eta horien laguntzaz, historia bera egiteko. Egia esan, askotan ez da erraza jakiten, etimologietan ari direnean, hizkuntza lantzen edo zertan ari diren.

XVI. mendean egiten dena, latineko etimologia klasikoaren eta San Isidorok egiten zuenaren jarraipena baino ez da. Garbi aski mintzatzen da Caro Baroja dioenean: «El sistema isidoriano les chifla —euskaldunei, alegia—: pero a los “castellanos” les pasa igual y los historiadores, reyes de armas, etc., inventan etimología sobre etimología a base de descomposiciones de las palabras, “apoyadas” en largas narraciones justificativas o en hechos inventados “a posteriori”» (1972, 347). Etimologietarako, toponimia hartzen zuten orohar, toponimia nagusia gehienbat, baina, konbeniz gero, baita xehea ere: herri eta hirien izenak, erreka eta ibaienak, mendienak, eta abar. Antroponimoak edo pertsonen izenak, eta lexema nominal arruntak ere, garai hartan, aztergai etimologikoa garrantzitsua izan ohi ziren sarri.

Euskal Herrian, goian esan den bezala, Garibay<sup>34</sup> zabaltzen du metodo hau, gero, bere jarraitzaileen artean, Echavek, Moretek eta Pozak, azken honek batez ere, hark baino izen haundiagoa hartu bazuten ere. Horien asmorik behinena lehen aipatua zen: Espainiako lurretan jasotako toponimiaren azterketaren bitartez Espainian garai zaharrean egiten zen hizkuntza euskara zela frogatzea eta, horren ondorioz, Espainian euskara izan zela hizkuntza lehenengoa eta orokorra.<sup>35</sup>

<sup>33</sup> *Etimologia* Th. Bynon-ek ulertzen den moduan erabiltzen dugu: «historia formal y semántica retrotraída en el tiempo hasta que se alcance una gramática anterior, o hasta la gramática de una lengua donante, si se trata de un préstamo, cuyas reglas productivas puedan explicarla por completo.» (1981, 95).

<sup>34</sup> Garibayk eginiko etimologiaren azterketa ikusteko, Zubiaur (1990, 149-196).

<sup>35</sup> Oso esanguratsua gertatzen da Fray Hernando de Ojedak Echavek idatzitako *Discursos* liburuari egiten dion sarreraren dioena, alegia, Echaveri esker daukatela: «noticia de la inteligencia y significación de muchos nombres de pueblos, montes, rios y valles, así de Galicia como

Aipaturiko egile horiek ezagunak zituen Oihenartek eta hizkuntzalaritzaren aldetik interesgarriena den XIII. kapitulu honetan horien erreferentzia zehatza egiten du: «En fin, que los nombres propios de algunas ciudades, pueblos, hombres, montes y ríos de España, que se conservan en los escritores antiguos, conservan huellas de la lengua vasca, ya lo advirtieron Andrés de Poza y Baltasar Chevesio (sic), en los libros publicados sobre este argumento». Baina ohartzen da egin duten azterketa ez dela behar adina aprobetxagarria: «sin embargo, los eruditos en estas cosas tendrán en cuenta que en ellos hay no pocas cosas omitidas y otras escritas con poca cautela» (1926, 336). Oihenart bera ez da toponimiaz gehiegi baliatzen, «Ilia / Iri»ren arteko parekotasunaz mintzatzen bada ere.

Kapitulu beraren hasieran, alfabetoko lehenengo lau letren arabera, gazteleatik hartutako zenbait hitzen etimologia ematen du, denak, bere ustez, euskaran dutenak jatorria. Ez du metodo finkaturik hitzak hautatzerakoan ere. Hona hemen banaka batzu, lehendabizikotik hasita: «*A-zucena*, lo recto, la cosa recta, porque la azucena cría el tallo más recto y largo de todas las plantas» (1926, 330). Era berean, «Ahorrar.- De la voz vasca *Aburra* o *ahorra*, es decir, lo que se tiene dentro de la palma de la mano, asido y encerrado»; «Atrever: *Atrevize*, de la palabra *Treve*, que en vascuence designa a una persona muy práctica para una cosa, y resuelta para emprenderla» (1926, 330); «Behetrías.- Del vasco *Bere-tiriac*, pueblos independientes, o, *Behet-Iriak*, pueblos de abajo, por estar situados en lugares bajos, es decir, fundados en los valles, fuera de los montes ásperos; los de aquí no eran defendidos por poblaciones o ciudades sino por castillos de donde la mayoría de autores deriva el nombre de Castilla» (1926, 332)<sup>36</sup>.

Deigarria gertatzen da gaur egungoentzat hain arabiar jatorri garbia duten gaztelerako hitzak euskaratik etorri araztea: «alcalde», «alcandora», «aljaba»,

---

de todas las otras Provincias de España, que todos ellos se hallan en la lengua Cántabra, y en ella tiene su propia (sic) significación. Por lo cual viene à entender claramente que *en toda ella se hablo en los principios de su población, la misma lengua que se habla agora en la Cantabria.*» (Azpimarratua gurea da). (1971, 7).

<sup>36</sup> Aipagarria da Larramendiren kasua. Ez lexikoari buruz ari denean Oihenarten aipamenik ez duelako egiten soilik, harrigarria gertatzen bada ere, baizik haren etimologiez ez duelako ezer esaten. Aipagarria gertatzen da bere hiztegiari ematen dituen etimologiengatik, hainbat hitz azaltzerakoan zuberotarraren lanean inspiratua dagoela bait dirudi. «Azucena es voz bascongada y viene del vascuence *zucená* que significa derecha, y es la flor que mas derecha sube.» (1853, 17); «Ahorrar, reservar de lo que se habia de gastar. En este sentido viene del bascuence *ahorra* ú *ahurrá*, que en el dialecto significa la mano medio cerrada, como de quien guarda y retiene algo.» (1853, 49). «Atreverse viene del bascuence *atrebi*, *atrebitzea*, y este del nombre *trebé*, que significa diestro y hábil para emprender cualquiera cosa.» (1853, 127). «Behetria es voz bascongada. En lo antiguo behetrias significaban pueblos que á su arbitro elegian Señor; y en este sentido viene de *beret-iriac*, *beret-erriac*, que se interpretan villas y tierras de su arbitro...» (1853, 151).

«almud», «aldea», «atalaya», «zanahoria» eta abar. Latinetik datozenak ere ematen ditu, ordea: «andas», «burbuja», «cansar», «catar», «cuita»<sup>37</sup>.

Baditu, bestalde, protohispanikotzat jotzen diren hitzak edo etimologia ezagunik ez dutenak: «balsa», «atocha», lehenengoetarako; «bruces», «cachorro», «argamasa»ren lehen partea, «caracol», «zahurda», «zapato», bigarrenengoetarako. Edo euskararekin lotuagoak daudenak ere: «azcona», «carcajada», «cencerro», «zurrar».

Guzti honekin zera esan nahi nuke: erabiltzen duen metodologia eta egiten duen etimologia mota ez bada egun onartzeko modukoa ere, latinaren eta gazteleraren ezagupen sakon eta zorrotzaz gain, hainbat hitz hautatzean ez zebilela hain desbideratua, hainbat kasutan behinik-behin. Ez daiteke Oihenart etimologotzat har, ez ontzat ez txartzat, ez bait da bere xedea etimologia egitea, hitzen zerrenda, berak dioenez, eskaintzea baizik, adibide gisa baino ez bait ditu ematen. Eta berak «hispano-vascas» deitzen dituen hitzen zerrenda ere luza daitekeela esaten du, honekin garbi uzten duelarik hizkuntzaren jatorriaz eta hizkuntzen arteko zerikusiaz edo harremanez ari dela.

## 2.2. Oihenart fonetista aintzindaria

Oihenarten ikuspegi gramatikala zorrotza izan zen, eta hori ez du inork dudetan jartzen<sup>38</sup>, baina ez dugu Oihenartek gramatika mailan egin zuen lana aztertuko, badirelako Biltzar honetan beste batzu hori garatu dutenak. Bada, ordea, arlo bat, ez gramatikakoa zuzenean, Oihenartek oso maite zuena, olerkaria eta prezeptista izatearen eraginez ziurrenez, eta etimologiarekin lotzen dena, bestalde: hitzen ahoskera eta ahoskerak izan duen bilakaera, hain zuzen.

Gaztelerako «ue» diptongoa, batez ere hitzen hasieran, «o» bokaletik zetorrela hainbat aldiz ohartu zen: «es frecuente entre los españoles, sobre todo al principio de palabra, mudar la vocal O en diptongo Ue o Oe como son *sueno*; así el *cozar* en *coezar*, y de aquí la palabra *Cohechar*» (1926). Era berean ematen ditu, eusk. *croca* > gazt. *clueca*; eusk. *corde*, *gorde* > gazt. *cuerdo*; eusk. *apostu* > gazt. *apuesta*.

Euskaran biezpainkari sudurkari eta ahozkoaren arteko txandaketaz ere ohartua zegoen: «B y M son letras afines en los nombres vascos y se cambian

<sup>37</sup> Corominasen hiztegi etimologikoa hartu da erreferente bezala (1980).

Dena den, Oihenartek zerrenda honetan latinetik datozen hitzak sartu arren, onartzen du etimologia garbia duten beste hitz batzuren latineko jatorria. Garbi agertzen da hori *Atsotizac edo Refravac* liburuari egiten dion sarreran ahoskerari buruz ari denean: «Mais aussi nos Basques; ce qui se collige de ces mots *Baké*, paix, (qui vient du Latin, *pace*) *doné Vikenti*, qui veut dire Saint Vincent, *Legue*, Loy, *Erregue*, Roy (qui viennent du Latin, *Lege & Regue*) & de quelques autres mots qui ont esté empruntez de la langue Latine» (1935, 211).

<sup>38</sup> Mende hasierako J. Saroihandyk Euskal Ikaskuntzaren Kongresurako aurkeztu zuen txosten interesgarri eta zehatzean, Oihenarten gramatikazko ekarri garrantzitsuenak laburbilduz ematen ditu (1923, 41-46). B. Oyharçabalek garrantzitsuenak jaso ditu (1989, 60-61).

a menudo»: eusk. *musu* > gazt. *buz* eta *buzos*. Biezpainkari ahostun eta ahoskabearen arteko txandaketa ere aipatzen du: «*pusca* o *busca* (pues de estos dos modos se pronuncia)». (1926, 332-333).

Toponimian hainbeste dokumentatzen den dardarkari / albokariaren aldaketaz ere mintzo da: «Ambrosio de Morales, archivo de toda la antigüedad ibérica, observó ha tiempo, que *Ilia* es voz española antigua, que denota ciudad. Mas esta palabra la conserva la lengua vasca todavía en el mismo sentido, mudando la letra líquida *L* en *R*, como es corriente también en muchas otras voces, tales como *Arava*, por *Alava*, *Añgeru*, por *Angel*, *ceru* por *cielo*». Eta ezaugarri honetan oinarrituz, bereizketa diatopiko bat ere egiten du: «...el Procónsul Tiberio Sempronio Graco, después de vencer a los Celtíberos, fundó, en memoria de sus hazañas, en España, el pueblo de Gracurís, palabra que en Vascuence significa la ciudad de Graco; pues a lo que los Navarros y los Vascos aquitanos llaman *Iri*, los otros vascos, que habitan en la Vardulia, denominan *Uri*» (1926, 336).

Etimologia lana haratago eramaten du maileguten teoria morfologiako atzizkietara pasatzen duenean, aldaketa fonetiko baten bitartez arrazoitzen duelarik atzizkien bilakabidea. Hona zer dioen: «También la sílaba *go*, que algunas veces se une con la preposición con *a* los pronombres de primera y segunda persona, así: *conmigo*, *contigo*, es vestigio de antigua lengua, la cual llevaba la preposición latina *cum*, en vez de *go*, al fin del vocablo, de la misma manera que lo hace hoy el Vasco, por *ga* o *gas*, como *niga* con *migo*, *biga*, contigo: y en cuanto al plural, no es *go* sino *co*, y se dice *connusco*, *combusco*, y no *connusco*, *combusgo*; se ha de decir también esto, porque en aquella lengua al intercalar *g*, dejando la consonante *S*, se transformaba en la suave *C*; lo cual se conserva hoy en la lengua vasca.» Eta hain arrunta den kanpo sandhia dakar: «Por ejemplo, la voz *gara*, que es la primera persona plural del verbo substantivo. Cuando ésta se combina con la partícula negativa es, *G* muda o *C* o *K*. Así del simple *gara*, *somos*, se forma el compuesto *escara*, *no somos*.» (1926, 336).

### 2.3. Oihenart dialektologia?

Oihenartek, *Notitia* idazten duenean Euskal Herriko historia idazten ari dela beti aurrean izan behar da, beste gaiez ari denean ere helburu nagusi hori agirian jartzen bait da. Hori gertatzen zaio, esaterako, euskalkiez mintzatzen denean, kronika egin bitartean egiten bait du haiei buruzko erreferentzia. XI. kapituluan, hasieran, euskaraz non egiten zen azaltzen du: «la usan a esta parte del Pirineo, ahora la máxima parte de Navarra, toda Guipúzcoa, Alava y Bizcaya; al otro lado del Pirineo, los tres distritos, que se designan con el nombre de Vasconia o tierra de los Vascos, a saber, Laburdi, baja Navarra y Soule» (1926, 169). Azalpen orokorregia Nafarroa eta Arabako lurraldeei

dagokienez; gogora ekartzen dizkigu Zaldibiak eta Garibayk mende bat lehenago egin zituztenak, zehatzaokak baitira<sup>39</sup>.

Bere Gramatika egiterakoan Iparraldeko hizkera jarraitzen duela justifikatu bidenabar egiten duen euskalkien bereizketa edo ezaugarriketa oso orokorra da: «hemos seguido casi únicamente el dialecto de la Vascitania, es decir, el usado por los vascos aquitanos, vulgarmente denominados los vascos en la actualidad. La forma navarra difiere no poco de ésta, más de la Vardulia, o sea de Guipúzcoa y Alava, más que ninguna la autrigónica, o bizcaína, cuya exposición y mutua comparación en particular no es objeto de nuestro trabajo actual» (1926, 353). Beraz, lau euskalki bereizten dituela esan daiteke, Arabakoa Gipuzkeran sartzen duelarik. Gainera, euren artean desberdintasunik ere gertatzen dela azaltzen du eta Bizkaiko euskalkia gehien bereizten dela ere esaten du beste pasarte batetan: «los vascos occidentales [...] porque se apartan, no sólo de la verdadera analogía, pero también del uso y modo de hablar de la máxima parte de la Vasconia» (1926, 343).

Euskalkiak azaltzean, historialaria denez, lurraldeak eta leinuak lotzen ditu, bizkaitar denak autrigoien leinuan sartuz eta karistiarren aipamenik egin gabe eta, bestalde, Gipuzkoako eta Arabako Ekialdeak, berez karistiarrek, barduliarrekin bat eginez. Caro Barojak, akats hauetan oinarriturik kritikatu egiten du: «Tales reducciones son no sólo insuficientes, sino también inexactas» (1973, 292). Halere, zehatasun batez egiten den lehenengo deskribapena da eta ez zen, gainera, deskribapen hutsean gelditu.

Maila fonikoaren ezaugarrietan oinarrituz egiten ditu euskalkien arteko bereizketak: «ü» bokala Zubereraz eta Behe Nafarreraren zenbait tokitan baizik ez zela ahoskatzen hartaratu zen<sup>40</sup>; «au» eta «o» formen txandaketa aipatzen du erakusleen ahoskeran, bigarren hau Iparraldean (1926, 340); Hegoaldeko aspiraketaren faltaz eta Nafarroako bokalen laburketaz ere mintzo da.

<sup>39</sup> Hona Zaldibiarena: «Háblase esta lengua en Guipuzcoa, Vizcaya y Encartaciones, Alava, lo más interior de Navarra y en Labort y Vascos; y donde más perfectamente y con menos mistura de otras se habla es Vascos» (1972, 129). IV. kapituluan, «Que habla de la lengua vascongada y de donde tuvo su origen», egiten du azalpen hori. Adierazgarria gertatzen da hemen «vascos»i ematen dion balorea, ez bait ditu, orohar, Iparraldekoak sartzen.

Garibayk, berriz, behin baino gehiagotan seinalatzen du euskararen hedadura, baina hau litzateke pasarterik zehatzena: «se habla en las regiones de la mayor parte de Cantabria, especialmente en las provincias de Guipuzkoa, Alava, Bizcaya, y en gran parte del reyno de Navarra, y en particular en todo el distrito de la merindad de Pamplona, con las mesma ciudad, cuya merindad es la mayor de las cinco en que todo el reyno se divide. Estiéndose más esta lengua hasta Francia, en las regiones que con Guipuzcoa y Navarra confinan, porque se habla en la ciudad de Bayona y en su Obispado y en todos los vertientes de los Pirineos, hasta el Señorío de Bearne» (1988, 77).

<sup>40</sup> «L.V voyelle se prononce en Basque comme, ou, tout ainsi que'es Langues Italienne & Espanole, excepté au país de Soule, & en quelques endroits de la Bassé-Nauarre, où il se pronoce comme l'u François» (1935, 212).

Morfologia mailan «a»ren erabilera nominatibo pasiboren kasuan aipatzen du (1926, 340); Iparraldeko ergatibo pluralaren erabilera (1926, 339); eta Mendebaldeko partizipoak egiteko bereizketa.

Lehen aipatu dugu egiten duen «uri / iri»ren banaketa diatopikoa ere.

Azkenik, XVII. mendean egonik, dialekto lexemari balore zehatza eta tinkoa ematen dio «dialecto» eta «idioma» formak aipatzerakoan ipintzen duen adibideagatik, XIII. kapituluaren hasieran Kantabriako herrien hizkeraz ari delarik horrela bait dio: «Y que se distinguían más como dialectos que como idiomas (como ahora se distinguen los Castellanos, Portugueses y Catalanes), [...]» (1926, 329). Ez dago hemendik irmotasun osoz ateratzerik egungo erabilera bezalakoa den hitz honena, baina bai gaurko erabileratik oso hurbil dagoela, eta hori ez da gutxi, gero ere ez bait da faltatuko istilurik zer den eta zela ulertu behar den dialektoa erabakitzeko.



## AIPAMEN BIBLIOGRAFIKOAK

ALARCOS GARCIA, E.: 1934, «Una teoría acerca del origen del lenguaje», *BRAE* 21, 209-228.

BAHNER, W.: 1966, *La lingüística española del Siglo de Oro. Aportaciones a la conciencia lingüística en la España de los siglos XVI y XVII*, Ciencia Nueva, Madrid.

BONFANTE, G.: 1954, «Ideas on the Kinship of the European Languages from 1200 to 1800», *Cahiers d'histoire mondiale* I, 680-681.

BYNON, Th.: 1981 (1977), *Lingüística histórica*, Gredos, Madrid. (J.L. Melenaren itzulp.).

CARO BAROJA, J.: 1958, *Los vascos*, Itsmo, Madrid.

— 1972, *Los vascos y la historia a través de Garibay*, Txertoa, San Sebastián.

— 1973, *Estudios vascos*, Estudios Vascos VII, Txertoa, San Sebastián.

— 1978, *Sondeos históricos*, Estudios Vascos VIII, Txertoa, San Sebastián.

— 1979, *Sobre la lengua vasca y el vasco-iberismo*, Estudios Vascos IX, Txertoa, San Sebastián.

COROMINAS, J.-PASCUAL, J.A.: 1980, *Diccionario etimológico castellano e hispánico*, Gredos, Madrid.

COSERIU, E.: 1972, «Andrés de Poza y las lenguas de Europa», *Studia Hispánica in Honorem Lapesa* III, Madrid, 199-217.

— 1972, *Tradición y novedad en la ciencia del lenguaje. Estudios de historia de la lingüística*, Gredos, Madrid.

DUBOIS, C.G.: 1970, *Mythe et langage au seizième siècle*, Ducros, Bordeaux.

ECHAVE, B. de: 1971 (1607), *Discursos sobre la Antigüedad de la Lengua Cantabria Bascongada*, La Gran Enciclopedia Vasca (Edizio faksimila), Bilbao.

ECHENIQUE ELIZONDO, M.T.: 1987, *Historia lingüística vasco-románica*, Paraninfo, Madrid.

— 1990, «Vascos y vascuence en textos romances», *Homenaje al Profesor Lapesa*, Universidad de Murcia, 121-126.

ETXEBARRIA, M.: 1988, «Ideas lingüísticas en la obra de Baltasar de Echave», *Estudios de Lengua y Literatura*, Universidad de Deusto, 67-79.

GARIBAY Y ZAMALLOA, E.: 1998 (1571), *Compendio Historial* (4 ale), Lejona. (1628ko edizioaren edizio faksimila, Gerardo Uñak paratua).

GORROCHATAGUI, J.: 1987, «Andrés de Poza y el euskera», *ASJU* XIX-2, 571-594.

— 1984, *Onomástica indígena aquitana*, EHU/UPV, Bilbao.

LAZARO CARRETER, F.: 1949, *Las ideas lingüísticas en España durante el s. XVIII*, Revista de Filología Española, Madrid.

LARRAMENDI, M.: 1853, *Diccionario trilingüe catellano, bascuence, latín*, (2. argit.), Pío de Zuazua, San Sebastián.

MAÑARICUA, A.E. de: 1971, «Los vascos vistos en dos momentos de su historia», *I Semana Internacional de Antropología Vasca*, 261-304.

- 1973, *Historiografía de Vizcaya*, La Gran Enciclopedia Vasca, Bilbao.
- MARTINEZ DE ZALDIBIA, J.: 1945, *Suma de las Cosas Cantábricas y Guipuzcoanas*, Diputación de Guipuzcoa, San Sebastián.
- MITXELENA, K.: 1960. *Historia de la literatura vasca*, Minotauro, Madrid.
- OIHENART, A.: 1926-28 (1656) «Noticia de las dos Vasconias, la Ibérica y la Aquitana», *RIEV* 17, (141-174); (329- 355); (475-515). (A. Javier Gorosterratzu-ren bigarren edizioaren itzulp.). (Hemen azaltzen diren orrialdeak *RIEV* 17. zenbakiari dagozkie, hau da, lan honetan aipatzen diren bakarrei).
- 1935 (1657), «Atsotizak edo Refravac», *RIEV* 26, 201-264; 665-719.
- OYHARÇABAL, B.: 1989, «Le travaux de grammaire basque avant Larramendi (1729)», *ASJU* XXIII-1, 59-73.
- PETERSEN, H.: 1931, *Linguistic Science in the Nineteenth Century*, Cambridge.
- ROMERA NAVARRO, M.: 1929, «La defensa de la lengua española en el s. XVI», *Bulletin Hispanique* 31, 69-213.
- ROBINS, R.H.: 1970, *A short History of Linguistics*, Indiana University Press, Bloomington-London. (Gaztelerako itzulpena: 1984, Paraninfo).
- SAROIHANDY, J.: 1922, «Oihenart contra Garibay y Morales», *RIEV* 13, 448-455.
- 1923, «Doctrina gramatical de Oihenart», *3er. Congreso de Estudios Vascos*, Gernika, 41-46.
- TOVAR, A.: 1980, *Mitología e ideología sobre la lengua vasca*, Alianza, Madrid.
- ZUBIAUR, J.R.: 1990, *Las ideas lingüísticas vascas en el s. XVI*, (Zaldibia, Gariabay, Poza), Mundaiz, San Sebastián.

# GRAMATIKAZ OIHENARTEN NEURTHITZETAN EDO GRAMATIKA 'TA NEURTITZAREN EGITURA OIHENARTEN OLERKIETAN

Jean-Baptiste ORPUSTAN

U.R.A. 1055 du C.N.R.S., Bordeaux III

Aski ezaguna da olerkaritzako arauak hizkuntzaren egitura xoil edo arrunten aldatzera deramatela, guti edo aski, non ezten bortxatzera, den olerkaririk hoberena, eta hizkuntzaren alderat beiratuena; eta gehiago olerkari ahula, menturaz, edo hizkuntza gaizki ezagutzen duelakotz edo guti errespetatzen. Ikuspegi hedatu horren kontra, egia erran, aitzina daiteke ere bertze hau: izan direla jakitate guzizkoak eta olerkiko edergintza goiengan zenkatena, hizkuntzaren egitura ezagun osoan aldatu dutenak, bereziki joan den mende azkenetik hunarar. Azken hauetan aipa dezadan bakarrik Frantziako Mallarmé baten izena.

Ez ote da «anakronismo» edo aro-zuzengaitz handiegia, nahiz argiena, XVII-garren eta XIX-XX-garren mende elgarretaratze hau? Gauza ezin ukatua dudarik gabe, hain dira urrun aro honetako eta klasikotasuneko edergilen eta olerkarien («kloba-honzalen») gogo-xedeak, Mallarmé 'ta Oihenartenak. Eztut osoki baztertuko, bizkitartean, baduela ere urrundik hurbiltze hunek bere gisako egokitasuna, eta, nahiz bi bide eta gogo osoki ezberdinetan, badutela euskaldun klasikoak eta erdaldun modernoak, bakoitzak bere hizkuntzaren erabiltzean, eta bakarrik huntan, halako ahaidegoa bat.

Oihenartek hautatu zituen beraz bi zailtasun olerkiari eman zenean: 1. erregela europatar klasikoen baitezpadakotasuna (bertsuaren eta neurtitzaren egiturari, silaben zenbakian bere beharrezko elisio eta sinalefeekin —eta ez, aitzinekoek bezala, bakoitzaren hautura—, errimaren, den gutienik silaba bat eta erdiekin, zuzentasun eta aberastasunean... Eta eztut sartu gogo oraino silaben azentuan eta «luzetasunean...»), 2. neurtitzaren laburtasuna (lau silabatik hamabietaraino), silaben zenbakia bietan edo hiruetan aldatuz olerki bertsudun gehienetan. Aldiz, egin ditu ere bertsegabeko olerki zenbait, ez ttipienetarik

(XVII-garrena adibidez: ohar gaiten Bernat Etxeparek eztuela egitura hori ezagutzen), olerkia horrela kantutik berexiz; bainan ezta hauetan gramatika aldaketa gutiago, iduriz. Neurtitz laburren hautu hau hobeki neurtuko da, oroitzen bagira Oihenartek berak diola euskarak duen —edo ukan dezakeen?— gogortasun berezi bat, olerkiko, hitzen luzetasuna dela edo bederen luzatzeko errextasuna:

«...*Cela* (l'élision et la synalèphe) *servira aussy a L'accourcissement des mots, La prolixité desquels, en notre langue, nest pas peu Incommode a la Poesie.* («*L'Art Poétique basque...*, P. Lafitte, in *Gure Herria* 1967, p. 221).

Oihenartek bere luma horrelako ariketara («gymnaztika-ra») menperatuz, ez ote du sortu han edo hemen neurtitz eta bertsuetan, aztertzailerik (René Lafon batek, bereziki) ikusi dizkion «iluntasun» hetarik zenbait, itzultzaileak (Archu bat Francisque-Michelek aitzineko mendean agertu zuen lehen itzulpenen) hutserat, edo bederen dudarat eror-araziz?

Erakutsi nahi ditut, eta ahal denean —ez beti!— argitu gramatikaren eta olerkaritzaren arteko harreman ohargarrienak, edo gramatikaren egitura ohituenak (Oihenartek mintzo zuen euskararen ez jakinean, eta badakit idazkeratik ahozko mintzaira ohituraino badela muga batez bertzerik...) hunkitzen, aldatzen dituztenak, eta zenbait aldiz ere —oro har, guti, uste dut— erran-nahia iluntzen ezpada gordetzen.

Ikertuko dira beraz, azterketa zenbait xehekiago emanez noiztenka, gai hauk:

- 1) deklinabidea,
- 2) aditzaren jobabidea 'ta moldaketa («morfologia»),
- 3) erranaldiaren egitura 'ta joskera («sintasia»),
- 4) neurtitzaren egiturak (bereziki errimak) ekartzen dituen «hauste» eta «jauziak» erranaldi jarraikian,
- 5) egintza berezi zenbait azkenik.

## I. DEKLINABIDEAN

Gai hau zabaldu bainuen noizpait xeheki, emaiten da hemen laburpenez eta gauza ohargarrienak erakutsiz bakarrik.

Neurtitzaren «beharretan», eta erran den bezala behar hertsia dituen Oihenartek hautatu, lehen lehenik hor ditugu 1) errimaren aberastasun eta egitura (aldizkatze, besarkatze, jarraikitze eta horien nahasketak: «*les besoins de la rime*» zion René Lafonek), 2) silaben zenbakia jakinez bai elisio bai sinalefak ezin huts eginak direla. Erregela huts horien gainetik, eztira ahanztekoak neurtitzak bereziki, eta ere edozein idazki estiloan ongi artatuk, dituen soinu arauak: zenbait behar direlarik hedatu edo azkartu errankortasunez, edo soinu gaitz («kakofoniko») zenbait baztertu.

Arau horien beiratzeko Oihenart baliatu da deklinabideak eskaintzen zaizkion ezberdintasun eta aldaketetaz, edo molde hutsetan (atzizkietan), edo kasuen balioan. Xuberotarra sortzez, Baxe-Nabartarra (Amikuztarra eta Ozti-bartarra) ezkonduz gerotzik, bainan ere euskalki orotara jakin-nahia, erabili ditu hizkuntzaren marradura edo margodura horiek, guti aipatuko den hiztegian bezala, gramatikako egituretan. Xuxen heldu laiteke hemen L. Michelenak gure olerkariak eta Axularrez zioena: «*Ba-zekiten garbitasunak gutxi ajola diola izkuntzari, aberastasunak, biguntasunak, errextasunak, berriz, asko*» (*Boletín de la Real Sociedad Vascongada de los Amigos del País*, 1953 or. 461).

Aldaketa guti agertzen da eta ager daiteke, ezpada mugadidean, deklinabideko kasu nagusi batzuetan: nominatibo, ergatibo, datibo, inesibo, eta instrumentalean. Gehiago elatibo, adlatibo, kausatibo, zoziatibo, prolatibo-etan, eta partitiboaren erabiltzean. Behar dira berezi forma eta erran-nahizko balioa.

### 1. Atzizki moldeak neurtitzaren egituren eta soinuan

(*Oharra*: errimak eta sinalefak emaiten dira hizki lodietan; olerki eta neurtitzen zenbakiak *Izpegi* argitaldiarenak dira).

**Elatiboa**: —ti, —tik, tila.

René Lafonek zioen Xuberotarrek biak erabiltzen zituztela, gehiago iduriz —ti, eta hau lehenago izen-lagun (adjetibo) egiteko atzizkia izana zela, *Atsotitz* zenbaitetan ikusten denaz («Sur les suffixes casuels —ti et —tik», *Eusko-Jakintza* 1948, orr. 141-150). Xuberotarraren hautuz, edo olerkariaren, Oihenartek badarabil gehiago —ti.

Erriman eztugu hau baizik aurkitzen, eta huna beraz ezberdintasun horren arrazoin lehena, delako «errimaren beharra»:

I 4 *gorreti*, 5 *aldeti*, 33 *gorreti*;

II 26 *gotorreti*; IV 16 *zureti*;

IX 25 *ontarzuneti*, 26 *hiltzeti*, 33 *aintziti*, 36 *hobiti*;

X 42 *penati*; XVII 7 *ilhunbeti*, 8 *herratzeti*, 56 *saihetseti*, 118 *zerbitzuti*;

XX 86 *zeruti*, 136 *lepoti*, 137 *ukoti*;

XXII 13 *kozuti*; 14 *bekauti*; XXVII 33 *jiteti*; 35 *peti*.

Ezpadugu, aldiz, —tik atzizkia erriman aurkitzen, gogoari eman behar da olerkariak aski ukan duela, molde horretako errima egiteko, —rik partitiboa: —ti—rekin orotara, molde bereko izenlagun eta *goiti* (*engoiti*, *jagoiti*) gainerat emanez, hogeita borts errima zenbakatu baldin baditugu, partitiboak egiten ditu bietan hainbertze: berrogeita hamar bat.

Elatibo agertzen da ere aldi bat —tila (XXII 24) atzizki luzatua: ikusiko da molde bereko bertze batzuekin.

Neurtitz barnean, —ti gelditzen bada nagusi (hogei bat aldiz), Oihenartek eztu —tik baztertu (hameka aldiz bederen). Hemen neurtizlariak behar ditu

silaben zenbakia eta soinua moldatu: noiz egin elisio eta sinalefak, silaba bat irabaziz (—ti), edo soinu gogorregiak ezabatu, noiz aldiz soinua bizkortu, edo silaba bat gehitu (—tik).

Lehenbizikoa (—ti) aurki daiteke hiru moldez:

gehienik kontsonante aitzinean: V 39 *leihoti jauziz*, 45 *gaurgoiti zerbait*; XII 33 *hanti nag*; XIV 7 *gaineti, hotzik* (hazkatuak sinalefa debekatzen duenaz geroz, ageri soinuak duela hautua ekarri); XV 31 *hanti datorra*; XVII 60 *erorteti begiratzeko*; XXII 26 *nonti bait*; XXIV 23 *zein ondoti, zein*; XXVI 52 *hanti-landan*, 72 *gordailuti hék*; XXVII 29 *aitziti ni*;

gero sinalefan: X 49 *ainziti, ederrik* (pondukatzeak eztu elisio ez sinalefarik kentzen, euskaran erdaraz bezala, non ezten koplaz zaharreko neurtitz luzearen gelditzean: ikus beherago); XIII 12 *gainti utzia*; XV 48 *jagoiti enanzuna*; XXVI 51 *zurati erautsirik*; XXVII 1 *jagoiti unha*;

azkenik delako hirueko ezberdineko (koplaz zaharreko neurtitz luzearen gelditzean («errima gabeko neurtitza» baitio bitxiki Oihenartek): X 27 *gaineti* /; XII 18 *hanti* /; XXVI 39 *karbategiti* /.

Dudan utziko da adibide hau: XIII 12 *oroaz gainti utzia*. R. Lafonek dio *gaineti* elatiboaren orde dela «menturaz» («est sans doute pour *gaineti*»): Oihenarten «lizentzia poetikoetan» lizate orduan, ezpazen haren aroko mintzairan erabilia; uste dut ere ikus daitekeela hor —ti atzizkiaz egin izen lagun hetarik («tenue par tous pour supérieure»), lizenziarik gabe beraz.

Neurtitzaren barnean, —tik herskariduna, hameka aldietarik bederatziz bokal aitzinean da, sinalefa hautsiz, edo, nahi bada, silaba baten irabazteko: XIII 4 *burutik oinzalala*; XV 9 *geroztik esperanzaz*, 53 *gaurgoitik oinaren*; XVII 26 *zerutik igorria, jagoitik eztela*; XX 129 *saparretik oldartzean*; XXIV 34 *gaurgoitik epa*; XXV 9 *jagoitik ezpaitugu*; XXVI 71 *hizkatzetik eskukara*.

Aldi bat hatskatuaren aitzinean da, horrekin bat egiten duela orduan hemengo euskalkiaren arabera: XV 37 *aitzitik haur da*.

Bakarrik aldi bat ere kontsonante azkarraren aitzinean: XVII 22 *aitzitik zitzauzte gibeltu*: herskari eta xixtukari lerro hortan ikus —entzun, bederen!— daiteke errankortasun bat *Museen kontra*-ko erasia bizkortzen duena; baina zenbat horrelako soinu-joko eztu ezarri Oihenartek kantatzetik berex moldatu dituen neurtitzetan, nahi ukan balu bezala, Mallarmé-k —berriz ere!— erranen duena aitzindu: «musikari bere ontasuna hartu», XVI-XVII-garren mendetako olerkariek, Europa gehienean, gogoan zuten xedea, balinba.

**Adlatiboa:** —ra, —rat, —la.

Ezta hemen eztabadaturko hea —ra denez —rat-en laburpena P. Lafittek zion bezala (*Grammaire...*, orr. 60. §140), ala —ra den gehitu —t emanez. Badakigu aldiz —la agertzen dela —a azken ahotsa duten hitzetan (id.), eta xuberotarra dela: horrela aurkitzen da aldi bakar batez erriman: XIII 4 *burutik*

*oinzolala* (hemen, *zola* hitzarekin zuzen heldu bada ere, Xuberoko moldean, errimaren beharrak soinuarena, ene iduriz, gainditu duke!).

Errimak badira hiruetan-hogeita bat hurbil —*ra* elatibodunak, silaba bat eta erditik (—*era*, —*ira*, —*ara*, —*ora*, —*ura*), bietara (—*tzera*, —*tera*, —*rira*, ***hara***) eta goiti (—*atzera*, —*itera*). Aipamen guzien ezartzea luzeegi heldu bailizateke, utziko da. Erran dezadan bakarrik elatiboa ezteela batere segur aldi batez: XXIII 8 *zure begira*, nahiz R. Lafonek zuzen emaiten duen elatibo balioan «à vous attendre»: «zure beha nago» itzuli erran-nahi eta egitura berekoan bezala, **begiratze**-ren aditz erroa izan daiteke.

Nasaitasun horren ondoan, Oihenartek eztu behin ere ezarri —*rat* erriman, edo...ezta behartu.

Neurtitz barnean berdintsu: aldi bakar batez eman du —*rat*, XVI 15 *nehorat joaiten*; nahiz *j*— «*i* konsonata» den Oihenartendako, eta guretzat «erdi-konsonanta», badiduri bokalismo azkarregia (eta «erdi-kontsonanteak» badu hemen zer ikus) hautsi nahi izan duela (*a-j-o-a-i*); ezpada zenbaitek —*rat* atzikiari demoten mogimenduzko balioa, baina bitxi laiteke aldi bakar huntan!

Gaineratuko da bertze adibide hau, —*rat* adlatiboa —*ko* genitiboaz luzaturik emaiten duena: XXV 4 *berzetratko amorioa*. Badakigu konsonante arteko bokal erorte hori, *tra tara*-ren orde, eki-sortaldeko euskalki zenbaitetan (eta xuberotarrean beraz) aurkitzen dela aski goizik, nahiz euskal ahoskerako ereduen etsai hutsa den (euskarak etorkiz ezagutzen ez duen delako «*muta cum liquida*»): guti baderabila orotara Oihenartek, moldea *Atsotitz*-etan zuen (adibidez 6 *aberats* eta 9 *abrats*), eta beharko da noizpait erakutsi atsotitzetan hartua dela Oihenartek olerkietan derabilan «tresneria» gehiena, hiztegi, gramatika, egitura edo gogoeta... Gehiago, lehenbiziko ahots gogortasun horren gainera bi atzizkiak lotu ditu arteko bokal ohiturik gabe: —*ratko* eta ez —*rateko*. Sinalefarekin ondotik, aski molde gaitzeko itzulia iduritzen zaigu, nahiz hobearen egitea gaitz den ere.

Bertze orotan —*ra* aurkituko da, edo konsonante aitzin (hamar bat aldiz) eta koplaz zaharreko gelditzean (aldi bat: XXVI *hetara / hauk datorrala*), edo sinalefa eginez (XVI 20 *nor'ezpaitakit*, XVII 25 *lurrer'etorria*, XX 109 *goitzirir'izar bati*: ohartzeko da elisio moldean emanak direla, baina bereziki azkenean sinalefak soinu hobe demala, *tiriri* baino hobe *tirirai* iduriz...).

**Bizidunekilako elatibo-adlatiboak:** —*ganik*, —*gana(t)*.

Lehenbizikoak eztu aldaketarik (ikus berdin —*tarik* elatibo plurala eta —*danik* aditz-lagunetan: XVII 19 *oraidanik*...), eta Oihenartek nominatiboari lotzen du, ez genitiboari: III 43, VII 6, 19, XXVI 31 *higanik*; XX 165 *aitaganik*; XXV 23 *zuganik*. Baina zer ote da XX 146 *harganik* ? Eztirudi *huraganik* dugula, bainan bai *harenganik*-en laburpena, beraz genitiboaren ondotik: gai hau urrunago ikertuko da, baina ageri dena da Oihenart ezteela hemen ere molde bakar batean gelditu, *harganik*-ek egiten baititu neurtitz laburreko lau silabetarik hiruak!

Hiztegiko gaia bada ere (idazleak baitema *hitz bekan*-etan), aipatzen dut XVII 25 *berainik* (orai eman ginezake *bere baitarik*), baitirudi *bera-ganik* zahar zenbaiten laburpena dela, edo *bere-ganik* genitiboarekilakoa (hitzetan emaiten duen *nurainik*-en egiteko behar da ustez *neure* edo *nure*...).

Adlatiboko atzizkiak azken herskaria hartzen edo galtzen du: erriman gabe da —*gana* (II, 2, 12, 107; IV 30; XX 40; XXVII 28) eta neurtitz barnean aldi bat (XVIII 33 *zugana jiteti*: erdi-konsonante aitzinean delakotz edo *tjiteti* hiru herskarien gogortasuna arindu nahiz).

Neurtitz barnean alderantziz, azken hau dugu, orotara guti eta hitz berdinetan: VII 23 *zu niganat hotzenago*, 24 *ni zugarat botzenago*: hitz joko, gramatika joko eta errankortasun ere konsonante aitzineko soinu gogor horren erabiltzetik, argiago oraino azken huntan: XV 32 *zure niganat gogorra*. Nahi balitz oraidanik ondorio bat atera, hauxe lizateke: erriman Oihenartek baliatzen ditu gehienik atzizki azken konsonante gabeak, aldi berean laburrenak edo arinenak, kontsonantedunak neurtitz barnean erabiliz eta bekanago.

Iduriz atzizki hau nominatiboari emaiten da, salbu aldi batez: XX 40 *beregana* (ez «*beragana*» edo «*bergana*»). Izan daiteke aldizkatze hutsa den bi egituren artean, ezpada itxuraz nominatibo horretan genitibo laburtu zenbait ikusi behar? Kausatiboan ohar bera egin daiteke, hasteko.

**Kausatiboak:** —*gati*, —*gatik*, —*gabila*.

«Kausatibo» izendatzen da laburpenez, P. Lafittek dioenean, arrazoinekin, «*causal ou concessif*».

Azken kontsonante gabea, hemen ere, erriman da gehienik (III 21, 24; VII 39; X 40; XIV 26, 26; XV 33, 35, 70, 72; XX 110), genitibo zaharrarekin (—*n* gabearekin) aldi bat: XIV 26 *bategati*, 25 *Iaincoagati*-rekin erriman. Errannahiak eztitu biak berexeten, baina bai 1º bigarrenaren itzuli ohituak («*Jinkuaatik*» entzuten da Baxe-Nabarran, eta «*zuregatik*» etab.) 2º lehenbizikoaren soinu gogorrak arteko —*e* gabe (ikus gorago bizkitartean *berzetratko*).

Neurtitz barnean agertzen da kontsonante aitzinean, biziki bekanago (XIII 12; XV 23; XXIII 14).

Errima guti egiten da azken kontsonantedunarekin: II 49 *horiegatik* (biziki ohargarri ere genitibo zaharra eta «neurtitzeko behar» delako gabea, —*ie*— sineresian ahozkatu behar baita, eta hitzak egiten du lau silabako neurtitz labor osoa), 50 *orogatik*: ohar gaiten bi neurtitzetan balio berean errepikatzen dela («*Malgré tout cela*» Lafon-en itzulpenean, eta nahi bada errepika hitzez hitz itzuli: «*malgré cela, malgré tout (cela)*»).

Neurtitz barnean usuago da, konsonante aitzinean aldi bat salbu (VIII 25 *hargatik utzi*), eta ere genitibo batekin: VII 11 *horregatik hura*. Badaiteke ere, silaba mugatzeaz bertzalde (VIII 25), errankortasun azkarrago bat bilatu duela poetak (adibidez: V 62 *Zergatik? Maite zintielakotz*).



XXII-garren olerkian (*Vexilla regis* elizako himnoaren parafrasia) Oihenart baliatu da —**gabila** atzizkiaz, hitzaren luzatzeko beldurrik gabe, errima eginez —**tila** adlatiboarekin (XXII 23 *gugabila*, 24 *zuretila*. «*L'auteur a sans doute ajouté, pour le besoin de la rime, le suffixe —la au suffixe d'ablatif —ti, par analogie avec le suffixe —kila variante de —ki*» dio R. Lafonek (op. cit. orr. 162). Ezta deus gehitzekorik, ezpada hau: XXII-garren olerki-parafraasiako estilo osoan aurki daitezkeen berezitasunetarik bat dela. Eta oraino hunkitzen dela Oihenartek gramatikari buruz ukan duen gogoia: «analogiaz» edo bertze, hizkuntzaren ahaletaz baliatzea, hedatuz behar denean. B. Etxeparek emana zuen lehen urratsa (bederen ezagun idazkietan aurkitzen dena), **baiezila** (*bayecila*) eginez **baiezi**-tik hiruetan (ikus P. Altunaren hiztegia orr. 28: I 219, IV 6, 15).

**Komitatibo edo zoziatiboa: —ki, —kin, —kila.**

Lehenbiziko genitiboari lotzen den atzizki (—**rekin**) hunen itxuretan, P. Lafittek dion bezala (op. cit. orr. 60, \$141) —**ki** Xuberokoa da bereziki: hortakotz ote du Oihenartek hoinbertze erabiltzen? ala hedatuago zen, bederen Amikuzeraino, haren aroan? ala hautua laburtasunak du manatzen hemen ere, edo errextasunak neurtitzen beharretako eta arintasunak? Egia da baduela euskarak hortara gabe nahiko hitz (aditz partizipio eta iragan, inesibo, adberbio...) sudurkaritik bururatzen denik, bereziki errimako.

Erriman, bada, aurkitzen da hamabortz bat aldiz (VII 31,33; VIII 23,24; XI 10,11; XIV 24; XX 16,75,78,123,126; XXV 15; XXVI53,54); —**kin** bakarrik bietan (XX 26,26). Neurtitz barnean hau usuago bada, gutiz (konsonante aitzinean XVI 33 *zurekin batu*; koplazaharreko gelditzean XXVI 78 *pikoeikin / garhaitu*; bokal aitzinean XXV 1 *zurekin ezagutze*, XXVI 75 *pikoeikin ezkontzeko*); —**ki** aurkitzen da sinalefan (I 14,17, III, 3,4), koplazaharreko gelditzean (XIII 30), gehienik kontsonante aitzinean (V 15, XV 6, XXV 8, XXVI 34,66; *eneki jin*, bi —**in** heldu ziren).

Molde arraroagoa iduritzen bazaiku ere gaur-egun —**kila** atzizki luzatua —**kin**-en ondoan, Oihenartek huni hautesten du errimako: IV 42 *zurekila*, XII 3 *batekila*, XX 115 *handirekila*, XXI 6 *begiekila*. Barnean aski du aldi batez, elisionean: III 7 *hirekil'aldiz*, baina ezta argi hunen abantaila «*hirekin'aldiz*»-ekin. Laffiten azterketa holaxe zen (op. cit. id. \$142): «—**kin** *marque l'union réalisée*, —**kila** *marque le mouvement pour se joindre à quelqu'un*». Eztut Oihenarten hitzetan holakorik senditzen:

IV 41 *Bat enaint'ehun / 42 Urtez behin zurekila*  
(*je ne puis m'unir une fois en cent ans avec vous*),  
XII 3 *batu naiz batekila*  
(*Je me suis uni avec une*) (itzulpena hitzez hitz),  
XX 115 *Lehia handirekila* 116 *Haren bila* (...) 118 *jarri ziren*  
(*Avec grand empressement ils se mirent (...) à le chercher*),  
XXI 5 *miratu* 6 *Dut neure begiekila*

(*Je l'ai contemplé de mes propres yeux*).

Gauza bera erran daiteke adlatiboaz Laffitek zioenaz: —ra «*je vais à*», eta —rat «*simple aller et retour*» (op. cit. orr. 60 \$140). Eta Oihenartek:

XVI 15 *Nehorat joaiten 16 zauzkidanean*  
(*Quand vous me (quittez pour) aller quelque part*),

XVI 19 *Noa horra, hara 20 Nor'ezpatakit*  
(*Je vais là, là-bas, sans que je sache où*).

Oihenartentzat, atzizki aldaketen erran-nahia baino gehiago, baliagarri da ahots egitura hutsa, berari doakon errankortasunarekin behar denean (luzeak eta kontsonantedunak azkarrago, gogorrago eta horrela).

**Prolatiboa:** —tzat, —tako.

Oihenartek baderabiltza biak: P. Lafittek «*à titre de*» itzultzen duen hutsa —(t)zat (X 36 *jabetzat «pour maîtresseà»*), eta Lafittek «*prolatif d'intérêt*» deritzon —tako, bertze batzuek *destinatiboa* (XIII 32 *potarentzat «pour le baiser»*), edo mugagagean, edo genitibo mugatuarekin. Erran nahiz beti berexiak balira, elukete hemen ikertzerik. Baina jakina da ere lehenbizikoa bereziki lapurtarra dela, bederen orai, bigarrena baxe-nabartar eta xuberotarra.

Balirudike horrelako dialektera berexkuntza zenbait badela Oihenarten erabileran: errima bakar bat delarik lehenean (XV 27 *maita saritzat «pour récompense d'amour»*), bortz badira bigarrenean (XVII 29 *enetako*, 30 *zertako*, XX 4 *hartako*, 5 *saritako*, 19 *amatako*; ohar gaiten bortzetarik hiruek har lezaketela —tztat, *enetzat*, *saritzat*, *amatzat*), beraz hemen ere bokaletik bururatu.

Barnean aldiz bigarrena da aldi bat sinalefan (IV 14 *zuretak'aski*: ezarri balu *zuretzat* berdin heldu zen), eta lehena zortzi aldiz: mugagabeen (VI 34 *ezteiaritzat «pour misérable»*, XIII 60 *ororen patroinzat «comme modèle pour toutes»*, XXI 28 *argitzat «pour lumière»*, XXVII 25 «*ezdeustzat zuk dadukazu «vous le tenez pour rien du tout»*), berdin aditzarekin hartzen duela orduan helburuzko balioa (V 55 *zirentzat xahu «pour que vous soyez lavée»*, XXII 13 *xahu gentzantzat «pour qu'il nous purifie»*, eta ondoko neurtitzean balio bera atzizki gabe 14 *Ikez gentzan bekatuti «pour qu'il nous lave du péché»*), genitibo mugatuarekin (X 33 *del'enzat «qu'elle est pour moi»*, XIII 32 *potarentzat lardea «sévère pour le baiser»*). Ondorio bat atera baladi aldizkatze hortarik, soinuarena laiteke: laburrena gehienik orotara, eta errimako bokalduna.

Gertatzen da Xuberotarren moldean, —rentzat genitibodunaren ordez genitibo hutsa balio berean: XI 23 *eder eztena 24 Hi bezalako ederraren «ce qui n'est pas beau pour une belle comme toi»*, XVII 43 *orai baititut baten'biga «car j'en ai maintenant deux pour un»*. Hau da «hitzen laburtzeko» molde menturatuago bat, eta morfologiarekin batean, hunkitzen duena ere gramatikazko egituren erran-nahizko balioa; bainan, zer balioa du apoztrofak?

**Bertze deklinabide kasu zenbait...**

Oihenarten **datibo ainitza edo plurala**, Xubero Nafarroa Behereko moldean, beti **—er** da (XIII 6 *bertzer ari dir*); **—eri** denean ikusi behar da mugagabea: XXIV *Zuri huts, et'ez bertzeri*, R. Lafonek itzultzen du «*vous seule, et personne d'autre*»; eta berdin **—ri** IX 39 *herri orori*, nahiz pluralaren balioarekin zenbait aldiz, **oro** mugagabea baita. Ohartzeko da bizkitartean biak erriman direla.

**Instrumentala**-ren forma bakarra **—z** da; baina Oihenartek aditz partizipio edo izen instrumentaldunaren ondotik, **gero** eman dezake instrumentalean, orai Iparraldeko euskalkietan bezala, edo gabe:

III 33 *hik joz geroz bihotzean*, VIII 14 *jarriz geroz amorioa*, IX 36 *sartzeraz geroz, hobiti* (R. Lafonek itzultzen du «*tiré de la tombe alors que j'allais y entrer*»; baina uste dut balio duela «*après y être entré*», «*etxeraz geroz*» «*après être rentré à la maison*» den molde berean);

XVII 30 *hura galduz gero zertako*; XXV 2 *basiz gero Ederragoa* (sinalefa).

Aditz jokatuarekin instrumentalik ezta:

VI 33 *behar dudan gero*; XVII 117 *axol guti* 118 *duzuen gero* (orai hemengo euskalkietan agertuko zen aditza ere instrumentalean: *duzuenaz geroz*).

**Inesiboa**-k eztu onartzen formaz aldaketarik, **genitiboa**-k bezala (ikusi da Oihernartek, atzizki aitzinean bakarrik, emaiten duela azken sudurkari gabeko genitibo zaharra, zuzenez personaletan gelditu dena, erakusletan: *haregatik, horregatik*; baina ez *Etxeparere kantuia*-k deman bezala izenetan). Bizkitartean ohargarri da XII 2 *Hor, hebe, laztan bila*, eta ez ohi den bezala **heben/hemen** (etimologiaz, **haur** lehen erakusletik, ikus L. Michelena, *Fonética histórica vasca*, orr. 177), atzizki laburtua beraz, xuberotarrez egiten omen dena oraino. Oihenartek hautatu duke laburtasun horren gatik eta azken sudurkariaren errepikaren hausteko («*hemen, laztan*»). Azken sudurkariaren emaita edo erorte ezagun eta euskalki guzietan osoki hedatuetako berezitasun bat beraz.

Nahiz **partitiboaren** atzizkia **—ik** aldagaitza den deklinabidean, azken herskaria galtzen du, dudarik gabe aitzinean erakutsi atzizkiekin analogiaz (eta bereziki elatiboarekin), **baizi(k)** hitzaren erabileran (**—bai** erroaren aldaketak bertzalde): I 4 *Zu bezi ehor* sinalefan, II 65 *Baliz baizi* erriman, V 16, VII 7 *bezi* erriman, XIII 27 *Baizik izartegia*, 81 *Baizik ogen* konsonante aitzinean, XVII 34 *bezi* erriman, 100 *Baizik higatuz* konsonante hatskatu aitzinean, 124 *Baizi nigar* konsonante aitzinean, XXVII 24 *baizi anhitzetan* sinalefan. Hemen ditugu erabil molde guziak, deklinabideko eredu beretan, bereziki errimako bokaldunen hautuan.

### Jabetasunezko eta erakusleen deklinabidea

Jabetasunezko eta personalen deklinabideko ezberdintasunetaz baliatzen da ere Oihenart: lehen personan **ene**, **neure** eta ere aldi bat erriman **nure** (II

41 *Eta, nure* 42 *Bezain, zure*: hurbil dezagun berdin Xuberoako moduan eta erriman galdezkoa: III 46 *Jin, eta nura*, aldiz XVI 20 *Nor' ezpaitatik*); bigarrean *hire, eure*. Horrelako ahoskeraren aldaketa hutsak baziren *Atsotitz-en*

«tresnerian». Baliatzen du ere, bere erran-nahi berezian *nihaur, bihaur*.

Erakusletan, lehen edo hurbilak baditu *haur-en* diptongoa laburtuz eta idekiz —o—rekilako formak: *honen, hoién* (XXVI 5 *aho hoién bezagarri*: balio du *hauien*), *hôtan* (XX 43: erriman, azentuak erakusten duela laburpena), *hontan* (IV 9); baina ere bokal bakun hetsia atxiki dutenak kasu beretan: IX 26 *hunén*, XI 25 *hunetan* (erriman).

Jabetasunezko ala erakusle, instrumentala xixtukaririk hasten da: *nizaz, zuzaz, hauzaz, harzaz* (eta adlatiboan *harzara*)... Bitxiago da bigarren edo arteko erakuslearen hau, erriman segurki: XXIV 39 *galde nauzun horrez*. Zuzenago zen forma betean B. Etxepareren *horreçaz* (ikus P. Altuna, op. cit. orr. 101).

Hirugarren erakusleak baditu hirueko bokaldunak: *heiek* ergatiboa, *heier* datiboa, *heien* genitiboa; eta ahozko moldean laburtuak: *hek* nominatiboa, *hetan* inesiboa. Ezta aldaketarik bizidunekin; eta ondoko gairat, kasuen baliorat aitzinatuz, aski argi da itzuli huntan: VI 11 *Ezta, maitezko gauzetan*, 12 *Haurren borx'ahalik hetan*: erran nahi du «aitametan» (ez R. Lafonek uste duen bezala «gauzetan» errepikatuz aski moldegaizki, ezpaita horrelako hutsik, «iluntasunak» baldin badira ere, Oihenarten neurtitzetan).

Zenbaitetan hitz horien biek bokaletaz baliatu da sineresia edo dieresia egiteko, neurtitzaren behar arau: dieresiarekin XVII 72.74 *neure/ak*; sineresiarekin ahozko moldean XVII 3,76 *zuen*. Ahozko ahoskatze (erran badaiteke!) hutsa ager daiteke idazkian, diptongoaren bokal heste ohitu eta sineresian: XXIV 27 *Zuk zuriak belzuriak* (erriman dieresia, aldi berean hitz eta soinu joko ederra).

Nahiz ahoskera hutseko gauza den, aipatuko dut hemen Oihenarten azken olerki ezaguna, *Ilhartitza*: lehenbiziko errima biak eta azkena, oro dieresian, eginak dira ahozko molde hortan: *haitia, maitia, hobia*, zuzenez «hautua, maitea, hobe»; eztu, uste izan den bezala, Oihenartek bietan emaiten hitz bera erran-nahi berean errimako, berak errana baitzuen gain-gainetik debekatua zela olerki zuzenetan: lehenbiziko *hobia* «hil-hobia» da; bigarrena *hobe*; «*Arrain jaun, Zuberoako Iuje zenaren Ilhartitza*», idatzi du biziaren eta biziko mintza-molden idurian.

## 2. DEKLINABIDEKO KASUEN ERABILTZEAZ

Aitzinean aipatu diren adibideak eztira hemen berriz aztertuko. Ezta ere beti ageriko olerkariaren hautua ereman duen arrazoina, neurtitzaren egitura

(«beharra») den ala ez, ezpaitakigu aski xeheki, menturaz, XVI-garren mendeko euskara, Oihenartek ikasi zuena, nolakoa zen Xuberoa-Amikuzen.

Ohargarriena, gai huntan, forma aldaketarik gabe (—(ta)rik: ikus gorago **baizi/baizik...**), **partitiboaren** erabilera da. Oihenartek berak erakutsi du zein gaizki zen, Etxeberri Ziburukoaren neurtitzen moldean, kasu atzizki hortaz eta bertzetaz behar baino gehiago baliatzea neurtitzen neurriaren betetzeko: «...a fin datraper La mesure de ses Vers, Il redouble souvent l'article Entre l'adjectif et le substantif, comme Lors quil dict, **Enea galdea pour Ene galdea, pensamenduetaric gaxtoetaric pour pensamendu gaxtoetaric**» (*Lettre de l'Art Poétique*, op. cit. orr. 229). Ausartzia ohiz kampoko horietarik («*Licences Exorbitantes*» dio eskutitzak) zaintzen badu Oihenartek bere burua, huna errimako partitibo zenbait: IV 7 **Zu gabetarik** (8 **Dohatararik**); VII 29 **behinere gogorik**, 30 **Niri hunki egitekorik** XIII (hitzen urruntasuna salbu, Etxeberriren errepika iduri du); XIII (14 **halarik**) 15... ez **mehe soberarik**; XVII 121 **nehor niri obororik**, XIX (9 **Eztakiala ioan urterik**) 10 **Eur'aitorr'egin gabarik**; eta azken hau: XX 103 **guer'ondorik**, 104 **Nonbaitkorik**; partitiboak ekarri du elatibo forma zuzenaren aldatzea (**ondotik** elatiboa balio du) erriman. Oihenartek etzukeen «lizentzia» hau ohiz kampokoegia ikusten, are gutiago egiazko bertze partitibo horiek, ezpaitira, egia erran, gramatikazko huts osoak, bainan bai, bizkitartean, erdaraz erraiten den bezala, «iletarik doi bat tiratuak!» Badira bertzalde ainitz partitibo (bereziki **Laur karbarien eresian**) erriman ere osoki zuzenak. Oihenartek ikusten zuen muga lizentzia onargarrien eta hutsezkoen artean; zenbait aldiz, bekan, arina iduritzen bazauku ere, aitzinatuz oraino erakutsiko den bezala. Aipa dezadan oraino, hemen, «prosodia», jakinez nola Oihenarten «beharriaren» arabera («*Vous devez consulter vostre oreille*» dio eskutitzak), partitiboa, adlatiboa, prolatiboa «lerrakorrak» diren «**harzera, harturic, harzeco, avec L'accent en la premiere**» (*Lettre...* orr. 224), eta badutela beraz leku berezia erriman.

**Inesiboa**-ren erabilera gehienetan ohikoa da. Bereziki XV 14 **Enaiz orano, deusetan**, erriman izanik ere, gauza ezaguna da: «**Zertan zira?**» galdegiten da arruntki, eta ihardesten «**Deusetan**», **naiz/niz** aditza azpientzunez. Eztut beraz hor ikusten R. Lafonek zion «itzuli ilun» («*expression obscure*») hartarik; literalki «*je ne suis encore en rien*», erran nahi du «*parvenu à rien*». Berdintsu XXIV 22 **Dugu hetan ezarri inesibo** zuzena da («*nous y avons mis*») eta ez prolatibo balioan, «*L'inessif a ici la même valeur que dans l'expression bere honetan «pour son bien»*» badio ere R. Lafonek.

Bi inesibo mugagabe, nahiz forma ezberdinean, jarraikitzen dira, xubereraz oraino egiten omen den moldean, VII 34 **nitán gainen**: R. Lafonek dio zati hortaz «*L'ensemble est obscur*», eta inesiboak itzultzen ditu «*à mon sujet*», **nerre gainean** edo hobeki **nitaz** balitz bezala.

Inesibo mugagabea erabilia da ere XVIII 1 «**Iancotan bat huts iauretsac**», erdarako «*en Dieu, en tant que Dieu*» balioan, prolatiboari hurbil beraz («*comme Dieu*») eta aski itzulgaitza erdarala.

Ohargarriago zait bertze itzuli bat, Oihenarten neurtitz ederrenetarik batean. XVII 75 *Nangoenean noizpait udalen*, 76 *Andreak* («Museak» dira), *zuen albor zabal*en; Lafonek dio «*variante de udalan*», beraz errimako ahots aldatze hutsa; bigarrena zer da? *zabal*-en genitibo gibel emana? Huts eginen dut behar bada, baina bertze zerbait ikusten dut, hots bi inesibo: *udalen* erran-nahiz, inesibo garbia («*en travail d'été*»), bainan ere morfologiak, *udalane*n mugagabearen laburpena, euskarak hain ongi ezagutzen duen «haplologia»-ren bidez; *zabalen* erran-nahiz berdin inesiboa «*dans vos vastes campagnes*», eta formaz genitiboa, bainan ere inesibo mugagabe zaharra... Bederen dudazko erabilera, eta Oihenartek ezin ederkiago badagien «lizentzia», hizkuntzaren «arteketaz» baliatuz.

**Adlatibo** zenbait iker daiteke. Hala nola XIII 46 *Zirudien bertara* erriman; Lafonek «*très obscur*» ziona arrazoinekin: zuzenez datiboa behar lizateke («*ressemblait à eux-mêmes*»), bainan Oihenart datibo eta adlatibo kasuen hurbiltasunaz baliatu da (erdaraz biak à-tik itzultzen dira). Ohigabeago oraino XXII 2 «*Du Alferitzak ahurrera*»: «*le latif ahurrera a la valeur d'un participe passé*» dio Lafonek Lafitten Gramatika aipatuz (§429: «*quelques adlatifs employés comme verbes*»). Molde hortan ohiz kampoko aditza da bizkitartean *ahurreratze*, eta behar luke *ahurreratu*; hemen ere (ezpadu inesibo balioan emaiten: «ahurrean»?) egitura ohitua zabaltzen du olerkariak. Argiago, ene ustez, bertze hau: XXVIII 10 «*Burura behar duk erramu-boneta*», ezpaita hemen batere zuzen heldu bururatu partizipio «bururakorra», eztuelakotz Zalgizek *berak* eman behar «boneta burura», baina bai bertzek, aipamenak, Oihenartek: «*il faut te mettre sur la tête le béret de lauriers*». Errimak du bakarrik galdetzen aditz-izenean III 39-42 «*(...)herabe (...)Dinat, Argia, jitera*»: zuzenez behar zen *jitea* nominatiboan (edo *jiteko* sujeta *herabe* bada: literalki «*j'ai honte pour venir*»). Aditz-izenaren adlatiboari (eta bertze aditz molde batzuer) gehitzen duenean komparatiboaren —ago, hizkuntzako egituretzat baliatzen da, baina hauk doi bat hedatuz: V 30 *exekiterago auzat* (balio du *gehiago exekitera*). Bizidunekilako adlatiboa ohi gabea da itzuli huntan: II 8 *Badut (...)* 9 *Maitazarre zugana*; erran-nahiz maitasunaren mogimendua *norbaitemengana* erakusten du *zuretzat* prolatibo zuzenak baino hobeki, eta ondoko errimak adlatiboa zuen (hemen zuzen): 11 (...) *peitu* 12 *Bazara zu nigana*?

**Elatiboan** zuzen heldu da, erriman izanik ere, IV 16 «*Zuk ni zureti*»: «*moi de ce qui est vôtre*»; ezta beraz Lafonek uste zuen bezala *zutarik* elatibo personalaren orde: «*equivaut ici à l'ablatif du pronom personnel (...)à cause de la rime*».

**Genitiboak** ikusi den bezala (**baten'biga**) har dezake prolatiboaren balioa, kasu hau genitiboan egiten denean, eta beraz laburpenez elisione ezaugarriak (')derakutsan bezala: XV 65 *ó/(...)zur'*, ene bano, 66 *Eginen duzu gehiago*: entzuten da *zuretzat*, *enetzat*: bada beraz bigarren atzizkiaren elipsia osoa.

Ezta hain argi zein atzizkik dagien elipsia XXVI 3 *Egarriz botx'egoneta* neurtitz-erdian, eta Lafonek arrazoin duenez diolarik: «**bortxa doit avoir**

*valeur adverbiale*». Bertzerik ikus daite: hoberenik **bortxaz** «*de force*», baina lehenbiziko instrumentalak (gerundibo balioan) debekatzen zuen.

Duda bat sor daiteke XXII-garreneko adibide huntan: 16 *Ez ur ban' ur-ar'odola*. René Lafon-en azterketa zuzena da, iduriz: «*Ur-ar(a): à la manière de l'eau*». Latinak bizkitartean hau du: «*Manavit unda et sanguine*»: «zarion ura eta odola»; ez ote da entzun behar orduan «*urarekin odola*», zoziatiboko atzizkiaren elipsia osoa? Elizateke parafrasia hortako «lizenzia ausart» bakarra.

Nominatibo huts mugagageak (ikus beherago) prolatiboa balio luke X 22 *Argi zerbitzatzeko* («*argitzat*» erran ginezake, bainan erdaraz «*de lumière*» mugagabea), elipsia deusek ezteularik entzuterat emaiten.

Orotara deklinabidean, atzizkien ezberdintasunetaz harat, Oihenartek esku-ratzen ditu eta menperatzen, neurri batean, baina bekan eta gehienetan bederen neurtitzaren edo estiloaren beharrer hizkuntza gehiegi makurtu gabe, kasuen erran-nahia eta erabilera.

### 3. MUGAGABE 'TA MUGATU

Estilo arruntean mugaturik eman ginezazkeen hitz batzu Oihenartek mugagabea uzten ditu. Hautu hori ezta beti gramatikazkoa, **bezala** eta erran-nahi bereko (orai bizkaitar) **legez** hitzekilako adibide hauek derakustenaz: mugaturik I 1 *Egia dena bezala*; XXVI 21 *Orai izana bezala*; XX 124 *hila-legez*; eta mugagabea VI 16 *inhar bezala*; XXIV *Lasto-legez*.

Mugagabea eman daiteke mugatuaren balioan, sintagma berak mugatua duenean azken ezaugarria: XXII 16 *Ez ur ban'(...)odola*. Azken —a baliatzen da lehen hitzeko, Etxeberriren hutsari demala beraz «kontra-adibidea»!

Bereziki objeto eta atributoak mugagabea egon daitezke: II 8 *Badut(...) 9 Maitazarre* (ohiz balio luke «*badut ainitz maitazarre*»); VI 18 *Ezta hori ezkontze, bana da saltzea* (bigarren mugatzeak balio du beraz leheneko, eta artean... irabazi da silaba bat!). Berdin, mugatzea alderantziz, XI 17 *Zor din maitatu izateak* 18 *Ordainetan, maitatze*. Aditz osagailua egon daiteke ere mugagabe hutsean: XXVI 32 *Osagarri hik emanik* (ohituago bederen «osagarria»).

Adibide berak erakusten du partizipio bururakorra (atributoa balio du) mugagabe sinalefan eta erriman VIII 5 *naiz maitatu* 6 (...) *dezdixatu*. Aldiz, erriman XIV 33 (...) *aipatua* 34 *Zirat'* (...) 36 *Zerurano alxatua*, mugatuaren indar osoaz baliatuz.

Aditzaren osagailu zuzena mugagabea dago, laburpenak sortzen duela soinu errankorrago bat, XVII 69 *Gar behar zen gauzetan* (ez ohi den bezala *garra*: erdaraz ere muga bagean «*de la flamme*»).

**Ber(a)** osatuaren aitzinean gerta daite mugagabea: XIII 11 *baita ber-zuhurtzia*. Oihenartek emaiten du ondotik ere atributuan: IV 45 *Ban'ez ber*

*zaitudanean* (Lafonek aztertzen duela: «*Ber signifie ici «seule». Dans cette acception, il est d'ordinaire employé avec l'article»*).

Errege hitza euskarak mugagabeen du (hasteko jenden erran arruntetan: zenbat eztut entzun lehenago «Angeleterrako, Espainiako errege», nahiz Frantziako Euskaldunek etzuten erregerik!), eta Oihenartek bietan (haren aroko idazle gehienek bezala, baina hemen neurtitzaren gatik!), eta erriman: XX 111 *Iudu erregearen* 112 *Sortzearen*; eta aldiz itzuli berean urrunxago XX 112 *Iudu-erregez*.

Partizipio bururakaitza inesibo «zaharrean», mugagabeen da: X 22 ...  *nolako?* 23 *Ikusten gogarako* («ikustean» ginuke, gerundibo balioan, baina Oihenart baliatzen da ere, arrazoinekin ene ustez, inesibo mugagabeaz).

Artetan mugatzea ere errepikatzen da: XIII 10 *Zeren dena guzia* (R. Lafonek: «*Il semble qu'Oihénart, pour exprimer avec plus de force l'idée de «tout», ait employé ici les deux façons de la rendre, dena et guzia»*); bizkitartean ezin arruntago da *den guzia*, eta *den* oraino aditz hutsa («*toute autant qu'elle est*»); beraz erlatiboaren mugatzeak du bakarrik errankortasuna azkartzen, hizkuntzaren mugetarik den gutienik atera gabe.

Aldiz erlatibo mugatuaren (—*na*) elipsia osoa egiten da menturaz: XI 8 *mana nezana guzia*: «*Nezana est pour nezanan, dio Lafonek, comme dans la forme souletine nezaña pour nezañan*». Izan daiteke; baina uste dut mugatua dela hemen ere *guzia*-ren aitzinean, eta behar lukeela zuzenez *nezanana*, eta badiduri, mugatzea atxikiz, kakofonia eztitu dela elipsiarekin..., ezeztatu gabe.

Hutsik edo lizenzia «ohiz kampokorik» badela hor, bereziki aro zaharretako bertze neurtitzlarien ondoan. Etxeberri, Etxepare ala bertze, nork aitzina lezake? Oihenart agertzen zauku, olerki eredu egile, eta aldi berean egiazko euskarazko (erran nahi dut, gehienetan bederen, euskararen egitura berezietarik moldatzen diren) «lizenzia poetiko»-en eraikitzaile.

## II. ADITZAREN MORFOLOGIA, JOKABIDEA, ERABILERA

### 1. Aditzaren elipsia

Hain da ezaguna hizkuntza gehienek duten errextasun hau, eta bereziki latinak... edo euskarak, non auherlan bailitake kasik gaiaren ikerketa xehe bat. *Atsotitz*-en lekukotasuna hor, aitzina, aditzaren elipsia baita «estilo eliptiko» zaharraren (erran nahi dut euskaldunaren) osatzaile nagusia. Errangabe doa eztirela hemen aipatzen neurtitz egiturarekin zerbait ikusteko duten gaiak baizik. Oihenartek, bizkitartean, eztu hainbertze erabiltzen aditzaren elipsia, hau erranaldi xoilenetan baita gehienik, eta Oihenarten erranaldiak gehienetan luzeak eta batzunik baitira; hiru gorputz irudietan (X, XII, XIII) gutiago,



eta beraz horietan da aditz elipsia ohituen leku berezia (ikus adibidez X 16-27, lau bertsu aditz nagusirik gabe).

Gerta daiteke elipsi ohargarria, hala nola XVI-garrenaren lehen bi bertsuak aditz nagusirik gabe dira, R. Lafonek dion bezala: «*Il n'y a pas de verbe dans la proposition principale (...) S'il y en avait un, il serait au conditionnel. Le verbe qui vient à l'esprit est «faire».* Baldintza bai, dudarik gabe; bainan ezan laguntzaileak du bakarrik huts egiten («nezakete»), erroa hor baita «argi» (beraz «*ce sont vos beaux yeux qui m'éclaireraient*»). Eta horra hemen, artetik, Oihenartek moldatu dituen neurtitz arraroenetarik zenbait, estiloaren eta egituraren aldetik. Olerki berak urrunago dio: 7 *Zuk hori egiten 8 bezanbatetan*, behar da entzun *edun laguntzailea (duzun)*, elipsia arraroa ere, jendetasunezko bigarren personan eta erlatiboan.

Mintzaira arruntean ohitua da laguntzailearen elipsia, nahiz ere baldintzan, gero agertzen denean (*enainte*): XVII 44 *nol'ez biga* 45 *Nol'enainte...* 48...*porroka?*

Erranaldi oso batetaraino heda daiteke elipsia: XXVI 64 *Herenak zinhardetsana* 65 (:\*) *Eztinat...*(»). Uste dut entzun behar dela erranaldi nagusia «Hau izan zen» edo holako, R. Lafon-ek ikusten badu ere neurtitzeko lizenzia hutsa («*l'a final a été ajoutée pour les besoins de la rime*»): Oihenartek, bederen, «itxurak salbatu ditu», erran nahi dut gramatikarenak eta zuzentasunarenak.

## 2. Jokabideko aldaketak

Baztertuz aditz erroen ahots aldaketak, hiztegiari lotzen baitira gehienik (adibidez *ikus/ekus, etzan/etzin/etzun, ukhen/uken*) herskari hatskatu ala hats gabe (*ik(h)us...*), aditzaren molde ezberdinetan agerienak izan-en jokabidean dira: oraian Etxeparek etzuen, Nafarroa Beherako molde iduriz zaharrean, *niz* baizik (P. Altuna, op. cit. orr. 115-117) (bizkitartean Iruñeko 1415-eko eskutitzean *nayz*). Oihenartek baditu *niz, hiz* (III 4-5 erriman *baibiz*), olerki berean *niz* eta *naiz* elgarri hurbil (V 41 *Noiz ere bai-naiz orhitzen* 42 *Zin zinez, baniz hil-nahitzen*: aditza barne da neurtitz bakoitzaren bokal harmonian, eta dudarik gabe hunek du manatzen); edo urrunago (VIII 5 *Maite naiz eta naiz maitatu*; 25 *Eta hargatik utzi baniz* 26 *Abaid'*, *adizkidez fida niz*: lehenean harmonia, bigarrean errima); eta ere *nitz* VIII 6,26. Pluralean aurkitzen dira *gara* XXVI 6 eta *bagira* V 23, *zara* II 12 eta *zira* V 24; datibodunetan *zait* XVII 55 eta *zautan* XVI 14, *baitzauzkit* XVI 325 eta *baitzitzauzat* I 24. Bigarren laguntzailearen iragan pluraleko formetan (\**edin* erroa) aldizkatzen dira *ziten* XX 103,148, XXVI 18,57 eta *zitezen* XX 96 (ohar gaiten olerki berean: XX).

Iragankorrean (\**edun, \*era(d)un* erroak) huna zenbait ezberdintasun: *naduke* X 61, *neduke* XIII 6,72,77; *duela* XIII 57, *diela* II 15 (Xuberoa eta Nafarroa Behereko diptongo hesturan); *nauen* X 42, *n'aien* VII 6; *baikitu*

IV 51, **ezpazitu** IV 54 (ohar **baikai**—, **ezpazai**— bokal errepika hausten dela, eta beraz «harmoniaren beharra» nagusi, iduriz) eta **gaituelakotz** XXII 55, **zaitu** IV 59 (beraz —**zitu**-ri hurbil!). **Joan** aditzak har dezake, idazle gehienetan bezala, bokal arteko hatstuna: **noa** XVI 19, **nohela** 32. Eztira aipamen guziak emaiten.

Aldaketa horietan leku berezia dadukate Oihenartek atsotitzen lekukotasunaz baliatuz (eta dudarik gabe ere haren aitzineko tradizioe literarioaz) derabiltzan ahozko molde laburtuek. Gehienak eta ezagunenak laguntzaile iragankorrean ditugu: *neke biga itut* (ditut: sinalefak «irabazten» du silaba bat, Lafonek oharatzen duen bezala; emaiten ahal zen «neke bi ditut» XVI 28, **tutzula** (dituzula) XIV 30, **draukat** X 34 (231-garren atsotitzean **drauku**; ikus ere Leizarraga eta b.), **Argiratu'tut** (XVII 7: elipsi markatua). Ohargarriena, hutsa ezpada (?), VI 22 **darote** «derautate»-ren laburpen ohigabez. Zalgizzen zonetoan *bute* hartzen dut agintera zuzen bezala (eta ez R. Lafonek uste zuen **badute**-ren laburpenetako, erran-nahiaz baliatuz, nahiz Oihenarten lizenzien mugen barnean litzatekeen). Ahozko formak dira oraino **dautano** XIII 11, **elauke** II 52, **enendauke** II 61 (dagotano, elagoke, enendagoke).

Ohiz kanpoko formak badira ere, nahiz zuzenak, eta Oihenartek beti bezala neurtitzaren edo harmoniaren beharretako hautatzen dituenak: III 44-45 **Noiz nakidana dakidan Jin** (...) 48 *Eta han bat akidan*: ahots joko hutsa bertsu osoan, Oihenart soinuaz jostatzen balitz bezala, ez ironia eta irri maltzurrik gabe maitarien «zinkurinen» alderat; berdintsu XXIV 33 **Dakit dakidizula**. Errimari zor dira forma zenbait, nahiz zuzenak: II 31 **Haur hal'ezten** («*Vers très obscur*, dio Lafonek, zuzen aztertuz bizkitartean: *La forme relative ezten* (...) *ne peut avoir qu'une valeur finale*(...)»); aditz hutsaren subjuntibo balio hori ezaguna da idazle zaharretan); IX 9 **daritzana** («uste duna?»); XVI 15-16 **Nehorat joaiten zauzkidanean**: Lafonek «obscur» dio, nahiz datiboa zuzen heldu den euskaraz, et oraino arruntki erabilia; IX 30 **Zeren hik hil banuken** 31 **Aipatu duken**: lehenbiziko aditzak (Lafonek aztertzen duen *bai*— ordeko *ba*-ez bertzalde, Xuberoko moldean) erlatibo forma hartzen du (orai —*la*).

Huts zenbait utzi ote du ere Oihenartek jokabidean? XXI 2 **Duzkizu** objeto pluraldunaren orde **duztazu** singularra behar laiteke, arrazoin osoan R. Lafonek dioen bezala. Berdin erabilia zuen VII 19 **ikuskitzu**, baina hemen errima egiteko: lizenzia batek ekarri duke bigarrena, beharrik gabe. Nork eztaki bizkitartean euskal ahots egiturak, bereziki aditzean, baduela —*zk(i)*— multzorat halako ixuri bat? eta ez ote du hemen idazleak emaiten —*zt*— multzoaren ordain? Hona hasteko aditz laguntzaile gabeari ikusi dakon abantaila ageriena: laburtasuna, «*la prolixité*...» delakoaren erremedio bat...

**Alokutiboa**, hain ezaguna B. Etxepare garaztarraren neurtitzetan, eta ere Garaziko (eta ingurune zenbaitetako) euskalkiaren osagailua, Oihenartek eztu

baztertzan; erregulartasun osorik ezpadu berenaz, gutiago oraino *Oihenarten gaztaroan*. Badiduri neurtitzaren egituratzeko baliatzen duela, eta ardura erriman: I 27 *Harria xila zirozu* 28 (...) *niagozu*; hortik harat *zu* (sujeto ala objeto) gabeko aditzak alokutibo gabe dira: *lilitu da, gnerthatu da, eztut egin, dut, niz, nobela*. Garaztarraren bokal hetsiduna ager daiteke ere: V 15 *nahi nikezi* (=nuke+alok.), bainan olerki berean eta berdin erriman 49 (...) *duzu* (=da+alok.), eta gehienean alokutibo gabe (1 *Nik eztut*: ez «eztizit»). Ikus ere VI 27 *Zuzaz dizut* (silaba bat gehituz *dut* balio du, bainan errepika errankorra da), VII 21 *hatzen dizu*, 34 *etziakizu*. Adibideak gehiago luzatu gabe, argi da Oihenartek baliatzen duela alokutiboa, ahoskera ohituan ala garaztar molde hetsian, edo errankortasunez (eta erregulartasunik gabe izanez, badatxika gehienetan indar berezia, neurtitzaren harmonian sartzen denean gehiago), edo silaben zenbakian, edo erriman. Badira ere olerki alokutibo gabeak: gertatzen da beraz estiloaren ezberdintasunetan sartzen ahal dela.

Alokutiboa arruntago da, edo bederen hala iduritzen zait, *no*-ka eginak diren olerkietan (adibidez III 2 *Eztinat...*, IX 8 *Zitin* (orain *ditin*)..., XI 6 *Prest nun...*, XXVI 65 *Eztinat...*), nahiz ere gehienetan erregulartasunik gabe: Oihenartek entzun-arazten baitu jendearen, eta bereziki gazten arteko mintzaira ohitua.

R. Lafonek ikusi du aldi bat «itsas-aldeko solezismo»: XXII 48 *zor utena*: *zor* hitzarekin jokabidea doi bat berezia bada ere (erraiten da *zor dautzut* eta *zor zaitut*).

### 3. Aditzetik izena

Euskal aditza izenari hurbil baita, hartzen ditu izenaren edo izenlagunaren markak. Horrela Xuberoako molde berezian, aditz-izena instrumentalean erabiltzen da bertze euskalkiek partizipioa bezala gerundibo balioan: I 1 *zutan pensatzez*, II 16 *zure artatzez* 17 *Zerbitzatzez*, VI 5 *zuri beti iarraikitez*, 6... *zerbitzu egitez*... IX 36 *Sartzeraz geroz* (ikus gorago); bainan ere I a *Zu begistatuz geroz*, 25 *ardur'arduratuz*, V *Em'ibiliz, eme hatsartuz* 33 *Eta haztatzez*...: bi moldeak hemen lerro berean.

Partizipioaren izen huts emaiten, ezaguna da B. Etxeparek bazekiela ezin hobeki. Oihenartek ere, eta deklinatuz (III 23 *Maiz pensaketa* 24 *Egonak*: ohar gaiten alta erranaldi oso bat dela izen egina! XX 12 *Bere bilaz*). Partizipiotako, aldiz, aurkitzen da izenlagun hutsa erriman: XXIV 8 *Nahiz izan sendoa* (=sendatua).

Ausartago da ohi gabeko aditz formek ukaiten dutelarik izen lagunaren gradoen atzizkia: aditz-izen deklinatuan (V 30 *Exekiterago* eniz *auzat*), partizipio bururakaitzean (III 11 *Nun botzen-ago*; VII 24-25 *hotzen-ago* (...)*gortzen-ago*). Atsotizetan baziren horrelakoak: 510 *Axeria nehorik borhostago*... 636 *Iainkoagana, ukhenago duena, da zordunago*. Hona ere soberatasunezko atzizkia partizipio instrumentaldun gerundibo balioan: 511 *Bethegiz zorroa*

*lebertu doa*. Urrats bat urrunago (urrunegi?) eginez, Oihenartek emaiten du atzizki bat «libro»: XIII 38 *ez egi* «ez sobera» baino laburrago, eta euskaldunago? Egia da atzizki hutsaren eta hitzaren arteko mugak iragankorrek gertatu direla zenbait aldiz euskararen (ikus adibidez J. Etxepare medikua eta —*koi*).

Aditz-izenekat itzuliz, eta baztertuz Oihenartek aditz (edo izen eta b.) egiteko hartzen duen errextasuna, hizkuntzak hitz egiteko duen errextasun beraren araura (adibidez *honlakatze*, *bertzelakatze*, *erbitatze*), xuberotar moldean (ikus Lhande, *Dictionnaire...* 684) lo izenetik emaiten du *lotze* (ez nahasteko bertze *lotu/lotze*-rekin XVII 111) aditz-izena, erriman: III 36... *bait'are lotzean*.

### III. JOSKERA ETA ERRANALDIAREN EGITURA

#### 1. Aditz-izenaren osatzailea: genitibo ala nominatibo

Gai hau aski xeheki aztertu baitut joan den Lucien Bonaparten mendeburuko kongresuan, lasterrez aipatzen dut. Oihenarten erabilera zuzena genitiboa da: erran nahi da aditz-izena ez dela aditz bezala baina izen bezala gogatzeko eta erabiltzeko. Hortakotz ezin bekanagoak dira Iparraldeko idazle eta olerkari zaharretan, XVIII-garren menderaino bederen, nominatiboarekiko adibideak; bizkitartean, jakina da olerkariak gehiago derabilatela, eta hemen ere jo egiten dugu delako «neutitzaren beharrekin». Erran behar da oraino, nahiz bazekizkian nehork baino hobeki bere aroan euskararen berezitasunak, latinaz zuen ezagutzak eta erabiltzeak bultzatzen zuela egitura nominatibora; gehiago, ohartzen bagira, euskal hiztegilari bezala ere (*Neurthitz hauetako hitz bekanen adigarria*; Pouvreau-ren hiztegi oharra: ikus Mari Jose Kerejeta «Oihenart Sylvain Pouvreau-ren hiztegi», *ASJU XXV-3*, 1991, 865-899) aditz-izenak, mugaturik ohi zen bezala, erdal «infinitibo»-tik itzultzen zituela.

Aditz-izenaren osatzaile mugagabeak, edozein izenenak bezala erakutsia izan da «genitibo markagabea» balio duela, adibidez:

I 24 *zuri bi hitz erraiten*; V *bi hitz zuri erraiten*; XVIII 83 *itots-emaiten* 84 *ogi epaiten*.

Nominatibo ezaguna guti agertzen da, bederen argiki:

II 48 *En'erranak phuztatzez* («phuztatuz» partizipioan balitz nominatiboa zuzen lizateke: ikus gorago aditz-izen horren erabilera); IX 1 *Berritzen ar'iz(...)* 4 *Egin erautan zauria* (ohargarri da osatzaile nominatiboa aditzaren gibelean urrun, eta ezarri balu «berritzen dun» zuzen heldu zen: ikus beherago erranaldiaren egitura); XXI 10 *Jenter gorde'agertzeko* (elisioneaz ikus gorago, eta beherago); XVII 102 *hék hartzera herabez*.

Egitura horien berdinak badira genitiboan: IV 20 *zur'ikustez*; XII 5 *haren bertuten (...)* 6 *Ari dir'eranzuten*; XX 8 *Teiarzunen 90soki garbitzeko (...)* 11 *Gizonaren* 12 *Bere hilaz pitzeko*; XVII 24 *ene bizi erazitara*.

Hizki organiko elisio denean (XXI 11 *glori'emaiteko*), eta jakinez atzizki osoaren elipsia (ikus gorago) gerta daiteela, duda gelditzen da (XV 28 *Maite zaituen'egozteko*). Arrazoin horien gatik, eta bereziki nominatiboaren bekantasanaren oro har, genitiboa hartzen ez tuten itzuliak ohiz kampoko bezala azter daitezke, eta egiazko «lizenzia poetiko» bezala Oihenarten neurtitzetan; neurtitzaren eta gramatikaren arteko joko horiek bere eragina ekartzen dakote estilo poetikoari.

## 2. Erranaldiaren egitura: hitzen ohizko lekutik aldatzea

Hizkuntza deklinabidedunen erranaldia, deklinabide gabekoena baino libroago dela gauza ezaguna da, eta, adibide arruntak hartuz, euskarak borogutzen duela latinak bezain ongi, nahiz bere moldean zenbait gauzetan. Bainan deklinabide gabeko hizkuntzetan ere, estilo poetikoaren ezaugarri ohargarriena, edozein irakurtzaile edo entzulentzat, hitzen ohiz kampoko lerrokatetik heldu da.

Oihenartek du, gehienik gure olerkari eta idazle zaharretan, eta urrundik ere, erranaldiaren egitura ohitua kordokatu, edo hitzen lekuz aldatzetik, edo ere neurtitzaren neurkadak (silaben zenbatzeak eta multzokatzeak, eta errimaren indarrak, nahi bada) erranaldiaren batasunari badagion bortxuaren ondorioz. Hortik datorrela, aitzinean aipatu den morfologiaren ezberdintasunetik baino gehiago, Oihenarten irakurtze zaila, nehork guti uka dezake. Ikertuko dira hemen egitura aldaketa horien molde nagusiak, xehetasun orotara sartu gabe.

Eztadin uste izan, hargatik, Oihenarten neurtitz eta bertsu guziak edo gehienak entzun-gaitzak direla, behar dut ere azpimarratu, gure olerkariaren erranaldi ohikoa, «arrunta» nahi bada, ezpada beti egituraz xoila, ezin lañoagoa dela, «laua» (bi hitzak latinetik: «planum»), hitz-laxo hutsa iduritzera inokoa, «prosaikoa», ainitzetan. Hobeki ageriko da laxo moldean idazten eta erraiten badira, neurtitzaren egitura ahantzirik (ariketa hutsa da hau, ez irakur molde zuzena), bereziki olerkien hastapenetan (XVII-garreneko itzuli eta hitzak atxikiz, edo «arkaismoak»):

I 1: *Erranen duta? ahal dezaket, egia dena bezala, zu begistatuz geroz zu bezi ehor etzautala laket* (azken hitza da lekuz aldatu).

II 1: *Margarita, badaidita othe huts zin eginez begiz urdin bezain gordin zarella zure gitez?* (hizki bat aldatu da).

IV 1: *Zuzaz bertzerik maiterik nebor eztudalarik herrian, zu bezain gorrik ez hain gogorrik eztudala da aguerrian* (hitz bat lekuz aldatu da).

XVI 1: *Nahiz ezpegi (=ezpeza egin) gauaz ilhargi, ni zure begi ederrek argi (nezakete), heien gordatzen ari ezpazine beti miratzen dagotenari* (aditza eman da, eta hitz bat lekuz aldatu).

Olerki egituraz preziosenetarik den hortan berean, huna oraino erranaldi lañoenetarik bat (luzetasunak eztu lainotasun gordetzen, hartzen baititu hiru bertsu, nahiz laburrenetarik): *Mina iragaiten zautan artean, nehorat joaiten zawzkidanean, zerik inhara, akit naiteeno, noa horra, hara, nora ezpaitakit, ustez naiteen hel erortera zu zirateen leku berera* (hitz bat ere lekuz aldatu da). Egia erran, uste ginuke maitasunezko eskutitz zenbait, ederki eta biziki itzulia segurki.

Erranaldiaren itxuraldatzeko, eta neurtitzaren beharrari moldatzeko, aski da guti; Oihenartek ainitzetan hitz bakar bat du, erranaldian, lekuz aldatzen edo osagailu ohitutik urruntzen:

aditz laguntzailea edo partizipio-erroak: IV 10 **Banaiz jaikiten...**, 46-47 **Erraiten Ezin derauzudanean**; V 42 **baniz hil-nahitzen** (ohar ere «baizeko» ba-ri); XII 6 **bertzer ari dir'erantzuten**; XIII 8-9 **garhaitu Prestuz, et'ontarzu-nez, bertze nesk'oso baititu**; 79 **Banau er'iraitziko**; XIV 27 **iraitz enezazula**; XVII 35 **naiz hebainduko**; 37 **Zeren bainaiz harzaz gabetu**; 64 **Bihotzak zautan-kal ehaiten** («bihotzak ehaiten zautan-kal»: ikus gorago), 112 **zatela sendotu**; XVIII **etzak ohora**; XX 61-63 **Bazedin ordu berean Otoitzean Iar...** (Aldiz 64 *non senti baizezan*); XXIV 45 **Bertarik nuzu ikusiko**;

atributoa (sujeto edo objektuaren): I 3-4 **Iaket Zu bezi ehor etzautala**; II 51 **Baninz fida**, 103 **Beharrenik emadazu dudana**; XI 13-14 **Zer probetxu edertarzuna Da hire gorputzean...?**; XXIII 7 **Baduz'uste**; XXIV 16 **Da gauz'ezinezkoa** (oraiko Euskaldun batzuen moldeko erdal egitura: baina hemen neurtitzak du manatzen), eta bi moldeak «kiasman» XXII 27 **Argi da, da distiatu**;

objektu, erranaldi «konpletiboa» denean ere: XI 13-14 **Aldiz dun maitaria-ren Mait'orde hig'uken**; aldaketak ekarri du aditz erlatiboaren mugatzea (ikus gorago) XXVII 26 **Nik neke hartzen dudana** (=hartzen dudana nekea);

izen osatzailea (edo izen-laguna:hura aitzinean, hau ohiz gibeletik) eta osatua: VI 14 **Ederza, nezkatu onaren zegina** (bien aldizkatzeak osoki argitzen du itzuli iduriz bitxi hau); XIII 36 **Saldoa maitariri** (xuberotar moduz baliatuz, ezta batere hortakotz «ilun» Lafonek zion bezala: «à une foule d'amoureux»); XV 24 **bertze zerbitza zaitzan bat**; menturaz **zabalen** genitiboa bada (ikus gorago) XVII 75-76 **udalen Zuen alhor zabalen**; XX 18 **Hitz neurtutan gauz'emanak**; XXII 31 **Honein saindu lohadarri** (*honein-ek* erakusten du *saindu* ezteela izen).

Hiru hitzak lekuz aldatu dira erdal egitura emanez... errimaren eta sinalefa-ren-gatik: V 55 **zirentzat xahu eztakuruz** (=eztakuruz xahu zirentzat), XX 141-143 (*Alegia*,) **Gutizia Ioan Iesusi gurtzera** (=Iesusi gurtzera ioan gutizia). Lauak ere XIV 23-24 **Ninzatela zait iduri Sendo** (=iduri zait sendo nintzatela).

Gai hau utzi gabe, aipatzeko da nola Oihenartek *bi(ga)* zenbatzailea emaiten duen batzuetan izenaren ondotik (V 33 *gambara bitan*; XII 17 *izar*

*bigez*; XVI 28 *neke biga*), *ebun* ere (XVII *xixari ehunen*), eta berdin *ber(a)* (V 49, XIII 49 *berhala*; XIII 11 *ber-zuhurtzia*).

Aldaketa edo aldizkatze xoil horietarik harat, nahiz zenbait guti erabiliak («menturatuak») euskal olerkaritza gehiengan, edo horiekin nahasiz, Oihenartek lekuz aldatzen edo urruntzen ditu ere erranaldiaren egitura indar berezia duten hitzak: *menperatzaile*, *aditzondo* («adberbio») eta bertze: II 25-29 **Hanbat...** *Baninz bezain Zenbait betzain* (=zenbait betzain baninz bezain; ez tuta azpimarratzen ahots jokoak); 80-82 **Zenbat nizan Zutana izan (...)**; *Zein manura Er'ardura* (hemen *zenbat*-en orde *zein*-en errepikatzen dator Lafonek, arrazoin gabe ene ustez, senditzen duen «moldegaizkeria»: erdaraz «à quel point... combien...»); XIII 87 **lehen Etsirik hartu bano** (=hartu baino lehen); XXVIII 3 **Hatsarrea zeren emaiten baitute**.

### 3. Gramatikatik erretorikara

Elipsiak, erranaldiaren lokailu edo hitz nagusien eta zenbait aldiz hitz guzuen lekuz aldatzeak, horra uste dut azkenean zer diren Oihenarten estilo poetikoaren ezaugarri azkarrenak, edo bederen, irakurtzaileak gehienik senditzen dituenak. Gogoan badugu Oihenartek bazekiela latina (frantsesa baino ederkiago, zion P. Lafittek), eta poetika latinean, espainolean eta italioan bezala, ikusten zituela euskal olerkaritza zuzenaren eredu hoberenak, asma daiteke poetika latina ere sartu dela, silaben neurrian (beraz prosodian) bezala, estiloan. Erakutsiko da menturaz noizpait hemen egiten den baino hurbilagoatik zer egite duten elgarrekin, aldi hortarik, Oihenarten estiloak eta olerkaritza latinak. Errana da erretorika hutsa baztertzeko dutala azterketa honetatik, gramatikako eredu eta neurtitzaren arteko loturetan egoiteko.

Hurbil hurbila dugu bizkitartean erretorika klasikoa, Oihenartek ere, Montaigne batek lehenago bezala (baina hunk hastiatu zuen, bertzeak baliatu!), bere ikastokietan (Maulen ala Bordelen) ikasi behar ukan zuena: Virgilius-en aipamen ezagun batek erakuts dezake hitz-irudi horien aberastasun poetikoa. Ez tuta uste Oihenartek egin zezakeela euskaraz molde berekorik (erran-nahia eta gramatikazko akordatzea aldizkatuz). Huna alta Oihenarten bizpahiru **hyperbata** aski ohargarriak (elgarrekin doatzin hitzak lodiz emaiten ditut): II 62-63 **Bertz' anhitz buruz Norbait onz'eginagorik**: zuzen lerrotatuz heldu da *bertze norbait buruz anhitz onz'eginagorik* («quelqu'autre ayant le visage - littéralement: de tête - beaucoup mieux fait»); III 37 **Bana herabe** 38 **Stakuru gabe** 39 **Dinat**, Argia, jitera; XX 28 **Ethor zedin berri haren** 29 **Mariaren** 30 **Heltzeko beharrira** (= ethor zedin berri haren heltzeko Mariaren beharrira).

## IV. ERRIMA ETA ERRANALDIA: JAUZIAK ETA GELDITZEAK

Errima neurtitzaren «kadentzia» edo erortea da, musikarendako erabiltzen den erran-nahi berean. Neurtitz luzeak har baldin badezake erranaldi osoa,

B. Etxepare lekuko, laburrak behar du, nahitez, erranaldia hautsi: non eta nola? Hemen da dudarik gabe Oihenartek ekarri duen gauza itxuraz «modernoen»... bainan itxuraz bakarrik, eta aitor dezadan hastapenean Mallarmé-z egiten nuen aipamena osoki «anakronikoa» zela, aro zuzengaitza: euskal erranaldia eta frantsesarena, eta ere XIX-garren mende azkeneko olerkaritza eta XVII-garrenekoa (eta orduko olerkariak baldin bazuten ere berraurkitu XVI-XVII-etako barrokismoa) gogoz eta izaitez urrun daude egiazki.

Alta, morfologiaren aldaketetan, erranaldiaren egituran bezanbat, hortan da, errima-kadenziak eta erranaldiak elgarrekin badagiten jokoan, Oihenarten estilo poetikoran gai ene ustez ohargarriena. Xehetasun eta adibide guzietara aitzinatu gabe, huna zenbait froga.

### 1. Aitzin-jauzia

Horrela deitzen dut erdaraz «rejet» zeritzona, errimatik ondoko neurtitzaren hastapenean gelditzen denean erranaldia edo hitz multzoa eta ez erriman (eta kopla zaharreko neurtitz luzean, neurtitz erdiko gelditzean, «césure», orduan erriman baino ahulago). Jauziaren indarra, errimako hitzaren eta ondo-koaren joskerazko loturaren azkartasunak arautzen du, eta ere errimaren ondoko hitz multzoaren luzetasunak: hau laburrago eta jauzia azkarrago. Neurtitzaren laburtasunaren ondorio izan daiteke jauziaren usutasuna, ez beti.

Oihenartek baditu ezin azkarragoak, bereziki aditz laguntzaile 'ta partizipioen arten, osatu eta osatzaile 'ta holako, gehienetan gaketxa batez azpimarraturik:

I 31 *zure minez hiltzera* 32 *Nohela...*

IV 22 *So xuxen ari* 23 *Naiz, senalkari...*

IV 46 *Zer gaitz jasaiten* 47 *Dudan...*

X 37 *Nola nitan botere* 38 *Duen...*

XI 19 *Zer al'ahatze* 20 *Zauzkin...*

XIII 69 *Al'urrix al'orotsa* 69 *Düen...*

XIV 29 *Ban'erakutsu maitari* 30 *Gaizoak...*

XV 49 *et'ihesari* 50 *Dema...*

XV 54 *Etziren-ber zu batere* 55 *Larde...*

XVI-garrenean neurtitzen laburtasunak ainitz ekartzen ditu. Orotako azkarrak izanez —eta atzizki menperatzaile bezala erabilia duenean jauziak aditzetik berexten (jakina zenbait euskalkietan hitzari osoki lotu dela laburtuz —ta/—da):

34 *Zurekin batu* 35 *Et'...*

Vinsonen liburuko aldaketan errepikatzen da: *Behatu / Eta...*

XVII 1 *luzez zerbitzatu* 2 *Zaiztuztet, eta nik hospatu* 3 *Dut...*

Hemen badira errankortasun handia hartzen duten jauziak, aldi oro gaketxaz azpimarraturik:



23 *Utzi derautazue hiltzera* 24 *Ioana*,...  
 30 *Hura galduz geroz zertako* 31 *Hemen*,...  
 62 *Sendoan er'ene geinatzen* 63 *Zakien*,...  
 65 *Hur'ene soberaren doitzen* 64 *Iarririk*,...  
 85 *Et'oro berak lant-abala* 86 *Lantzen*,...  
 105 *Ur-peituz lehenik ximaltzen* 106 *Baitir*'...

(Ohar gaiten aldi berean nola bederatzi silabako neurtitza nahasten den hameka, hamabi, hamahirueko neurkadarekin).

Molde beretako jauziak, gutiago edo nahiko azkarrak, badira oraino azken olerkietan: XIX 13-14, XX 110 (*Zenagati* 111 *Berri*...: lekuz aldatzea bertzalde), 144, XXI 17, XXVI 22 (22 *bi lehen*a 23 *Aiz*,...), 28 (28 *Zeren hartarik alhatu* 29 *Zelakoz, zen heriostatu* 30 *Eua*,...), 52,67.

## 2. Gibel-jauzia

Erdaraz «contre-rejet» diote (aski gaizki, ene ustez) errimak hitz multzoa hausten duenean zati laburra lehenbiziko neurtitzean (errimadunean) utziz, adibidez:

III 22*En'ixil, eta* 23 *Maiz pensaketa*,...;  
 IV 23 *...zenalkari* 24 *okerraren eredura*;  
 V 8 ..., *zu beti hala* 9 *Ikusiz gibel zauztadala*;  
 VII 7 ... *ezin*8*Oro harena nisala*;  
 IX 11 ..., *biganik* 12 *Ahal nukeenaz*...;  
 eta ere: XVII 33 ..., *ezi* 34*Orai alderdi ezpaniz bezi*; 50 ..., *zupura* 51*Ioan ninzatela*,...; XIX 3 ...,*meza* 4*Hetan enzun albaiheza*; XX 14 *...egin* 15*Zedin gure laguna*.

Gauza bera aurki daiteke bertsu zaharreko neurtitz luzearen haustean, baina ahulago errimarik eztelakotz: XXVI 9 ..., *xori / ibiztariak bezala* (badakigu hauste horrek, delako Erdi Aroko «césure épique» izenekoak bezala frantses zaharrean, elisio debekatzen duela, beraz jauzia erakusten).

Orotarat «aitzin-jauzi» horiek bekanago dira, eta ere errankortasunez gehienetan ahulago. Gauza bera erran behar da jauzia «bi aldetara berdina» denean: II 40 ..., *nure* 41*bezain, zure*; V 49 *...duzu* 50 *Berhala*,... Baina orok berdin baderakuste Oihenarten neurtitzaren malgutasun zaintsua (bi hitz hauk uztartzen ahal badira!) hizkuntzako gramatika eredu eta neurtitzaren arteko jokoan.

## 3. Gaiaren mugatik haraindi, nahas-mahas...

Oihenarten olerkaritzak badu bertze iker gaiik. Hemen lerrokatzen ditut errimari dagozkion zenbait.

Errimako hitz joko ohargarrietan (utzirik bazterrerat aberastasun xola, nahiz ardura ikusteko den) hau: IV 39 ...**ehun** (=«nehon»-en forma zaharra, ezagutarazten du idatziz **ehoun**) 40 *bat'anaint' ehun* (=100) 41 *Urtez behin...*; berdintsu V 5 *hil-urhentu* (=bururatu) 6 *Nola bainuzu ia hurrentu* (=hurbildu), XIII 16-18.

Bada behin «begiko errima» («rime pour l'oeil» erdal olerkaritzako lizenzia ohitua): XX 77 ...*bertz'errekeitu gauetz* (=«gabez»: idazkera zaharrean *b-v-u* batzu bertzentzat erabiliak ziren) 78 *Zatzen gauetz* (=«gauaz» mugagabea). Gehiago dena, ahots (ez bakarrik hizki) aldatzea gertatzen da errimaren zuzentzeko: XXV 7 ...*hanbat dizut hugu* 8... 9...*ezpaitugu*: Lafonek ohartarazten du **higu** eta **higü** direla bakarrik hiztegieta, baina ez ote ere **hügü** xuberotarrez ahots berdintzez Junes Casenavek deman bezala (*Hiztegia* orr. 487)? Oihenartek edo berdintze hori aitzinatu du, edo bazen jadanik haren aroan, eta xuberotar ezpainkatu biak eman ditu **u** arruntean... hizkuntzaren ahalmenetarik atera gabe.

Ezkira bizkitartean hiztegiaren moldatzeko Oihenarten entseguetan urrunago aitzinatuko.

### Bururatzeko...

Oihenarten olerkigintza eta euskal gramatikaren harremanetaz (neurtitzak badu ere gehienik hartzen, ohi den bezala, gramatikari eta hizkuntzaren ereduari, artetan ere doi bat ebasten) egin diren azterketa hauetarik, «*urhent-peiturik*» badaude ere «*zenbait eretzetan*», huna ondorio argienak:

1) Olerkariak baliatu ditu hizkuntzaren erregela eta berezitasun gehienak, atsotitzer esker, eta hizkuntzaz zuen jakitateari, bai gramatikan, bai hiztegian (aski baitzakien ezagutzeko ez bakarrik latinari hartu hitzak zein ziren, baina erraiteko ere, atzizkiak behakoa lanotu gabe, *deblauki* erdal hitza zaitekeela: ikus Pouvreau-ren hiztegitiko oharra); «baliatze» hori, ikusi dugu etzela bakarrik «erabiltzea», baina azken ondorioetaraino eremaita, hutsera (hizkuntzan) edo «ohi gabeko lizenziara» (neurtizkintzan) erori gabe, nahiz, bekan, mugaraino ausartatuz.

2) Gramatika eta neurtitzaren elgarrekin egituratzeko «moldea» («*moldeaz idokia*» dio Joanaren betheginzarreaz... edo edertasun osoaz XIII 29), badakigu latina zuela: eta bereziki silabaren eta silaba multzoaren neurtzeko (eta hortik errima ar, eme eta lerrakorrak eta hauer emaiten deien balioa), baina ere erranaldiaren egitura eta hitzen lerrokatzean. Latina gutarik urrun bada orai (XVI-XVII-garren mendetan kultura europatarraren oinarria zen), Oihenartek bazakien biziki untsa, iturburuz eta jatorriz osoki ezberdina izanik ere, auzoko erdarak baino hurbilago zagokola euskarari gramatikazko egitura nagusi batzuetan; eta, azkenean, Europako neurtizkintza gehienak (eta Lafonek ederki erakutsia duen bezala, euskaldunak) hura zuela iturburu zahar eta aberatsena.

Eztu honek erran nahi Oihenarten neurtitzek, ezpadute berak zioen bezala poeta handien jeinu osoa (baina uste dut, zioen baino gehiago, aintz gehiago zenbait aldiz), egiazko euskaltasuna eskas dutela: «neurtizlari jendetarrak» (eztezaket erran, etzuen onhartuko, orai bezala «herritarrak»!) ezpaitira olerkaritzaren jabe bakarrak, behar baita leku ere, eta hobe aintz baliz!, Oihenart bezalako jakintsunentzat.

## OIHENARTEN EUSKAL PROSODIA

Patxi ALTUNA

1. Gure artean ia mundu guziak dakien bezala, Oihenartek orduartekoa ez bezalako poesigintza sortu nahi izan zuen euskaraz. Hobeki esan: orduartekoa ez zen poesigintza haren ustez, bertsoigintza baizik, etxerako eta etxe atarirako egokia, baina Europan inori erakusteko traketsa. Horregatik nahi izan zuen sortu euskaraz zinezko poesigintza, ikasia, landua, dotorea, Europako hizkuntza trebatuek ontzen zutena bezalakoa, Europan barrena inongo lotsarik gabe erabiltzeko modukoa.

Hiru liburutan barreiatu eman zigun apurka eta zatika aditzera bere teoria. Lehen apurrak «Notitia utriusque Vasconiae tum Ibericae tum Aquitanicae» izenekoaren bigarren edizioari (Paris 1656) berretu zion «De syllabarum quantitate» (72. or.) delako ataltxoan banatu zituen; bigarrenak 1657an argitaraturiko «Les proverbes basques recueillis par le Sr. d'Oihenart, plus les poésies basques du mesme auteur» liburuaren bigarren zatiak dakarren hitzaurretxoan; hirugarrenak duela juxtu hogeitabost urte (1967 urria) aita Lafittek behin *Gure Herria* aldizkarian eta gero separata gisa emanikoan ezagutarazi zigun inoiz argitaratu gabeko «L'Art Poétique Basque»-n (1665).

Azken argitaraldi hau dotoreki aberastu zuen aita Lafittek aitzinsolas batez eta hiru eraskinez horniturik. Hauetan hirugarrenak titulu hau du: «L'accentuation labourdine au xviiè siècle selon l'*Etorquia* de Pierre d'Urte» (43. or.). Mitxelenak bere aldetik 1971eko *Fontes*-en «Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos» izeneko artikuluan bost orrialde (158-163) eskaintzen dizkio Oihenarten azken izkribu honi. Batak ez besteak ez dute nahi izan, ene ustez, Oihenarten dotrina osoro eta xeheki azaldu, eta hala ez dituzte aintzakotzat hartu hitzaren azentuan eraginik ez zuten haren irakatsiak, hiru silaba baino gutxiagoko hitzei buruz emanak. Haien ekarria pixka bat osatzeko asmoz ekin diot neure lan honi, asmatzeko segurantza handirik gabe, halere. Esan gabe doa, bestetik, Lafonek ez zuela Oihenarten azken izkribu hau ezagutu, argitara zeneko hila baitzen.

Oihenarten poesigintza berrira itzultzen garela, diogun bertsoen azalari begiraturik bi arrazoigatik bederen iruditzen zitzaiola gure herri-bertsogintza narrasa, zarpaila, Europako poesigintza landuarekin berdinduz gero: bat, elisio edo sinalefaren bat egiteko aukera bertsoak eskainirik ere, egin edo ez egin poetaren esku uzteagatik; bi, gehienetan errima edo puntua arrunt exkaxa, ahula, pobrea erabiltzeagatik. Zabarkeria hutsa iruditzen zitzaion bata eta bestea, gehiegizko lasaikeria.

Azalaz gainera bertsoen muinak ere bazuen haren ustez zer apain eta zer eder. Mitxelenak idatzi zuen legez, hark sortu nahi izan zuen poesiak behar zuen izan «sabria por los metros, por los «conceptos» y por las alusiones»<sup>1</sup>. Baina ez da azken hau gaur guk aztertu nahi dugun gaia, ezpada bertsoen itxurarekin eta azalarekin, berariak puntuarekin, zerikusi duena.

2. Silaba eta erdikoa nahi izan zedin puntua eta berak halakoa erabili zuen beti, inoiz huts egin gabe. Ez hori eta ez elisio-sinalefen beste legea ez zituen Oihenartek bere baitatik atera, inguruko hizkuntza erromanikoen usarioa zen eta da hori, hitzak izanez gero, euskaraz ia guziak omen diren bezala, «llanas» deitzen direnetakoak. Cupidarik gabe aitortzen du berak hori, eta behin eta birritan aipatzen ditu gaztelera, italiara eta batez ere Erdi Aroko latina, euskarak bereganatu behar lukeen errima motaren eredu.

Horietan ba omen dira bertso harrak eta emeak, baieta bertso irristakorrak —hala derizte berak, «glissans»<sup>2</sup>—. Bertso harrak omen dira hitz harrez amaitzen direnak; bertso emeak hitz emez amaitzen direnak, eta irristakorrak, berriz, hitz irristakorrez amaitzen direnak. Eta zer da hitz harra eta hitz emea, eta zer hitz irristakorra? Oso gauza ezagunak, izenak berak izan ezik. Harrak azentua azken silaban dutenak, oxitonoak deituak; emeak azentua azkenurreko silaban dutenak, paroxitono direlakoak; irristakorrak, aldiz, azentua hitzaren —hiru silaba bakarrik edo gehiago dituenaren— azken hirugarren silaban dutenak, proparoxitonoak izendatuak.

Horrenbestez edozeinek daki gazteleraz, esate baterako, nolako puntua zor zaion bertso azken hitzari. Honen azentuak agintzen du hori. Azentua daraman silabaren bokaletik hasi eta hitzaren kaburaino izan behar dute berdinak bokalek eta kontsonanteek. Hitz emez amaituriko bertsoez ari naiz, noski, eta ez dut kontuan hartzen puntua asonantea izan daitekeela, Oihenartek ere ez baitu hartzen euskararako.

Euskal bertsoak ontzean zein metodoz baliatzen zen galdetuz eskutitza egin omen zion<sup>3</sup> Lapurdiko apaizak ere badaki iadanik ZER diren bertso emeak eta gainerakoak, baieta ZER diren hitz emeak eta besteak, baina oraindik

<sup>1</sup> Michelena, Luis, *Historia de la literatura vasca*, Madrid 1960, 75. or.

<sup>2</sup> Oihenart, Arnaud, *L'Art Poétique Basque*, tirage à part de *Gure Herria*, 1967, 15. or.

<sup>3</sup> *ibid.*, 15. or.

gauza bat jakitea falta du, zailena, Oihenarten gogoko euskal bertsoak egiten hasteko guztiz nahitaezkoa: ZEIN dira euskaraz hitz harrak, emeak eta ZEIN irristakorrak? Zein silabatan darama hitz bakoitzak azentua? Zein da, bestela esan, Euskal Prosodia?

Inork jakitekotan Oihenartek daki hori edo jakin uste du bederen. Ez zen alferrik zuberotarra eta ez zen alferrik zubereraz mintzatu haurretandik. Eta Lafonek, Lafittek eta Mitxelenak aho batez irakasten digutenez zuberera da, baldin batere bada, beti erregelek aginduriko lekuan azentu tonikoa gordezten duen euskalkia. Hona Lafonen hitzak: «...il ne possède pas, sauf dans le dialect souletin, un accent tonique dont la place soit fixée par des règles»<sup>4</sup>.

3. Hasteko Oihenartentzat euskal hitz guziak azentuari dagokionez bi sail handitan bereizten dira: a) Azken silaba luzea dutenak, eta b) Azken silaba laburra dutenak.

*Notitia*-ren bigarren edizioko atal txiki eta berri —lehen edizioan ez baitago— «De syllabarum quantitate» izendaturikoan irakasten digunaren arabera badakigu, lehenbizikoak euskaraz bi eratakoak izan daitezkeen arren, oro harturik ere ez direla asko, zeren aitortzen baitigu batzuk, azken silaba ez ezik azkenurrekoa ere luzea dutenak (- -), *espondeo* deituak, alegia, gutxi dituela euskarak, eta besteak, azkena luzea baina azkenurrekoa laburra dutenak (v-), edo *ianboak*, ia batere ez, ondoren esateko: «(...no admite)...los masculinos terminados en yambos, de los que carece esta lengua».

Egia esan, beste leku batean dioenaren arabera ez dirudi berak nahi bezain gutxi direnik; are askotxo direla aitortu behar, baina hori beste kontua da eta bere lekuan argituko dugu. Gutxi izan, asko izan, ez ditu inondik ikusi nahi euskal bertsoaren azken kabuan: ez ditu maite —«Se diría que trata de eliminarlas»<sup>5</sup>—, ez ditu behar bere poesigintzan. Eta arrazoia garbi dago: harrak izanik ezin onar dezakete silaba bateko puntua baizik, eta horri gutxiegi deritza Oihenartek.

Bigarren sail handiak ere, hots, azken silaba laburra omen dutenenak, bi eratako hitzak besarkatzen ditu; hau ordea oso ugaria da, hain ugaria non hor sartzen omen baitira ia euskal hitz guziak: «...attendu que leurs mots sont presque tous ou féminins, ou glissants, ou communs, y en ayant tres peu de masculins»<sup>6</sup>. Batetik, azkena laburra baina azkenurrekoa luzea dutenak, (-v), *trokeo* deritzenak, Oihenartentzat *eme* direnak, besarkatzen ditu. Horiek ditu poetak maiteenak, silaba eta erdiko puntua baitagokie bete-betean. Bestetik, azkena bezala azkenurrekoa ere laburra dutenak. Baina hauek bere aldetik

<sup>4</sup> Lafon, René, «Sur la versification de Dechepare», BRSVAP, XIII (1957), 389. or.

<sup>5</sup> Michelena, Luis, «Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos», FLV, nº 8, 1971, 161. or.

<sup>6</sup> *L'Art Poétique Basque*, 31. or.

bitarikoak dira: zeren, azkenaurrekoa ere laburra izanik, izan bailezakete azken hirugarrena edo luzea (—vv), eta horiei *daktilo* derizte, edo laburra (~~), azken hirurak laburrak alegia, eta horiei *tribrakoak* deitzen zaie.

4. Hori horrela da teoria hutsean, baina gero praktikan, «Si asimilamos» —Mitxelenak dioen bezala— «cantidad a acentuación, como hace Oihenart con toda consecuencia»<sup>7</sup>, tribrakoak ez dira gehiago tribrako izango, ene ustez, baizik nahitaez daktilo bilakatuko, zeren izanik irristakorrak, hau da esdrujuoak, berez laburra duten lehen silaba luzatuko baitzaie, tonikoa delakoxe. Latinez ez da horrelakorik gertatzen, jakina. Latinez hitz bat esdrujuola izanagatik, baldin azentua daraman azken hirugarren silaba berez laburra bada, labur izaten jarraituko da. Hala nola *homine, volumus, opere* eta, baldin hiru silaba baino gehiago baditu, gauza bera: *specimine, voluerimus*.

Hori bakarrik ez. Ikusi batera ez da agiri nola balio liezaioketen Oihenarti horiek, hain daktiloek zein tribrakoek, silaba eta erdiko punturako, zeren izanik irristakorrak, «Ce genre de uers pour estre parfait demande encore plus de rime que ne font les feminins, c'est a savoir trois syllabes, ou pour le moins, deux et demy»<sup>8</sup>. Alegia, horiek berez bi silaba eta erdiko puntua eskatzen dute, ez silaba eta erdiko bakarrik.

Baina badu horrek bere itzurbidea eta bitarikoak gainera. Ez zaigu ahaztu behar, batetik, Oihenartek bi lehenbiziko liburuetan ez bezala, *L'Art-en*<sup>9</sup> erakutsi zigula zenbait hitzek azkenaurreko silaba dudamudazkoa edo zalantzarikoa, *anceps* alegia, dutela, poetak luzetzat nahiz laburtzat har dezakeena. Beraz hitz horietako asko, berez irristakorrak izanagatik, eme bihurtzea poetaren esku dago; aski du horretarako azkenaurreko silaba luzetzat hartzea.

Hori baino gehiago. *L'Art-en* berean hitz irristakorrei buruz hor goian aldatu duguna kontatu ondoren, aurreraxeago erakutsiko digu hori berez horrela izanik ere, latinez bertsoak egin zituztenek berek legea leundu zutela praktikan: «Il faut neantmoins observer qu'a cause de la difficulté qu'il y a de trouver une rime de trois syllabes, ou mesme de deux syllabes et demy, requisite aux vers glissans, la plus part des rimeurs latins se sont contentés d'employer une syllabe et demy tout ainsi qu'aux feminins»<sup>10</sup>. Alegia, bi silaba eta erdiko puntua betetzen hain zaila zelako, emeak balira bezala silaba eta erdiko puntua eginez erabili izan zituztela. Eta inon aitortzen ez duen arren, bere Neurtitzen azterketak erakusten digu berak ere beretzat lege leundu hori hartu zuela eta berak irristakorrak direla esandako hitzak bertsoaren kabuan silaba eta erdiko puntuaz erabili zituela gehienetan, ikusiko dugun bezala.

<sup>7</sup> «Descubrimiento y redescubrimiento...», 162. or.

<sup>8</sup> Oihenart, Arnaud, *L'Art Poétique Basque*, 19. or.

<sup>9</sup> *ibid.*, 34. or.

<sup>10</sup> *ibid.*, 21. or.

'5. Heldu gara azkenik jakiteko puntura zein neurritako silabak dituen Oihenarten ustez hitz bakoitzak, nahitaezkoa baitugu hori, baldin haren gogoko bertsoak tolestatu nahi baditugu: zeren bestela gutxiena uste dugunean uztartuko baititugu elkarrekin, Oihenarten haserrea geureganatuz, bertsoaren bukaeran ezin uztar daitezkeen harrak eta emeak, bertso hauetan bezala:

Asetzen ez naute ni  
munduko atseginek,  
hala dio sarritan  
gure Serafinek

gazteleraz batek «descaro» eta «declaró» errimaraziko balitu bezala. Edo zeren aterako baitiegu hitz harrei, harrak direla eta silaba bakarreko puntua baizik onartzen ez dutela ohartu gabe, bi silabako puntua, Oihenartek agindua-  
ren kontra, beste bertso hauetan bezala:

Zuk ez uka laguntza  
eske datozenei,  
ez eta ken ogia  
goseak daudenei.

Horiek horrela direla, eta gehiago luzatu gabe, bil ditzagun hemen laburki zenbait hitzen azentuari igertzeko ematen dituen arauak —lauzpabost dira danera—, hauei buruz gogoeta batzuk egitea geroko utziaz:

a. Hiru silabako hitz *-ra*, *-rik*, *-ko* kasu markez amaituak irristikorrak omen dira, «les deux dernières syllabes breues et l'antepenultième longue» baitituzte, *hárzera*, *hárturic*, *hárzeco* ahoskatzen omen direlako<sup>11</sup>.

b Aldiz hiru silaba baino gehiago dituzten hitzetan ez omen da hala, «hauetariko zenbaitek» —ez dio zeintzuk bai eta zeintzuk ez— azkenurreko silaba dudazkoa omen dutelako, hala nola *erostera*, *erossiric*, *erossico*; *erabiltera*, *erabiliric*, *erabilteco*; hauetan azken hirugarren silaba ez omen baita bi azkenak baino luzeagoa, baizik hirurak kantitate berekoak; hori dela eta, azkenurreko silaba poetak luzetzat nahiz laburtzat har omen dezake, bere gogara, eta hitz hartaz balia omen daiteke bertso emeetan nahiz irristikorretan<sup>12</sup>.

c. Ba omen da hiru silabako beste hitz mordo bat lehengoek bezala azkenurreko silaba neutroa duena, luzea nahiz laburra: hala nola, honako nominatibo singular mugatu «ia guzti hauek»: *errea*, *iossia*, *iaucia*, *buria*, *beguia*, *erzea*, *lucea*, *ioaita*, *hilzea*; baieta berorien «ablatibo singularrak»: *erreas*, *iossias*, *burnas*, *beguias*, etc.<sup>13</sup>.

d. Ez omen da berdin plural mugatueta, hauek azken silabak luzeak omen baitituzte: *gauçéc*, *guiçonéc*; *gauçén*, *guiçonén*; *gauçér*, *guiçonér*; *gauçés*,

<sup>11</sup> ibid., 34. or.

<sup>12</sup> ibid., 34. or.

<sup>13</sup> ibid., 35. or.



*guiçonés*. Salbuespen bat seinalatzen du, haatik: nominatibo pluralek ez dute azken silaba luzea<sup>14</sup>.

e. Aitzitik genitibo eta datibo singular mugatuek azken silaba laburra eta azkenaurrekoa luzea omen dute, *guiçonáren*, *guiçonári* ahoskatzen omen direlako<sup>15</sup>.

6. Arau bakoitza aztertzen hasi baino lehen, dagigun zenbait gogoeta guziak erabat harturik. Ematen dituen legeak horiexek dira, edonondik begiratzeko zaiela arras exkak, horiek besarkatzen dituzten hitzak euskal hitz guziekin gonparaturik eskumen bat baizik ez baitira. Alde horretatik irakurlea etsiturik gelditzen da hain arau gutxi aurkitzean. Baina ez zaigu ahaztu behar Oihenart hor bere buruari egin dion, edo hobeki esan, Lapurdiko apaizak seguruenik egingo omen dion —«Vous me demanderés peut estre»— galdera konkretu honi erantzuten ari dela: «quels sont ces mots glissants et quels les communs de nostre langue»<sup>16</sup>, eta ez emeak zein diren.

Bistan da, izan ere, Oihenartek hor ez digula irakatsi nahi zein den euskal hitzek Hiztegian agertzen diren bere sarrerako edo lemako forma biluzian duten azentua. Horietarik ia guziak emeak direla jakintzat ematen du eta Lapurdiko apaizari ezaguntzat. Irakatsi nahi diguna da zein den ia beti beretzat emeak diren hitz horien zenbait adizkiren eta forma deklinaturen azentua. Bestela esan, nondik ateratzen diren *Notitia*-n aipatu dizkigun irristakorrek, direla distikoak direla tribakoak. Eta hala bost arauetatik hiru lehenek irristakorren etorkia agertzen digute, aldi berean adieraziz horietatik zein diren azkenaurreko silaba dudazkoa dutenak; eta ondoko bi arauak saskiko gereziak bezala aurreko arauetara lotuak daudelako atera dira eta ez apaizaren galderarekin zerikusirik dutelako.

Esan dugu kontuan hartzen diren hitz guztiak zenbait aditz nominalizaturen eta zenbait izenen deklinabideko —ez hiru deklinabideetako— zenbait forma direla, besterik ez. Erabat isiltzen da deklinabide mugagabe osoa, baieta hiru deklinabideetako kasu inesiboa, eta hala jakin gabe gelditzen gara ea inesibo hauentzat, *errean*, *iossian*, *buruan*, *beguian*, eta abarrentzat ere balio duen ala ez *c.* arauan kasu ablatibo delakoaz esan digunak: hots, azkenaurreko silaba luzea nahiz laburra dutela.

Bestalde pluraleko inesiboari badagozkio, ez dugu uste, nominatiboa salbu pluraleko kasuentzat esan duenak, alegia azken silaba luzea dutela, horrentzat balio duenik eta *gauçetán*, *guiçonetán* inondik ere ahoskatu behar denik; baizik gure ustez bere esanpluek iradokitzen digutenez honela: *gauçétan*, *guiçonétan*, aipatzen dituen *gauçéc*, *guiçonéc* eta abarrek duten silaba berean azentua

<sup>14</sup> *ibid.*, 35. or. Leizarragaren «Ecen baldin cecenén eta akerrén...» (Hebr. 9,13) hura gogorazten digu Mitxelenak («Descubrimiento...», 160. or., 21. oinoharra).

<sup>15</sup> *ibid.*, 35. or.

<sup>16</sup> *ibid.*, 34. or.

ipinirik. Mitxelenak ere hala uste du: «El acuerdo esencial entre todos los testimonios, incluido el de Leizarraga en el siglo XVI, están (sic!) en la acentuación columnal del definido plural en los casos oblicuos: temas *gizoné-*, *gerren-*»<sup>17</sup>. Baina Oihenartek ez digu esaten, damurik, hala den ala bestela. Halere VI. neurtitzean irakurtzen dugun bertso honek

Esta maitesco gausetan  
Haurren borx' ahalic hetan,

eta hori bezalako gehiagok erakusten bide digute Oihenartek *gausétan* ahoskatu duela, silaba eta erdiko puntua baitu. Eta mugagabeokari dagokionez ere isiltasun bera salatu beharrean gaude, ondoko lerroetan xehekiago azaltzen dugun legez.

Azken honi buruz Mitxelenak zerbait ikasi uste du Oihenartek berak egina eman zigun<sup>18</sup> «Lauda, Sion, Salvatorem» eliz kantuaren lehen ahapaldiaren itzulpenetik. Honela dio: «No es éste el momento de entrar en el fondo de la cuestión, pero vale la pena de insistir en que, para Oihenart, la declinación indefinida tenía en suletino, al menos en algún caso local, el tipo de acentuación que Kurylowicx, tomando el término de Saussure, ha llamado «columnal»: el acento, en otras palabras, caía siempre en la misma sílaba, contada a partir del comienzo de la palabra: aquí, en ortografía moderna, *khantóretan*, como *khantóre* “hymnus” y *kóblatan*, como *kóbla* “canticus”, y *ehólatan*, sin duda con *e* nasal, “de alguna manera”, de *ehóla*». Eta susmo berean sendoturik agertzen da «sobre todo porque su comentario de la canción de Andre Emilia supone una acentuación *sáritan*, *hánditan*, *éztitan*, que coincide con la anterior...»<sup>19</sup>.

Hala da, bai, baina hala al da beti edozein moldetako nominatibo mugagabeekin? Oihenarten itzulpenetik harturik Mitxelenak hor aipatzen dituen hiru hitz —*khantóre*, *kóbla*, *ehóla*— eta Andre Emilia-ren kantuko beste hiru —*khantóre*, *sari*, *handi*, *ezi*— bokalez amaituriko horietan betetzen omen den azentu lege «columnala» delakoa, betetzen al da horiek inesiboan hartzen duten *-tan* silaba bakarra gabe bi silabako *-etan* hartu beharko luketen kontsonantez amaituriko *bíhotz*, *górputz* eta abarretan ere? Bestela esan: nominatibo mugagabea *bíhotz*, *górputz* dela eta, inesiboa (*bost*) *bíhotzetan* izango al litzateke, edo (*bost*) *górputzetan*? Ezetz uste dugu.

7. Azter ditzagun orain arauak xeheki eta banaka. Lehenak irakasten digunak baditu dudamudazko alderdiak. Bat: hiru silabako «hitzez», edozein hitzez, ari da araua, antza, («Les mots trysillabes»), nahiz gero aditz nominalizatuen exenplua —*hárzera*, *hárturic*, *hárzeco*— bakarrik ematen duen. Bada hona

<sup>17</sup> Michelena, Luis, «Descubrimiento...», 160., or.

<sup>18</sup> Oihenart, Arnaud, *Notitia utriusque Vasconiae tum Ibericae tum Aquitanicae*, 2. ed., 73. or.

<sup>19</sup> Michelena, Luis, «Descubrimiento...», 159. or.

lehen galdera: exenplua gorabehera, gainerako hitzentzat ere balio al du arau horrek? Alegia, *etxera, etxerik, etxeko; mendira, mendirik, mendiko* eta antzekoak ere esdrujuloak al dira, eta lehen silaba luzea eta beste biak laburrak al dituzte?

Bi: *hárzera, hárturic, hárzeco* direlakoak zergatik dute lehen silaba luzea: azentua silaba horretan daramatelako soilik, ala beste arrazoiren bategatik, hala nola silaba trabatua delako? Lehenagatik baldin bada, hiru silabako beste hauek ere, *jatera, jaterik, jateko; iitera, iiterik, iiteko*, esdrujuloak direnez gero, lehen silaba luzea izan behar, nahiz trabatua ez izan. Bai? Eta gauza bera gertatuko zaie, hortaz, lehen silaba irekia duten *begira, burura, ohera, atera, begitik, burutik, ohetik, atetik* eta gainerakoei, baldin aditz nominalizatuentzat bakarrik ez, baizik guzientzat bada araua.

Bigarren arauari buruz ere galdera berak egin behar ezinbestean. Lehen: Hemen ere exenplutzat aditz nominalizatuak soilik aipatzen dituen arren — *erostera, erossiric, erossico; erabiltera, erabiliric, erabilteco*—, gainerako izen arruntentzat ere balio al du hor dioenak, hemen ere «des mots qui ont plus de trois syllabes» baititu ahoan, eta ez adizkiak soilik? Alegia, *arimara, arimarik, arimako* edo *elizara, elizarik, elizako* eta hauen antzekoek ere azkenaurreko silaba dudamudazkoa al dute eta hitz emetzat nahiz irriskortzat har al ditzake poetak? Bigarrena: *erostera*-k eta *erabiltera*-k azkenaurreko silaba laburtzat hartu eta azken hirugarrena luzea dutela ez zaigu sineskaitz egiten, silaba trabatuak baitira bienak — *-ros-* eta *-bil-* —, baina gauza bera gertatzen al zaie *iakitera, edatera, egitera* eta abarren bezalakoen silaba ireki diren *-ki-*, *-da-* eta *-gi-ri*?

Hirugarren arauan aipatzen diren hitzei buruz honela idatzi zuen Mitxelena: «Todos los ejemplos terminan en *-ia* o en *-ea*, *-ua*, que ya se habían convertido en suletino en *-ia*»<sup>20</sup>. Hor bertan dugu lekuko bat: *buria*. Beste bat lehen neurtitzean, non *negui* vda irakurtzen baitugu, hots *neguia* (< *negia* < *negua*). Nik neure aldetik hauxe erantsiko nioke Mitxelenaren esanari: hiru sail (*-ia*, *-ea*, *-ua*) horietakoxe hitzak dira Etxeparek, komeni zaionean eta gogoak emanez gero, silaba batez labur ditzakeenak, mugatzailearen aurreko bokala bokalerdi eginez; eta geroko bertsolari baxenafar eta zuberotar guziek ere bai, mundu guziak ezagutzen duen hau bezalako bertsoa —«Txoriak bere umeak baino»— zortzi silabaz, eta ez hamarrez, neurtu ahal izateraino. Beraz ez da harritzeko Oihenartek mugatzailearen aurreko hiru bokal (*-i-*, *-e-*, *-u-*) horiek nominatiboan eta guk instrumentala ohi deritzagun kasuan (bakarrik? ala inesiboan ere bai?) *anceps* direla irakastea.

Laugarren arauak irakasten digu pluraleko kasu guziek, nominatiboak izan ezik, azken silaba luzea dutela. Bestela esan: euskal hitz guzien pluraleko *-ek*, *-en*, *-ez*, *-ei* —zubereraz *-er*— atzizkiz bukatu-rik forma guziak harrak

<sup>20</sup> *ibid.*, 162. or., 24. oinoharra.

direla. Hau ez dator ongi, bere lekuan esan genuen bezala, euskarak *espondeo* gutxi eta *ianbo* ia batere ez omen zuelako beste dotrina harekin. Halere Mitxelena nahi du Oihenarten agiriko kontraesan hori nolazpait zuritu eta honela dio: «La aparente contradicción podría salvarse interpretando las palabras de Oihenart en el sentido de que, para él, sí había palabras oxítonas en la lengua, aunque pocas, pero que no creía aconsejable emplearlas en final de verso, para efectos de rima»<sup>21</sup>.

Baina ez dakit horrek kontraesana salbatzen duen, zeren, baldin pluralei buruz dioena egia bada, ez baitira euskal hitz harrak gutxi batzuk («aunque pocas»), ezpada milaka. Ondoren dioena, bai, egia da, hots, asko izan edo gutxi izan, Oihenarti ez zitzaiola inori gomendatzeko moduko gauza iruditzen haiek bertsoaren kabuan erabiltzea; baina horretarako ez zeukan esan beharrik euskaraz ez zela ia batere hitz harrak: askotxo zirela baina, ez erabiltzea agintzen zuela eta kito. Haren esana egin ez dudalako dira, hain zuzen, Oihenarten ustez okerrak neronek asmatu hor goian txertatu ditudan bertsoak; zeren *atseginek*, *datozenei*, *daudenei* pluralak, eta hainbestez harrak, izanik ere, emeak balira bezala silaba eta erdiko puntuaz errimarazi baititut.

Eta Oihenartek berak zer? Baldin uste bazuen —eta hala uste zuen, noski— ez zela inori kontseilatzeko moduko gauza hitz harrak bertsoaren kabuan ipintzea, berak izan behar zuen aurrena haiek ez erabiltzen, bera ere bera baino lehenagoko poetei egotzi zien bekatu berean —«vitium non ferendum»—, baina alde erantzizkoan, eror ez zedin: haiek hitz emeak har bezala erabiliz eta Oihenartek hitz harrak eme bezala hartuz. Egin al zuen inoiz edo behin horrelako irristaldirik? Nik baietz esango nuke. Hona ale batzuk, non letra larriz idazten baititut plural direlako azken silaba luzea omen duten hitzak:

Edo berur' ene PENEZ  
 Nozpait kexa laiteenes (VII, 17-18)  
 Berrizen ar' is, Churia,  
 Nitan egun GUSIES  
 Noisten BEGUIES  
 Eguin erautan sauria (IX, 1-4)  
 Nangoenean noispait vdalen  
 Andreac, suen alhor SABALEN (XVII, 76)  
 Sein apaindu baizenduen  
 Arguizat, herri BILDUEN  
 Beguitart' aizinean (XXI, 7)

Eta silaba eta erdiz errimarazi zituen, halere, emeak balira bezala. Hori ere ez al da «vitium non ferendum?».

<sup>21</sup> *ibid.*, 161. or.

Bosgarren arauaz ez da zer esanik, hau izan ezik: gaur ere, eta hegoaldeko euskalkietan ere bai segurki, genitibo-datibo singular horiek emeak direla.

8. Honenbestez balirudike Oihenarten irakatsiak euskal prosodiaz ahituak direla, haren arauak ez baitira bost baizik. Baina ez da hala. Bost arau dira, bai, hitzaren azentuan eragina dutenak, bi silaba baino gehiago, dituelako hitzak; baina hor daude gero Haranbururen bertsogintzaz ari delarik bi silabako eta silaba bakarreko zenbait hitzen azentuaren gainean ezarian-ezarian ematen dituen iritziak. Hauetan azentuak ez baina beste zerbaitek egin lezakeela silaba bat luze edo labur, latinez bezalaxe, irakatsiko digu Oihenartek.

Haranbururen *Devocino escuarra*-k bigarren edizioan<sup>22</sup> dakarren «Çazpi salmo penitencialac» direlakoen itzulpenak ematen dio bide honen metodo aproposa goraiatzeko —«est le seul, entre ceux qui ont fait publier de rimes basques, qui a tenu la bonne methode»<sup>23</sup>—, tolestatu omen baititu launako ahapaldietan zortzi silabako bertso emeak eta zazpiko irristakorrak txandaka, eta zer esanik ez, silaba eta erdiko puntua eginez. Laster dario ordea lantua eta keixua: «hobe zukeen gorde», dio lehenik gutxi gorabehera, «itzulpen guzian barrena puntu aberats hori, askotan ez baitu egin»; eta gero beste hau: «-eta berebat ez kokatu inoiz bertso irristakorren kabuan bi silabako hitzik, lehen silaba luzea duenik». (Beraz bertso irristakorren kabuko hitzek azkenaurreko silaba luzea eta, halere, hitz eta bertso irristakorrak horiek? Nolatan? Zer irristakortasun da hori? Oraino ez ezaguna, horratio!).

Puntu horretara iristean, bigarren erru hori dagiten bertso batzuk aipatzen dizkigu eta esaten zein diren beraien amaieran agertzen diren halako hitz aldrebesak: *colpe*, *latça*<sup>24</sup>, *aiher*, *hurco*, *turco*, *Iainco*, *nôla*, *lurra*: «tous lesquels mots ont leurs premieres syllabes longues»<sup>25</sup>. Ez da zaila igertzen zergatik duten Oihenarten ustez hitz horiek lehen silaba luzea: batzuek silaba itxia dutelako, hala nola *colpe*, (*latça*), *hurco*, *turco*, *lurra*: beste batzuek diptongoa dutelako: *gaitça*, *aiher*, *Iainco*. Zailagoa de asmatzen zergatik duen luzea *nôla*-k, baina ez lirateke arrazoiak faltako<sup>26</sup>.

Ez digu ordea hori bakarrik irakasten. Hor bertan esaten digu gainera lehen silaba luzea omen duten bi silabako hitz horiek aurrean, zeinek bere

<sup>22</sup> Oihenartek honela dio *L'Art*-en 35. or.: «Le Père Haramburu [...] a tenu la bonne methode en la paraphrase des sept pseumes penitentiaux insérés en la seconde edition de son Escuarra...». Oihenart 1667an hil baitzen, Haranbururen (*Devocino*) *Escuarra*-ren bigarren edizio horrek nahitaez lehenagokoa izan behar. OEH-n badute lehen edizioaren (1635) testu osoa, ez ordea bigarrenarena; lehen horrek ez dakar *Zazpi salmo penitenzialen* itzulpena, hau bigarren edizioari gehitu baitzion autoreak, Oihenartek dioskun bezala.

<sup>23</sup> Oihenart, Arnaud, *L'Art*..., 35. or.

<sup>24</sup> *Latça* ez baina *gaitça* amaieran duen bertso bat, bai, aurkitu dut.

<sup>25</sup> Oihenart, Arnaud, *L'Art*..., 36. or.

<sup>26</sup> Niri hau iruditzen zait bat, Oihenarti hala pentsarazi ziona: galde hitzaren \*no- erroa zubereraz diptongoa duelarik ere bai baita —ikus bere Neurthizetan *ehoula* (II,51), *noura* (III,46) eta *ehoun* (<ehon < enon < non) (IV,40)—, latinezko, besteak beste, pentsamoldeaz (*loucus* > *lucus*) uste zuen diptongotik sorturiko bokal bakunak luzea izan behar zuela.

bertsoan, silaba laburra dutela: «et sont precedes par des syllabes breues». Beraz honelako, v-v, amaiera duten bertsoak dira, «nahiz eta bertso irristakorretan bi azken silabek laburrak eta azken hirugarrenak luzea izan behar duten»: «au lieu quaux vers glissans les deux dernieres syllabes doiuent estre breues et l'antepenultime longue»<sup>27</sup>. («Hortaz ez dira irristakorrak», izango litzateke nornahik aterako lukeen ondorioa. Baina Oihenartek ez).

9. Hemen lehen ez bezala aurreko silaba labur horiek zein diren ikasteko gogoaz largatzen gaitu Oihenartek, ez baitigu esaten, eta jakiteko bide bakarra Haranbururen liburura jotzea dugu. Donostiako Diputazioko liburutegian bada liburu honen ale bat<sup>28</sup>. Egia esan, Oihenartek bertso horientzat ematen dizkigun orrialde zenbakiak eta Donostiako alearenak ez datoz bat —Oihenarten 253. orrialdea ale honetako 207. da—, baina ez zaio axola; erraz aurkitzen dira hark aipatzen dituen bertsoak, zeren orrialdeen gainaldeari eskerrak bai baitakigu zein orrialdetako bertsoak diren *Zazpi salmo penitenzialen* itzulpenak. Hona bada hor goiko bi silabako hitz haien aurreko hitzak:

açote (colpe)  
denean (gaitça)  
çaizquit (aiher)  
fabore (hurco)  
eta (turco)  
baitçara (Iainco)  
hegazteguian (nola)  
(edo agian) Sion (nola)  
nola (lurra)

Hauen azken silaba laburra omen denez gero, badakigu Oihenartentzat *-te, -an, -quit, -re, -ta, -ra, -an* (edo *-on*), eta *-la* silaba laburrak direla, gehienak bokalez amaituak, batzuk azkenean *n, t* dutenak.

Inork ez dezala pentsa, ordea, bertsoak bi silabako hitzez bukatzea debekatua dagoenik, ez eta hurrik eman ere. Buka daitezke, bai, dio, baina orduan horien lehen silabak laburra izan behar du edo bestela «anceps» —harritzekoa! orain arte hiru eta lau silabako hitzetan bakarrik zirela silaba dudazkoak uste genuen!—, eta aurrean silaba bakarreko hitza eduki —silaba bakarreko hitz guziak luzeak ote? Geroxeago ikusiko—, edo, gehiagotakoa bada, azkena luzea duena behar du izan. Eta argibide gisa honako lau exenplu hauek ematen ditu:

<sup>27</sup> *ibid.*, 36. or.

<sup>28</sup> Urkixok Vinsonengandik ikasirik 1690 data eman zion ale honi, beronek lehen orritxoak galdu zaizkiolarik ez baitu inon salatzen inprimatu zeneko urtea. Harizmendik eman zuen argitara, hirugarren edizioa datekeen hau, guziz aldaturik.

*Io ditut  
 In dire  
 harén bila  
 haurrén ona.*

Beraz lau horietan *daktilo* bukaera izango genuke: -vv. Geure buruari galdetzen diogu: *Io* zergatik ote luzea? Silaba bakarrekoa delako bakarrik? Laster ikusiko dugu ezetz, Oihenartek onartzen baititu zenbait silaba bakarrekoko hitz bertsoaren kabuan. *In* agian silaba itxia delako. *Harén*-ek pixka bat harritzen gaitu, lehen (ikus *e.* araua) esan baitigu *guiçonáren* ahoskatzen dela. Bere neurtitzen batean gainera *haren* irakurtzen dugu bertso bukaeran; beraz *háren* ahoskatu-rik (ik. XIII,109; XX,28). Aldiz *haurrén* lehen (ikus *d.* araua) irakatsi digunarekin ongi dator, genitibo plurala baita.

Eta Haranbururen bertso-gintzari buruzko gogoeta hori honelatsuko hitzekin amaitzen du: Are, silaba bakarrekoko hitzez ere buka daitezke bertso irristikorrak, baldintza bat betez gero: ez daitezela izan naturaz nahiz jarreraz luzeak, honako hauek omen diren bezala: *Votz, motz, latz, gatz, hatz, hartz, çurtz, hitz, gaur, haur, bors, sey* eta beste asko. Garbi dago zergatik diren horiek Oihenartentzat silaba luzeak: bi edo hiru kontsonantez amaitzen direlako, ("jarreraz" luzeak), edo diptongoa daukatelako, ("naturaz" luzeak). Baina *io* hitzez buka al daitezke? Luzea dela irakatsi digu lehenxeago «*io ditut*»-, nahiz ez dakigun zergatik, ez baita naturaz ez jarreraz, dirudienez.

Baditu berak neurtitzetan barrena zenbait bertso silaba bakarrekoko hitzez amaituak: *lilitu da* (I,9); *baduta nic* (II,14); *Itsu hutsa nis* (III,5); *hura hilen d'eta su* (V,59), eta abar. Ez genuke kupidarik aitortzeko monosilabo horiek guziak laburrak direla, ez baitira naturaz ez jarreraz luzeak. Baldin laburrak badira, hala izan behar lukete *zu zira* bezalako moldean ere. Ala bertsoaren bukaeran *zu* labur eta beste molde horretan luze, *io* (ditut) bezala? Ala *io* ere labur, bertsoaren kabuan agertuz gero? Zergatik?

10. Horra Oihenartek euskal prosodiaz han eta hemen barreiatu-rik irakatsi eta nik ahal izan dudán bezain klarki txosten honetan bildu ditudanak. Honetaz guziaz neure erabateko iritzia eman behar banu, ez ledin lan hau geldí bestek esanen bilduma soilean, aski eszeptiko agertuko nintzateke eta Mitxelenaren hitzak egingo nituzke neure: «El balance final de estas consideraciones, negativo según toda apariencia, es...»<sup>29</sup>. Eta aurreraxeago idatzi zituen beste hauek ere bai: «Lo peor de todo es que nunca estamos muy seguros de si el Oihenart que nos habla es el gramático o el métrico o retórico...»<sup>30</sup>. Mitxelenaren dudak urrunago doaz: «queda por demostrar, y aquí no podemos hacer más que alguna indicación sumaria sobre ello, que Oihenart se atuviera siempre al

<sup>29</sup> Michelena, Luis, «Descubrimiento...», 162. or.

<sup>30</sup> *ibid.*, 163. or.

acento suletino real»<sup>31</sup>. Neure eszeptizismoaren erroak seinlatu ditut pixka bat, txostenean barrena haren esanetan aurkitu uste izan ditudan kontraesanekin topo egitean. Hemen laburki biltzekotan hauek izango lirateke:

Bat: Beste bi aginduak —alegia, egiteko elisioak beti eta erabiltzeko puntu aberatsa— berak Neurtitzetan inoiz huts egin gabe bete zituen bezala, ez dirudi hain zintzo bete zuenik hitzen azentuaren arabera bertsoaren kabuan puntua egiteko eman zuena. Irristakorrak omen diran hitzak ikusten ditugu, izan ere, emeak balira bezala silaba eta erdiko puntuaz berak errimarazten — eta hori oren buru barkagarriagoa da, bere hitzez baliaturik puntu horren zailtasunaz goian esanagatik— eta, larriago dena, harrak omen direnak ere, silaba bateko puntua baizik zor ez omen zaienak, puntu beraz erabiltzen. Zertako da hortaz har, eme eta irristakorren arteko bereizkuntza, gero batzuk eta besteak puntu beraz erabil ahal badaitez? Aski zukeen agintzea erabil zedin beti silaba eta erdiko puntua, zeinnahi zelarik bertsoaren kabuko hitza, eta kito! Zertako berebat Etxepareri eta Ziburuko Etxeberriri, emeak omen ziren hitzak har gisa errimarazi omen zituztelako, eginiko irriak eta irainak, gero harrak omen zirenak eme gisa erabiltzea berari zilegi izan behar bazitzaion?

BI: Hasteko, irakasten zaigularik euskaraz hitz harrik ia batere ez dugula, gero esaten zaigu kasu plural guziek, nominatiboa salbu, azken silaba luzea dutela. Bego! Bestalde «anceps» edo zalantzazko omen den azkenurreko silaba lau silabako adizki batzuetan eta beste hiruko hitz arrunt batzuetan, *-ea*, *-ia*, *-ua*-z bukatuetan, aurki daitezkeela irakatsi ondoren, hara non esaten zaigun gutxiena ustean horiek ez ezik bi silabako hitzek ere izan dezaketela lehena dudazkoa. Modu berean behin eta birritan esan ondoren bertso irristakorra dela azken bi silabak laburrak eta azken hirugarrena luzea duena, batbatean azaltzen zaigu Haranbururen zenbait bertsoen kabuko neurri <sup>˘</sup>˘ honetako bertsoak ere irristakorrak direla. Azkenik agertzen digularik silaba bakarreko hitzak ere bertsoaren amaieran koka daitezkeela, naturaz ez jarreraz luzeak ez izatekotan, eta berak ipintzen dituelarik kokagune horretan *da*, *nic*, *nis*, *su* eta abar laburrak direlakoan, kontrara «io (ditut)» moldea honelakotzat <sup>˘</sup>˘ dauka eta horrenbestez *io* luzetzat.

Hiru: Oihenarten teoria erabat harturik, gauza batek uzten gaitu biziki harriturik: alegia, haren begi-lausoak, itsumenduak ez esatearren, bi puntu ez erreparatzeko. Nahiz zekien eta zioen ez zela orduarte euskaraz egin berak nahi bezalako bertsoarik eta euskal bertsoagintzan guziz berriak, berak asmatuak (?) zirela eman zituen arau eta legeak, halaz eta guztiz arau eta lege horien arabera iuiatzen du lehenagoko poeten obra, anakronismo larrian jautzirik. Hori batetik. Bestetik, bere ametsetako bertso eme eta irristakor dontsuak ez dauden lekuan ere aurkitu uste ditu noizbehinka; hisia hori du buruan. Hala nola, Haranbururen *Zazpi salmo penitenzial* haietan; eta «qui a tenu la bonne

<sup>31</sup> *ibid.*, 153. or., 5. oinoharra.



methode» idatzi ondoren, hurrengo lerroan etsipenez aitortu beharrean aurkitzen da lizentziaz baliatzen dela maiz: «de quoy il se dispense souuent»<sup>32</sup>. Maiz ez, beti, Haranburuk ez baitu Oihenartek ikusi nahi duen metodorik; metodorik gabe txiripaz eta halabeharrez gertatzen zaion gauza baita hori, Haranbururi ez ezik Ziburuko Etxeberriri eta are Etxepare berari ere gertatzen zaion bezala; han-hemen nahi izan gabe eta bila ibili gabe puntu aberatsagoa irtetea, alegia.

Bukatzeko gauza bat garbi geldi ledin nahi nuke kritika ororen gaindik; Oihenartek ene ustez euskal poesigintza berriaren legeak ematen ez zuen asmatu, baina eman legeak bete gabe ere formaren aldetikako euskal poesigintza, berria ez ezik, ederra, zailua, txairoa sortu zuen, ia ondorengorik izan ez zuena damurik.

---

<sup>32</sup> Oihenart, Arnaud, *L'Art...*, 36. or.

## OIHENARTEN GRAFIA

Nerea ARRIZABALAGA  
Patxi ALTUNA

Txosten honen aztergaia, tituluak dioen bezala, Oihenarten grafia bada ere, lehenik laburki Etxeparerena eta Leizarragarena nolakoak diren adieraziko dugu. Hura baino lehenagoko beste bi idazle hauen grafia ezaguturik errazkiago ikusiko ditugu Oihenartenak dituen berezitasunak.

1. Kontua hau da: euskal hotsen grafia-sistema arautu gabe zegoen garaian, idazle bakoitzak asmatu behar zuen zein grafemaz balia euskal hotsak iruditartzeko. Xixtukariek ematen zieten nekerik handiena, zerena, jakina den bezala, ez latinak eta ez frantsesak edo espainolak ez baitzituzten halako hotsik gehienak eta ez baitzen haiek honela edo hala idazteko tradizioirik. Bestalde idazleek hautatu grafemetan kontsonante afrikariak eta frikariak, esate baterako, garbiro bereizten ez baziren, horrek gero nahitaez dudak sortu behar guri behin baino gehiagotan, hitz bat irakurtzeko orduan. Etxepareren «bocen», esate baterako, zer da? nola irakurri behar da, «çucen» bezala? Nola irakurri zuen berak: «bozen» ala «botzen»? Duda handiagotzen da, hori *r, l, n* kontsonanteen ondoan gertatzen denean, gero ikusiko den bezala.

Horietan dauntza diferentziarik handienak idazleen artean eta horiek aztertuko ditugu bereziki, jakiteko nolako hotsa, frikaria ala afrikaria, izkutatzen den Oihenarten grafemen pean, edo bestela esan, nola ahoskatzen zituen Oihenartek xixtukariak inguramendu jakin batzuetan. Honetarako oso baliooa deritzagu Mitxelenak Oihenarti buruz Gipuzkoako Diputazioan egin eta gero BAPen 1953an argitaratu zuen hitzaldiari, han gaurko grafiara aldaturik eman baitzituen tartean-tartean aipatzen zituen Oihenarten bertsoak.

2. Etxeparegandik hasteko, Lafonek honen grafiaz irakatsi zuena oso ezaguna da: Hitzaurrean eta azken bi kantetan —XIV. eta XV.ean—, gainerako hamairuetan ez bezala, bokal artean hots afrikariak eta frikariak bereizteko grafema ezberdinak erabili zituela, honako zerrenda hauek erakusten duten bezala (bizkar albeolareak bakarrik aipatuko ditugu, ugarienak baitira):

## I-XIII. kantan

(Afrik.)	(Frikari)
cerbiçatu (=zerbitzatu)	eliçara
bayçaygu (=baitzaigu)	veçanbat
eçitian (=etzitian)	ezticit
iraçar (=iratzar)	beguireçan
ayçinian (=aitzinian)	auciric
eçagucia (=ezagutzia)	malicia
baçu (=batzu)	duçu
deriçut (=deritzut)	meçu

*Hitzaurrea eta XIV-XV.kantan*

(Afrik.)	(Frikari)
certitzari	içan
scribatzeco	beçala
guelditzen	plaçara
darauritzut	imprimiçalia
batzu	baytuçu
baçautzu	dizun
aitzinerat	Garacico
estimatze	gucira
burlatzen	eceyn
ezpaitzen	

Beraz I-XIII kantetan euskara jakin gabe eta hitzak ezagutu gabe ez dago jakiteko modurik *c* eta *ç* noiz diren frikariak eta noiz afrikariak. Horregatik *valiçate*, esate baterako, bertso batean (III,2) *balitzate* da, nor-nork, alegia —«uci valiçate»— eta beste batean (III,5) *lizate* da —«ederrago liçate»—, «baliz» baitzen orduko forma eta ez «balitz». Aldiz garbi ikusten da Hitzaurrean eta bi azken kantetan aldatu zuela bokal arteko xixtukarien, afrikari zirenekoen, grafia eta horregatik erraz da batzuk eta besteak bereizten. Ez zuen ordea aldatu *l,r,n*-ren ondoko xixtukariena, ondoko bi zerrendetako hitzek erakusten diguten bezala:

## I-XIII. kantan

-1-:	hilcen, vilcen, galcen belçari
-r-:	harcen, aguercera, sarcian carcel, çuhurcia, igorciriz, harçara (=atzera)
-n-:	qhencen ençun, cençuz, arhancez, minço, minçatu puncela, venci

sperança, paciença  
penitencia, conciencia

*Hitzaurrea eta XIV-XV. kantak*

galcen / harceco, berce		
goraynci	sciencia	ignoranciaren
inçan	dançara	abançatzeco
prince	francesa	

Honetan gelditzen garela ere, garbi ageri dira bi gauza: bat, ez dagoela batere alderik bi multzoen artean; bi, *l,r,n*-ren ondoan *c* grafema darabilela beti, aditz izenen —*tze*— delarik edo ez delarik, batere heldulekurik eman gabe noiz ahoskatzen zuen frikari noiz afrikari asmatzeko.

3. Alde horretatik Leizarragaren grafia-sistema askoz landuagoa eta zehatzagoa da eta gainera ezin erosoagoa irakurlearentzat, beti baitakigu nolako hotsa edo fonema iruditaratzen duen grafema bakoitzak. Eta hala ez ditu frikari-afrikariak bokal artean bakarrik beti eta sistematikoki bereizten (*eçagun, beçala, içan, naicen*, etab. batetik eta *dedicatzera, ezpaitzuen, orhoitzeac, bihotzetan*, eta etab. bestetik), baita gainerako jarreretan ere. Har ditzagun, esate baterako, Juana de Albret erreginari egin zion bere itzulpenaren eskaintzaz gain, *Heuscalduney* deritzan gutuntxoia eta ondoko bi idazti «Adbertimendua» eta «Somarioa» deritzenak, eta sailka ditzagun hor goian bezala *l,r,n*-ren ondoan bizkar albeolarea duten hitz batzuk:

- l*–: itzultzeco, hurbiltzeco,  
biltzarretic, galtzapen  
mulço
- r*–: hartzera, sartze, sortzeco  
berçalde, berce, bercela, sporçu, cerçaz  
çuhurtziaz
- n*–: kencen, bardincen  
avança-, minça-, deçadançat, behinçat,  
sperançaçaz, ordenançaçaz, dençat  
nincela, Belçunce-  
principalqui, incitatu,  
reverentia, insufficientiaz  
ançora

Ongi ageri dira bi gauza: bat, *r,l*-ren ondoan frikaria dela fonema, salbu aditz izenen —*tze*— eta horretatik sorturiko *biltzar, galtzapen* (ikus *biltzen, galtzen*) eta hauen antzekoak direnean; bi, *n*-ren ondoan aldiz frikaria dela beti, baita aditz izenen —*tze*— denean ere. Gatozen orain, bera baino lehenago-ko beste bi idazle horien grafia-sistemaren argitan Oihenartena ikertzera.

4. Haren neurtitzetako edozein orrialdetan liburua zabaltzean berean ohar-tzen da bat bi idazle horiekiko zenbait diferentzia nabarmenez. Hona bi larrienak:

a. Zenbait hitzetako *s* maiz ezinbestean /s/ (frikari apikoalbeolarea) den bitartean, gure *s* bezalaxe, hala nola *sudurra*, *erasten*, *hasten*, *deus*, *stacuru*, *aspaldi*, *uste*, *eskierki* eta abar, aldiz beste askotan —Etxeparegan eta Leizarragan inoiz ez bezala— grafema hori bera /ʃ/ (frikari bizkaralbeolarea) da, esate baterako *su* (=zu), *estinat*, *desaquet*, *besala*, *gueros*, *basterres*, *nis*, *visi*, *besi*, *esi*, *baisi*, *esac* (gure *ezak*), nahiz eta beste batzuetan fonema hori beste grafema batez ere iruditaratzen duen: *beci*, *baicic*, *bici*, *ezen*, *piztu*, *cer*, *cein*, *cegati*, *ceguion*, eta abar.

b. Aldiz Oihenartentzat *z* grafema, gaurko irakurleok bitxi baderitzagu ere, /ç/ fonema da bai hitzaren erdian, (bokal artean, ordea!), bai kabuan; hau da, xixtukari afrikatu bizkaralbeolarea, zenbait salbuespen gorabehera, noski; hala nola, *serbizu*, *estarizozunari*, *izuri*, *uzi*, *sizadan*, *bihoza*, *bazutan*, *bozen*; *gorpuz*, *hiz*, *gaiz*, *anhiz*, *baiez*, *dukesulakoz*, *sintielacoz* —horko «bozen» hori lehen Etxeparek *bocen* idatzirik eman diguna, nola ahoska ez genekiena —gure *zerbitzu*, *eztaritzotzunari* eta abar dira. Nahi adina exenplu aipa liteke, baina aski dirateke emanak. Salbuespenen bat badela esan dugu. Hona hiru: *leguez*, *penez*, *batez*, hauetan frikaria baita, eta doi-doi aurkituko da besterik.

5. Hitz barnean —baina bokal artean— hala dela esan dugu. Zer gertatzen da, ordea, badaezpadako diren *l,r,n* kontsonanteen ondoan? Bat: ze grafemaz baliatzen da? Bi: ze fonema da grafema hori? Ez ahantz, bizkaralbeolareetara mugatzen dugula lana, hauek sortzen baitute buruko nekerik handiena. Ez ahantz ere Leizarragak kuadro hau erakutsi digula:

*saltzen* eta *elce*  
*sartzen* eta *herce*  
                   baina  
*kencen* eta *dençat*.

Alegia, *l,r*-ren ondoan, baldin aditz-izenen *-tze* bada, bai, afrikaria; baldin hala ez bada, frikari soila. Ez, ordea, *n*-ren ondoan, hemen ez baitu ezer bereizten, baizik berdin egiten, aditz-izenen *-tze* izan edo ez izan. Eta Oihenartek zer?

6. Bi lehen kontsonante horiek, *l,r*, direla eta, ia beti batera ari dela esan behar. Ikus dezagun lehenik nola agertzen den *l*.

Aditz izenen multzoak ez dirudi batere salbuespenik erakusten duenik liburu osoan; beti *-ze* grafia agertzen da. Hala nola:

helzen	hilzea	hurbilzea
salzea	estalzen	esteialzen
izulzean	ximalzen	apalzen
	galzen	

Ikus orain aditz izen ez direnak:

alseiru	belsuriac	alsoac
igelsu	arraulse	

Salbuespen bakarra, ene ustez, *halza* da; ez, ordea, *sabilz*, hemen afrikari baita dudarik gabe, pluralgilea bere baitan duena eta hitzaren kabuan z batez iruditaratua, lehen esan dugun legez. Bi multzo horietatik batean beti z eta bestean ia beti s erabiltzeak aski garbi azaltzen bide digu lehena afrikari egiten zuela berak, lehen ikusi dugun bokal arteko eta hitz azkeneko lege orokorraren arabera, eta bigarrena aldiz frikari.

7. Jokabidea ez da batere bestelakoa *r*-ren kasuan. Baldin hartzen badugu lehenik aditz izenen saila, honako hau aurkituko dugu:

harzen	gorzen	gogorzen
ikerze	oharzen	sarzera
oldarzean	gurzera	aguerzeco
sorzearen	iarzen	eiharzen
	ehorzia	

Ehunetik ehunetan z-rekin topo egiten dugu, dudarik gabe afrikatu gisa ahoskatu beharrarekin. Iritzi hau sendortzenago da, aditz izen ez diren beste sail honetako hitzen xixtukaria nola ematen duen ikusirik:

onarsun	edertarsuna	hontarsuna
	(eta beste- <i>tarsun</i> guziak)	
harsu	sakarsu	harsas (=harzaz)
amerstera	sorsainac	orsirale
espadacarsu	deracarsque	naracarsuno
arsto	orsto	orstatu
bors	silharstatu	hersis

Salbuespenen bat edo beste ez da eskas, halere. Ez dago garbi albuespentzat hartu behar diren ere. Izan ere, *nigarzu* idazten du, baina horren ondoan baita *harsu* eta *sakarsu* ere. *Berze* idazten du behin eta birritan, baina horren ondoan *berse* ere bai beste hainbestetan. *Suhurzia* idazten du, baina Leizarragak ere hitz hori *çuhurtzi* ematen digu. *Horzac* irakurtzen dugu, baina horren lexema soilari *horz* idazkera zor zaionez gero —ikus gorago 4.b.—, ez da harritzeko horren analogia nagusitzea hitz barnean bilakatzean ere. Azkenik *bors* aurkitzen dugu idatzia, nahiz *bortz* ahoskerari— eta ez dugu besterik ezagutzen — *borz* grafia zorko litzaiokeen — ikus berriz 4.b.—.

8. Hirugarren badaezpadako kontsonante *n*-ren ondoko xixtukarien azterketa gelditzen zaigu azkenik. Gogora dezagun berriro Leizarragarentzat beti-beti frikaria dela; adibidez, *kencen* eta *nincela*. Eta Oihenartentzat? Hona lehenbizi aditz izen ez direnak:

Sinsurr'	ensuna	enansuna	ensüerri
sensus	ansotan	ainsiti	ezinsusquet
nensan	honsalen	seinsas	banins
lansa	balansa	oinsolala	esparansas
beteguinsarretan		ukensu	

Horietan guzietan *s* grafema ageri da *n*-ren ondoan. Badira halere hitz berean bitariko grafia batzuk: *minsa/minza*, *ninsatela/ninzatela*. Hor goiko *nensan* horren ondoan beste *guenzan*, *guenzanzat* ere irakurtzen ditugu. Bestalde azken honen bukaerako *-zat* hori hor bezalaxe ageri da beste hauetan: *sirenzat*, *potarenzat*, baina *s*-rekin beste honetan: *patroinsat*. Adizki *saunzala* honen grafiaren arrazoia hau izan liteke: *etzan* dela bere partizipioa. Eta azkenik usteko ez genukeen *aurkinzetan* ere *z*-rekin idatzia ageri da.

Ezin uka dudamudazko zenbait kasu izan ezik, gehiengo handiaren grafia frikariaren alde dagoela. Gauza bera gertatzen al da aditz izenetan? Ikus dezagun:

esconze	urrunzen	hurrenzen
lanzen	arhinzen	aizinzen

Sei danera eta seiak *z* dutelarik. Zer pentsa? Aukera egin beharrea gara nahitaez: edota grafema horren atzean, aurreko andanakoan *s*-ren atzean ez bezala, afrikatua izkutatua dagoela aitortzen dugu, eta orduan Leizarragaren legea — *n*-ren ondoko xixtukaria beti frikaria delakoa— bertatik hautsia dugu Oihenartengan, edota, hau ez onartzekotan eta Leizarragaren legeari atxikitzekotan, bai *sinsurr*'-en eta bai *esconze*-ren *n*-ren ondoko xixtukaria modu berean — frikari gisa, alegia — ahoskatzen zituela sinesten dugu, nahiz guk ez dakigun arrazoiren bategatik bataren eta bestearen grafia bereizi zuen. Pentsatu zuen agian bi sail horiek grafiaz beraz bereizi egin behar zirela, ahoskera gorabehera.

9. Puntu txiki bati garrantzi gehiegi ematea zilegi ez den arren, beste argudiorik ezean esan behar Mitxelena lehen hipotesiaren aldeko zela. Hona zergatik: Etxepareren Xgarren kantuko lehen bertsoko «hurrancera» hura Oihenartek honela aldatu zuen beretzat, bere grafiaren arabera: «hurranzera». Hau berau gero Mitxelenak ordea hor goian (ikus 1.) aipatu dugun Donostiako Diputazioko hitzaldi eder hartako orripeko ohartxo batean honela: «hurrantze-ra», Oihenarten *n*-ren ondoko *z* horretan afrikatua irakurririk.

Honenbestez pixka bat argitu uste dugu Oihenarten grafia sistemaren punturik ilunena eta, baldin hala bada, burutu dugu geure buruari ezarri genion xedea.

## OIHENARTEN ATSOHITZAK ETA GAURKO FRASEOLOGIA OZTIBARREN

Xarles VIDEGAIN

U.R.A.

1055 C.N.R.S., Bordeaux III

Oihenartek bildu zituen atsotitzen bilduma (1657) bietan da garrantzi handikoa: behin, euskal paremiologiaren historian oinarrizko obra delakotz, Vinsonek jadanik erran bezala; eta bestalde, bere olerkien hontzeko tresneria atsotitzetan esprabatu zuelakotz, J.B Orpustan erakusten ari den bezala. Hain zuzen hizkuntzaren aldetik, atsotitzetan entseatu formak arrabaliatzen ditu bere olerkietan, eta nozioen aldetik ere, atsotitzetan tinko tinko bildu egoera edo gogoeta zombait garatu ditu nasaikiago olerkietan.

Garrantzitasun bikun hori ene lanak ez du ikertuko baizik eta azken bulta honetan dudan arrangura zombait azalduko. Euskal Herriko Hizkuntz-Atlasa bururatu asmoz, gaurko ahozko euskarazko ekeiaren biltzearekin, lexikoaren jasotzean fraseologia ahalaz ez dela bazter utzi behar pensatzen baitut, gertatzen zait ardura jende xeheen ahotik esaerak entzutea. Oihenarten atsotitzen arana gaur entzun daitekeenetz ikertu nahi izan dut Oztibarreko lurretan bildu fraseologiatik abiaturik.

Oztibarre zergatik? Ez eta Oihenartek Oztibarren zituzkeen lotura eta ezagunegatik: halere badakigu Zibitzen sortu bere emazteari esker «juge-jeuant» izendatua izan zela Oztibarren baina azaleko datu horrek Oztibarren hautatzera ez nau bultzatu. Arrazoina xumeagoa da: inkesta andana bat Oztibartarrekin egitea gertatu zait eta han bildu dudan fraseologiaren nolazbait Oihenarten altxorraren item zombaitekin konparatzea interesgarri iduri zait. Ba ote da Oihenarten garaiko atsotitzik gaurregun ere bizirik denik? Bizirik irautekotan, ez ote dute aldaketarik jasan? Hori da oso gaingiroki azaldu nahi nukeena. Luzeegi bailitake Oihenarten korpus osoa aztertzea adibide zombait baizik ez da agertuko.

Hartze du menturaz atsotitzen ezaugarrien emaitzak hatsarrean, Oihenartek berak eman azalpena laburbilduz. Bere 1657ko liburuaren aintzin solasean,



atsotitzen ezaugarriak aski ongi azpimarratu zituen: «egiazko atsohitzen markak» zauzkan labur izaitea eta manera atsegin ukaitea. Ontsalaz, mamirik ez duen atsotitzik ez da; atsotitza jakitate baten adierazten duen banakoa izan behar da. Gehiago dena eta Oihenarten ustez, atsotitza ez da baitezpada jende arrunten hitz-ukaldi hutsa. Jende kultoen aberastasuna dela adierazten digu: egin duen bilketan, Aristote, Théophraste, Erasme, Scaliger eta Hernando Nuñez dauzka aintzindari, eta ez herri-literatura. Atsotitzak antzineko filosofia baten ondarkinak direla dio. Ez ahantz ere bere bilketa bahlolatu zuela Oihenartek: arruntak zitzaizkion atsotitzek ez zuten liburuan sartzerik izan, arruntasuna zeren arabera neurtzen zuen ez zuelarik zehazten.

Ikusiz zoin nasaia den atsotitzez dagoen literatura, alfer aire duke definizio zehatzaren emaitzak. Horrela bil daiteke halere atsotitzaren funtsa: atsohitza da ahalaz modu labur eta atsegin batez eman jakitate adierazten duen unitate kodifikatua.

Beraz mamia behar du bainan zoin nahi axal ez dezake har atsohitza on batek. Mamiaz, bi ezaugarri badauzka: lehenik, balio arau-emailea badu atsohitzak, izakera gnomikoa edo epaikaria; eta bigarrenkorik, balio orokorzalea badu, askotan metaforaren bidez. Diskurtsuaren aldetik, bere independentzia gramatikala badu, lokuzioak ez bezala, eta kasik zitazio edo aipamen gisa sartzen da diskurtsoan. Morfologiaren aldetik dituen ezaugarriak ez ditut hemen aipatuko. Atsotitz batek ezaugarri hauk guziak ez badauzka ere, on izatekotan, gehienak bederen eukitea baitezbadako baldintzak zaizkio bizirik irauteko.

Gehienetan unibersala izanik atsotitzak adierazten duen mezua bere gizarte berezian errotua delako marka erakutsi nahi izan ohi du atsotitz-biltzaleak; batzutan gizarte horrek duen arazo bati bere aburu propioa emaiten dio atsotitzak, gehienetan axaleko joko batez, partikulazki izen propioak baliatuz, nun nahi ezaguna den kontzeptu orokorra hizkuntzaren eremuko leku berezi zombaiten izenak sakatuz, izan daitezzen Arradoi, Orhi, Baigorri, Donostia edo Biriatu, Oihenarten kasuan bezala.

Dialektologiaren ikusmoldetik, eta beraz aldaketari bere garrantzia emanez, fraseologia-mailan ere gertatzen dira aldaketa sinkronikoak eta diakronikoak. Adibide bat Oihenarti harturik, horra zer dion 686. atsotitzak: *Berzeren escuz suguea berrotic athera nahi du*. Zer erran nahi zuen horrek Oihenartentzat eta orduko Ekialdeko Euskaldunentzat? Mezu garbia dauka errannahi analitikoak, metafora baten bitartez: «lan zaila egin-araztea». Baina atsotitzetik idokitzen badugu elementu soil bat hala nola *sugea berrotik ateratzea*, ez ote du erran nahi ere: «bestek egin lanaz baliatzea»? Bigarren errannahi horrek atsotitzaren errannahi analitikoa desbideratzen duela pentsatzen ahal da. Bainan ororen buru errannahi-aldaketa mota ezaguna da hala nola frantsesezko: «tirer les marrons du feu» esaeran. Ez du gaur «lan zaila egitea» erran nahi baizik eta «bestek egin lanaz baliatzea». Egiten dugun esaera baten ulerpena ez dator beraz soilki gure ezaguerara linguistikatik, baizik eta daukagun kulturatik honek

zer ulertu behar dugun erraiten baitigu, motibazioaren kontra joanez ere. Horrelako aldaketa semantikoak ezagunak izanik lexiaren mailan, ez da harritze-koa gauza beraren gertatzea atsotitz-mailan, atsotitzak banako trinko bat osatzen duen ber.

Orain arte aipatutakoak orokorrak izanik, ordu da ikus dezagun gauza bera gertatzen denetz Oihenarten atsotitzak eta egun Oztibarren entzuten diren atsotitzak elgarri konparatuz. Lehenik formaz eta iduriz errannahiz guti aldatu direnak aipatuko ditugu; gero forma berdintsua beiraturik ere, errannahia aldatu duketenak, baita ere errannahi bera adierazten dutenak beste formula batez. Azkenik, egungo fraseologian maiztasun handiko formak sailkatu nahi nituzke, mota berekoak Oihenarten liburuan ez baitira hanitz, behar bada nahitara.

Aldaketa guti erakusten duten atsotitzetarik hasiko gara. Hizkuntzari denborak eragin higadurak nahitaez bere ondorioa dauka atsotitzean. Lexikoan gertatzen da garbikienik. *Esteiari* hitza adibidez hirutan agertzen da Oihenarten atsohitzetan. Gaur hitz hori guti zabaldua: behin bakarrik entzun dut Domintxine herrian, Maule eta Donapaulen artean, nonbaitetik ere; irakur daiteke bestalde A. Aguergarayk Oihenartez egin pastorean. Zaila da beraz hitz horren agertzea gaurko fraseologian. Bainan esaera errotik desagertu gabe, hanitzetan atsohitzairen egiturak eta erranahiak bizirik iraun dezakete, egokitze zombait gorabehera. Horra adibidez: Oih 102 *Bi iaberen horac, sarea gora. Bi eta gora* ez ezik beste hiru hitzak aldatu dira baina erranahi bertsuko atsotitza da gaur Oztibarren jasotzen dudana: *Bi nausiren zakhurrak maiñhaterak gora*. Kasu bera gertatzen da ondoko atsotitzarekin, zeinetan aditz-morfologian gertatu bilakaeraren berri ikusten baita:

Oih 88 *Bentura dadinak harza, estadinac es eta ere barza*. Gaur aditz morfologia aldaturik baina segur aski errimari esker atsohitza bizirik dago Xuberoan; *intseiatü dienac harza, intseiatü ez denak ez eta ere phartza*. Oihenarten lehenbiziko 100 atsotitzetan ondoko hauek bederen bizi bizirik dira: 10, 12, 29, 32, 43, 64, 66, 78, 96.

Beste atal batean, errannahiaren aldetik gertatu aldaketak aipatuko ditut. Oih. 342: *Odolac su gabe diraqi*. Gaur Oztibarren: *Odolak eakitzen*. Formaren aldetik, aditz trinkorik ez dago; eta *su gabe* elementu galdu da. Baina errannahia ere aldatu da. Horra Oihenartek zer dioen: «Le sang boillit sans feu, c'est lors qu'on a du ressentiment de l'injure faite a quelqu'vn de son sang ou parente». Gaur berriz, askazirik ez da aipu: «zeit bauzu gustuko eztuzuna, hola ikhustian odola erakitzen dik» dio lekuko batek. Oihenartek «odol» hitzari emaiten zion konotazioa galdu bide da.

Oih. 383: *Otsoa esta otso araguiti alha...* Gaur: *eztik ez otsoak bere haragitik sekhula jan*. Baina kasu gaurko errannahiari Oztibartarren arabera; nehor ez dela bere buruari harrika ari adiarazi nahi dute eta norbaitek bere buruaren laudatzen ari delarik erabiltzen dute partikulazki.

Oih. 342: *Ogui bezambat gasna nahi luque*. Gaur entzuten dena, *Horrek badik ogi beno gasna*, baina espantuka ari den norbaitez erraiten da. Aldiz konkretuzki xokoleta edo gasna zuhur delarik ogiarekin jateko horra haurreri zer dioten aitamek: *ogiaren ginean behatza*.

Beste aldaketa-mota azalduko dut ondoko lerroetan hizkuntza guzietan ezaguna baita; atsotitzaren zati batek baizik ez irautea bizirik, beste elementuak galtzen direlarik, zeharo edo elipsepean kukuturik.

Horra Oih. 259:

*Iaunetan sein da lazena?  
esdeuseti iaunzera heldu dena.*

Gaur atsotitza ez da bere osoan baliatzen. Oztibarren halako jende baten deitzeko *ttipitik handitia* erraiten da baina gehiagotan ere beste metafora hau: *zorri phiztua*, miserian bizi izan ondoan aberastu den eta besterentzat latz bilakatu den jendeaz errana. Azkenik metafora laburrak atsotitz oso eta dorpeak bezenbat informazio emaiten du lekukoek daukaten kulturari esker ezagutzen duten esaeraren testinguru osoaren arabera. Ezaguna da nola bertso edo lexia bakar batetarik alegia bat osorik gogorat etortzen zaigun.

Azkenik, aipatu behar den beste aldaketa mota da nozio beraren adierazia izaita atsotitz diferenteen bitartez honelako adibideek erakusten duten bezala; Oihenartek diolarik 20. atsotitzean: *Amac irin balu, opil balaidi*, gaur Oztibarren nozio bera ulertzen da ondoko esaeraz: *xaz urdia hil bagindu aurten xingarra janen ginduen*.

Oih. 240: *Hiri sionat Alaba, adi esan Alabaisuna*. Errannahi bertsua dauka Oxkaxe inguruan Urdiñarbe eta Müsküldin entzuten den esaerak: *Be xuria, aitzina gorria* edo *Be xuria, konpreni gorria*.

Oih 55: *Hil adi, alaba aite*. Gaur Oztibarren entzun daitekeen atsotitza samina da, metaforaren bidez agerturik ere: *Hil ondoan, asto guziak zaldi eder izanak*.

Oih 96: *Berzeren buruco sorria dacussa, eta ez bere lepoco xerria*. Kurioski jadanik Aintzinatean baliatzen zen irudia bizirik dago gaur ere Oztibarren: *horrek alfortxak untsa tik*. Egiten dudan oharra haxe da bakarrik: ez da beraz Oihenarten bitartez gaurko lekukoengana etorri iduriz iturri kultoa daukan esaera hau. Nundik ote dator, etengabeko herri-transmiziotik edo jakitate kultoaren xartutik, hala nola besteak beste La Fontaineren alegia ezagunetik? Zehazki erantzuteko daturik ez daukat; gaur metafora hori ez dago kultoen munduan zerratua baizik eta herri-literaturan ere hedatua.

*Besten buztanaz uliak ohilt*, esaera ezaguna da Oztibarren. Anbiguitaterik gabeko errannahiak gogora ekartzen du gorago aipatutako Oihenarten 686. atsotitza: *Berceren eskus sugue berrotic athera nahi du*.

Oih. 264: *Iaureguico emaizac eskea ondoan*. Gaur Oztibarren entzuten den forman aktante zen *Jauregia* desagertu da bainan beste nornahik zerbait

eskaintzen duelarik, ondotik beste zerbait handiagokoren kausitzekotan araz, horra zer dioten Oztibartarrek: *zahia irinain eske*, Oihenarten esaera bezain ez gardena eta hargatik hura baino atsotitzago daitekeen formularen.

Ondoko lerroetan, Oihenartek emaiten ez dituen edo gutitan baizik emaiten ez dituen atsotitz mota zombaiten aipatzera noa, hipotesiak aintzinatuz nahiz ez ditudan frogatzen. Lehenik, laborarien munduan konstatazio enpirikoak adierazten dituzten esaerak ez dira tole 1657ko liburuan. Gaur entzun daiteke Oztibarren beste leku frangotan bezala sineste zahar zombaiten arana:

«Intzaur pian ezta lo egin behar.  
Pikotik erortzen dena ezta sendotzen» etabar...

Meteorologiari buruz bereziki edo urtearen zikloari buruz, denborari eta aroari buruz, Oihenartek uzta handiegirik ez digu ekartzen. Alta ez bide ziren gutitan entzuten bere garaian, gaur ere noiznahi emaiten baitira ondoko bezalako esaerak:

«Urriko eguna argiko iluna.  
Apehzipikua khanpoan deno, denbora gaitza.  
Negia eztuzu sekhuka gainian gelditu.  
Eztuzu ibiakoztik eguzki gabekoik nexkato ezkundunahi gabetarik beno.  
Martxuan lanhoa norano, aphilian elhurra haano.»

«Lastometak altxatuz gioz, atsaskaria utzi behar edo aldaki hau: Andredena Mariaz, gabineteko giltza etxekanderiak altxatzen du edo: Ogiak joz gioz, etxekanderiak giltza zerurat igortzen edo: Atsaskariko zarea Andredena Mariak eremaiten eta Martxoko Ama Birjinak ekartzen», beren artean arrazoinamendusare bat erakusten duten atsotitzak..

Hipotesi baten aurkeztekotan, erran nezake arlo hontako jakitate-banakoak ez zituzkeela hain gogogoak erudito zen Oihenartek: nago gai horretaz «herri-jakintzak» emandako atsotitzak ez ote zituen Oihenartek sineskeria gutiesgarritzat uzten.

Etnografian «blason» atalean sartzen ohi diren formulak Oihenartek ez ditu ihaurri ekartzen. Aldiz ahozko tradizioan ez dira eskas ditxo gisa ere agertzen zaizkigunak, etnia, herri, ofizio edo izen batez trufatzen direnak:

*Biarnes, tripa ba; tripakorik ez.*

*Manxetik ez aize hunik ez jente hunik* Zuberoan entzuten dena eta oihartzuna: *Xibeotarrek ez tie boneten beharrik.*

*Eiberazañez khanbia, ohoñez khanbia.*

Ber gisan esaera gordinek, ez plantakoek, behar ez bezalakoek, bereziki gorputzaren funzio apaletaz ari direnek leku handirik ez dute izan. Egia da bakan batzuk emaiten dituela Oihenartek esperientzi-egia biribila adierazi nahiz,

hala nola 474.: *Usqui maite higunt elai*te. Bainan oro har gaurko populuak hanitzez gehiago baderabiltza hauk bezalakoak:

*Bertz handirat kakin*: «lan batean huts egin».

*Bakhotxa bere bortatik mintza ditake*: norbait uzkerria egin ondoan.

*Aphobelatzak jokhatia izan*: mozkorrondo txarra duenaz erraiten.

Forma irringarriak ere ez dira anitz eta partikulazki Vellerkeriak deitzen direnak, erran nahi baita ezagunak diren atsotitzak desbideratuak direla geroztik asmatutako elementu irringarri batez. Adibidez horra zer dioen Oihenartek, 399.:

*Pica nolaco, vmea halaco*. Gaur entzuten den formulak erantsi bat badauka: *pikaren umia, pika; astoarena batzutan mandoa*. Nahiz Oihenart ez den sartzen zuzenki frantses klasisismoaren munduan, ez da dudarik horrelako doinu-haustek aihar zituela. Ber arrazoinaren gatik ene ustez, herri-literaturan hain erabiliak diren makaronismoak ez ditu emaiten; aldiz gaur entzuten da oraino:

«Petit gizon grand pantalon  
Merci beaucoup lakha bat mukhu  
Adios pereka zak ipurdia olioz»

Ez doinuak ez mintzairak ez dituzke nahasirik eman nahi. Ber maneran haurrei egin solasak liburutik kanpo egon dira. Horra zer entzuten dudan Oztibarreko Larzabalen:

«Aphularra kaxko beltza  
nun hintzan  
ene ama zena hil zelarik?  
Lurrian barna  
zazpi trantxa barna  
barka othoi barka.»

Pieza hau gehitu behar zaio etnografoek bildu uztari baina ez ahantz Oihenarten garaian atsotitzak goi-mailako jendeen altxorreen sartzen direla: haurren mundua arrotz zaio.

Ikusten dudan azken hutsunea «enuntziatiboak» deitzen ditudan esaeren kopuru ttipian datza. Hizlarien artean hainbat gertakariren aurrean erraiten ohi diren askotan gardentasunik gabeko formuletz ari naiz, Oztibarreko ondoko adibideek erakusten duten bezala:

Argia tanpez joaiten delarik, erraiten ohi da: *Ederrenak argi beza*.

Norbait istripu batetarik onik atera delarik: *Jinkuak argi in du*.

Norbait hil zela uste izan ondoan, eta azkenean bizi dela jakiten delarik: *hamar urthez bizia luzatu*.

Behar zen mementoan solasaldi baten haria ez segiturik, solasaldi horren berri berantegi jakin mina erakusten zaion jendeari horra zer erantzuten zaion: *Orenak joitian kontatzen tuk*.

Horrelakoak guti balinbadira Oihenarten bilduman, uste dut arrazoina bila daitekeela hizkuntza/hizkera bikotearen arabera. Garrantzi handia emaiten dio Oihenartek hizkuntzari, ez hainbeste hizkerari.

Ordu da buka dezadan. Lan gehiago merezi du Oihenartek duela hiru mende idatziz eman atsotitzak oraiko ahozko paremiologiarekin erkatzeak. Besteak beste, ikertu behar litezke sakonkiago elgarren kontra joaiten diren atsotitz-barneko elementuak, hala nola tasun iraukorrak eta atal aldakorrak, antzinatasuna eta gaurkotasunean errotzeko hil ala biziko egokitze beharra, luzaeraren aldetik forma hanpatuak eta forma laburtuak.

# OIHENART Y SU APORTACION A LA DISCUSION SOBRE LOS LIMITES GEOGRAFICOS DEL VASCO ANTIGUO EN LA *NOTITIA UTRISQUE* *VASCONIAE*: EN TORNO AL VASCOIBERISMO

Estíbaliz BEDIAUNETA

El propósito del artículo es presentar y valorar en su justa medida la originalidad de la contribución teórica y especialmente metodológica aportada por Oihenart a la discusión sobre las ideas acerca de los límites geográficos del vasco antiguo. Para ello se procede al repaso somero de la gestación, formulación y nómina de predecesores y continuadores de la teoría vascoiberista entendiendo como tal la teoría que afirma la antigüedad y generalidad del vasco en la península ibérica, definiendo el contexto ideológico en que debe enmarcarse la corriente historiográfica vascoiberista peninsular coetánea a Oihenart, con el propósito de contrastarla con la metodología y las ideas lingüísticas de nuestro autor. Lo destacable de su defensa del vascoiberismo lo constituyen los argumentos filológicos por él aducidos, que interesan a la lingüística románica y al debate sobre el léxico prerromano peninsular, proporcionando un largo listado de vocablos supuestamente hispano-vascos y procurando mostrar en su argumentación coincidencias tanto léxico-semánticas como fonéticas entre el castellano y el euskera, para demostrar la influencia o pervivencia de rastros de la segunda lengua en la primera.

El vasco-iberismo entendido como teoría que afirma la antigüedad y generalidad del vasco en la península ibérica, surgida de la interpretación particularista de otro mito antropológico, el tubalismo, ha sido estudiado con brillantez por diversos autores en su gestación, nómina de predecesores y continuadores y ámbito ideológico del que es a la vez derivación y consecuencia. Sin embargo en la bibliografía sobre estas cuestiones Oihenart ha sido apenas nombrado o aludido. Por ello se ha creído oportuno retomar el tema con alguna mayor amplitud que permita presentar y valorar en su justa medida la originalidad de la contribución teórica y especialmente metodológica aportada

por Oihenart en la discusión que nos ocupa, desde el punto de vista lingüístico y del desentrañamiento de las relaciones euskera-castellano.

Hemos ya adelantado como para entender la filiación del vasco-iberismo debemos remontarnos a la tradición tubalista anterior. Tanto Juaristi<sup>1</sup> como Caro Baroja<sup>2</sup> coinciden en asignar a San Jerónimo la noticia de la primitiva población de España por Túbal, hijo de Jafet y sus descendientes, quien la enunció a partir de un texto de Isaías<sup>3</sup> y una malinterpretación de otro texto de Flavio Josefo ( Antiq. jud. I, 6, 1). De San Jerónimo pasó a San Isidoro (Etimologías, IX, 2, 28 y ss.), repitiéndola después don Rodrigo Jiménez de Rada, el «Gerundense», Alfonso de Cartagena, Alfonso X y la mayoría de los cronistas medievales.

Juaristi relaciona, citando a Lida de Markiel, el tubalismo en su origen con el pensamiento tradicional judío<sup>4</sup>.

Caro Baroja constata además cómo se va engrosando desde San Jerónimo al s. XVI esta tradición que cree tardía en el mundo hebraico hasta tener lugar lo que podría considerarse la segunda fase en el proceso de gestación del vasco-iberismo: la falsificación de Beroso llevada a cabo por Annio de Viterbo o Giovanni Nanni (1432-1502)<sup>5</sup> que vendría a confirmar irrefutablemente los tímidos comentarios de los cronistas medievales sobre la llegada del patriarca Tubal a la península ibérica, concertando además las cronologías de la historia sagrada, babilónica, asiria, egipcia, griega y romana.

Esta falsificación es de trascendental importancia para la historiografía española del s. XVI debido a los estragos que causó entre autores de renombre, pudiendo decirse que de manera indirecta el falso Beroso tamizado por Ocampo y reinterpretado en Garibay sentó escuela y consiguió mantener sus tesis hasta casi nuestros días<sup>6</sup>.

<sup>1</sup> «La gnosis renacentista del euskera», *Memoriae*, pp. 117-160 y *ASJU* Gehigarriak XV 1992, pp. 129-172. Las citas pertenecerán a esta última referencia.

<sup>2</sup> *Los vascos y la historia a través de Garibay*, Tortosa 1972, p. 181.

<sup>3</sup> Añade Caro Baroja al texto de Isaías (LXVI) otro de Ezequiel (XXXVIII, 2-3) cf. *ibidem*. Igualmente cree que en la interpretación de San Jerónimo tuvo una importancia destacada la lectura de las *Crónicas* de Eusebio de Cesarea, cf. *Las falsificaciones de la historia en relación con la de España*, Barcelona 1991, p. 59.

<sup>4</sup> Cf. *op. cit.*, p. 139.

<sup>5</sup> Cf. *Las falsificaciones de la historia...*, ed. cit., p. 62. Para el contenido del falso Beroso y demás falsificaciones de fragmentos de otros autores que le acompañan cf. *ibidem*, pp. 49-70. *Joan. Annius Viterbiensis. Commentaria super opera diversor. auctor. de antiquitatibus loquentium; eisdem chronographia etrusca et italica. Romae in campo Flore. anno MCCCCXCVIII, per Silberi* con numerosas reediciones (Antuerpiae 1545 y 1552; Lyon 1554-55; Paris 1612 etc.)

<sup>6</sup> Cf. Caro Baroja, *Las falsificaciones de la historia...*, ed. cit., p. 83 donde se comenta: «El texto... ejerció una influencia considerable sobre los historiadores españoles... hasta muy avanzado el s. XVI y aún después. Sobre él... se lanzaron a emitir conjeturas e hipótesis que ampliaban su significado, creándose... un cuerpo de doctrina que costó mucho desautorizar y del que aún quedan residuos en textos de vulgarización...»



La invención de Giovanni Nanni interesa al filólogo por su pretensión de localizar modernamente topónimos de los que dieron cuenta las fuentes antiguas. La técnica básica en sus elucubraciones etimológicas es relacionar el material toponímico real con una antroponimia fabulosa arbitrariamente asignada a la fantástica nómina de primitivos monarcas españoles<sup>7</sup>.

El éxito fulminante de la obra en España fue debido a su oportunismo político en gran medida, ya que A. de Viterbo dedica su colección de fragmentos falsificados a los Reyes Católicos; la razón: «los textos se habían descubierto...en el momento de la victoria de los mismos reyes sobre Granada.» Este hecho significaba «el dominio de monarcas cristianos sobre la totalidad de la Península Ibérica, y volvía a poner las cosas en un estado hasta cierto punto primitivo o primigenio.»<sup>8</sup>

En definitiva, parece que conscientemente G. Nanni pretendía contribuir a la legitimación del nuevo orden político que se configuraba desde aspiraciones unitaristas.

El falso Beroso interesa también por la dependencia que con respecto a él mantiene la Crónica general de España (1543) de Ocampo, prestando crédito a las sucesiones tubálicas de los reyes y asimilando su técnica de análisis del material toponímico de cuya obra pasará a Garibay<sup>9</sup>, con quien ingresaríamos en una tercera fase que desemboca en la enunciación de la propuesta vasco-iberista<sup>10</sup>. Para Caro Baroja es evidente la dependencia de Garibay con respecto a *Los quatro primeros libros de la Crónica general de España*, Medina del Campo 1543<sup>11</sup>.

A estas alturas debe recordarse la importancia que había cobrado para la lingüística renacentista la búsqueda de los orígenes del lenguaje y la

<sup>7</sup> Cf. Caro Baroja, op. cit., pp. 66-67.

<sup>8</sup> Cf. Caro Baroja, ibidem, p. 57.

<sup>9</sup> Cf. Caro Baroja, ibidem, pp. 84-89 y 94. Un ejemplo muy citado es el de la explicación de Tafalla por Tuballa y Tudela por Tubella. Enumera Baroja en su excelente ensayo citando fuentes diversas primeros detractores: Sabellico, Volaterrano, Luis Vives, Casaubon, Melchor Cano, Antonio Agustín, Zurita... (cf. pp. 95-97). La lista de seguidores cuenta también con nombres ilustres: Lucio Marineo Sículo, en la edición de 1530 aumentada de su *De rebus Hispaniae memorabilibus* (cf. p. 92), Vaseo (1552), Beuter (1604), Pedro de Medina (1548), Pedro de Alcocer (1554) y especialmente Florián de Ocampo y en su estela Garibay (1571, Larramendi (1736) e incluso autores aún más tardíos entre los divulgadores regionalistas o particularistas además de las derivaciones fabulosas de Alonso Maldonado, Antonio de Nobis o Lupián de Zapata y sus falsos cronicones editados por Argaiz etc. (cf. pp. 98-99).

<sup>10</sup> Cf. Caro Baroja, *Los vascos y la historia a través de Garibay*, ed. cit., pp. 179-180. «Aún en el *Compendio* no es tan explícito; el «tubalismo» se convierte ya en vasco-iberismo... enunciado de modo formal en las *Grandezas de España*».

<sup>11</sup> Cf. Caro Baroja, *Las falsificaciones de la historia...*, ed. cit., pp. 176-177, hace notar acertadamente que Ocampo es el causante del descrédito que sufrió el autor guipuzcoano: «... porque Ocampo en el lib. I de su Crónica metió el contenido del falso Beroso y cuanto halló en Annio de Viterbo, corregido y aumentado...» y más adelante «Las diferencias sustanciales entre Ocampo y Garibay, se hallan en la interpretación de los textos desde un punto de vista geográfico y lingüístico.»

aceptación del mito bíblico de la Torre de Babel como explicación a la diversidad de lenguas. Zubiaur<sup>12</sup> nos recuerda que esta búsqueda se relacionaba estrechamente con las teorías sobre los primeros pobladores y los orígenes de las naciones. Si bien fue Garibay el primero que fusionó las teorías sobre Tubal con la lengua vasca, se señala a Lucio Marineo Sículo<sup>13</sup> como claro antecedente. Pedro de Medina y Juan de Valdés informan sobre la creencia generalizada en la prelación del vasco sobre las restantes lenguas peninsulares entre la erudición coetánea<sup>14</sup>.

Caro enumera la lista regular de los que considera vasco-iberistas continuadores: P. Merula, J.J. Scaligero, Andrés de Poza, B. de Echave, Ohienart, Moret, Larramendi, Masdeu, Astarloa, Erro, Hervás, G. de Humboldt, H. Schuchardt y Menedez Pidal. En general encontramos una tupida red de dependencias e interrelaciones<sup>15</sup>.

Zubiaur relaciona acertadamente la actitud de ciertos historiógrafos españoles (Mariana, Morales...) ante la doctrina del euskera como lengua primitiva y general de la península ibérica, con el movimiento de defensa y apología del romance castellano y la política lingüística de la monarquía española, encaminada a erigirlo como lengua nacional en el s. XVI<sup>16</sup>.

Creemos que la interpretación de Zubiaur complementa, planteando en términos de conflicto lingüístico la propuesta de Juaristi quien analiza toda esta peculiar producción historiográfica, como la expresión literaria de un

<sup>12</sup> Zubiaur, *Las ideas lingüísticas vascas en el s. XVI: Zaldibia, Garibay y Poza*, Cuadernos Universitarios, San Sebastián 1990, p. 67.

<sup>13</sup> Cf. Juaristi, op. cit., p. 140 y Caro Baroja, *Los vascos y la historia...*, ed. cit., p. 175.

<sup>14</sup> Cf. Juaristi, *ibidem*.

Baina ez 1657. urtean eta ez 1665.ekoan ez zituen denak plazaratu, utzi baitzituen Lapurdi, Nafarroa, Bizkaia eta Zuberoako zenbait argitaragabe, zeinetarik ohar gaitzkeen Oihenartek 1596go errefrau bilduma ezagutu zuela. Horien argitaratze eta ohar multzoa Julio de Urquijo<sup>40</sup> eta Koldo Mitxelenari<sup>41</sup> zor diegu.

### 3. IRAKURKETEN ZUZENKETEZ

Lan gaitza egin zuten Urquijok eta Mitxelenak Oihenarten idazkera benetan zaila argitzen, eta bazituzten irakurketari buruz beren duda-mudak. Honen lekuko dira Urkixok Lhanderi egin galderak eta Mitxelenaren hitzok:

«No se me oculta que la tarea que he realizado está muy lejos de ser acabada y perfecta. He hecho lo que he podido y ofrezco el resultado de mi trabajo para que otros puedan completarlo y corregirlo.»

Biltzen eta irakurtzen dituen errefrauak zenbatuak doaz eskuzkribuan 206.etik 349.eraingo Larresorok<sup>42</sup> bere edizioan 707.etik 892.eraingo kontatzen dituenak *Urhentza* titulupean dira, baina beste 706ak ez bezala hauek alfabetikoki ordenatu gabeak daude.

Paleografía anitzik ez jakin arren Ch. Higounet<sup>43</sup> eman zenbait argitasunei esker mauletarraren idazte gaitza-garaiko frantsesaren pareko, bestalde interpretatzerakoan, hark paper zaharren bila komentuetako liburutegietan ibili ondoren bildutako oharra medio, ausartu gara Mitxelenak egin irakurketari ondoren doazkizuen zuzenketa batzuk egitera.

#### 213 **Gizon atzia oihanaz oihana ere arana**

*El hombre extranjero entre bosque y bosque también el valle (halla) (?)*

#### 214 (Gain marraturik) **Halako duphan halako arno**

*De tal tonel tal vino*

<sup>39</sup> ...J'ay crû aussi que je rendrais à ma Patrie, si, après le soin que j'ay en des mon ieune aage, de recueillir les siens de la bouche du Peuple, je prenois encore celuy de les rendre plus familiers & perdurables par le moyen de l'impression (*Preface*, a ij.)

<sup>40</sup> Julio de Urquijo, «De Paremiología Vasca. Oihenart conoció los "Refranes y Sentencias en Vascuence" de 1596», ASJU, I, 1967, 3-10.

<sup>41</sup> Luis Michelena, «Los refranes del cuaderno de Oihenart», ASJU, I, 1967, 11-44.

<sup>42</sup> *Atsotitzak eta neurtitzak. Oihenarte (1592-1675)*, Irakur sail, Donostia 1971, 109-126.

<sup>43</sup> Ch. Higounet, «L'écriture de l'érudite Oihenart», *Bulletin de la Société de Bibliophiles de Guyenne*, n.º 85, Bordeaux, 1967, 3-11.

Honen beste aldaera emana zuen ere Oihenartek, errepika paralelismoz aldatuz:

449 **Tupa nolako, arnoa halako**  
*De tal tonel tal vino*

226 **Aseak goserik eztakuske**  
*El harto no puede ver el hambre*

Honen Belaren aldaera ere ematen digu Mitxelenak, hots, *Asek gose eztakusa*, zeinen antzekoa litzatekeen Hernan Nuñez-ek<sup>44</sup> bildutako italierazko hau: *El passu no crede al zezun. El harto no cree el ayuno.*

231 **Nahi dienak laida beza Azkoiti**  
**Nik eztirot orai ez jagoiti.**

Mitxelenak honela itzultzen du, *Alabe quien quiera a Azkoitia: yo no lo podré (hacer) ni ahora ni luego*, baina Pierre Lhandek<sup>45</sup> Julio de Urquijori idatzi ohar zenbaitetan beste honako interpretazioa ematen digu:

231 **Nahi dienak laida beza Azkoiti/uzkoiti**  
**Nik eztirot orai ez jagoiti.**

*Adule/Ofenda el que quiera a Azkoiti/por detrás, yo no lo podré hacer ni ahora ni luego.*

Adierazten digunez Azkoiti batez ere pertsona izena izan daiteke eta ez herri-izena Zuberoan seguruen oso gutti ezaguna izanen baitzen honela bukatzen duelarik, *Como V. vé todo esto no es más que suposiciones; pero puede ser que V. encuentre en ellas algún hilo... Suyo, biotz biotzetik.*

232 **Amorrainen koi aragi erre ez gabe ez ukendun behin ere**  
*Al aficionado a las truchas no le falta nunca la carne asada.*

Irkaitzez betea dela uste dugu atsotitz hau zeini Lope de Isasti<sup>46</sup> lezotarraren beste hura hurbildu dakioken:

*Amuarraya amutic eta anzumea larrutic.*

233 **Eriak bathia zorriak/zauriak**  
*El enfermo sufre las pulgas/heridas*

Nere ustez argi dago *Eriak* irakurri behar dela halaxe hasten baita ere hurrengo errefracua, eta *ez ezinak* Mitxelenak idatzi eta Larresorok kopiatzen duen eran. Ez duguna garbi da *eriak zauriak* ala *zorriak* sofritzen dituen, puntuaren arabera logikoago *zauriak* dirudien arren.

<sup>44</sup> Aip.lib., 122

<sup>45</sup> Notas de Pierre Lhande sobre los refranes de Oihenart y de Sauguis. MS. del Fondo Urquijo de la Diputación de Guipúzcoa.

<sup>46</sup> Luis Michelena, *Textos Arcaicos Vascos*. Minotauro, Madrid 1964, 176.

242 **Hira bera da hirgarri**

*La cólera, ella misma es generadora de cólera*

Beraz *hirgarri* eta ez *sorgarri* «calmante», lehen hitzaren erroa bigarren partean errepikatzen delarik ideia nagusi bezala.

268 **Haurgin beno burmin hobe da**

*Es preferible el dolor de cabeza al del parto.*

Hots, *burmin*, *burmuin*, *burzoro* bezala osatua eta ez *burgin*, bestalde ezer esan nahi ez duena.

Eskuzkribuan 349. errefrautik aurrera zenbatu gabe egon arren Mitxelenak eman zenbakiari jarraituko diogu.

357 **Eztezala desohora ahal iroena xora**

*No deshonres a quien te podría enloquecer (causar algún mal)*

Lehen partea bederen oso garbi dago neretzat.

361 **Gaizki eginari ondotik gaitz saria**

*A mala obra mala sanción*

Mitxelenak, ordea, *oguz saria* irakurtzen du, nere uste apalez garbi dago zentzuari dagokionez bederen egokiagoa dela *gaizki eginari*, *gaitz saria*.

Hamar atsotitz hauen irakurketa zuzentzen saiatu bagara ez da izan, noski, maisuaren lana gutxiestarren, zeinen laguntzarik gabe gehienak irakurri ezinean geldituko zitzaizkidan, baizik eta gorago eman dugun aipamenean zioenari, bere irakaspenen izpirituari jarraikitzearen baizik.

#### 4. ITZULPENEZ ETA IDAZ-MOTAZ

Duela guti J.A. Lakarrak<sup>47</sup> aurkeztu izan ditu bere duda-mudak Urquijoren iritzi harekin, alegia, RSen iturri nagusia Hernan Nuñezena dela eta zati larri batean gaztelar errefrautagietarik itzulia. Nola Oihenart aski garbia den hitzaurrean munduan barrena hedatuak eta ezagutzen zirenez mintzatzerakoan, hala nola darabilen metodoaz, ez dut uste gehiegi luzatu behar denik arazo honekin, baina nahiko nuke adibide bat hona ekarri, alegia, Hernán Nuñez-ek honela ematen digun 524. errefraua:

«Quien a veynte nô es galan, ni a treynta tiene fuerça no a quarenta riqueza, ni a cinquêta esperiencia, ni sera galan, ni fuerte, ni rico, ni prudente»<sup>48</sup>.

<sup>47</sup> Joseba Andoni Lakarra, «RS-en testu kritikazko arazoak: Hernan Nuñez-engandik itzulia ote? (XVI. Mendeko bizkaierazko errefrauez II)», Patxi Altunari Omenaldia. Éd. E. Perez Gaztelu, P. Urkizu, *Mundaiz* 1990, 177-190.

<sup>48</sup> Arg. lib. f. 413

Bada gaztelaniaz ere XVI. mendeko zaldun nafar baten aldaera gutti ezaguna, hots, Julian de Medranoren *La Silva Curiosa*<sup>49</sup>-n aurkitzen dena eta merezi duelakoan ematen duguna.

«Quien à veinticinco no es galán, ni a treinta tiene fuerza, ni à cuarenta riqueza, ni à cinquenta experiencia, ni será galán, ni fuerte, ni rico, ni prudente.»

Hona Oihenarten frantses itzulpena:

524 *Celuy qui à vingt ans n'est, à trente ne sçait, à quarante n'a, jamais ne sera, ne sçaura, ny n'aura.*

**Hogei urtetan eztena, hogei ta hamarretan eztakiena, eta berrogeietan eztuena da jagoitik eztatena, eztakikena eta eztukeena.**

Haritschelharrek atsotitz hau komentatzerakoan<sup>50</sup> dioen bezala, oraina eta geroa kontrajartzen dira, hasierako erritmo motelari bigarren parteko bizia, lorpen benetan miragarria kreatuz, eta itzultzaile bazen ere, ez zen itzultzaile makala Oihenart. Frantsesez hiru puntu bakarrik duen errefrauak (*sera, sçaura, n'aura*) euskaraz sei baitu (**eztena, eztakiena, eztuena, eztatena, eztakiena, eztukeena**).

Errefrau honek beste bi dakazkit gogora. Bat Oihenartena, bost puntukoa, eta bestea Eguiateguik<sup>51</sup> bildua, bederatzikoa, hain zuzen:

488a **Atxeter zekeneti, abokatu goseti eta partida bien konseilu deneti, begira adi nola asaieti.**  
*Hiru gizon mota hawek, asaiak bezala, gutika gutika, nehor galtzen dute.*

Glosa hau irakurtzerakoan konturatzen gara badirela ere atsotitzetan barrena halako *amplificatio*, zabaltze, esplikazione eta saihets komentarioak nondikan datorkiokeen hainbat izen ezberdinez<sup>52</sup> ezagutua izana, hala nola bere izate mugatiarra. Jite honen adierazgarritzat hain zuzen kontsidera dezakegu Geografia esplikazione hauek, adibidez.

<sup>49</sup> *La Silva Curiosa de Julian Medrano en que se tratan diversas cosas sutilissimas y curiosas, muy convenientes para damas y caballeros, en toda conversación virtuosa y honesta.* 1583. Ed. El Romancero General Español. J.M. Sbarbi, T.X. Madrid, 1978, 43

<sup>50</sup> Jean Haritschelhar, «Parémiologie et mnémotechnie. L'exemple basque», BMB, 1992, n. 133, 49-66

<sup>51</sup> Zer da gizona? Kabale gosetarik eritasun gehiago diana nigarretan sorthurik hogei bat urte zer den eztakiana, azote kalduz baizik ikasten eztiana, hantik aizina bizipenaren errekeitiaz phorro katurik dagueña, heriuaren lotsaz bizitze txarra berrestatzen diana, beti irrigaitz papagaia bezain elestari, etxahora bezain marrakari berantegi agi dena, hiltzeta ehortzetan dolumenik gabe urthukitzen dena, sobera bizi dena (aip. esk. f. 145)

<sup>52</sup> Atsotitz, Refrau (Oihenart) esakune, esaera zaharrak... erran komuna, zaharra, adinduna, errefrau, proberbioa (*Pierre d'Urte-ren hiztegia*, Londres 1715. P. Urkizuren edizioa, *Mundaiz*, 1989, I., 215,321)  
(R.M.Azkue, «Proverbios Modismos...» *Euskalerriaren Yakintza*, III. 3. ed. Euskaltzaindia & Espasa Calpe, Bilbao 1989, 7ss)

6. Pikatuak erraiten diote Bortuko bide hertsia eta kanpits bati, zein baita Otsagabiren eta Larraneren artean, Nafarroa garaiko eta Zuberoako mugan.

506 Arradoia da Garaziko mendi xut eta harritsu bat

Ohar hauek areago liruditeke enziklopedi batekoak atsotitz soil bilduma batekoak baino. Hala nola topatzen ditugunean beste istoriotxo hauek:

137 Emaztearen gaitzez xikhira zedina adarreki ehortz zedin.

*Refrau haur athera da Ilhartitz<sup>53</sup> edo Epitafio hontarik:*

**Heben dago, ber'adareki etzina  
emaztearen gaitzez xikhira zedina.**

139 Eneko, atxeka hi hartzari<sup>54</sup>  
nik demadan ihesari

208 [...] Tussuria<sup>55</sup>, diabruari erraten zioten  
euskaraz zaharrean, eta oraino hitz haur usatzen  
da Zuberoan.

352 Ohapean nago gorderik, enirozu ediren  
Inhardetsia-Ezitzaket, ezi enaiz bilha  
ebiliren.

*Hauek dira neska baten eta morroin baten arteko hitzak.*

373 Orhin ekhia bero. Ihardespena: Han izanik hona niz [...] Behiala,  
begaztiak mintzo zirenean, xori bat neguan hotzez hila habia bati  
arrimatu zela, eta hura bertze xori batez hartua edirenik, haren hantik  
ateratzeko, sinhets arazi nahi uken ziola, Orhin ekia bero zela; ordea  
bertzeak haren mina ezagaturik, inhardetsi ziola, bazakiela Orbiko-  
berri, ezi hantik etorri-berri zela.

484 Ama, aitzint zazkio puta deitzera.

*Hori erraiten zion puta alaba batek bere amari ama bertze emazte  
batekin aharratzean.*

Alegiak, kontuak, ipuinak, izkirimiriak, kontakizunak, artazuriketako ixto-  
rioek hala nola errefrauek badute denek zerikustekorik mundu zabalago batekin,  
hots, herri-literaturarekin, edota Lekuonak, ahozko literatura deitu zuenarekin.  
Idazmota, genero mugatiarra, unibertsala, halere txoriei edo hartzei buruzkoak  
mundu guztian barrena zabalduak izan arren ez ditut aurkitu katalogatuak

<sup>53</sup> Erasmo, Garibay eta beste asko bezala hiltartzak biltzezale genuen Oihenart.

<sup>54</sup> Gratien Adéma Zaldubiyren «Hartz bat eta bi ihizlari» (1876) alegia oroiterazten dit  
(*Kantikak eta Neurtitzak*, klasikoak Ed. A. Bengoetxea, Bilbo, 1991, 118)

<sup>55</sup> Lhande, *Dictionnaire Basque-français*, Paris, G. Beauchesne, 1926, 983 «d'origine celtique».

berezitasun horiekin ez Stith Thompson-en<sup>56</sup> lan orokorrean ez Guy Latory-en<sup>57</sup> eta John Labusquier-en<sup>58</sup> lan partikularretan, ingurune hurbil eta urrun zenbait izendatzearen soilik.

Lehenago aipatu dugun J. Haritschelharren artikuluak atsotitzak prestatzeko molde eta antzeaz, laburtasunaz eta modu atseginaz mintzo baitzaigu ederki ez natzaizue areago arituko, soilik, zein nolako mugatiarrak diren atsotitz eta bertsoak adierazteko, hiru lauko hauek aurkeztuko dizkizuet:

63.a. Badut ere herabe	112.a. Dituen ontarsunegati	115.a. Ditzak bi aurhide
Senarraren hilzale	Onhetsat adiskidea,	On eta adiskide
Horri joaitera gorrale	Eta ez utz opho gutigati	Desditzak oboro
Ezin naoke jangabe.	Zeren dik nork berea.	Dira gaitzak oro.

Bertso moldeak ikusten denez argi eta garbi **abba**, **abab** eta *aabb* ditugu, «redondilla, cuarteta, pareado de arte menor» gaztelaniaz<sup>59</sup> deituak.

Atsotitzen egiturez eta irudiez, hizkuntza tasunez hainbestek idatzi du Mario García-Page-k<sup>60</sup> ageri digun bezala, eta nola gai nagusiez bezala ttipiez mintzatu baitira lehenago bai A. Etchart<sup>61</sup>, bai J.M. Leizaola<sup>62</sup>, eta berriki J. Haritschelhar<sup>63</sup> ere, ez dudala uste hemen denak hemen aipa eta agortu behar direnik, aztertzaile berrientzat ere zerbait utzi beharko, neronek eta zuek ere gaurkoa luzetsiko baizenuteke, eta beraz, laburki bada ere hel diezaiodan solasaren bigarren parteari, hots, *Poetikaren* berrirakurketaren aurkezpenari.

<sup>56</sup> Stith Thompson, *The Folktale*, Holt..., New York, 1946

<sup>57</sup> Contes. *L'imaginaire Gascon*. Reclams, 1987.

<sup>58</sup> *L'autre fois. Récites de Gascogne & d'ailleurs*. Maisonneuve, Paris 1899

<sup>59</sup> T. Navarro Torres, *Métrica española*. E. Labor, Barcelona, 6.ª ed. 1983

<sup>60</sup> Mario García-Page, «Propiedades Lingüísticas del refrán (1)», EPOS, n' VI Uned, Madrid, 1990, 499-510.

<sup>61</sup> A.Etchart, «Les proverbes de Oihenart», *Eusko Jakintza*, 1950, 353-366

<sup>62</sup> J.M. Leizaola, *El refranero vasco antiguo y la poesía vasca*. Ekin, Buenos Aires, 1978.

<sup>63</sup> J. Haritschelhar, «Jainkoa eta jainkotiarrak Oihenart-en atsotitzetan», Iker 6, *Luis Villasanteri omenaldia*. Euskaltzaindia, Bilbo 1992, 195-207; «Emaztea Oihenarten atsotitzetan», Iker 8, *Oihenarten IV. mendeurrena*. Euskaltzaindia, Maule 1992, 273-294.



## ARNAUD OIHENART

*Euskal poetika*  
*L'art poetique basque*  
 (1665)

Lehen-lehenik bego hemen aitorturik Piarres Lafitte *Poetika* honen lehen argitaratzaileari<sup>64</sup> diogun zorra euskal literaturaren ezagutzan eta azterketan mugarri den lana eskaini zigulako.

Oihenartek 1665. urteko maiatzean Lapurdiko apez bati gutun batean euskal poesiaz idatzi zizkionak benetan Oihenart gure literaturgintzaren kritikan lehen mailara altxatzen dute, ezen hamabi urte lehenago Rafael Micoleta lizentziatuak<sup>65</sup> idatzi zituenak askoz ere murriztagoak diren.

Orokorki bai Patxi Altuna<sup>66</sup>, bai Koldo Mitxelena<sup>67</sup> mintzatu dira bertan ageri diren ideia nagusiez: nola bere poesiagintzan Oihenartek ez zituen segitu idazle frantsesak, espainolak eta italianoak baizik, eta batipat erdi aroko idazle latindarrak, nola neurtzen dituen bertsolerroak, nolako azentua duten xuberotar hitzek, etabar. Beraz, esandakoak ez errepikatzearren ez naiz horietaz arituko egin dugun itzulpenaz baizik.

Eskuzkribuaren fotografiak erabili ditugu gure euskal itzulpena egiterakoan. Hogeita zortzi folio dira zenbait lekutan aski zailak irakurtzen, baina zuzenketak egiterakoan Oihenartek aipatzen dituen originaletara jo dugu eta pasarteak bilatu eta konparatu ondoren, Lafittek eginiko irakurketa zuzendu egin dugu gure uestez, edo bederen zertxobait erraztu, oharretan doazelarik erreferentziak.

Bukatzen dut, bada, aurkezpen eta azterketatxo hau eranskin gisara emanik aipatu fotokopiak eta itzulpena. Hau, noski, ez dut egin frantsesaren gutxiesteko, zein nire esku balego Euskal Filologiako ikasle guztiei ezinbesteko ikasgaitzat ezarriko niekeen beren ikasketen artean, baizik eta Oihenartek berak bere atsotitz-poema liburua plazaratu zuenean ukan helburu berarekin, hots, Euskal

<sup>64</sup> Piarres Lafitte, «L'Art Poétique Basque d'Arnaud d'Oyhénart» (1665) *Gure Herria*, Bayonne 1967.

<sup>65</sup> Rafael Micoleta, «Modo de la vizcayna poesia y sus versos», *Modo breve de aprender la lengua vizcayna*, compuesta por...Bilbao 1653, Ed. E.S. Dodgron, Sevilla 1897, 33-34.

<sup>66</sup> Patxi Altuna, «Oihenarten metrika» FLV, 1979, 269-285.

<sup>67</sup> Koldo Mitxelena, «Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos» aip. art., 716 ss.

Herrian altxor hau, harri eder eta prezios hau, frantsesez ez dakitenek irakurtzeko aukera ukan dezaten, eta, beraz, gogo balute bertako aholkuez beren bertsotan balia daitezten.

f1

**1665. maiatzean Lapurdi herrialdeko apaiz bati idatzi gutun batean adierazitako Euskal Poetika**

Zein nolako metodoz baliatzen naizen neurtitzak ontzeko, galdetzen didazu. Erantxuten dizut ze egiteko honetaz arduratzen nintzenean (aspaldian utzia baitut) Italiako eta Espainiako poeten gisara moldatzen nintzela, eta areago oraindik errimez idatzi zuten latindarren modura, frantsesenera baino, hauena hiru hizkuntza horietatik detaile zenbaitetan ezberdina baita.

Lehen diferentzia honetan datza, alegia, frantsesa bertso arrez emeez baino gehiago baliatzen dela, eta beste hirurak ia beti emeez eta kasu bakarretan arrez, zeinen orde z baliatzen diren italiarrek *sdrucchioli*, frantsesek *glissans* eta espainolek *esdrújulos* deitzen dituztenez.

Ez dut dudatan ipinten badakizunez zer diren bertso ar eta emeak, baina halere esanen dizut bidenabar arrak silaba luze batez bukatuak direla, eta emeak, alderantziz, silaba labur batez, zeini aurretik luze doakion, Petrarca<sup>68</sup> *Soneto eta kantuak* liburutik hartu bertsootan ohar zaitezkeenez.

Voi, ch'ascoltate in rime sparse il suono  
 Di quei sospiri, ond'io nudriva il core  
 In sul mio primo giovanile errore  
 Quand'era in parte altr'uom da quelchi sono;

f2

Bai lau bertsook, bai hamalauko beste guztiak emeak dira, hala nola hurrengoarenak. Baina hirugarren sonetoarenak erdiak emeak dira, eta arrak beste erdiak. Hona hemen:

Era il giorno ch'al sol si scoloraro  
 Per la pietà del suo fattore i rai  
 Quand'io fui preso, e non me ne guardai  
 Che'i be' vostr'occhi, Donna, mi legaro.  
 Tempo non mi pareo da far riparo  
 Contra colpi d'Amor; pero n'andai  
 Secur, senza sospetto, onde i miei guai  
 Nel commune dolor s'incominciaro<sup>69</sup>.

<sup>68</sup> Francesco Petrarca (Arezzo, 1304- Padova, 1374). Irakurketa zuzenketarako erabilitako edizioa honakoa: *Petrarch's Lyric Poems. The Rime sparse and other Lyrics*, translated and edited by Robert M. Durling. Harvard University, 2. arg., 1979, 37.

<sup>69</sup> Idem, 39

Zortzi bertsolerro hauetatik lehena, laugarrena, bostgarrena eta zortzigarrena emeak dira eta beste lauak arrak. Hona gaztelaniaren beste adibide bat Cervantesen<sup>70</sup> *Galateatik* aterea:

Pues si es el trabajo vano  
De mi llanto y sospirar  
Y dél no pienso cesar,  
A mi dolor inhumano,  
¿Cuál se le podrá igualar?

Bost bertsolerro hauetatik hiru harrak dira, alegia, bigarrena hirugarrena eta bostgarrena, *sospirar*, *cesar* eta *igualar* amaiera-hitzez azken silabak luzeak baitituzte. Eta beste biak (hots, lehena eta laugarrena) emeak dira, *vano* eta *inhumano* amaiera-hitzez azken silabak laburrak eta azkenurrekoak luzeak dituztelako.

## f3

Bertso arrak eta emeak ezberdinak dira, ez bakarrik errima kontuagatik, neurriagatik ere bai, zeren eta izariaren arabera emeek harrek baino silaba bat gehiago behar duten izan, lehen aipatu Petrarcaen hirugarren sonetoan ageri diren bertso italianoetan bezala, zeinetan emeak hamaika silabakoak diren arrak hamarrekoak diren bitartean. Cervantesen bertsolerro arrek ez dute bakoitzak zazpi silaba baizik, eta emeek zortzi.

Errimari dagokionez, bertsolerro emeek bi silabakoa behar dute, edo bederen silaba t'erdikoa. Silaba erdia deitzen diot hitzaren azkenurreko silabaren bokalari, edo bakarrik, edo darraion kontsonantearekin aurkitzen denean ondoko hitzotan bezala: *âge*, *hommage*. Bokalak berak bakarrik egiten du silaba-erdia, baina *garde* eta *halebarde* bezalako hitzetan, ez da a bakarrik, r-ak ere egiten baitu a-kin batera silaba-erdia. Bertsolerro arrei dagokienez aski dute silaba bat errimarako; eta silaba-erdiarekin ere ohartuko zarenez aipatu bertso italiano eta espainoletan.

Ezin da eman hizkuntza italiano, espainol eta latinoan bertsolerro arrak emeatarik bereizteko, bertsolerro bakoitzeko azken silabaren kantitatea baino beste seinalerik. Baina, nola frantsesean bertso emeak oro e itxi edo emea duten silabez bukatzen diren, eta nola beste moduz amaitzen direnak arrak diren salbuespenik gabe, e zorrotz edo itxiz bukatzen direnak barne, adibide hauetako, hots, *Rose*, *chose*, *je frappe*, *tu frappes* hitzetan e-a emea delarik, hala nola, *Roses*, *choses*,

<sup>70</sup> Miguel de Cervantes (Alcalá de Henares, 1547- Madrid, 1616). *La Galatea* (1585). Obras Completas. Ed. Aguilar, 681.

f4

*ils frappent* pluraletan, eta beste berdintsuetan. Eta halako hitzetan bukatzen direnak oro dira emeak. Eta beste bokalez amaitzen diren bertsoerrootak denak arrak dira e bokal itxian edo azentu zorrotzez kargatuak diren hitzak hala nola hitzok, *bonté, charité, frappé* eta beste berdintsuak. Philippe Desportes<sup>71</sup> -enak diren bertsoerroot haueetan frogatu ikus dezakezunez:

O nuit, jalouse nuit contre moi conjurée,  
Qui renflames le ciel de nouvelle clarté,  
T-ai-je donc aujourd'hui tant de fois désirée  
Pour être si contraire à ma félicité?

Badakusazunez lau bertsoerroot e bokalez amaitzen dira, baina lehena eta hirugarrena e itxi edo emeaz. Hona bada zergatik bi bertsoerroot emeak diren eta é zorrotzez amaitu beste biak, hamabisilabako arrak, beste biak, ordea, bakoitza hamahiru silabako den. Gauza beraz konturatu zara Desportes-en kanta beraren beste lau bertsoetan:

Je<sup>72</sup> vais, je viens, je fuis, j'écoute et me promène,  
Tournant toujours mes yeux vers le lien désiré  
Mais je n'avance rien, toute la rue est pleine  
De jaloux importuns dont je suis éclairé.

Frantses poesiaren eta beste hiru hizkuntzako artean aurkitzen den beste diferentzia da frantsesak ez duela ezagutzen italianoek *sdrucchioli*, espainolek *esdrújulos* eta beraiek *glissans* deitzen dituztenak. Beste hiru hizkuntzotako bertsoetan, eta bereziki latinean, maizenik aurkitzen direnak hiru silaba edo gehiago duten hitzetan amaitzen direnak dira,

f5

zeinetarik azken biak labur eta aitzin-azkenaurrekoa luzeak diren. Grekotarren eta latindarren oin daktilikoa osatzen dutenak halaxekoak dira. Bertso molde honek osoa izatearren errima emeek egiten dutena baino osatuagoa behar du izan. Alegia, hiru silaba, edo bederen bi eta erdi, Petrarcaren *Amodio Garaipenaren* (I. Kap.) bertso haueetan ikus dezakezunez, non bigarrena, laugarrena eta seigarrena *sdrucchioli* edo *glissans* diren, eta bisilaba t'erdi dituzten erriman, hots, **-oglio**:

Vidi un vittorioso e somno duce  
Pur com'un di color che'n campidoglio  
Trionfal carro a gran gloria conduce.

<sup>71</sup> Philippe Desportes (Chartres, 1546- Bonport, 1606). *Contre une nuit trop claire. Poèmes choisis et présentés par Jean-Yves Masson. Orphée*. La Différence, 1989, 63.

<sup>72</sup> 33. bl.

I'che gioir di tal vista non soglio  
 Per lo secol noioso in ch'i'ni trovo.  
 Voto d'ogni valor, pien d'ogni orgoglio<sup>73</sup>.

Eta Ariostorenak<sup>74</sup> diren hurrengo hauetan, non Marfisak honelaxe mintzaz-  
 tzen zaion Guido Salvaggio-ri:

Ma, che t'incresca, che n'habbia ad uccidere,  
 Ben ti può increscere anco del contrario.  
 Fin qui non credo che l'habbi da ridere,  
 Perch'io sia men di te duro avversario,  
 O la pugna seguir vogli, o dividere,  
 O far la, à l'uno, ó à l'altro luminoso,  
 Ad ogni cenno pronta tu ni haurai,  
 E come, et ogni bolta, che vorrai.

Lehen sei bertsoak oro *sdrucchioli*, edo *glissans* dituzu eta azken biak arrak.  
 Halaber Sannazaro-ren<sup>75</sup> *Arcadia* osoa bertsoleerro *sdrucchioli*-tan eraikirik dauka-  
 zu.

## f6

Poeta italianoengandik hartutako adibide hauei bi gaztelaniazko erantsiko  
 dizkiet. Lehena *Coplas de Juan de Mena*<sup>76</sup> *dirigidas a Juan II, rey de Castilla*  
 deituatarik aterea da:

Sancta paz, sancto misterio,  
 Triumpho viril de gloria,  
 Concordia sin vituperio,  
 De amas partes victoria,  
 De los pueblos refrigerio  
 Los tres bienes acarrear  
 Que los señores non sean  
 De sus siervos cativerio.

Zortziko honetako lehen bost bertsoleerook eta azkena *sdrucchioli* dira, eta  
 seigarrena-zazpigarrenak emeak.

Beste adibidea Montemayor-en<sup>77</sup> *Diana-ren* liburutik aterea dena honako-  
 xea da:

<sup>73</sup> Petrarca, *Triunfos*. Ed. de Jacobo Cortinas & Manuel Carrera. Nacional, Madrid 1983, 34-36.

<sup>74</sup> Ludovico Ariosto (Reggio di Emilia, 1474- Ferrara, 1533), *Orlando Furioso* (1516), Ed. Vincenzo Valguisi, Venetia, MDLXXIII, 210.

<sup>75</sup> Jacopo Sannazaro (Napoli, 1456-1530), *Arcadia* (1504).

<sup>76</sup> Juan de Mena (Córdoba, 1411-Torrelaguna (Madrid), 1456). *Obra lírica*. Edición, estudio y notas de Miguel Angel Pérez Priego. Ed. Alhambra, Madrid 1979, 183-184.

<sup>77</sup> Jorge de Montemayor (Montemôr o Velho (Portugal), 1520-Piamonte, 1561) *Los Siete libros de la Diana*, Ed. de Enrique Moreno Baez, Nacional, 1981, 9-10.

Sireno, ¿en qué pensabas que mirándote  
 Estaba desde el soto y condoliéndome  
 De ver con el dolor que estás queixándote?  
 Yo dexo mi ganado allí atendiéndome.

Eta beherago:

Andaba mi pasión solicitándole  
 Con medios no importunos, sino lícitos,  
 Y andaba el crudo amor allá estorbándole.  
 Mis tristes pensamientos muy solícitos,  
 De una a otra parte revolviéndose  
 Huyendo en toda cosa el ser ilícitos.

Eta oraindik beheraxeago:

f7

Con cualquier trabajo «en» encontrándola  
 De ovejas y corderos lo olvidábamos  
 Hablando ella conmigo y «yo» mirándola.  
 Otras veces, Silvano, concertábamos  
 «La zampona y rabel con que tañíamos  
 Y mis versos entonces allí cantábamos»  
 Después la flecha «y arco» apercebíamos  
 Y otras veces la red, y ella siguiéndome  
 Jamás sin caza a nuestra aldea volvíamos.<sup>78</sup>

Bertsolero guztiok *sdrucchioli* edo *glissans* dira, San Bernardoren<sup>79</sup> latinezko besteok bezalaxe:

Jesus, Spes penitentibus,  
 Quam pius es petentibus,  
 Quam bonus te quaerentibus  
 Sed quid invenientibus.

Hala nola B. Jacobonus Tudertinus-en<sup>80</sup> *De medulla precatationum* liburuaren 518 orrialdean irakur daitezkeen besteok:

Cur mundus militat sub vana gloria,  
 Cuius prosperitas est transitoria?  
 Plus crede litteris scriptis in glacie  
 Quam mundi fragilis sauce fallatae.

<sup>78</sup> Idem, 33

<sup>79</sup> Bernardo (Fontaine - les - Dijons 1090 - Clairvaux (Aube), 1153), *Opera Omnia*...D. Joannis Mabillon...Reprint by Brepols, 1976, T. V-VI, 1318.

<sup>80</sup> F.J.E. Raby-k *The Oxford Book of Medieval Latin Verse*-n, 1959, XIII. mendekoa eta anonimoa bezala jotzen du, 433.

Beharrezkoa da, ordea, konturatzea ze hiru silabako edo silaba t'erdiko errima eskatzen duten bertsolerro *esdrújulos* delakoak aurkitzeko diren zailtasunengatik latinezko bertsoegile gehienek askietsi izan dutela errimarako silaba t'erdia, bai bertsolerro *glissans* deituetan, bai emeetan, baina ez hala, ez italiano, ez gaztelaniazkoak.

f8

Aurki daitezke bertsolerro *glissans* delako hutsak ar eta emeen nahasketarik gabe eleiza testuetan. Hala nola: *Veni, sante Spiritus/Et emitte coelitus*, etc. hasiera duen Izipiritu Sainduari eskainitakoan<sup>81</sup>; *Veni, virgo virginum*, hasiera duen Ama Birjinarenean; *Antonius humilis*, hasiera duen San Antoniorenean; Santa Genobebarenean, zein hasten den, *Genovefae solemnitas/Solemne parit gaudium*;<sup>82</sup> San Dionisio, Rustiko eta Eleuterio gorpuen aurkikuntzarenean, zein hasten den, *Genovefae solemnitas/Solemne parit gaudium*;<sup>82</sup> San Dionisio, Rustiko eta Eleuterio gorpuen aurkikuntzarenean, zein hasten den, *Laudemus omnes inclita*, eta beste askorenean adibidez, San Bernardorenean, zeinen titulua *Jubilus in commemoratione Sanctae Pasionis* den, eta zeinen hasiera honelaxe:

Nil canitur suavius  
 Nil auditur jucundius  
 Nil cogitatur dulcius  
 Quam Jesus Dei filius.<sup>83</sup>

Gualterus Maper<sup>84</sup>, Ingalaterran dagoen Oxfordeko artxidiakonoak duela 450 urte ziren garaiko bizioen kontra oihukatuz idatzi Golias Aitasainduaren Apokalipsia ere, bertso *esdrújulo* delakoetan dago. Hona exenplua:

Ecce capitulum legi de moribus  
 Archidiaconi, qui suis faucibus  
 Quidquid a proesulis evadit manibus  
 Rapit et lacerat rostris et unguibus.  
 Ecclesiastica<sup>85</sup> jura venalia  
 Facit pro patulo, sed venialia,  
 Cum venum dederit vacat a venia,  
 Quam non inveniens vendit Ecclesia.

<sup>81</sup> Idem, 375, d. 1228

<sup>82</sup> Adam de San Victor (1192), in Dag. Norberg, *Manuel pratique de Latin Médiéval* Picard, Paris 1980,82.

<sup>83</sup> In Joannis Mabillon, ed., 1318.; 17 Walter Mapes, Gautier de Châtillon (Lille, 1135-Amiens, 1201)

<sup>84</sup> :in) *Die Zehn fedichte des Walther von Lille, genannt von Châtillon nach der Pariser Handschriftberichtigtn und zum eresten male vollständig herausgegeben* von Dr. W. Müldener, Hannover, Carl Rümpler 1859, 24 or. IV Contra Ecclesiasticos iuxta visionem Apocalypsis 153. bl. Ecce capitulum....

<sup>85</sup> 169 bl.

Eta beherago:

f9

Jussus<sup>86</sup> dirimere lites quas suscitāt  
 A veris profugus falsis inhabitāt,  
 Certus in dubiis, in certis dubitat,  
 Quae pie loquitur, dolore cogitat.  
 Injustum<sup>87</sup> promovet et justum conterit  
 Spretor justitiae cum lucrum senserit.

Poema hauek, benetazko bertsolerro *esdrujulo*-z eginak izan arren, ez dira hain maiz moldatzen nola emez nahasiak diren *esdrujulo*-ak. Nahaste hau, edo bertso moldatze hau era ezberdinetara egiten da, zeren batzutan (eta maizenik) bi bertsolerro *edrujulo*-ekin batera lau eme doazen, era honetara konposatuak, alegia, hirugarrena eta seigarrena *esdrujulo*-ak eta besteak meak, Trinitatearen testu honetan bezalaxe:

Confitentes Unitatem  
 Veneremur Trinitatem,  
 Pari reverentia.  
 Tres personas asserentes  
 Personali differentes  
 A se differentia.

Hala nola Sakramentu Santuarenean<sup>88</sup>:

Lauda, Sion, salvatorem,  
 Lauda ducem et patorem,  
 In hymnis et canticis.

<sup>86</sup> 201. bl;

<sup>87</sup> 213.bl.; 21 F.J.E. RABY, aip. lit. 398: St Tomas Aquinas. d. 1274

<sup>88</sup> Hona nola itzultzen dituzten Oihenartek (*Notitia...* 2. arg. 1656, 73), eta Ormaetxea «Orixek» (*Idazlan guztiak. II. Itzulpenak*, Etor 1992, 68) bertso hauek euskarara:

Oihenart  
 Gohets, sion, Salbaria  
 Artzain et'aitzinaria,  
 Kantoretan, koblatan  
 Gohets ezak ahalaria,  
 Ezi guziz askitara  
 Eresak eholatan.

Orixe  
 Sion, goretsazu Jauna,  
 Salbatzaille ta artzaia,  
 Eresi ta lelotan.  
 Al aiña gora ezazu,  
 Motx geldituko baitzera  
 Aren gores penetan.



Quantum potes tantum aude,  
 Quia maior omni laude,  
 Nec laudare sufficis.

Batzutan sei eme ipinten dira bi *esdrujulo*-ren artean, hala Dominique Chartreux dohatsuaren *Penitentziarako exortazionean*, zein Mildendor Pius-ek argitaratu duen bere *Historia Monastica*-ren bukaeran:

f10

Homo dei creatura  
 Cur in carne moritura,  
 Est tam parva tibi cura  
 Pro aeterna gloria.  
 Illa quanta si scires,  
 Praeter eam nil sentires  
 Nec mundana sic ambires  
 Vana, transitoria.  
 Et si poenas infernales  
 Agnovisses, quae et quales  
 Tuos utique carnales  
 Appetitus frangeres  
 Et innumera peccata  
 Dicta, facta, cogitata,  
 Mente, tota consternata  
 Merito deplangeres.

Ohartu naiz ere zortziko molde hau ematen dela eleiza testu zenbaitetan, hala nola Mendekozte ondoko Hirugarren Ferian, zein honela hasten den, *Lux jucunda, lux suavis*, alegia, *Consolator almae veni* bertsoaren ondoan Ama Birjinaren, *Verbum bonum et suave-z*, eta Santa Paularen, *Virgo mitis gloriosa-z* hasten direnetan.

Jeronimo Boselli-k<sup>89</sup> bere *Del modo di comporre versi nella lingua italiana* saioaren 4. kapituluan dioenez, bertsolerro *esdrujulo*-ak besteak baino silaba bat gutxiago dute (esan nahi du emeak baino). Baina hau ulertu behar da errima italianoek, eta inolaz ez latinezkoek, non arruntean bertsolerro *esdrujulo*-ak emeak baino silaba bat laburrago diren, lehen aipatuetan ageri zaigunez. San Bernardo berezia da, bertsolerro guztiak berdinak egiten baititu silaba kopuruaren arabera,

<sup>89</sup> Hieronimus Bosellus (Bologna, 1634-1700), *Poesie e prose divine* (1660), *La Corte Accademica*....(1665)

f11

emeak eta *esdrujulo*-ak, Kristo sofriztailearen lohadar bakoitzaz moldatu dituen neurtitzetan bezala:

Salve, mundi salutare,  
 Salve, salve, Jesu chare,  
 Cruci tuae me aptare  
 Vellem vere, tu scis quare,  
 Da mihi tui copiam.  
  
 Ac si praesus sis accedo  
 Imo te praesentem credo.  
 O quam mundum huic te cerno!  
 Ecce tibi me prosterno:  
 Sis facilis ad veniam.<sup>90</sup>

Poema hau hamarrekoz moldatua dago non bostgarren eta hamargarren bertsolerroa *esdrujulo*-ak diren eta beste zortziak emeak. Horrelako hamarrekko berdintsu asko dago kantika izpiritualak deitu latinezko bilduman.

Batzutan bertsolerro emeen ondoren berehala doaz *esdrujulo*-ak, Berterius-ek <sup>91</sup> Orleans-eko eleiz-gizonak 1187 urte inguruan, Gregorio Villa aitasainduaren garaietan konposaturiko neurtitzetan bezala, zein historiagile ingeles baten liburu batean irakur daitezkeen:

Juxta Threnos Jeremiae  
 Vere Syon lugent viae,  
 Quod sollemni non sit die,  
 Qui sepulcrum visitet  
 Vel casum resuscitet  
 Huius prophetiae

f12

Contra quod propheta scribit  
 Quod de Syon lex exhibit,  
 Numquid ibi lex percibit,  
 Nec habebit vindicem,  
 Ubi Christus calicem  
 Passionis bibit?

<sup>90</sup> San Bernardo, aip. lib. Rhythmica oratio ad unum quodlibet membrorum Christi Patientis et a cruce pendentis, 1319.

<sup>91</sup> F.J.E. Raby, aip. lib., Berter of Orleans, C. 1187, Call to Crusaders, 297-298

Lignum<sup>92</sup> crucis  
 Signum ducis,  
 Sequitur exercitus;  
 Quod non cessit  
 Sed praecessit  
 In vi sancti Spiritus.

Azken seiko hau errepika da, beste seikoen ondoren errepikatzen dena, eta bestetarik ezberdina, zeren emeek lau silaba besterik ez duten (beste seikoenek hamaika duten bitartean). Badira poemak seiko labur berdintsuak dituztenak, adibidez, 1628. urtean Munster-en moldiztegiratu *De Medulla Precationum*<sup>93</sup> liburuaren 53, 67, 68, 96 eta 148. orrialdetan agertzen direnak. Oso arinak dira, baina bere laburtasunagatik aski moldagaitzak, bertsolerro gehienak lau silabakoak eta emeak baitira.

Badira ere beste poemak hirukotan moldatuak, hirurak errima eme bera dutelarik. Adibidez, Hilen testuok:

Dies<sup>94</sup> irae, dies illa,  
 Solvet saeculum in favilla  
 Teste David cum Sibylla.  
 Quantus tremor est futurus  
 Quando iudex est venturus  
 Cuncta stricte discussurus!

### f13

Badira oraindik mota batzuek, zein lau bertsolerro emeez osatzen diren, denak errima berekoak, hala nola Gariel-ek<sup>95</sup> bere Magueloneko Apezpikuen Historia-k (171.or.) ematen duen *Antigua Admonitio Ad clerum Ecclesiae Dei* deitu poema:

Cum<sup>96</sup> pastores ovium sitis constituti,  
 Non estote desides, sicut canes muti,  
 Vobis non deficient latratus acuti,  
 Lupus rapax invidet ovium saluti.  
 Spectat<sup>97</sup> ad officium vestrae dignitatis  
 Gratiae petentibus dona dare gratis,  
 Sed, si unquam fidei munera vendatis,  
 Incursuros Giezi lepram vos sciatis.

<sup>92</sup> Eskuskribuan hiruko bezala ematen da.

<sup>93</sup> B. Jacobonus Tudertinus-ena

<sup>94</sup> F.J.E. Raby, aip. lib., Thomas of celano, d.c. 1255, 392-393

<sup>95</sup> Petro Gariel, *Series proesulum Magalonensium....Tolosae*, 1652, 171,172.

<sup>96</sup> 29 bl.

<sup>97</sup> 41. bl.

Gratis Eucharistiam plebi ministrare,  
 Gratis confitermini, gratis baptizate,  
 Secundum Apostolum cuncta gratis date,  
 Solum id quod fuerit vestrum conservate.

f29

Izpiritu<sup>98</sup> Sainduaren Ofiziozko himnoak, hala nola Ama Birjjanaren Sorkunde-koak ere, bertsomolde honetan eratuak daude:

Nobis Sancti Spiritus gratia sit data,  
 De qua Virgo virginum fuit obumbrata,  
 Cum per Sanctum angelum fuit salutata,  
 Verbum caro factum est, virgo fecundata.

Sorkundearenak era honetan hasten dira:

Salve, mundi domina, caelorum Regina,  
 Salve, virgo virginum, stella matutina,  
 Salve, plena gratiae, clara lux divina,  
 Mundi in auxilium domina festina.

Badira ere beste zenbait, non bertso eme eta *esdrujulo*-ak kopuru berdinean eta gurutzatuak dauden, hala nola *Pange*<sup>98bis</sup>, *lingua, gloriosi/corporis misterium, / sanguinisque pretiosi*, etabar, seikoak direnak. Baina aurkeztu dizkizudan errima guztien artetik, hirugarren eta seigarren bertsolerroa *esdrujulo*-ak dituztenak eta beste lauak emeak, dira onartuenak, konturatuko zaren bezala astirik hartzen baduzu eleiz-testuak irakurtzeko, zeinetarik bi herenak bederen halaxe-koak diren, hala nola duela laurehun edo bostehun urte argitaraturiko poema anitz Illiricus-en *De corrupto Ecclesiae statu, Kantika*

f14

*Izpiritualak* latinez eta 1628.urtean Munster-en moldiztegiratu *Medulla precatio-num* bildumetan aurki daitezkeenak, hala nola beste zenbait lekutan, zeinetarik hemen adibideren bat emango dugun, Pasio garaian Elizan entzuten den kanta ilun deboziziozkoaz hasiko naizelarik:

Stabat<sup>99</sup> mater dolorosa,  
 Juxta crucem lacrimosa,  
 Dum pendebat filius,

<sup>98</sup> *Izpiritu*-tik hasi eta *festina*-raino eskuskribuaren bukaeran ematen da, ertz-oharrear  
 hara bidaliz

<sup>98bis</sup> F.J.E. Raby, aip. lib. St. Thomas Aquinas, d. 1274, Hyma for Vespers, 401.

<sup>99</sup> Idem, 13.m., 435

Cuius animam gementem  
Contristatam et dolentem  
Pertransiuit gladius.

Hona hemen beste adibide batzuk gorago aipatu Gualterus Maper-en *Satirak* liburutik hartuak

Quid<sup>100</sup> desertum<sup>101</sup> nisi mundus?  
Mundus quidem, sed immundus,  
Quia munda polluit;  
Qui sunt spinae tribulique?  
Qui? pastores praelatique  
Amatores muneris.

Cum non pascant, sed pascantur  
Non a pasco derivantur  
Sed a pascor, pasceris.

...  
Omnis habens muneratur  
Non habenti supplantatur  
Id ipsum quod habuit;

In deserto mundi huius  
Nemo floret, nisi cuius  
Bursa nondum vomuit.

Ondoren aurkezten ditudanak beste poema batekoak dira:

Nihil sunt virtutes cunctae  
Et jacent quasi defunctae  
Nullibi est charitas.

f15

Metu namque terga vertit  
Et fides sub scamno stertit,  
Superbit humilitas.

Ob hoc ego cum legistis  
Advocatis et juristis  
Prandens inter pocula.

<sup>100</sup> Aip. lib. (17 oharra), VIII, Domino Papae, 31-33 bl., 43-48 bl., 55-60 bl.

<sup>101</sup> Zuzen dago idatzita eskuskribuan gure ustez, beraz, Patxi Altunak Oihenarti egotzi hutsa (Francisco Maria ALTUNA, *Versificación de Dechepare, Métrica y Pronunciación*. Mensajero, Bilbao, 1979,83) Piarres Lafitteri legokioke (Pierre Lafitte, «L'Art Poétique Basque d'Arnaud d'Oyhenart (1665)». *Gure Herria*, Baiona, 1967,27).

Indefesse litem gero  
Cur pervertant cura quaero  
Nummo dantes oscula.  
Quivis sic mihi redicit  
Sed quem nummus jam non vicit?  
Vel quis spernit munera?  
Et si nondum ara nummo  
Fabricata sit, in summo  
Tamen plus diis colitur.  
Si nondum canonisatus  
Nummus sit, neque beatus  
Isti iam genu flectitur.  
O quanta numme operaris,  
Quod plus quam deus amaris  
A clero et a laicis.  
Iam, te sine, nullus sapit  
Per te homo quod vult capit  
Quod vis totum perficis.

Hurrengo bertsoak *De Mundi Miseriis* kanta izpiritual-etik hartuak dira:

Sanctae Leges caelo datae,  
Spretae jacent et calcatae,  
Dominante vitio.  
Umbra fallax honestatis  
Nomen gerit aequitatis  
Regnante mendatio.

f16

Ecquis modus est malorum  
Vel quae restat spes bonorum  
Ubi scelus colitur?  
Honos Ehem quam indignis  
Hic habetur, et malignis  
Quam injuste redditur!  
Primas saepe dignitates  
Atque summas potestates  
Temeret iniquissimi. etc.

Oraindik infernuko penez ari den *Kondenatuen Auhentatirik* harturiko besteok erantsiko nituzke:

Nullus patet hic amicus,  
Solus adest inimicus,  
Nullus amat socium.

Nullus amor vincit patris,  
Nullus matris, nullus fratris  
Unum regnat odium.

Hic clamores eiulatus  
Plangores et ululatus  
Atgue stridor dentium.

Caelum, mundum, detestari,  
Deum ipsum execrari,  
Hic est furor omnium.

Seiko gutzi hauek zortzi eta zazpi silabakoak dira.

Bada lauко mota bat nere ustez euskaldunena dena, batez ere eta bereziki, ez dudalako aurkitzen beste hizkuntzetan. Hiru bertsolerro errima bereko, hau da, lehena, bigarrena eta

f17

laugarrena, hirugarrena errimarik gabe gelditzen delarik. Froga ikusiko duzu *Emilia*<sup>102</sup> izeneko neskatxa baten kantan, zeinekin maitemindurik mairu batek urretan erosi zuen:

Andr' Emili' andre gora,  
Ezin diro ogirik ora,  
Artorik jorra hain guti,  
Bihoa mairu herrin gora.

Saldu nintzen saritan,  
Aski sari handitan,  
Ehun pizu urhetan eta  
Berrehun dupha eztitan.

Aita nuen saltzale,  
Ama diru hartzale,  
Anaierik xipiena  
Mairuetarik khentzale.

Lehen lauкоak zortzi silabako bertsolerro emeak ditu, eta beste biek zazpi silabako bertsolerro *esdrujulo*-ak. Bertso molde hau dotorea da eta bere erabilera mantendu behar da.

---

<sup>102</sup> Aldaerak eta komentarioak: Luis Michelena, «Descubrimiento y redescubrimiento en textos vascos», *Sobre Historia de la Lengua Vasca*, II, Donostia 1988, 713-728.

Ondorioztatzen dut, euskal poesiara emanak direnek beren bertsoak moldatu behar dituztela batipat aurkeztu berri ditudan latinezkoen errimatzekeo erara frantsesenera baino areago, onduz, edo bertsoleerro eme hutsak, edo *esdrújulo* hutsak, edo mota hauek nahasiz, bere hitz gehienak, edo eme, edo *esdrújulo*, edo arruntak direlako, harrak oso gutti izanik. Gainera beti bete behar dituzte elisioak eta sineresiak, alegia, hitz bat bokalez bukatzen

## f18

bada eta jarraian doakiona bokalez ere hasten bada. Eta ez mespretsatu, edo berdinetsi, Virgilio, Catulo, Ovidio eta beste poeta latinezkoen usuarioa, zenbait bertsoegile latindarrek egin duten arabera, ezen betez gero bokalen topaketek sortzen duten aharrausia saihestuko den. Halaber, honek balioko du hitzen luzera laburtzeko, holakoan luzetasuna gure hizkuntzan oso desegokia baita Poesiarako.

Elisioa egiten da, dakizunez, bi hitzen artean aurkitzen den bokal baten hotsa janez edo galeraziz, adibidez, hitz bi hauetan bezala, *entre eux*, non *entre* hitzaren bukaerako e-a jan eta galtzen den *entr'eux* idatziko bailitzan ahoskatuz.

Sineresia suertatzen da bokalen topaketa horretan, aitzin hitzeko azkena jarraian doan hitzaren lehenarekin lotzen denean, diptongoa eratuz, honela biak silaba soil bat egiten dutelarik. Hona hemen adibide batzuk Lope de Vega Carpio<sup>103</sup>, poeta espainolaren *Peregrino en su patria* liburuaren bigarren orrialdetik hartua:

Philida, nunca mi amor  
Enterneció tus sentidos.

Lehen bertsoleerroan *mi amor* hitzek ez dute bi silaba baizik egiten, zeren eta *mi* hitzaren i-a eta *amor* hitzaren a bokala, sineresia dela eta, lotzen diren biak bat besterik egingo ez bailutekeen, eta *mia* diptongoa balitz bezala, hurrengo bertsootan ere ageri den bezala:

Verdad es que un pescador  
Tan humilde poco vale  
Que aunque a todos nos iguale....

## f19

Lehen eta hirugarren bertsoleerroko *Que* eta *aunque* hitzek duten e letra desagertu egiten da, edo jan egiten da, horrela harra den lehen bertsoleerroan

<sup>103</sup> Lope Félix de Vega Carpio (Madrid, 1562-1635), in; *Colección de las obras sueltas así en prosa, como en verso de....*T.V., Madrid, Antonio Sancla, MDCCLXXVI, 3



zazpi silaba besterik ez delarik, elisioa gabe, ordea, zortzi lirateke. Eta emea den hirugarren bertsolerroan, hamar silabez ondua izan arren, zortzi besterik ez dira kontatu behar, zeren *que* eta *ainque* hitzen bukaeran aurkitzen diren e letrak jan egiten diren. Hala nola lehen orrialdeko bertso hauetan:

Que a la insigne Barcelona  
El muro antigo corona.

Lehen bertsolerroko *Que* hitzaren bukaeran aurkitzen den e-a kendu egin behar da a-k jarraituz diolako, hala nola *la* hitzaren a bokala. Eta bigarren bertsolerroan, sineresia medio, *muro* hitzaren o-a *antigo* hitzaren a-kin lotu behar da.

Elisio hau ez da bakarrik gertatzen bokal edo silaba laburrekin, luzetan ere gertatzen baita, hala nola Cervantesen<sup>104</sup> *La Galatea*-n aurki daitezkeen bertsoetan:

Muy bien podrá ser llamado  
Sobre todos desdichado,  
Pues que vendré a perecer  
Adonde el alma he dexado.

Hirugarren bertsolerroko *vendré* hitzaren bukaerako e-a kendu egiten da luzea izan arren. Horrelakorik ez da ematen hizkuntza frantsesean, ondoren frogatuko dudana bezala.

Poeta frantsesek elisioa e emez amaitzen diren hitzetan egiten dute soilik, eta ez beste kasuetan. Hala, adibidez, Du Bartas-en<sup>105</sup> *Premier Jour de la Semaine*-n

Providence et Bonté estoient à tous momens

Bertsolerro honetan e emez amaitzen den *providence* hitzaren e-a jan egiten da, eta ez *bonté* hitzaren e-a, hau harra eta luzea baita. Baina benetan bertso gile latindarrek ez dute elisioa beti egiten, batzutan betetzen duten arren, mespretxatu egiten baitute bestetan.

f20

Bernardo<sup>106</sup> deunak *Jubilus* izeneko poeman ere betetzen du, bertso hauetan bezalaxe:

<sup>104</sup> Aipt. lib., 682

<sup>105</sup> Guillaume de Salluste, seigneur du Bartas (Montfort, 1544 - Paris, 1590) *La Sepmaine ou La Création du monde* (1578-1584) Edizio. erkatua Yvonne Bellenger-ena, Paris, Librairie Nizet, 1981, 4; 61. bl.

Providence et Bonté estoient á tous momens  
la sacré-sainct object de ses hauts pensemens.

<sup>106</sup> Aip. lib., 1318

Quocumque in loco fuero  
Mecum Jesum desidero.

Non *quocumque* hitzaren e-a kendu behar den bestela bertsoleerroa bederazi silabakoa bailitzateke, beste guztiak bezala zortzi eduki beharrean. Baina idazle honek ez du elisiorik egiten beste bertso pila batean, hala nola Santo Tomas Canterbury-ko<sup>107</sup> apezpikuaren martirioaz Stapleton-ek argitaraturiko *De Tribus Thomis* idazlanean moldaturiko bertsootan:

Ante chaos iurgium indigestae molis  
Adhuc hyle gravida faetu magnae prolis,  
Necdum orto lumine lunae neque solis  
Nec discretis aëre, terra, mari, polis.  
In natura, in serie rerum mundanarum

*Natura* hitzaren azken a *eliditu*, jan egin behar da, bestela bertsoleerroak hamalau silaba izanen lituzke. Eta ondorengo *lapsu* hitzaren u-a arrazoi beragatik jan egin behar da, edo lotu, sineresia medio, hurrengo e-arekin bertso honetan bezala:

Thomas<sup>108</sup> lapsu erigitur incipit finitus

Eta gorago aipatu *Diruaren edo Lukurreriaren kontrako Satira*-n aipatutakoetan gauza bera:

Heu, quanta numme operaris  
Quod plus quam deus amaris  
A clero et a populo.

*Clero* hitzaren o-a kendu edo lotu egin behar da, sineresia medio, jarraian doakion hitzaren e-arekin.

Egoki irudituko litzaidake bertso eme eta *esdrujulo*-ak nahasiz, seikoak ontzea nahiko balitz, emeak lehenik joango balira, ezen, aurretik badoaz *esdrujulo*-ak eta emeak ixten hirukoa, hain atsegina ez den poesia, argi eta garbi baita.

## f21

*Lauda, Sion, Salvatorem/Lauda ducem et pastorem/In hymnis et canticis...*eko testuak ondorengoak baino askoz ere grazia handiago dut noski:

Res est admirabilis  
Virgo venerabilis  
Parit sed intacta,

<sup>107</sup> *Prontuarium Catholicum ad instructionem Concionatorum contra haereticos nostri temporis...De Martyrio S. Thomae Cantuariensis Archiepiscopi Carmen Rhythmicum, Historicum, Allegoricum et Morale...*1588; 982.

<sup>108</sup> Idem, 987

Operante spiritu  
Sine viri coitu,  
Genitrix est facta.

Galdetuko didazu agian zein diren hitz *esdrújulo* hauek eta zein lehen aipatu *arruntak* gure hizkuntzan, eta erantzungo dizut *esdrújulo*-ei dagokienez, direla azken silabak laburrak eta aitzin-azkenaurrekoa luze dituztenak, Zeuk ezagutu nahi badituzu belarriari galdeiozu, dudarik gabe beraxek erakutsiko baitizu *-ra, rik,-tik* eta *-ko* bukaera duten hirusilabako hitzak direla eite honetako, ahoskatzen ditugunez *hártzera, hárturik* eta *hártzeko* azentua lehenean ipiniz, eta ez *hartzéra, hartúrik* eta *hartzéko* azentua azkenaurrekoan ezarriz, eta guttiago oraindik azkenean duten *hartzerá, harturík* eta *hartzekó* bezala.

Ez dago hiru silaba baino gehiago duen hitzik, zeren haietariko anitzetan azkenaurreko kantitatea dudakorra edo halamodukoa da, hitzotan ageri denez, *erostera, erosirik, erosiko; erabiltzera, erabilirik* eta *erabilteko*, zeinetan aitzin-azkenaurreko silaba ez den bi azkenak baino luzeagoa, baina hirurak neurri eta denbora berean ahoskatzen diren; beraz ikus dezakegu azkenaurrekoa nahi bezala poetaren gogo arabera erabil daitekeela, luze edo labur gisara, hori dela eta arrunt edo dudakorra deitzen zaio.

## f22

Bada ere hiru silabako hitz andana handia azkenaurreko silaba arrunta duena et honen medioz balia daitekeena, bai eme, bai *esdrújulo* den bertsoleerroarentzat, halaxekoak dira, hain zuzen, mugatzailea duten nominatibo ia gehienak nola, *errea, josia, jauzia, buria, begia, ertzea, luzea, joaitea, hiltzea* eta besteak. Halaber beren singularreko ablatiboak: *erreaz, josiaz, buruaz, begiaz*, etabar. Beste kasua da mugatzailea duten pluralak, zeinek duten (nominatibo pairuzkoa ezik) azken silabak luzeak, ahoskatzen baititugu, *gauzék, gizonék, gauzén, gizonén, gauzér, gizonér, gauzéz, gizonéz*, azken silaba luzatuz.

Bestalde, mugatzailea duten singularreko genitibo eta datiboak azken silaba laburra dute, eta azkenaurrekoa luzea, ahoskatzen ditugunez *gizonáren*, eta *gizonári*, eta ez *gizonarén* ezta *gizonari*.

## f23

Aita Haramburu<sup>109</sup> kaputxinoa izan da bakarra errimak euskaraz publikarazi dituztenen artean, bere *Eskuarra*-ren bigarren argitalpenean sarturiko *Zazpi*

<sup>109</sup> Joanes Haramburu, *Debocino eskuarra miraila eta oracinotegia, Virginaren debocionea, marinelena eta San Francesen heren Ordena, berce anhitz debocionozco othoitzequin...* Bordelen, 1. arg. 1635; Vinsonen arabera 2. edizioa 1642.goa litzateke (*Essai d'un bibliographie de la langue basque*, Paris, 1891, 75) Lehen argitaraldiko 207. orrialdean aurkitu dut laukoa.

*salmo Penitencialak*-en itzul inguruan metodo on hori erabili duena, zeren tetrastiko edo laukoetan nahasi egin dituen zortzi eta zazpi silabako bertso eme eta *esdrújulo*-ak:

Utzazu, Jauna, kolera  
Ene mehatsatzeko,  
Ezen lizate sobera  
Ene gastigatzeko.

Baina desiragarri zitekeen denetan berdin jokatu izan bazukeen, bederen silaba t'erdiko errima erabiliz, (zeinez maiz ahanzten den) eta bertsolerro *esdrújulo*-tan ez bazukeen erabili bi silabako hitzik, zeinetarik lehena luze zitekeen. Hau gertatzen baitzaio zenbait parajeetan, hala nola *kolpe*-z bukatzen den 253. orrialdeko lehen bertsolerroan, eta *latza*-z bukatzen den 254. orrialdeko azkenaurreko bertsolerroan, eta *aiher*, *hurko* eta *turko*-z bukatzen diren 255. orrialdeko 15. 17. eta 19. bertsolerrotan, eta *jainko*-z bukatzen den 257. orrialdeko 17. bertsolerroan, eta *nola*-z bukatzen den 267. orrialdeko lehenean. Hitz guzti hauek lehen silabak luzeak dituzte, eta labur diren silabak aitzinatzen dituzte, eduki beharrean, ohi bezala hitz *esdrújulo*-etan, azken bi silabak laburrak eta aitzin-azkenaurrekoa luzea. Horregatik, askoz erosoago bukatzen da hiru silabako hitzekin, eta bi silabakoekin amaitu nahi baldin bada, honela behar da egin, alegia, hitzek

## f24

behar dute eduki lehen silaba luzea edo arrunta, eta aitzineko silaba bakarreko hitza beharko du izan, edo azken silaba luzeduna. Hona hemen adibideak: *jo ditut, jin dire, harén bila, haurrén ona*. *Esdrújulo*-ak diren hitzak amaitu daitezke ere silaba bakarreko hitzekin, baldin eta lekuz edo jitez luzeak ez badira, ondorengoak eta beste asko diren bezala: *botz, motz, latz, gatz, hatz, zurtz, hitz, gaur, laur, bortz, sei...*

Ohartu naiz ere Nafarroa Garaian eta Bizkaian moldaturiko zenbait kantetan neurria gorago aipatu *Emilia*-renean bezala gordetzen dela, hala nola bizkaitarra den honetan:

Atsein andia da amore eutea,  
Eta bere bada guztiz firmea,  
Ezin esan leidiz ondo munduak  
Zein andiak diren aren gustuak  
Gloriaz beterik jaio nindia  
Ikusiaz gero zen, Ene Eguzkia.

Bertso guzti hauek hamaika silabako bertsolerro emeak dira.

Ez dakit duela ehun eta hogeitaz urte idazten zuen Mossen Bernad d'Etcheparek, Garaziko herrialdean Eyheralarreko apaiza zelarik, bertso arrak ala emeak

egin nahi izan zituen, zeren *esdrújulo* -ei dagokienez ez dut uste ezagutu zitzakeenik, François Morpain-en etxean Bordelen inprimarazi zuen Euskal Poesian, zein geroago baina akatsez josia Erruanen Adrian

## f25

Morront-enean<sup>110</sup> bermoldiztegitatu den. Bere obra engainatzen ez banaiz, saratarra, eta Bordeleko Parlamentuan Erregeren abokatu jenerala zen Leheteko jaunari eskaini zion. Bi partetan banatua dago, lehenak *Doctrina Christiana*-ren pasarte batzuek ematen dizkigu, eta besteak (bere kartzelatze auzuek aparte) amodiozko neurtitzak, aski errespetu gutxikoak eleiz gizon batentzat, eta batipat arimazain den apez bati ez dagozkionak.

Bai errimaren kalitate pobre eta eskasagatik, bai bere bertsoak kantarazten zituen doinu eta musikagatik, esan dezaket bertso arrak egiteko asmoa izan zuela, baina metodo txar batez baliatu zela, hau da, bortxatu egin zituela berez labur zirenak, bertsolerro bakoitzeko azken silabak luzeak bilaka zitezen.

Hona nola hasten den:

Mundian<sup>111</sup> den gizon orok behar luke pensatú,  
Jaungoikoak nola duien bat bedera formatú,  
Bere Iduri propiara, gure arima kreatú,  
Memoriaz, borondatez, endelguiaz goarnitú.

Denak hamabost silabako bertsolerroak dira, berdinek ez dutenak poeta frantses, italiano eta espainolen artean, (zeinen baitan bertsolerro luzeenak hamahiru silabako alexandrino emeak diren), are gutxiago latinezkoen artean.

Bertsolerro hauen mozte eta atsedean uneak leku askotan ere irregularrak dira.

## f26

Honen ondoren izan zen beste apaiz bat Donibane Garazin jaioa, Jean d'Etchegaray<sup>112</sup> Jauna deitua, euskal poesian aritua eta *Artzain gorria* izeneko

<sup>110</sup> Adrien Morront Erruanen moldiztegitale (1604-1630), Ambrosio Salazar-en *Las clavellinas de recreación...* (1614) ere argitaratu zuena (*Gallia Typographica...* par George Lepreux, T. III, Paris 1912, 334).

<sup>111</sup> *Doctrina Christiana*

Munduyâ den guiçon oroc behar luque pêsatu  
langoycoac nola duyen bat bedera formatu  
Bere irudi propiara gure arima creatu  
Memoriaz vorondatez endelguyaz goarnitu.

(*Linguae Vasconum Primitiae* per Dominum Bernardum Dechepare Rectorem Sancti Michaelis veteris, François Morpain, Bordeaux, 1545)

<sup>112</sup> Bidarten 1601. urtean apaiz zegoen Jean Detcheharay bera ote? (Bibliothèque Municipale de Bayonne, Archives....FF 357, H H 181)

pastoralaren egilea, zein hiri honetan zenbait aldiz jokatu zen. Duela ehun urte idatzi zuen. Ikusi dut bere eskuz euskal poemekin idatzitako liburu bat, bertso hauetarik gehienak ere hamabost silabakoak dira eta Detcheperak egin hutsaldi berdintsuak dituzte. Gauza bera esan dezaket bere eskuz idatzirik ikusiak ditudan Arnaud de Logras<sup>113</sup> Jaunaren, Amikuze eta Oztibarreko Bikari eta Utziatiko priore zenaren neurtitzez.

Azter ditzagun ondoren Ziburuko apeza zenaren d'Etcheberri Jaunaren *Manual*-ekoak<sup>114</sup>, eta aurkituko dugu hauek ere hamabost silabakoak direla bat bedera, eta kantitatearen bortxatze bizio beraz ikutuak, izatez labur diren<sup>115</sup> azken silabak luzetzat jotzen baititu; horregatik Baionako Apezpiku Jaunari zuzenduriko Dedikazionezko Gutunean, errimarazten ditu *prelata* eta *baita* (bi hitz hauen azken silabak azentu zorrotza bailuten ahoskatuz). 11 orrialdean *partale/gardatzaile*-rekin; 14. orrialdean *conseiluz/ereduz*-ekin; 19. orrialdean *oro/maizkiago*-rekin, eta 27. orrialdean *abisu/gorritu*-rekin. Eta bigarren liburu-ko 45. orrialdean *ahantzi/moldezki*-rekin; eta 46. orrialdean *eskaturik/mundutik*-ekin.

## f27

52. orrialdean *aiphamen/entzuten*-ekin, 98. orrialdean *agindua/libratua*-rekin, 99. orrialdean *duena/arima*-rekin. Bada oraindik bere *Manual*-ean hainbat bertsolerro halako egitura dutenak, alegia, bakarrik azken bokala dutenak elkarren oihartzun moduan. Batzutan gainera errima burutzeko hitz bera errepikatzen du zentzu berdinaikin bi bertsolerroren bukaeran, hala nola lehen liburuaren 11. orrialdean, non *gabe*-k jarraiaiko bertsolerroan ageri den eta esanahi berdineko *gabe* berarekin errimatzen duen. 52. orrialdean *Egia*-k/*egia*-rekin, eta 58. orrialdean *beretzat-ek/beretzat*-ekin. Bere *Noelak*<sup>116</sup> *Egunorozkoa*<sup>117</sup>, eta *Elizara erabiltzekoa*<sup>118</sup> -n darabiltzan erak ez dira hobeak. Errimarazten baititu *doloraturen/jakinen*-kin, *galdetzen/zuten*-ekin, *galdurik/norbaitik*-ekin, *garbi/humilki*-rekin, eta beste lekutan gehiegizkoaz diren lizentziak aizuztat jotzen baititu, eta bere errima zenbait aldiz bi bertsolerroren amaieran

<sup>113</sup> Agian Martin de Logras Olhonzeko jauna eta erregearen kontseilari zenaren semea, eta Graziana de Logras, Oihenarten andererearen lehengusu txikiaren anaia.

<sup>114</sup> *Manual Devotionezcoa, edo ezperen oren oro escuetan erabiltçeco liburutchoa Escarazco versutan eguiña...* Bordelen, Millanges, 1.ed. 1626.

<sup>115</sup> Claudius de Rueil, erregearen kontseilari eta Pariseko semea.

<sup>116</sup> *Noelac eta berce canta spiritual berriac. Jesus Christoren biciaren mysterio principalen gañean. Eta sainduen ohoretan besta buruetacotz.* Joannes Etcheberri Doctor Theologoac eguiñac. Bordelen, G. Millanges, 1630.

<sup>117</sup> Galdua antza denez.

<sup>118</sup> *Eliçara erabilceco liburua* Ioannes Etcheberri Dotor Theologoac eguina eta iaun Noble Bertrano de Etchhaus Tursco Apezpicu digneari dedicatua. Bordelen, G. Millanges, 1636, 37....

Confiteor, guero apheçac/Erraten du devotqui/Virgina purificatu/Cen tenpluan humillqui/çuc naçacu, Jauna, neure/Hobenetariac garbi.

hitz bera errepikatuz moldatzen baitu, eta bere bertsoek neurri bera ukan dezaten maiz errepikatzen ditu adjetibo eta substantiboaren arteko mugatzailea, esaten duenean, adibidez, *Enea galdea*, *ene galdea*-ren ordez, *pensamenduetarik gaxtoetarik*, *pensamendu gaxtoetarik* ordez.... Bestalde oso gutxitan darabil elisioa eta sineresia, eta bertsoak haietan hamabost silabakoak dira *Manual*-ekoak bezala laukoetan banatuak izan arren, zeren bi bakarrik errimatzen duten laukoan, beste biak hemistikioak bezala hartu behar direlarik eta ez bertsolerro osoen gisara.

## f28

Tamalgarría da izpiritu honek hobetsi izana poesia eta ez prosa<sup>119</sup>, non inongo dudarik gabe arrakasta handia ukanen zuen, (moldiztegiratu lanez kanpo) bere adiskideekiko Gutunek, bere Hiztegiak eta (bere eskuz idatzirik ikusi ditudan) bere Konjugazioneak hizkuntza honetan zuen gaitasuna adierazten baitigute. Bere neurtitzak ontzen zituen garaiari entzun nion, batipat itsasoan marinelek kanta zitzaten lantzen zituela, beraz, epaitu dezakegu batez ere karitateak eraginik eta ez anbizioak edo handigurak, eta benetazko eliz-gizon baten gisara bere lagun urkoaren probetxurako garrak bultzaturik.

---

<sup>119</sup> Halere *Manual*...ean badu zati bat «prosan edo hitz lanoetan», Bi-garren liburuaren azken partea-n, 161-191.

# OIHENART: EUSKAL ERREFRAUAK ETA FORU ZUZENBIDEA

Andres URRUTIA

«Elütüke galdü behar  
Lehenagoko legiak  
Bere mintzaje ederra  
eta bere ohidürak»

«Ez, sinhesten düt, fermoki,  
anaitzarzünian direla,  
egün batez, üskaldünak  
Biziko algarrekila!»

A. d'Oihenart: *Phastuala*.  
1985.urtean Muskildin emana  
Egilea: Arnaud Aguergaray-Bordaxar

1. Sarrera. Hizkuntza eta Foru Zuzenbidea Euskal Herrian. Ideia orokorrak.
2. XVI. - XVII. mendeak. Foru Zuzenbidea euskararen eskutik. Oihenart.
3. Oihenarten errefrauak Euskal Foru Zuzenbidearen ikuspegitik.
  - 3.1. Errefrauak, Foru Zuzenbidearen edukin ezidatzi baten adierazleak.
  - 3.2. Arloz arloko errefrauen azterketa.
    - 3.2.1. Zuzenbidearen oinarriak.
    - 3.2.2. Justizia - Administrazioa.
    - 3.2.3. Etxea eta etxaguntza.
    - 3.2.4. Harreman juridikoak.
4. Azken gogoetak.



## 1. SARRERA: HIZKUNTZA ETA FORU ZUZENBIDEA EUSKAL HERRIAN. IDEIA OROKORRAK

«*Ubi societas, ibi ius*», «*Ibi ius, ubi societas*» dio brokardo latindarrak. Eta ildo beretik ere, zera esan dezakegu guk ere, oker ibiltzeko arriskutan jausi gabe: «*ubi societas, ibi lingua*», «*ubi lingua, ibi societas*». Beraz, «*non gizartea, han zuzenbidea*» eta era berean, «*non hizkuntza, han gizartea*».

Izan ere, bikote hau, hinkuntza/zuzenbidea, beti izan da aipatua eta erabilia giza multzo baten berezitasunik berarizkoenak zehazterakoan. Are gehiago, hizkuntza eta zuzenbidea gizarte eta herri baten adierazlerik gogokoena bezalaxe hartuak izan dira aspalditik «*herri*» delakoaren kontzeptua marrazterakoan. «*Herri*» horren osagai bakarrak ez badira ere, bai ordea, «*herritasun*» edukinaren oinarriak eta sustraiak direnik ezin uka, batez ere, SAVIGNY jurista germaniarrak sorturiko «*Zuzenbidearen Eskola Historikoa*»ren ondorioz<sup>1</sup>, eskola honek jarri baitzuen, XIX.mendearen ondarretan, bi kontzeptu hauen arteko emango den lotura hertsia.

Lotura hori, berebizikoa izanik ere, ez da izan, horratio, Euskal Herrian, beste leku askotan gertatu den harreman sakona. Euskal gizartean, orokorrean, euskara ez da izan historian zehar euskaldunek sortu dituzten lege idatzi propioen lanabes edo tresna, ez eta, legegizonek erabili duten hizkuntza ere. Arrazoi franko eman dira honen inguruan, baina testu idatzien errealitatea hortxe dagokigu, guri so, erremediorik gabe.

Euskal Foruak, euskal zuzenbidearen testu nagusiak, gazteleraz edo gaskoineraz idatziak izan ziren bitartean, herriak mintzaturiko hizkuntza beste bidetik zihon, paperetan berezkoak zitzaizkion erakunde juridikoak euskaraz besteko hizkuntzez bizi zituela.

Honela, Euskal Herriaren kasuan, beste herri askotan ez bezalaxe, hizkuntza eta zuzenbidea ez dira historian zehar batera etorri, maila idatzian bederen, ziur asko ahozko mailan gertatzen zenaren kontra.

Horrexegatik, egoera aldatzen hasi den gure garaiko aldi honetan, beharrezko eta zilegi eritzi diogu kongresu honen jomuga den Oihenart autorea, ikuspegi juridiko-linguistiko batetik berreskuratzeari, bere baitan biltzen baitira euskal zuzenbidea eta euskara estekatzen dituen katearen zenbait elementu garrantzitsu.

Batetik, Oihenart legegizona dugu eta baita ere euskararekiko grina nabari zaio. Euskal Herria «oso»aren lehen historiagile zaigun zuberotar honen olerki-gintza, kondaira eta errefrauen bilketa nabarmendu badira ere euskal

<sup>1</sup> Ikus A. DAFOUR: «Droit et langage dans l'Ecole historique du Droit», 1974, XIX A.P.D. 151-180 orr.

literaturan, bere kezka euskal erakunde juridikoekiko eta berautan eduki zuen partehartze arrakastatsua ere ez dira ahaztu behar.

Jacques de Bela bere lehengusu protestatearen antzera, zuberotar ohituren gainean ez badu idazten ere, Oihenartek Zuberoako aldirik foralena biziko du, alegia, ohiturak bildu eta gerokoa, bilduma testu horretan lehendik zetorren euskal ohiturazko zuzenbidea idatzi zelarik.

Eta ohiturazko mundu horretan kokatu nahi dugu guk ere gure zeregina. Maila idatzitik at, herriak egunero bizitzen zuen ohiturazko zuzenbide propioan. Horretarako aukeratu ditugu errefraua, Oihenartek bildurikoak, erakunde, printzipio, eta errealitate juridiko euskaldunen ispilu diren neurrian eta beraietatik ikaskizun zerbait atera ditzakegulakoan.

Honetan ikusten dugu guk, gainera, Oihenarten ekarpena egungo legegizozentzat, hain zuzen ere, euskal zuzenbide honek izan dituen zerbait printzipio edo oinarrien formulazio euskaldunean («*euskaradunean*» esan nahi dugu), horrela ere, ezari-ezarian, euskal zuzenbide posible baten mundu sinbolikoa osa daitekeelakoan baikaude.

Jan alperra ? Baliteke. Baina gure tradizioaren ezagueran zuberotar honek badu bere lekutxo. Eta leku hori legearen aldetik aztertze, bi arlotan bereiztuko dugu gure eginkizuna. Lehendabizikoz, Oihenart girotuko dugu bere sasoiko lege munduan, hots. Euskal Foru Zuzenbideak bizi zuen XVI. - XVII. mende bitarte hartan eta bigarrenez, Oihenartek baturiko errefrauen edukin juridikoa azalduko dugu, Oihenarten ikuspegi gutxilandu bati ekinez.

## 2. XVI.-XVII. MENDEAK. FORU ZUZENBIDEA EUSKARAREN ESKUTIK. OIHENART

Oihenart duela lauhun urte, 1592.urteko Maulen jaio zen. Beraz, hamaseigarren mendeko azkenetan dator mundura legegizon, historiagile eta euskaltzale zuberotarra. Mende bitarte honetan, Euskal Herriko errealitatean aldaketa eraginkor batzuk gauzatuko dira, hain zuzen ere, mauletan honen bizitzan ondorio zuzenak izango dituztenak.

Hasteko, euskal hamaseigarren mendeko hiru ardatz nagusi posible zehaztuko ditugu, autore honen bizi ingurua arakatu eta ikertzeko baliagarri izan dakizkigukeelakoan. Errenazimendu garaian gaude, ez ahaztu, eta honako hauek lirake esandako ardatzok, besteak beste:

A) Nafarroa Garaia eta Beherearen arteko zatiketa. Bereizkuntza 1512.urtean gertatu zen eta ondorenez, Nafarroa Garaia Castillarekin batera lerrotzen den bitartean eta haren koroipekoa geratu, Behenafarroan erresuma txiki bat agertzen da, Bearnekin batera loturik, beste «*Navarra*» izango dena.

Honela Nafarroa osorako amankomunak ziren erakunde eta foruek bidea zabalduko diote etendura juridiko-administratiboari. Azkenean, 1622.urtean,

Behenafarroak ere bere Foru propioa izango du, esanahi eta testuinguru bereziki bada ere<sup>2</sup>.

Honekin batera ere, erreforma protestantea dugu bitarteko auzi honetan. Euskal Protestantismoa, Jeanne d'Albret erreginak bultzatua, laster zabaldu zen Euskal Herriko Iparraldetik eta bere eragina nabaria izan zen Iparraldeko hiru euskal lurraldeetan, Zuberoa ere barne. Erliijo gatazka honek mamituriko gizartearen jaioko da Oihenart eta katolikoa izan arren, bere familiaren barnean izango ditu bestelakoak, hala nola lehen esandako Jacques de Bela zaldun protestantea, bere moduko legegizona eta «*Leben hala, orai hula, guero ez dakit nola*» izenburutzat zeukan Belatarren leinukoa.

B) Hamaseigarren mendean, baita ere, Ipar Euskal Herriko lurraldeetako foruen bilketa burutzen da. Esan bezalaxe, 1522.urtean biltzen dira Zuberoakoak eta 1514.urtean Lapurdikoak.

Foru bilketa hauexek, erregek emandako ordenantzen bidez eragin ziren, euskal lurraldeetako erakunde errepresentatiboek egin bazuten ere. Honela, kasurik gehienetan, «*droit coutumier*» zena, testu idatzietara pasatzen da. Testu idatzi hauetan, gainera, ordurarte ohiturazko sistema juridikoa zena, lege idatzia izatera igaro zen, beti ere, autoreek ondo zehaztu dutenez, euskal lurraldeetako foru zuzenbide bereziki zuten amankomuneko funts juridikoa gordetzen zelarik.

Dena den, lege bilduma hauek, nahiz eta izenburu euskalduna duten erakunde franko barruhartu, ez dira euskaraz idatziko. Aldiz, gaskoinera izango da nagusi testu hauen idazkera prozesuan. Honela, esaterako, Zuberoako legetestua gaskoineraz idatziko da. Nussyk<sup>3</sup>, eta bide beretik Regnierrek ere<sup>4</sup>, honen arrazoa Lannesko Seneskaletzak Zuberoaren gainean zuen boterean ikusten dute, hango hizkuntza ofiziala, euskara edo frantsesa ez ezik, gaskoinera zelako.

Testu hauetan (eta Euskal Herriko Hegoaldeko testuetan ere) sarri gertatzen da erakunde juridiko batzuen deiturak euskaraz agertzea, agertze horrek haien

<sup>2</sup> Honen inguruan ezinbestekotzat jo daiteke J. Goyhenetcheren aportazioa: *For et Coutumes de Basse Navarre*, Elkar, Baiona, 1985. Bertan agertzen da, Behenafarroako Foruen edizio kritikorekin batera, foru testu honen sortze prozesuaren bidea. Bestalde ere, Nafarroa Garaiairen konkistari buruz, ikus daiteke, AA.VV. «*475 Aniversario Conquista de Navarra, Jornadas Históricas*», Eusko Ikaskuntza, San Sebastián 1989. Horretan oso interesgarriak gertatzen dira J.M. Satrustegik egindako euskarari buruzko ebaluazioa eta T. Urzainquik egiten duena, azken hau, eta bereziki, foruen ikuspegitik. Ikus, berrikitan argitaraturiko. J. Goyhenetcheren lana: *Les basques et leur histoire*, Elkar, Baiona, 1993.

<sup>3</sup> M. NUSSY: *Le país de Soule, Essai sur la coutume basque*, Clèdes et fils Editeurs, Bourdeaux, 1955, Annexe III. bereziki.

<sup>4</sup> J. M. REGNIER: *Histoire de la Soule*, Ekaina, St-Jean-de-Luz, 1991, 167. orr. eta jarr. Aipagarria, baita ere, erreferentzien mundutik: J.L. ETCHECOPAR-ETCHART, *Histoire de Pays de Soule, Recueil de References*, Imp. de Arce, Mauleon 1992, 2. arg.

berezko sena zein zen ezin argiago erakusten digula. Ohar ditzagun, besteak beste, eta Zuberoako Foruan, II. ataleko VI. artikulua<sup>5</sup>, non agertzen zaigun *sainhoa edo zaingoa*, auzokoen zaindaritzari dagokiona, edo, baita ere, XXIV. ataleko XVI. artikulua<sup>6</sup>, *abel haxacarri* esaera duena eta ezkontzari ekarritako abereen fruituen erregimenari dagokiona. Ikusten denez, aspalditik Caro Barojak<sup>7</sup> Nafarroako Foruan hauteman zuen fenomeno berbera dugu hauxe ere.

Hizkuntzaren auziaz gain, halare, testu hauexetan, autore juridikoentzat nabaria dena zera da, lehen aipaturiko Euskal Foruen artean oinarri erkidetasuna, «*piriniotar zuzenbide*» batez mintzatzea bideratzen duena<sup>8</sup>.

Bestalde ere, bere bilketaren prozesutik aurrera eta zenbait kasutan, ohitura, zuzenbidearen lehen iturburu gisa ordurarte eduki zuen zeregin nagusia aitortua izan arren (adibidez, Nafarroa Garaian edota Bizkaian), testu juridiko nagusi hauek, zeinek bere lurralde propioan, sistema juridiko bakoitzaren euskarri nagusiak bilakatuko dira, hango biztanleek gorde eta gordearaziko dituztenak, laster hasiko diren erregeren erasoetatik.

C) Mende berekoa da, alegia, XVII. gizaldikoa, Ipar Euskal Herrian euskal literaturak izango duen lehen loraldia. Detxeparek jarritako lehen harriak segidan ikusiko du jarraibidea. Leizarragaren itzulpenak eta Lapurdiko autoreen sorta, Axularrengan bere gailurra eskuratuko duena, euskaraz egindako literaturaren hastapen eta aldi berean, urrezko garaitzat hartuak izan daitezke.

Garaikidetasunik izango du mugimendu honek aldi berean Hego Euskal Herrian euskararen inguruan garatzen ari zen beste gogoeta moldearekin. Ari gara, ari ere, euskarari buruz jardungo duten zenbait autorek egindako lanaz. Poza, Garibai, Etxabe eta Zaldibiak<sup>9</sup>, beste askoren artean, bete dezakete gune hau.

Horrela hasten da Hego Euskal Herrian luze iraungo duen euskararekiko ideologia, foru eta foralismoarekin lotuta. Euskara, kontu hauetan, Tubal

<sup>5</sup> Zuberoako Foruaren aipamenak Haristoyren obratik egiten dira: P. HARISTOY, *Recherches historiques sur le Pays Basque*, Laffite Reprints, Marseille, 1977, berrarg., 381. orr. eta jar. II. Ataleko VI artikulua honela dio:

«Null homme auquel tombe le charge de fermance veizelère, qui au langage du pays est appellé *sainhoa* ou *zaingoa*, ne peut être juge en la cour de Lixarre ni en autre cour de Soule...»

<sup>6</sup> XXIV. Ataleko XVI. Artikulua:

«Aussi les lits eta habilements lui doivent être rendus, s'ils sont en nature, et la moitié des bestiaux qui sont donnés pour *abel haxacarri*, étrennes ou joyaux et de leur suite s'ils sont en nature».

<sup>7</sup> J. CARO BAROJA: «Observaciones sobre el vascuence y Fuero General de Navarra», in *Fontes Linguae Vasconum. Studia et Documenta* Número 1. Pamplona, 1969, 61-95 orr.

<sup>8</sup> Autore askoren partetik, ikus: NUSSY, ibidem, 84. orr.

<sup>9</sup> J. R. ZUBIAUR BILBAO: *Las ideas lingüísticas vascas en el s. XVI* (Zaldibia, Garibay, Poza), Universidad de Deusto, Donostia 1990. Orobat, F. ELIAS DE TEJADA: *El Señorío de Vizcaya*, Ed. Minotauro, Madrid 1963, 73. orr. eta jar.

patriarkak ekarririko paradisuko hizkuntza izango zaigu, pare eta orbangabea. Hortik euskaldunen jatorrizko aitonsemetasuna aipatzera beharrezkoa den urratsa eman eta gero, espainolik espainolenak izango omen dira euskaldunak eta bere erregimen berezia erregek errespetatu beharrezkoa, datarik gabeko antzintasun baten ordezkaria delako.

Pasa gaitezen orain, hiru ardatzok aintzakotzat hartu eta gero, Oihenart hauexen aurrean non kokatzen den zehaztera:

A) Nafarroako etendurari buruz, Oihenartek beti defendatuko ditu Nafarroako egiazko erregeren eskubideak (berarentzat Iparraldeko Behenafarroarenak) Castillatik etorri zen konkistaren aurrean. Idatzi ere, ildo honetatik idatziko du, Eugene Gohienetxe zenak gogoratu zigunez<sup>10</sup>, eta ondorioz, hamaika oztopo edukiko ditu bere lan historikoetarako behar zuen materiala eskuratu eta erabiltzeko, batipat Nafarroa Garaia buruz, Albretarren aldeko joera hori Nafarroa Garaia agintarien aldetik ezaguna zelako, Jaurgainek erakutsi zuen bezalaxe<sup>11</sup>.

Hortik kanpo ere, Oihenarten lana erabat ongarria izango zaio euskal «*lurraldetasun*» modernoari, bera izango baita lehena, hain zuzen ere, osotasun horren aldarrikapenean. Bere obra nagusiaren izenburutik bertatik mintzo zaigu kontzeptu hori, «*Notitiae Utriusque Vasconiae, tum ibericae, tum aquitanicae*», 1638.urtean argitaratua<sup>12</sup>. Ezaguna denez ere, Oihenarten grina eta agian, gaur eguneko euskaldunei eskaintzen dien gauzarik nabarmenena izan daiteke aipaturiko ideia hori, behin eta berriro errepikatu izan denez.

B) Halaber, Oihenartek bere jakituria Foruen alde jartzen du. 1623.urtean Zuberoako «*Silviet*» delako batzar legegilean hirugarren estatuaren ordezkari dugu. Lanbide honetan behin eta berriro auzitara jo beharko du zuberotarrak idatziberriak ziren Zuberoako Foruak errespetatuak izan zitezten ahaleginetan.

Egia da Oihenartek ez duela idatziko, lehen esandako Bela bere lehengusu protestanteak egin zuen moduan, Zuberoako ohiturei buruzko komentariorik.

<sup>10</sup> E. GOIHENETXE: «Arnaut Oihenarte, Gizona, Kondairagilea eta abertzalea», Larresorok prestatuturiko *Atsotitzak eta Neurtitzak* liburuaren hitzaurrea, Irakur Sail, Donostia 1971. Hor aipatzen ditu bi titulu hauek: *Déclaration historique de l'injuste usurpation et rétention de la Navarre par les espagnols* (1625) eta *Navarra injuste rea... sive de Navarrae regno, contra ius fasque occupato*.

<sup>11</sup> J.B.E. DE JAURGAIN: *Arnaud d'Oihenart et sa famille*, H. Champion Libraire, Paris 1885, 25. orr. Jaurgainek aipatzen du, Yanguasen eskutik, Nafarroa Garaian zegoen erregeordekoak Oihenarti lurralde horretako dokumentuak miatzeko eman zion ezetza, berba hauexekin: «fundándose en que el verdadero objeto de Oyanart era escribir contra la ocupación de Navarra por los reyes de Castilla y contra la opinión que las cadenas de las armas de Navarra procedían de la batalla de las Navas de Tolosa».

<sup>12</sup> «*Notitiae Utriusque Vasconiae, tum ibericae, tum aquitanicae*» París 1638. Gaztelerazko itzulpenik ere badago: P.J. GORROSTERAZU: *Noticia de las dos Vasconias, la Ibérica y la Aquitana*, Sociedad de Estudios Vascos, Donostia 1929.

Belaren «*Tablette*»ak zeregin horretan alboraezinak zaizkigu, eta nola ez, hark izkiriaturiko «*Commentaire sur la coutume de Soule*» eskuskribua. Halare, Oihenart benetako *forista* dugu, foruek eraikitako sistema barnetik bizi duena, eta *foralista* direlakoan aurka, hau da, testu idatzi batzuen komentarista eta ohar egileen kontra, foru barneko bizitzan zuzenbidearen bilakaera eta garapenaren bila doan legegizona<sup>13</sup>.

Oihenartek, gerora ere, eta ezkontzaren bidez Nafarroako aitonsemea bihurtu ostean, Nafarroako Parlamentuan hartuko du parte eta ez partehartze nolanahikoa, erantzukizun handikoa baino. 1632.urtean, esaterako, Erresumaren Justizia Arantzel berria ikustatzeko izendatuko den batzordearen partaide izango da. Molde bereko izango da Jaurgainek<sup>14</sup> aurkezten digun bere azken ekintza, hau da, hil aurretik, 1665.urtean, Baionako apezpikuaren eta Orreagako Monastegiaren arteko itun baten sinatzailea ageri zaigula, Nafarroako Parlamentuaren lehendakariaren ordezkari gisa. Ez ahaztu, baita ere, eta lehen esan dugun legez, Oihenart abokatuak Lixarre eta Pabeko auzitegietan maiz defendituko dituela zuberotarren foruak eta eskubideak.

C) Oihenartek, euskal idazleen garaikide aldean, olerkigintza eta errefrau bilketa landuko du batipat euskaraz eta historiagintza erdaraz eta latinez. Olerki gisa merezi duen balorazioa beste esku jakintsuago batzuetan dagoenez, gure zeregina konstatazio honetara mugatzen da, hau da, euskaraz gai literarioak erabili bazituen ere, legegizon hau garai horretako euskal literaturaren lehen partaide laiko izango dela azaltzera.

### 3. OIHENARTEN ERREFRAUAK EUSKAL ZUZENBIDEAREN IKUSPEGITIK

#### 3.1. Errefrauak, Foru Zuzenbidearen edukin ez idatzi baten adierazleak

Lehen azaldu den moduan, errefrauak dira, neurri batean bederen, gizarte oso baten elementuen islada. Honela gertatu izan da eta gertatzen da Euskal Herrian ere, eta hortik abiatuta aztertuko dugu guk hemen Oihenartek bilduriko errefrauek eduki dezaketan esangura juridiko-linguistikoa.

Dena den, errefrauekin zuzenean hasi baino lehenago, pare bat berba bota behar ditugu «*errefrau*» eta «*atsotitzak*» direla eta. Izan ere, Oihenarten liburuak honelakoa du izenburua, euskaraz behintzat, *Atsotitzak eta errefrauak, Proverbes ou Adages basques, Recueillis par le sieur d'Oihenart*, Paris, 1657.

<sup>13</sup> Forista eta foralista kontzeptuen artean dagoen mundua zehazteko, ikus daiteke J. LALINDE ABADIA: «Derecho y Fueros» in *Comentarios a la Compilación del Derecho Civil de Aragón*, Lacruz Berdejok zuzenduak, Diputación General de Aragón, Zaragoza 1988, 11. orr. eta jarr.

<sup>14</sup> J.B.E. DE JAURGAIN, ibidem, 33. orr.

Bi esamoldeon arteko bereizketa Haritschelharrek miatu du arestian<sup>15</sup>, beraien arteko desberdintasunak zehazteko asmotan. Guk, ordea, hemen orokortasunean hartuko ditugu guztiak, eta bide horretatik, Oihenarten bilduman agerturikoa «*adage*» edo «*esakera*» juridiko gisa erabiliko dugu, kasu bakoitzaren funtsean dagoen erakunde edo printzipio juridikoaren adierazle bezalaxe.

Hala ere, beste xehetasun bat ere inposatzen da oraingo honetan, azterketa honi ekin aurretik. Ari gara, ari ere, Julio de Urkijo euskal paremiologian jakintsu zen hark, mende honen hasieran bota zuen erronkari buruz<sup>16</sup>, alegia, ea ez ote ziren errefrau hauek herrikoiak baino askoz gehiago «*erudito*» eta jakintsuen artekoak. Bide honetatik, On Juliok aldameneko errealitate eta hizkuntzen eragina ikusten zuen nahitanahiezkoa euskal errefraueta (Oihenarten bildutakoak ere barne) eta hauen jatorrizko euskal izaera gutxietsi, itzulpenaren bidezko esakune hutsak bailiren.

Eritzi hori matizaturik izan bada ere gure garaietan, Lacarra eta beste autoreen aldetik<sup>17</sup>, ezin uka argumentu honek gure zereginean duen berariazko eragina.

Izan ere, alboko herriekiko parekotasunak ez du suposatzen, gure ustez, alboko errealitatearen itzulpen hutsak direnik. Eta diodan hauxe, frogaren bidez azaltzen ere saiatuko naiz oraingo honetan.

Demagun, esaterako, Oihenarten garaikide den 1596. urteko «*Refranes y sentencias*» (RS) bizkaitarra eta bere 327. errefrau «*adisquide baco bicicea, auço baco heriocea*». Urkijok hemen zera adierazten du: «*el castellano correspondiente dice «testigo» en vez de «vezinos»*». Alabaina, euskal tradizioa ezagutzen duen edonork arin ulertuko duenez, «*vecino/amigo*» bikote hori beste era batera uler daiteke, Euskal herriaren inguruan «*auzotasun*» delako hori esannahi askoren kontzeptua baita.

Besterik gabe ekar dezakegu orrialde hauetara Bonifacio de Etxegarai zenak idatzirikoa testua, «*La vecindad. Relaciones que engendra en el País*

<sup>15</sup> J. HARITSCHELHAR: «Parémiologie et mnémotechnie: l'exemple basque» in *Memoriae L. Mitxelena Magistri Sacrum*, J. Lacarra editore, I. Ruiz Arzalluz adivvante, Anuario del Seminario de Filología Vasca «Julio de Urquijo», Gehigarriak XIV, Donostia 1991, 185. orr. eta jarr.

<sup>16</sup> J. DE URQUIJO: *El refranero vasco, Tomo I, Los refranes de Garibay*, Imprenta Martín, Mena y Cia, Donostia 1919. Hain zuzen ere, honen LV. errefrau da, garai horretako herri euskaldunak politika nola bizitzen zuen adierazteko biderik egokiena, Gonzalo Moro korregidoreak gaizkileen aurka egin zituen ekintzak goraiatzeari: *Gonçalo Moro tati tati, gaxtoa gaxtigaetan daqui*.

<sup>17</sup> J.A. LACARRA: «RS-en testukritikazko arazoak: Hernán Nuñezengandik itzulia ote (xvi. Mendeko Bizkaierazko errefrauaz II)», in E. Perez Gaztelu eta P. Urkizu Sarasua (ed.), *Patxi Altunari Omenaldia*, Universidad de Deusto, Donostia 1990, 178. orr. eta jarr. Baita ere, J.R. ZUBIAUR BILBAO, ibidem, 214. orr. eta jarr.

Vasco»<sup>18</sup> eta ikusiko ditugu auzotasun honek heriotze uanean dituen betekizun eta betebeharrak. Ez zebilen hain oker beraz errefrau honen paperatzailea, euskal tradizioaren ikuspegitik behinik behin<sup>19</sup>.

Era berean, hirugarren ñabardura bat ere inposatzen zaigu Oihenarten errefrau bilduma honen ikerketan. Izan ere, Oihenart ez da bakarria euskal errefrau bilketan. Jorratze lan horretan garaikide ditu lehen aipaturiko «*Refranes y sentencias*» bizkaitarra edota Esteban de Garibai arrasatearrak egindako euskal errefrauen bilduma<sup>20</sup>, lan horretan ibilitako beste batzuk ere ez aipatzearen<sup>21</sup>. Lehendabiziko hiruok arakatu ditugu, beren bildumetan eskura daitekeen edukin juridikoaren bila joan eta azken batean, Oihenartengan topatu dugunaren betegarri modukoak izan zaizkigu beste biak, geroxeago adieraziko denez.

Errefrauak, zuzenbidearen barne, eta guri interesatzen zaigun aldetik, era askotan ager daitezke, jakina denez. Errefrauak, gainera, jakituria orokorragoko lekuko eta eramailea den aldetik, balio aparta du hainbat egoeraren testigantza emateko.

Oihenartek badaki hori eta herriaren mihi eta ahotik errefrauak jasotzen ahalegintzen den neurri berean, jakitunentzat ere erabilgarri izan daitezkeela uste du. Eta esan ere, horrela dio bere liburuaren hitzaurrean, esakuneok biltzerakoan duen gogoaren berriemate:

«Ce n'est pas sans raison qu'on a fait estat en tout temps, des Proverbes, non seulement parmy le commun Peuple, en la bouche duquel ils sont si familiers, mais encore les Sçavants... Ils continrent plusieurs enseignements pour la conduite de notre vie.»

Zuzenbidearen barnean, alabaina, errefrauak, ohituraren bidez eraikitako mundu berezi baten artekoak dira. Errefrauak, kasu askotan, zuzenbidearen oinarria, arauen lehen izatea adierazi eta barneratzen dute eta gainera, barneratu ere, lege, erreglamendu eta agindu guztien gainetik egiten dute.

<sup>18</sup> B. DE ECHEGARAY: «La vecindad, Relaciones que engendra en el País Vasco», RIEV, Año 26, tomo XXIII, nos. 1,2,3 y 4. arg. berezia, San Sebastián 1933, 22. orr. eta jarr. Oso argigarria, baita ere, Bearn inguruko lurraldeetan auzotasun honek zuen indarra ezagutzeko, P. TOULGOUAT: *Voisinage eta solidarité dans l'Europe du moyen age*, Lou besí de Gascogne, G.P. Maisonneuve et Larose, París 1981. Bertan ere, auzotasun honen jatorri euskalduna azpimarratzen da.

<sup>19</sup> Ikus 16. oharra.

<sup>20</sup> Ikus 16. oharra.

<sup>21</sup> Besteak beste, hauek ere baditugu euskal errefrau biltzaile garai horretan:

— J. de Bela zuberotarra. Zaldun honek bilduriko errefrauen testua ikus daiteke in L. Mitxelena: *Textos Arcaicos Vascos*, Ed. Minotauro, Madrid 1964, 183. orr. eta jarr.

— *Beltrán de Sauguis mauletarra*. Honen gainean, ikus daiteke, Julio de Urquijo: «Los refranes vascos de Sauguis», RIEV II, 677-724. orr. eta RIEV III, 144-157 orr. Jaurgain, J.: «A propósito de <Los Refranes Vascos de Sauguis>», RIEV III, 320-330. orr. eta RIEV III, 456-461. orr. Múgica, Gregorio: «Notas adicionales a los Proverbios de Sauguis», RIEV III, 527-530. orr. Honi buruzko iruzkinak ere ikus daitezke in I. Sarasola: «Contribución al estudio y edición de textos antiguos vascos», in *Anuario del Seminario de Filología vasca* «Julio de Urquijo», XI, Donostia 1990, 307. orr. eta jarr.



Errefrauak, zuzenbidezko aldarte honetatik, ordenamentutik kanpo, horren gainean dagoen zerbait badira. Honela, errefrauak «*secundum edo praeter legem*» baino «*contra legem*» ere izan daitezke, lege konkretuen gainetiko zuzenbidearen printzipio orokorrak barruhartzen baitituzte.

Hori ere gertatu da Euskal Herrian. Foruak erdaraz idatzi baziren ere, herriak mintzaturiko hizkuntzak bere horretan bizi eta irauten zuen. Hortik dator, etorri ere, ohiturazko zuzenbidearen aztarnak nonahi agertzea, batzutan, gainera, euskarazko jantziarekin. Lekuona zaharrak ere aipatzen du horietariko bat<sup>22</sup>, oso oinarritzkoa, eta lurraren erregimenari egokitzen dena, alegia, «*soroak zor du larrea*» nekazariak abeltzainari zor zion eskubidea bermatzen zuena.

Horrelakoak ere baditugu Oihenartek egindako errefrau bilduman eta hauexek azaltzen eta aldi berean, orduko Euskal Foru Zuzenbidearekin antzematzen saiatuko gara, honelakoetan gure herriak ere, bere adierazpen kulturalen tradizioa baduela baieztatzeko, ahalgarri den heinean.

Dagigun horretarako jarraian azalduko ditugun errefrauen sailkapena<sup>23</sup>, bere esangura eta edukinaren arabera:

1) Lehen multzo batean, zuzenbidearen printzipioak adierazten dituzten errefrauak kokatuko genituzke guk, ia-ia zuzenbide naturalaren manamenduak

<sup>22</sup> M. de Lecuona: «Instituciones Vascas» in *Euskaldunak*, tomo I, Ed. Etor, Donostia 1978, 43. orr. eta jarr. Baita ere, AA.VV. Revolución-Represión o Burujabetza. Ed. Etor. Donostia, 1981, 107. orr. eta jarr.

Bide beretik aipagarria izan daiteke Bizkaiko Foru Zaharrean agertzen den honako hau: «De las fermas de los bienes muebles.

(Al margen: Manda general/ de bienes muebles/ non vala).

109. Otrosi dixieron que por quanto quando alguno ferma a alguno/fijo suyo o fija, o a otro heredero, alguna casa e caseria con todos/ los bienes muebles e rayzes a ella pertenecientes ponen duda/si daçion general de bienes muebles vale o non; e por quitar esta/ dubda dixieron que hordenauan e estableçian que la tal daçion gene/ral e fermamiento de la tal casa e caseria e bienes raizes, vala/e en quanto la daçion general de lo bienes muebles, non vala (signo) // (Fol. 59 vº) (Al margen: Fuero Viejo de/ Vizcaya), saluo si dieren nombrando e declarando cada cosa sobre si; pero/por tal donaçion general no nombrando otros ganados o dine/ros se entiendan auer dado los bienes muebles que el Fuero Antigo de Vizcaya manda *vr de Vrdaondo e açia Etondo* (kurtsiba geurea da), que son/la casta de lo puercos que fueren en casa, e el pan que ouieren co/gido en casa, asi trigo como borona e çebada que aya cogido en/aquel anno e en esto non se entienda de el pan que truxiere/ de fuera parte, ni lo toçinos por muchos que tengan, saluo el/que estouiere ençentado, e vna cuba en que tenga la despensa, e/vna arca en que tenga el pan cozido e la caldera que se tru/xiere de cada dia e unos manteles e las layas e açadas e hachas/e cosas menudas de labrar que ouiere en casa, e vna cama de/ropa de las comunales que ouiere en casa/. (HIDALGO DE CISNEROS, Concepción, LARGACHA, Elana, LORENTE, Araceli, MARTINEZ, Adela: «Fuentes jurídicas medievales del Señorío de Vizcaya», «Fuentes documentales medievales del País Vasco», *Sociedad de Estudios Vascongados*, San Sebastián 1986, pág. 129) eta A. Irigoyen: «Urde Urdaondo e(ta) açia etondo» in *De Re Philologica linguae Vasconicae III*. Bilbao 1990, 96. orr. eta jarr.

Konpara daiteke hauxe, gaur indarrean dagoen legeak esaten duenarekin:

Bizkaiko Foru Zibila. 26. atala.

\*Baserría gainerantzekoekin dohain eskualdatzerakoan, besterik esan ezean, altzariak, abereak, lanabesak eta ustiapen-ezarkinak sartuko dira.

eta zenbait kasutan ere, zuzenbidearen izaera eta eite berezi baten adierazle direnak. «*Nori berea da zuzenbidea*», «*Herrik bere lege, etxek bere aztura*» eta abar lekutuko lirateke bertan, edozein zuzenbidetan aplikagarri eta eragingarri diren arauok barneratuz.

2) Bigarren multzoan, ordea, errealitate juridiko baten mezulari diren errefrauak sartuko genituzke, zuzenbidearen erakunde juridiko konkretuen eramaile direnak. Guk, horretarako eta Euskal Foru Zuzenbidearen berezitasunak kontuan hartuta, hiru gai nagusi atalkatu ditugu, posible diren aukera guztietatik.

2.a) Lehen atalean, Justizia Administrazioari buruzkoak sartu ditugu, hauetan ia unibertsala den justizia prozesua eta honen protagonistekiko mesfidantza nabari zaigularik. Hortxe leudeke, besteak beste, «*Auzilaria, nekazarien ezkuntaria*», «*Auzilaria, sarista ezak onsa barataria, ezpere eure zuzena ezdakidik balia*».

2.b) Bigarren atalean, Euskal Foruetan eta orohar, zuzenbide piriniotarren barruan ere, hain garrantzitsua den «*etxe*» eta «*etxaguntza*»ren ingurukoak sartu ditugu. Hemen, «*etxe*» eta bere inguruan bizi den familiaren gertakizunak dira errefraugai, lagungarri gertatu zaigula kontu honetan eta ezbairik gabe, «*Refranes y Sentencias*», lehen esandako testua. Horrela, eta publikoki aitortu beharra dago honako hau, beste legelari euskaldun batek, hain zuzen ere, Leizaola lehendakariak hasitako lanari jarraitu besterik ez diogu egin<sup>24</sup>.

2.c) Hirugarrenez, etxetik kanpo ere, harreman juridikoetan sortzen diren auziez arduratu gara. Hemen interesatu izan zaiguna zera izan da, salerosketa,

<sup>23</sup> H. ROLAND eta L. BOYER: *Adages du froit français*, Ed. Litec, Paris 1992, XI. orr. eta jarr. Baita ere, 6. CORNU: *Linguistique juridique*. Ed. Montchrestieu, Paris 1990, 357. orr. eta jarr.

<sup>24</sup> J.M. DE LEIZAOLA: *El refranero vasco antiguo y la poesía vasca*, Ed. Ekin, Buenos Aires 1978, 130, orr. eta jarr. Autore berberaren liburu hau ere aipa daiteke: LEIZAOLA, J.M.: *Contribución de los vascos a la formación y a la Ciencia del Derecho*. Publicaciones Minerva. Bilbao 1937. 34. orr. Hortxe agertzen da honako hau:

«(5) Un paréntesis. Tan grande fué la obra de Moro y de Andía que los dos han entrado en el cancionero popular vasco.

Del primero se dijo:

«Gonzalo Moro, tati, tadi:  
gaxtoak gaxtigaetan daki».

(«Gonzalo Moro, ofrecer y no dar, ofrecer y no dar, al malo sabe castigar». Si «tati» fuera el español «tate», la traducción del primer verso sería: «Gonzalo Moro, poco a poco, poco a poco»).

Del segundo esto otro:

«Sagar eder gezatea;  
ezpata ala gerrian  
Domenjon de Andía  
Gipuzkoako erregia».

(«Como la manzana, sosa, así la espada en el cinto Domenjón de Andía, el rey de Gipuzkoa»).

Ningún otro de los que se han de citar por razones de derecho ha llegado a este privilegio de popularidad».

negozio eta horrelakoetan, errefrauen ekarpena azpimarratzea. Hain zuzen ere, latinetik datorkigun «*do ut des*», sinalagma honetatik «*emok emailleari eta egiok egilleari*» doan bide laburra/luzeari ekitea izan da gure eginkizuna.

### 3.2. Arloz arloko errefrauen azterketa

#### 3.2.1. Zuzenbidearen oinarriak

##### 049 Atzerri, otserri

Duela bizpahiru urte Irigoyenek<sup>25</sup> errefrau «politiko» honen aurrean, latinaren eragina ikusten zuen, aliterazioa eta guzti, hizkuntza horretan ezagutzen den *hospes ostis* delakoaren ildotik. Ikuspegi juridiko batetik, hona hemen, Nazioarteko Zuzenbidean ohizkoa den printzipioa, hau da, arrotzekiko mugak eta oztupoak. Denok dakigunez, nazio modernoek eta ordukoek ere bai, naziokide edo hiritarrak ez diren kalterako muga juridiko batzuk jartzen dituzte, dela zuzenbide publikoan (adibidez kargu publikoetarako hautesle edo hautagai izateko) dela zuzenbide pribatuan (zenbait sektore estrategikoetan sartzeko baimena murriztuz) naziotasun horren ezak gaitasun juridikoaren muga suposatzen duela.

##### 051 Azken hilak zorrak baka

Esakune honen kontua, oso bestelakoa zaigu. Izan ere, zorrengatiko erantzukizuna dabilkigu hemen dantzan. Gure ustez, heriotzea dela bide, bizitza bitartean sorturiko erantzukizun eskualdaketari dagokio honako hau, bi ikuspegi desberdinez:

a) Heriotzearen ondoko eskualdaketari, hau da, zorren luzapena oinordekoarentzat eta honek zor horiek jasotzeko duen obligazioa, berarentzat kaltegarriak izan arren, «*damnosa hereditas*» erromatarra.

b) Jaraunspen edo heredentziaren eskualdaketa osoa, hildakoaren jarraitzaile eta ordezkari bihurtzen den oinordekoarentzat.

##### 073 Beki on eta gaitzaren berri, kargutan duenak zenbait herri

Zuzenbide Politikoaren barnean, sasoi hartan «*on*»aren kezka erakusten digu honek, hain zuzen ere, gobernari «*on*»aren ildotik.

Orekan omen datza gobernuaren mamia, «*autorictas*» delakoaren funtsa, egungo politikoez ere sarri askotan ahanzten dutena.

<sup>25</sup> A. IRIGOYEN: «Oihenarten atsotitz eta errefrauez nota tipia» in *Euskera*, XXXIV, 2. aldia, (1989,2) Bilbo. 563. orr. eta jarr.

## 0229 Herrik bere lege, etxek bere aztura

Errefrau honetan biltzen da zuzenbide osoaren sistema eta bere azterketa alde askotatik egin daiteke. Antzekoak ere topa daitezke inguruko hizkuntzetan, hala nola biarneseraz: «*A cada bilatye, Soun usage; Cade mayson, Sa faysson*»<sup>26</sup> eta baita ere Sauguisen bilduman.

Esan bezala, ekin diezaiozun gure egitekoari:

1) Lehen so batez, hemen dugu bildua eta batua egungo kezka den zuzenbide publikoa/zuzenbide pribatuaren arteko bikoiztasuna. «*Herria*», hau da, nolabaiteko publikotasuna duenak sortzen du legea, lege idatzia batipat, eta hau, «*herri*» horrek aukeraturiko ordezkariak testu eztabaidatu baten bidez gorpuzten da. Bestaldean, etxean, pribatutasunaren zirkuluan, ohitura da nagusi. Mendeetan oinarritutako prozesu baten bidez, fintzen, sakontzen eta errotzen ari den ekimen etengabearen bitartez erdiesten da «*etxe*»aren inguruko erregimen juridikoa.

2) Bereizketa honek, era berean, beste esanahi bat ere eduki dezake euskal zuzenbidearen historian, eta horrela aipatzen dute autoreek, errefrau honen azalpen juridikoa egiterakoan<sup>27</sup>. Ohituraz sorturiko zuzenbidea, etxe autonomoen bilketan jaioriko arau moeta hau agindu multzoa izango da, geroxeago lege idatzia bihurtuko dena. Ohitura dago bizirik, etxeari lotuta, zuzenbidearen lehen itun gisa, itun soziala alegia. Hitz batez esateko, gaurko gizarte zibila, erabide autonomo baten gune bezala kontsideratua. Ildo honetatik dator, etorri ere, euskal foru sisteman, ohitura oraindik orain Nafarroako sistema juridikoan zuzenbidearen lehen iturburua izatea<sup>28</sup> eta Bizkaian, xvi. mendean, Foru Berria idatzi zenean, beñtan izkiriartzen zena, ohituraz eta indar osoz bizirik zirauen foru zuzenbide osoaren zati bat besterik ez zela aitortzea<sup>29</sup>.

<sup>26</sup> V. LESPY: *Dictons et Proverbes du Béarn*, André Cadier Libraire-Editeur, Bayonne 1990, birrarg., 226. orr.

<sup>27</sup> NUSSY, ibidem, 71. orr.

<sup>28</sup> Ikus adibidez, M.C. OLIVER SOLA: *La costumbre como fuente del derecho navarro*, Gobierno de Navarra, Departamento de Presidencia, Pamplona 1991.

<sup>29</sup> Ikus Fuero Nuevo de Vizcaya, Autos de la Junta:

«se dexaron de escribir en el dicho Fuero, y se usa, e plática por uso, y costumbre...» in *Fuero Nuevo de Vizcaya*, Leopoldo Zugaza editor, Durango 1976, 2. orr. Errefrau honen interpretazioarako bestelako elementuak ere ematen ditu Caro Barojak, alegia, etxe bakoitzak bere ohiturak dituela euskal tradizioan.

«Hay una tercera circunstancia en que se da la matrilocalidad: en aquellas partes en que rige la estricta ley de primogenitura y la hija es la mayor. Esta ley se hallaba vigente en otra época, aquí y allá, a lo largo de casi todo el Pirinero. En el país vasco-francés el fuero de Soule la admite, y se regía por ella también el Labourd; la baja Navarra, no tanto. Aunque en el mismo Soule cada dominio tenía sus excepciones (de derecho feudal o nacional), y de acuerdo con el refrán recogido por Oihenart: <Herric bere legue, exec bere aztura> (<cada país su propia ley, cada casa su costumbre>), ya Jacques de Béla (1585-1667) hallaba un fundamento clarísimo y general a esta ley, válido para todo el País vasco, en las condiciones de la vida económica y, sobre todo, agrícola. La mujer estaba, según él, en las mismas condiciones para regentar la hacienda que el hombre, pues hombres y mujeres trabajan de modo semejante». (CARO BAROJA, JULIO: *Los Vascos*. Ediciones Istmo. 3ª edición. Madrid 1973. 211 orr.).

Forua da ohiturazkoa, lege idatzia honen testigantza, askotan ohiturapean gelditzen dena.

### 0341 Nori berea da zuzenbidea

Hona hemen, baita ere, euskaraz formulaturiko zuzenbidearen printzipio nagusienetariko bat. Izan ere, zuzenbidearen ideia horretan biltzen da: Bakoitzari zor zaion uziaren asepena, besteenarekin loturik eta aldi batera lortzea.

Aatik, errefrau honek eta berak darabilen «zuzenbidea» hitzak arazo jakingarri bazuk planteatu ditu euskararen erabileran.

Izan ere, egungo legegizonok «zuzenbide» hitza ez genuke erabiliko Oihenartek edo Detxeparek<sup>30</sup> erabili zuten sentidu berberean, hau da, Oihenartek errefrauaren itzulpenean ordainez ematen duen «*chose legitime*» horren ordezkotik. Guretzat, horren sentidua gehiago doa zilegi, bidezko edo «legezkoa» (sensu lato) denaren aldetik «*deretxo*»aren araberakoa den lorratzetik baino.

Horrexegatik, egunotan egiten dugun bereizketa: «zuzenbidea» berdin arau multzoa, sentidu objektiboan eta «*eskubide*» berdin nork bere eskuan dituen ahalmen juridikoak sentidu subjektiboan, arazoak konpontzeko baliagarri izan zaigu, «*Justizia*»ren kontzeptua, aldiz, azken desideratum bezala uzteko, hain zuzen ere, «zuzenbide» honen egiteko nagusitzat. Uste dugu honetan zuzenbidean ibili garela, okerbidean baino. Geroak esango du hori ere.

### 0431 Zeinek bere itxura, herriak bere aztura

Aurretiaz azalduko 0229 errefrauaren antzerakoa da honako hau ere. Berriz ere, hemen interpretazio juridiko baterako giltza zera da, lege idatziaren bateratasun arrazoigabetutik abiatuta, nork bere ingurumarian dituen baldintzei egokitutako kontzeptua arau munduan ere baliotsua dela baieztatzea. Eta araugintza honen mamia aurkitzen da, argi eta garbi, azturak (ohiturak) eragindako legegintzan. Honek, ostera, Euskal Zuzenbidean hark —ohiturak— duen sona azpimarratzeko parada ematen digu. Aipu ia mitiko batekin buka genezake iruzkin hau, hain zuzen ere, Gregorio de Altube eskribau zenak 1949. urtean emandako hitzaldi baten tituluarekin: «*El paisaje como fuente de derecho*», hau da, herri bakoitzaren ezaugarri fisiko zein soziologikoen nola

<sup>30</sup> B. ETXEPARE: *Linguae vasconum Primitiae* P. Altunak paraturiko edizio kritikoa, Euskaltzaindia, Bilbao 1980, 136. orr. eta jarr.

IV, 23:

«Lan eginaz esquer gayxto galdu yrabacia  
bercerenzat gueldicen da ene çucenbidia»

P. Altuna berak ere, honela ematen du zuzenbide honen ordaina: «derecho», «droit, bien légitime» in F.M. ALTUNA: *Ettxepareren Hiztegia*, Ed. Mensajero, Bilbao 1979, 181. orr.

baldintzatzen duten herri horrek sortzen duen zuzenbidea<sup>31</sup>. Beraz, «Zeinek bere itxura, herriak bere aztura».

### RS 261 Errege barri, lege barri

Hona hemen, lehenengo sail honi azkena emateko, zuzenbidearen aldakortasuna adierazten duen errefrau. Urkijok dakarren testutik<sup>32</sup>, aldendu gara eta nahiago izan dugu beste irakurketa posible bat ematea, alegia, errege (edo orokorrean boterea) aldatzen denean, legea ere aldatzen delakoa, errege honen interesei men eginez eta ondorioz, legeen erlatibotasuna aldarrikatuz. Beste sentidu batean ere, esakune hau legearen erlatibotasun honen adierazlea da eta sakonean, legeak botere politikoarekiko (garai modernoetan herriak aukeratua omen) duen menpekotasunaren erakuslea.

#### 3.2.2. Justizia - Administrazioa

##### 058 Auzilaria nekezarien ezkutaria

Edota era berean, auzien bila doana bere baitan dituen arazoak estaldu nahian dabilela. Antzekoa da, izan ere, RS 148 *Urigaldua auzia eskuan*. Berez, auzia, arazoan konponbide bezala da hemen arbuaiatua, ezerezte eta deuseztapenaren estalki balitz legez.

##### 059 Auzilaria, sarista ezak ontsa barataria ez bere eure zuzena ez dakidik balia

Garaztarraraz egiten zuen aipamena, egiazki hirugarrena zen. Izenik ezpazuen emaiten, hura zuen lehen-lehenik gogoan Oihenarten gaztaroa-n, 1657-an beraz, Irakurtzaileari eskaintzen zuen aurritz laburraren hastapenean: «*Au lecteur. Combien que les Basques ayent assés d'inclination a la Poësie, si est ce qu'ils ont fait si peu d'estat iusqu'icy d'en observer les Regles, et mesme de les connoistre, qu'en tout ce que nous avons, soit d'imprimé ou de manuscrit*

de leurs ouvrages poétiques, il y a fort peu de Vers qui soient réguliers... «Eta erakusten zuen erregularitasunak zertan zuen huts egiten.

Urte bat lehenago, 1656-an, *Notitia*-ren bigarren argitaraldiko XIV-garren kapituluan, erakutsirik zein ziren hitz eta neurtitz «emeak eta arrak» euskaran («*faemininos, masculinos*»), doi doietarik ezpazuen jadanik Etxepare izendatua: «*Solent vulgares versificatores, ut versus masculinos, quos vocant, faciant, syllabas finales, naturâ breues, producere, ut in hoc exemplo:*

Uztazu hurrentzera amore maité,  
Orai partitzeco damu ginanté,

*Author horum versuum ambas syllabas, te, finales, naturâ suâ breues, longas fecit; quod vitium est in carmine non ferendum*», edo nahi bada euskaraz: «*ohi dute neurtitzlari jendetarrek, arrak deitzen dituzten neurtitzen egiteko, azkeneko silaba bere baitarik laburren emaita, adibide huntan bezala (...)* Neurtitz hauen egileak *te bi azken silabak, bere baitarik laburrak, luze egiten ditu: hau baita olerkian ezarri behar ezten hutsa*».

Aipamenak izena balio du: orok dakigun Etxepareren hamargarren olerkiaren (*Amorosen disputa*) hastapeneko biekoa baita (azentuak Oihenartenak dira), eta beraz hona «*vulgares versificatores*» guzien nagusia nor den! Hots, Oihenartek, aipatu baditu ere XVI-garren mendeko bertze olerkari garaztarrak, eta berantagoko lapurtar zenbait, azpimarratzen zuen Etxeparek euskal literaturan ordukotz bazeukan lehentasuna. Aldi berean azkartzen bere kritiken indarra.

1665-eko eskutitzeko xehetasun batek badema erakustera Oihenartek bere aitzineko olerkari «jendetarraz» zuen ezagutza, etzela bakarrik liburuetakoa, irakurtzetik ateraia. Hau baitio: «*Je collige tant de la qualité de sa rime, qui est foible et imparfaicte, que du ton et de lair auquel il faisoit chanter ses Vers qu'il a Creu les faire masculins...*»; eta aipatzen ditu hutsak: erriman beraz, eta ere neurtitzaren hauste 'ta gelditzetan («*Les Cesures et les repos de ses Vers sont aussy Irreguliers, en plusieurs Endroits*»), erranez nola Etxeparek derabilan (ez beti, baina gehienetan) hamabortzeko neurtitza, ezezaguna dena olerki frantzes, italiano eta españoletan, eta gutiago («*Encore moins*») latinetan. R. Lafonek zuen erakutsiko Oihenartek bere «klasikotasunean» asma etzezakeena: neurtitz luzearen iturburua ere latinezko bertsu zaharretan aurki zaitekeela.

Aldiz, nolaz zakien bada Oihenartek, mende bat eta gehiago iraganik (eta zein erran den mende gertakariz eta aldaketaz betea, Euskal Herrietan ere!), nolako «doinu eta airetan kantarazten» zituen Etxeparek bere neurtitzak? Hona ixtorioko, eta literatura ixtorioko bereziki, mixterio ttipi bat. Badaiteke bizkitartean erantzuna aski erraza dela, oroitzen bada nor izana zen Juana Erdoikoaren lehenbiziko senarra, Oihenartek berak ezagutu zukeena, 1616-an Parisetik itzultzean hil baino lehen: Jean de l'Hostal, «vice-chancelier de Navarre» kargu ohoragarriarekin («*ainsi est nommé le président du Parlement de ce Royaume*» dio Nicolas de Bordenave Joana Labrit eta erlisioneke germen



ixtoriogile biarnesak: **Histoire du Béarn et de la Navarre**, orr. 142), garaztarra zen, Buzunaritz **Apate**-ko jauna. Apateko jauregian erraiten dute oraino Sarasqueta **Etxepare** aitoretzekoekin eta gure olerkariarekin hangoa bazen uste den bezala, jendakian zirela (nahiz dokumentorik ezten aitzinatu horren borogatzeko, erran behar da oraino bi etxeak ahaide beren eskuetan direla). Oihenarten jakitatea gauza hortan etxeko eta ahozko tradizione bizietarik heldu hel zitekeen.

Olerkintzaz harat, bazuen Oihenartek erasia gotorrago bat bere aitzinekoarendako, hau moraleko eta erlosionekoa, bakarrik delako eskutitzean agertzen dena. XVII-garren mende erditan harat, Luis XIV-garren errege «guziz girixti-noaren» gorrea itxuraz (baita zer erran egiaz...) beharbezalakatua zen («bienséance» delakoa), erresuma ere «debozinoari» emana, kontra-erreforma betean; gogo-aldatze horren lekuko hor ditugu aro hartako hainbertze euskal idazle elizatiar. XVI-garren mende hastapeneko gogo libroa urrun da orduan, Rabelais, Marot, Ronsard batzuen (oro guti edo aski elizari hurbil). «*Un Veritable Ecclesiastique*», Etxeberri Ziburukoan ikusten du Oihenartek, olerkigintzan ahula izanik ere, xeheki aztertzen duen bezala. Etxepareren liburuko bigarren zatiak eztu egokitasun bera alde horretatik: «*La premiere (partie) contient quelques fragments de La Doctrine Chrestienne, Et l'autre (oultre les regrets de la complainte de son Emprisonnement) des Vers d'amour assés mal seans a Un Ecclesiastique, et surtout a Un curé ayant charge d'ames*». Huna beraz bi olerkarien arteko auziaren bigarren arrazoina.

Ezin errana da, ene ustez, auzi horren xahutzeko, edo Etxepareren hutsen zuzentzeko, eta hura bakarrik gogoan egin dituela Oihenartek bertsu guziak, «hontu koblak». Bada alta, olerkigintzan eta handik kampo ere, bien arteko estekadura erakus dezakeen arrazoinik. Hori da bilatuko, ahal bezanbat mugatuko, ikertuz 1) lehenik ageriena: olerkigintza bera eta liburuaren egitura; 2) bigarrenik erlisioneko olerki gaien hautua eta berezitasunak, ikusiz biek neurtitzetan eman duten gai ber bat: «hamarkuna» edo «dekalogoa»; 3) hirugarrenik maitasunaz eta «maitariez» dematen itxura ezberdinagoa; 4) azkenik ere, ondoriotasunetik urrunago, Oihenartek ekartzen dituen berritasun ohargarri batzuk. Eta horrela aterako gira doi bat, agian, azterketa klasiko eta eskolastikoen «paralelo» ohituetako «gaingirotasun» eta formalitatetik.

## I. NEURTIZKINTZATIK LIBURUAREN EGITURA OSORA

1. Neurtitzaren moldatzeaz eta errimaz Oihenarten olerki erregeletan, gauza aski ezaguna delakotz eta aztertua jadanik han edo hemen, doi doa orhoitarazten da: 1. silaben zenbaki zuzena jakinez sinalefa eta elisioak beharrezkoak direla (latinean, italianoan eta espainolean bezain hertsiki, dio, eta edozein olerki klasikoekin egin daitekeen gonbaraketak erakutsiko du argiki, aurten ikasle zenbaitekin Gongora-ren III-garren sonetoaz baliatuz egin

dugun bezala: «*Urnas plebeyes...*»), eta ez idazlearen hautura egitekoak, hauste 'ta gelditzeak berdin; 2. errimaren aberastasuna, jakinez silaben luzetasuna ere behar dela gogoan ukan, eta hortik errima «lerrakor, eme, arrak», gero'ta xehekiago aztertu dituenak Notitiatik 1665-ko eskutitzera.

Ohar gaiten bizkitartean Oihenartek eztiuela arau horiek erdal olerkigintzari hartu bakarrik, baina ere euskarazkotik: hortakotz goraiatzen du «*Le Père haramburu cordelier*», nahiz errimak aberastasunez («bederen silaba bat eta erdi») ahul utzi dituen, eta, ohargarriago dena ene ustez, euskal olerkigintza izengabe (ezpadut huts egiten?) zaharra, nabartar («*Andr'Emili...*») eta bizkaitar («*Atseyñ andia da amore Eutea*») adibidek derakutsaten bezala. Nolaz galdu da, «jakintsunagoak» izan behar zuten idazletan, zuzentasun horren axola? Horra iduriz zergatik Etxepare 'ta bertzeak hutsean diren.

Eta Oihenarten lanaren zuzentasuna, alde horietarik, «bethegina» agertzen da, eta nahi den bezain eztabadagarria bada ere euskal azentuaz dioena orokorki eta euskalki batetik bertzera («*problème très ardu...dans nos chansons...on agit comme si toutes les syllabes s'équivalaient*», dio Lafittek, op. cit. orr. 204; bainan ez ote da hau aire zaharren neurkadarekin batean aztertu behar? baditugu ikasleak, orain, gai honi lotzen ari direnak bere tesietan, artetik aipatzeko). Badira ere lanak lehenago edo orain agertuak, bai Etxepareren huts edo bederen ezberdintasunetaz, eta Oihenarten erregulartasunaz, hemen berriz xehetasunetan sartze beharrik ez izaiteko.

2. Neurtitzaren luzetasunean, Oihenartek ezto aipatu Etxeparek erabili duen hamabortzeko neurtitz luzea baizik, ikusi den bezala. Egia da Garaztarraren olerkia gehienetan horrela moldatua baldin bada, azken olerkietan badirela ere zenbait neurtitz laburragoetan: hirueko ezberdina edo koplak zaharra bi neurtitz laburrekin (9.zenbakia, 14) eta bereziki hamekakoa (10.zenbakia, 11); guti nahi bada, aski olerkigintzan hamabortzeko moldatzen baino zerbaite gehiago bazakiela erakusteko.

Alde hortarik, aski argi dago Oihenarten xedea: nahi izan du ahal bezenbat aitzindaritik urrundu, ezpaitu behin ere erabili ez hamabortzekorik bertso osoan, ez eta hamekakorik ere (dakigularik ohituenak direla olerkari «jendetiarretan»!).

«Urrundu» bai, osoki berexi ez: Oihenarten hirueko ezberdinaren neurtitz luzeak baditu hamalau silaba (bi neurtitz-erdiak berdin 7+7), bat gutiago bakarrik; hobeki, behin baino gehiagotan (IX, XI, XIV, XX, XXI, XXV) nahasi ditu, molde ezberdinetan, zortzi eta zazpiko neurtitzak, erran nahi baita Etxepareren hamabortzeko luzea erditik hautsi duela, oharturik errimaren beha bezala zagola hemistikioa, eta ainitzetan bazirela han «barneko» errima edo asonanzak: molde iduriz «erdi-bethegin» hori, badiduri betheginerat ereman nahi izan duela. Berezikiago ageri da XXIV-garrenean, zortziko zuzenean, zortzi eta zazpi silabak errimarekin batean aldizkatuz, beraz Eguiateguy-k zioen *Zaharraro*-an, menturaz, neurkada zaharrerat bere gisan itzuliz.

Baina, orokorki behatuz, Oihenarten neurtitzaren luzetasun zuzena guti gurutzatzen da Etxeparerenarekin (hunen **Kontrapas**-eko laueko iduria dudazkoa baita: errepikatuz, zortzikoa!), laburrenetik hasiz: 4,5,6,7,8,9,10,12 eta 14, hau bakarrik koplak zaharrear, nahiz Oihenartek zioen, huts eginez aldi huntan, «errima bageko neurtitza» zela hirugarren neurtitza, beraz zazpi silabako biga, hamalauko baten orde! Ez, etzen bere nahitan gelditu guk uste dugun bezain garaztarrari hurbil! Nahia, gogo-argikoa, neurtitz labur egitera emana zuen, dudarik gutiena gabe.

**3. Bertsuan** (berak *kobla* edo *kopla* deitzen du), ikusi denaz, urruntasuna tipitzen da, bereziki delako koplak zahararren erabiltzetik. Eta ere Oihenartek baititu laueko zenbait (VI, VIII, XVI, XXVII) nahiz neurtitzetan beti ezberdinak, beti errimak aldizkatuz, eta beti zuzenak, bortzeko, seiko eta zazpikorik nahasi gabe Etxeparek bezala (kantatzeko nola egin behar zen?). Baliteke menturaz hemen ere lehen begi ukaldiak ezterakutsan berdintasun edo bederen iduripen bat: Oihenartek, nahi izan ditu kantu molde zenbait bertsutan itxuratu, bere errepika ageriekin (X, XXV), edo bi neurtitz berex emanez (VII, XXIII), bainan bertsu guzietan. Orduan oroitarazten du Etxepareren hastapenetako dizitikoaz; zer balio zuen? ala doinuaren emaita? egiazko errepika? Hau ezta argi **Kontrapas**-ean baizik; aski, Oihenarten bildumarekin loturaren egiteko (ikus errepikaz zer dion eskutitzean, op. cit. 215). Jakinez, alta, hunek aitzinekoaren olerki egituraren ondoan (edo kanpoan) zauden kantu ereduak, nahi izan dituela bertsuan berean, bertsuaren «barnean» eman.

Eta honengatik erran daiteke ezteula Oihenarten bertsuak musikan emaita edo kantatze beharrik, Ronsard batenak baino gehiago; bainan, honek «polifonia» hartu zuen bezala bere aroko musikari handien ganik, har lezakeela menturaz, nahiz olerki jakintsunaren musikan emaitako «moda» urrundua zagon jadanik XVII-garren mendean.

Hitz bat behar du ere Oihenarten bildumak dadukan olerki Etxeparenetarik urrunenak: erran nahi da Zalgizeko jaunaren ohorezko sonetoak. Gauza ohargarria segur: etzuketan ahanzi ez Larramendi batek (Oihenarten izena osoki ixiltzen badu ere), ez Eguiateguyk (baina honek «irakurtzaleri» egiten duena «*hamalaurdun*» hutsa da, ez soneto zuzena).

#### 4. Bildumaren egitura

Eztakit aski oharu denez iduriz bitxikeria huni: Etxeparek eman zuelarik, Oihenartek berak dion bezala (ikus gorago) liburua «bi partetan zatiturik», lehenean doktrina girixtinoaren zatiak, bigarrean maitasunezkoak (eta ere presondegiko «*kexua*», Oihenarten hitzaz baliatuz), Oihenartek ere eman zituen bi zati, baina gaiak alderantziz, lehenik maitasunezkoak, bigarrenik «*Iainkoazko neurtitzak*», erdaraz «*Vers de Devotion*» («eta aurritzean «*quelques rimes pies*»). Baionako liburuko olerki berriek (zaharrarokoek, menturaz) eztute egitura

hori ezabatzen, hortarik kampo baitaude, nahiz bere erran-nahiarekin ikusiko den bezala Oihenarten gogoan.

Ageri da zerbait moldez aitzineko liburuak duela ondokoa manatu (eta jakin gabe molde bereko bertze libururik egin zenez bien artean: balirudike, hala izan balitz, Oihenartek etzuela hoinbertze azpimarratuko **Primitiae**-ren planoan, edo hau bakarrik). Nolaz?

Hemen baldintza zenbait aitzinatu behar da: edo erakusteko hobe zela neurtitz mundutarretarik «Jainkoazko»-etara goititzea, alderantziz jaustea baino, nahi bazen morala publikorateko eta erlisionekeo lan egin, eta horra zehatz-bide bat, jadanik, egitura formaletik haratago. Izan daiteke ere Oihenartek tipitu nahi izan duen bere jakintza doktrinala; hor du aipatzen bere olerkari ahultasuna: «*pour exciter ceux qui ont plus d'affection et d'aptitude que moi à la Poésie, à en faire de meilleures, et en plus grand nombre*».

Baina orduan, zenbait erlisionekeo olerkiek huts eypadagi azken olerki betegarrietan, bertze ondorio bat ere gogoratzen da: erlisioneari behar zen agur eta ohorea eginik, Oihenart itzultzen da bizi mundutarrera, eta ere menturaz, XXVI-garrena den **Laur karbarien eresia**-n, doi bat haratago oraino.

Bi zatien artean, Etxeparek ezarri zituen, iragan-bide bezala, **Amorosen gatziguya** («*Bercec berceic gogoan eta nic andredona maria...*») eta **Emazten fauore**, orotara 208 neurtitz. Oihenarten iragan-bidea zer den, ageri da, nahiz laburrago (128 neurtitz) bakarra delakotz: **Ezkontidearen hil-kexua**, emazte baten (berearen) laudorio eta «fabore» segurki. Hunek berak ere menturaz badaduka Etxepareren presondegiko «kexuaren» lekua, hiztegi laburrean **kexu** «*complainte*» itzultzen baitu ere, eskutitzean presondegiak deman hitz bera! Presondegia, Oihenart legetiar eta erregetiarrak, Donapaleuko jujeak, ezagutu bazuen bere aldian, guti eta ez legearen kontra joanik; ez Errege katolikoaren alde izanik, Etxeparez borogatua den bezala Nabarrako gerlan; eta badakigu aski Oihenarten lanetaz, orai, jakiteko Espainiako erregeren Nabarrak «zuzen-gaizki» jabetzea zela ukan zuen politikazko kexu ez bakarra, baina handiena, eta bizi guziko! Bazekiena ere, ote, Etxepareren biziak zerbait, olerkiak dioen baino xehekiago? Galdea erantzun gabe utziko da, jakingabe; baina zer muga hemen bien artean.

Azkenik oraino, ohar gaiten Oihenartek ezarri dituela bigarren bilduma ondarrean olerki «tipiak»..., Etxeparek bezala, eta eztutela egite bakarra ttipitanean, bainan gaian ere: hemen da aipatzen euskal literatura, batek bere burua («*garacico natura*») goretsiz euskarari hastapenak emanik; bertzeak, bere burua aitzinaturik XVII-garrenean Museen izena «*hospatu*» eta Euskal Herrian ezagutarazi zuelakotz, Arrain eta Zalgiz poetak: hau bertzek «*doi hasia*», agian Etxepare hetan, «*burutara*» ereman duelakotz (zertan hori, Zalgizen olerkiak galdurik, salbu atsotitzak? eztakigu zorigaitzez). Noradino egitura hori hausten zuen azken olerkiak (Jorralen koblak), hau ere galdurik izenburua salbu,

ezjakin berdinean gira. Iduri du bizkitartean etzela Etxepare Oihenarten gogotik osoki ateratua bigarren liburu ondarra moldatu zuelarik.

## II. «DOKTRINAZ»

Erlisioneari buruz ezberdintasun handiengan dira bi olerkariak, katolikoak izanik ere, orok dazkiten bi arrazoin nagusien gatik: 1) bat apeza baita, bertzea laikoa (lehenbizikoetarik euskal letretan); 2) Etxepare Erreforma aitzinekoa, Oihenart erlisioneko gerlen ondokoa eta Kontra-erreformakoa. Noraino ikus daitezkeen baldintza horien ondorioak bi bildumetan jakiteko eta xuxen ikertze-ko, behar da izan erlisioneko gauzetan ni nizan baino ixuriagoa. Edozein idazleri etzako egintza eskapatuko: Oihenartek nahi izan duela bere moldez berridatzi Etxeparek, (eta haren ondotik Leizarragak eta bertze) itxura guzien arabera lehen aldikotz, neurtitzetan ezarria zuen «dekalogo».

### 1. «Hamar manamenduyac» eta «Hamarcuna edo laincoaren manüac».

Etxeparek moldatu zuen egitura, xoilaren eta arrazoinezkoa: hamar neurtitz luze eta hamar erranaldi oso, manamendu bezenbat (214-223); eta hamar manamenduak ziren **Iudicio generala**-n sar aitzineko azken muga, arrazoinez ere. Oihenarten liburuan hamarkuna *alpha* da, erlisioneko gauza eta neurtitz ororen hastapena (elizaren manuez osaturik, ikusiko den bezala); eta behar ditu, zenbaki sinboliko xoilari bizkarra itzuliz, hemezortzi zortzi silabako neurtitz (ohartzeko da azkenean Etxepareren silabak direla gehienak, gutiz: 150, Oihenartek 144; laburpen ttipi, baina laburpen, iduri gabeen). Hemen hamarrak bat bertzearen ondotik emanez, Etxepare lehenik, ikusiko da ohargarriena eztagoela horretan:

#### 1. «Adoreçac iangoyco bat onhestz oroz ganetic

Iaincotan bat huts iauretsac

Eta bertzeric zinhetzac (sic)

Iaincoriz ez Iaincoaizunik

Ezin datequiela hunic.

(Oihenartek laueko hau berex emaiten du, bertsu moldean).

#### 2. Haren ycena ez iura causa gabe vanoqui

Haren izen'alferretan

Ez erabil eur'elhetan,

#### 3. Ygandiac eta vestac sanctifica devotqui

Igand'egun', orhituqui,

Iragan ezac sainduqui

4. Aita eta ama ohora içac vici yçan lucequi  
Ait'et'am'tzac ohora,  
Vizitzeco anhitz dembora:
5. Ehor erho eztaçala ezetare gaycetsi  
Ezadil', erhaiten ari:
6. Norc beria vayecila emazteric ez hunqui  
Ezizal'ohaidecari,
7. Vercerena eztaçala ebaxi ez eduqui  
Ez' ohoinkeri'egile,
8. Fama gayciq eztemala lagunari falsuqui  
Ez guezurrezco iaquile,
9. Bercen emazte alabac ez desira gayxtoqui  
Et'eztezala desea,  
Nehoren er'emaztea
10. Eçetare unhasuna lecot bedi iustoqui.  
Ahor, motil, nezkatoa,  
Idi ez on gaineracoa,» (sic: azken gakotxa edo hutsa da, edo lotura egiten du ondotik heldu diren **Elizaren manu-ekin**).

Beranteko leitzoneak eztu aitzineko hutsa xahutzen, legeak zuzengaitz iraganekoa zuzentzen duen baino gehiago: ezugu beraz erranen Oihenartek bere aitzinekoaren ondorioko izaiteko orde eta haren ikasle, erakasle agertu nahi izan duela. Derragun bederen aitzinatzaile, baina iduriz aitzinekoaren huts eta gaizkiak nola zuzendu behar ziren erakutsiz, eta zehatzaile.

Ezberdintasun agerienak neurtzikintzakoak dira eta hizkuntzakoak; eta ezpada ere hemen ikertu behar den gai berezi eta mugatua, artelan bezala emaiten dira laburpenez.

**Neurtitzean**, aldaketa osoa errana da: erditik egin du Oihenartek hamabor-tzeko luzea zortzikorat ttipituz; bainan ere berdintasuna ezberdindu du: laueko bertsu zuzena lehenean, bi neurtitzeko erranaldiak bi, hirur, laur, bederatzi eta hamargarrenean, eta neurtitz bakar bat «arteko» bortz, sei, zazpi eta zortzigarretenan. Galdetzeko da orduan hea egitura hori ezdetika hutsezkoa denez, ala ere baduen zer ikus gogo xede zenbaitekin.

Elisione 'ta sinalefa guziak eginez (Etxeparek hain ezberdinki dematzanean: hiru laugarrenean, bertzerik baterez, aldiz dieresia ahozko moldeak sineresia hobe zuelarik: 3 *ygandiac*), errima aski aberatsak zuzen aldatuz (Etxeparek asonantza bakarra du —i, nahiz errima iduriekin nahasia: —qui (—ki) hamarretarik zortzietan)...

Bai, baina Oihenartek baliatu du ere aitzinekoa, bereari emanaz haren oiharzun bat baino gehiago: hastapeneko lehen hitzak (*adoreçac*) eta azkenak (*gaynetic*) baliatu ditu lehen bertsuaren moldatzeko (—*etsac*, —*unic*) eta oraino «barne errimako» (*bertzeric*, *Iaincoric*); gero baliatu du ere asonantzan den —(*u*)*qui* (2,3,4,6,7,8,9,10) aberastuz (—*uqui* errima hirugarrenean). Baina ezta errima bakar bat bietan baino gehiago, erregelari jarraikiz.

Eztu atxiki aski ederra zen **Ehor erho** (5) itzulia; bainan ohartzeko da bertze zerbaitek ordaintzen duela errima 'ta soinu paralelo aberatsean:

**Ezadil', erhaiten ari:**

**Ezizal' ohaidecari.**

**Hizkuntzako** aldaketak ohargarriago dira, nahiz hemen ere baliatzen duen Etxepareren laugarrena hitzez hitz (alda ote zezakeen, nahi izan balu? uste dut baietz!), baina bakar bat lekuz aldatuz, hiru elisione 'ta sinalefa emanaz, Etxeparek bezala eta neurri berean, nahiz honek laugarren bat huts egiten duen (zortzi silaba: **Ait(a) et(a) ama ohor(a) içac / Ait'et'am'etzac ohora**).

Hitz errepikak bereziki aditzetan (**eztaçala** bietan, **ezetare** ahozko laburpena ere) ezeztatzen ditu (**ezac**, **etzac**, **ezadil'**, **ezizal'**, **eztezala**): ez da azkenean errepika bakarra bi olerkietan.

Gramatikazko bitxikeria zenbait ere: **luzequi** aditz-ondo ohi gabea (**luzaz**, **luzez**), **vayecila** (ikus bizkitartean Oihenarten XXI-garrena), **gaycetsi** erro ordaina (**ezan** laguntzaileak behar luke **gaitzets**, **onhets** lehenean den bezala; berdin **ebaxi**, **eduqui**).

Baina hiztegia du Oihenartek gehienik aldatu, eta ez «garbitu» erran ohi den bezala (ezpaita garbi ez zikinik hizkuntzan, hutsak baizik), baina «euskaldu». Erdalki behar gabeak, hain usu lehenagoko idazkietan eta bereziki elizakoe-tan, baztertu ditu: **adora**, **iura**, **causa**, **vanoqui**, **sanctifica devotqui**, **fama**, **falsuqui**, **desira**; hautatu eta atxiki edo euskal hitzak (**iaurets**, **alferretan**, **erabil**, **gezurrezco iaquile**) edo euskaran ohituagoak (**sainduqui**, **ohora**; **desea** «iberismoz» hautatu duke...).

Zuzenketak diren horien ondoan, euskal hitz zaharrak sartu ditu, bere gordintasunean: **ohaidecari** (ikus zer dioen olerkietako hiztegi laburrean), **ohoinkeri(a)**, **alhor**, **motil**, **nezkato**, **idi**. Eta nork eztu ikusten hemen egunoroko bizi guzia dela sartzen, «fazoinik gabe» erran ginezake, baina ere Bibliari hurbilduz, protestantismoaren erreformatik atera baitzen Kontra-erreforma? Ikusiko da orduan, hemen ikertzen den gai zuzenerat itzuliz, zein den jende xoilari hurbilago, Garaziko bikario jenerala, ala Donapaleuko abokata...

## 2. Eginbide 'ta erlisione gaien mailak

Manamenduetako erlisione gogo horretaz nahi banu zerbait erran, teologian den gutienik sartu gabe, agerian den hau lizate: Oihenartek zabaltzen duela

lehenbizikoa, pizuena dudarik gabe erlisioneko, bertze zenbait ttipitzen (erhaite, ohaidekaritza, ohointza, gezur). Oroitarazten dauzku Axularrek zabaltzeko hautatu zituen zazpietarik hiru bekatu kapitalak, gogo bakotxak balu bezala bere baitako ikuspegi bat erlisioneko eginbideari buruz. Eta berdin ere Leizarragak, kalbinismoen molde bipilean Jainkoa bera mintzaraziz («ministre de la parole de Dieu» zen), lehen manemenduaren hastapena emanik labur-laburra («*Eztuc ukanen niçaz berce Iaincoric ene aitzinean*»), orrialde erdi batetara zabaltzen duenean gero Oihenartek aipatzen zuen **Iainkoaizuna**, protestantek hain hastio zituzten elizako irudietara hedatuz («*Eztraucac eure buruari imagina ebaquiric eguinen, ez irudiric batre ceruän garayan diren gauenic...*»).

Kontra-erreformako izpiritua erakusten du menturaz Oihenartek emaiten dituelarik berehala ere, eta **Hamarkuna**-ri loturik iduriz gakotxa batez (ikus gorago), zortziko berean, baina laburrago (14 neurtitz), **Elizaren manüak**. Eta hortan gelditzen du «doktrina» bera, beharrenean eta oinarrian. **Otoitzetaz** (*Les Essais*, XVI, «*Des prières*») idatzi zuen entseguan, Montaignek (eta oroit gaiten Bordeleko auzapez aipatua Oihenart sortu zen urte berean hil zela), bere katolikotasun zintzoan, haren gostuz debozioea eta erlisionea sobera erakusgarri eta ikusgarri bilakatuak ziren aroan, zion otoitz bakar batez baliatzen zela: «*le patenostre (...) C'est l'unique priere de quoy je me sers par tout, et la repete au lieu d'en changer*».

Gaineratekoetan, osoki XVII-garreneko moldean, Etxeberriren **Noelak** eta bertze lekuko, ohargarrienik **Eguberri-koplak** dira, utzi duen olerki luzeena (168 neurtitz). Uste dut hemen dela Oihenartek Etxepareren **Iudicio generala** eta «*Andre dona Mariari*» dagien **Oracionia**-ren lekua hartzen duen olerkia. Mariaren erlisionea aitzinatu zen Erdi Aroan, diote zenbaitek, amodio kortesak emazte maitatua sobera goratzen zuelakotz. Eztu Oihenartek holako erlisione sendimendukoia: xoila, jendetarra, gizatarra izaitekotz, hau baita, Jainkoaren gizontasuna, ederkienik erakusten duena, egin duen bertsu molde landuenean (seieko ezberdina, lau silabako neurtitzak dituen bakarra: 8-4-7-8-4-7, bi errima jarraiki eta lau besarkatu):

«Hanxe guizon-iduritan  
Gauerditan  
Iesus iaio zekion,  
Mihiscando oihal lodiz  
Abel odiz  
Ohacoa zeguion».

Gehitzen bada gurutzearen parafasia (**Vexilla regis**), huna, ez nahi bada doktrina, baina Oihenarten erlisioneko sinesmenaren osagailu xoilak. Etxepareren «doktrina» hiru mailetan zen: bekatua (gizakia) behean, ararteko Maria, ororen buru judizioa (Jainkoa); Oihenartena ere: Jainko legea, Eguberriko jaiotza, gurutze salbatzailea. Simeonen kantuko itzulpenean, behar da ikusi



menturaz Oihenart «zahartuaren» ordain bat. Urrun dabil, hasteko, Etxeparek ala Axularrek zabaldu zituzten erlisioneko irudi izigarrietarik, judizio ala ifernu (egia da etzuela Oihernart laikoak «arimen kargurik»), eta berdin urrun maitasun gizatarra eta doktrina elgarri lotzen dituen erlisione sendimendukeriara ixuritik.

### III. MAITASUNA ETA MAITALEAK

#### 1. Maitasuna, bekatua eta beharbezalakotasuna.

Gauza agerrienak begitik ihes doaz, ezpada ohartzen Etxepareri ohian, eta arrazoinekin, emaiten zakon ausartziaren ondoan, nola erakusten duen egiazki maitasuna erlisioneko doktrinaren barnean: bekatuzkoa izanez, noizpait, ahal bezain laster baztertu behar dena, nahi bada judizioan «*seculakoz damnatu*» (I 365) izaitetik bere burua begiratu. Erran behar da Etxeparek erakusten dituen maitasunak, zuzenbidez kanpokoak direla, ezkontzaz kanpokoak bereziki, Erdi Aroko amodio gortesaren moldean (Tristan eta Yzolt ala bertze); edo Etxepare apezak berak ezagutu molde berean (2, 7: «*Nihaurc ere uqhen dicit ceynbayt ere amore*» aipatu neurtitza noradino den aitorra, dirudienez, ala ez, jakiteko gaitz da), edo (eta menturaz) segurrago maitasun gizatarra bere baitarik eta hastapenetik eskasa eta ahula delakotz (id. 11 «*Amoretan othe date leyal denic batere ?*»).

Olerkietan erakusten dituen maitalek berek —eta ezta uste izan behar olerkaria bera dela mintzo maitasunezko elgarriketetan!— olerkariak bezala (id. «*Beqhatuzco amoria bethi date traydore*»), aitor dezakete zenbait aldiz hutsean direla: adibidez 4, 26 «*Nic eztaquit berciac vana ny ary niz bequatu*»; 10, 19 «*Beccatu honetan hilen baguina...*». Hastapenetik izenburuak erakusten zuen Etxepareren xedea: maitasunaren eta maitarien «*gazitiguya*», erran nahi baitu kritika. Eta maitasunezko kasu berezi, gertakari, gutizia eta sendimenduen erakustean, egiazko bizitasun eta aro hartako gordintasunean bada ere, eztu xedeari uko egin, baina hastetik salatu duen maitasunaren ezteuztasuna borogatu.

Oihenartek erasiatu duelarik eskutitzean Garaztarraren ausartzia («*Vers d'amour assez mal seants a Un Ecclesiastique et surtout ayant charges d'James*») gordintasun hura zuen gogoan: izanik ere bakarrik hitz eta gauzetakoa (gogo xedea osoki moralixtak, «ortodoxoak» baitira ikusi den bezala), etzen onhargarri Kontra-erreformako beharbezalakotasun zintzoan, delako «*bienséance*» aipatuan. Beharbezalako olerkietan, euskaldun ala ez, guti da, emazten laudorioaldi berean Erdi Aroko gortesia eta Berpizteko gogo berrian (**Emazten favore**) aurkitzen den irudia bezalakorik, «*hayn eder eta placentic*» (3,55-62). Etxepareren maitariek badakite zenbait aldiz mehatxatzen, bortxatzen, hasten bederen (8 **Potaren galdacia**), eta ere, gehiago dena, maitasunezko egintzaren betetzen,

olerkiaren erdian (10, 66: «*Hiçac haribira dugun eguina*», 67 «*Oray eguyn duçu nahi duçuna* 68 *Eman derautaçı abalgueyçuna*»).

Oihenarten maitasuna, mehatxu bizi bat salbu (X 45) baina hitzetan gelditzen dena, jendetasunaren mugetan dago; hiru gorputzen irudiek, hainbertze XVI-XVII mendetako olerki eta margoetaz orhoituz, gorputza erakutsiz «burutik aztaleraino», badakite hitz pollitez, gordintasunaren ezeztatzen: X 30 «*Eztazkit ezterrazket, gordailuan dawnzanac*»; XIII 55 «*Balin balu, sabela / Garhi nerraque dela, / Ezi, segurtatzeco, eztu ezagun düela*». Gerta daiteke irudi baten sinbolismoak duela entzun-arazten maitasunaren indarra, hala nola «*kadran-orratza*» III 25-36, eta maitasunezko ametsa hitz batez («*bait'are lotzean*»). Azpi-erranz baliatzen da **Karbarien** eresian XXVI 54 «*bait'egin karb'aldi bat han harequi*».

Egia da Etxepareren olerkiak gogoan zituzkeela bizkitartean, erakusten zuenean maitaria gambaran sarturik andereari hurbiltzen, eta hau oihuz «*zuc heiagora / Eguiten duzu*» V 36-37 (ikus Etxepare VIII 21 «*Eyagora*»). Edo maitaria mintzarazten zuenean, mundua lekuko hartuz, **Maitenaren hil-kexuan** VI 21 «*Icus, gende hounac, ikus ene pena*» (Etxepare XII, 45 «*Gende bonac*»); eta oraino VIII-garrenaren galdezko sarreran 1-4: «*Zenbat leihorra zabal bata (...) eracutsico zaita (...) Ni nizan bezain, zori gaitzetacoric ?*» (Etxepare XII 45 «*Egundano yçan daya ni bay dichatacoric?*»). Eta horrelako bertze itzuli zenbait (Lafonek erakutsi zuen bertze hau: Etxepare IX 24 «*çor handian çaude*», Oihenart II 72 «*Zeren zordun zauden*»). Baina ez ote dira maitalen eleak eta arrazoinak, sendimenduak bezala, orotan, eta bereziki literaturan, beti berdintsuak? Donapaleutarrarenak, bizkitartean apainduago, naturalezako edertasunez bereziki (oihan, haltz, sagartze, pikotze, arrosa, julufrai, mohuri, orsto, «*ekoizpen*» eta lore), eta ere, apaindura ohiz kanpokoagoa, bizi arrunteko gauzetaz (arraulze, ezne «*ulutzu*», gisu-labe...).

Baina auherretan da bilatuko Oihenartek maitaler, mutil ala andere, emaiten dezteien ele-sendimenduetan den gutieneko ogenduntasuna. Hemen ezta maitasun debekaturik, aitamena baimenik gabe ere (VI, VIII), ez bekatuaren aipurik: inozentzia hutsean daude maitariak. Bai eta ere doi batez mugak iragaiten dituztenean, laugarren karbariak eta motil gazteak bezala (ikus XXVI 52-57). Oihenartek bere alegiazko (bederen olerkaritzako) «*gaztaroan*», emaiten du Donjuanismo-ra (nahiz andereak «*gorrik*» dauden gehienetan!): Margarita, Argia, Xuria, Graziana, Beltxarana, Joana, «*Ederragoa*»... eta izendatu gabeak... sobera, menturaz; egia ere maitasuna eta maitariak zenbaitetan irrigarri direla, Oihenarten ironia iratzarri, gauzak erranak «*cum grano salis*», gatz pikor batekin!

## 2. Maitaleak eta maitasuna

Erraz da ikustea alde batetik Etxepareren anderen izengabetasuna, bertzetik aitzinean erran den zerrenda: Garaztarraren «*andre eder jentila*» izengabea da, segetukoa delakotz, maitasuna debekatua. «Jentila» lehengo erdal hiztegian noblea zen (Oihenartek Joana Erdoikoaz erranen du bakarrik «*aitor'alaba*»): maitasun gortesean gira (XII 6), menturaz Garaziko jauregietan. Mintzo dira zenbait aldiz aski azkar, «to»-ka, beti «zu»-ka ari zaienari (VIII, XII). Badira gazteak («*Gazte çoroya nyçan arren*» XII), eta ezkonduak, bederen anderetan.

Anderen aldetik, maitaria beti (salbu VIII-garrenean) «O(ihenar)t» baita alegia poetikoan, bada jende mota aberatsa 1657-ko bilduman. Izenen ezberdintasunarekin, badira bertzeak: ilen edo larruko kolorean (beltxaran, xuri, ile urreztatu), eta oraino gizarteko mailetan, edo auzotasunak onhartzen duen elhe ausartean. Hemen zenbait aldiz **no** erraiten da maiteari (II, IX, XI), eta eztakigu, Etxeparerekin bezala, **to**-rekin ordaintzen zenetz orduan (bertze moldekoa da Jainkoari, bekatoreari, handi ala ttipiari, literatura zaharraren moldean emaiten den **to**-a). Karbariak elgarri **no**-ka ari dira (XXVI): izan daiteke beraz baden **zu** eta **no**-ka mintzo diren edo zaien artean muga bat, edo adinekoa (gazteener **to-no** errexago eta gazteenen artean), edo gizartekoa. Maitasun «jentil eta kortesak» baldin badema oraino oiharzun bat edertasunaren laudorian, anderearen «*zerbitzu*» ordaingabea luzean (bada ere preziositateko «*moda*»), badiduri Oihenartek ezagutarazten dauzkula beheraxagoko «*nezkak*», eta menturaz hiriko (Donapaleu edo bertze) edo baserriko («*ezein nekazale gazte*», XVII) jende xoilak.

Bere buruaren goititze bat sendi daiteke Ioanaren betheginzarrea-n, dioelarik (XIII 73-78):

«Baletsa iaungoicoari  
Har nenzan zerbitzari

.....

Ordüan pausu nuque  
Eta nihaur neduque,

Handiago baninz ezi Baroin, Cont', edo Duke».

Joana Erdoikoarekin ezkonduz Oihenartek bazekien jauzi egingen zuela Zuberoko sortzezko burgesia ttipitik, Baxe-Nabarrako nobleziara; eta huna hemen zeharka erranik olerkian «zuzen» den bezala («*des choses dites de profil*», Saint John Perse) zerbait olerkariaren bizitik. Olerki eta neurtitz jokoak lekua utz baitezake ere egiazko sendimenduari. Hasteko Oihenarten maitalek erakusten dute elgarren artean, eta sendimenduetan, Etxeparerenean baino ezberdintasun gehiago.

Alde horretatik ohargarri da VIII-garren olerkia: hemen olerkariak elhea eman du andere bati, hau da mintzo buruan buru (erran da Oihenarten maitasunezko olerki bakotxa bakarriketa dela), oihuz erakusten duela maitasun

trabatu bat («*Maite dut, eta naiz maitatu, / Bana naiz hanbat dezdixatu...*»), eta goratik galdatzen maitasunaren libertatea, gizartearen eta, gehiago dena, aitamen kontra (izendatu gabe: «*Nihauren azkazi hurrenac...*»):

«Maitarien iaun erregueac  
Higu ditu borxa-legeac,  
Eta haren resuman libertatea  
Da gobernari...»

Ez ote da jadanik hemen karbari gaztek (XXVI) erakutsiko duten hogengabetasun hartarik? Etzen gauza arrotza XVII-garren mendean (nahi ezpada igan Aro Zaharreko *Sapho* ala bertzetara...): aitzineko mendeko «poetesak» (Lyoneko Louise Labbé...), hurbilago Molières-en komediek goraiapatzen zuten neskato gazteak, emazteak maitasunerateko duen dretxoa. Oihenarten ausartzia, beti bere gogo-argitasunean, ezta hortakotz ttipiago, bereziki euskal literaturan. Etxepareren andere beldurtuetarik bagaramatza aski urrun, beharbezalakotasunari hitzetan eta gauzetan laidorik gabe.

Baionako liburuko olerkietan, 1664-koak eta «zaharrarokoak» baldin badira, Egiuateguy-k entzutera uzten duenaz, Oihenarten gogo maitaria berriz bidean zabilan; eta, «gaztaroko» gaineratekoetarik badira, berant bilduak eta urteak iraganik bururatuak (ainizetan gertatu dena), gogo arina argi da karbarien eresian, bertze nonbait erakutsi dugun bezala. Egia da orduan zuhurtzia ohituaz kampo zebilala, eta jakinean (ikus 25-garren atsotitza: «*Amoratzea, gaztearentzat loratzea, zahararentzat da zoratzea*»). Baina erakutsia zuen aitzinetik maitasuna, handi ala ez («arrazoinetzko» ezkontza egina bazuen Joanarekin), atxikimendua-ren beteginera hel zaitekeela, eta ez Etxeparek zion «traizionera». Hortakotz, berantagoko olerkien gogo arintasunean, ezin ahantzia da XVII-garrenean zehar (luzetasunez bigarren olerkia: 128 neurtitz) zabaldua zuen «*ezkontidearen*» laudorioa, 61 urtetan, zaharraroko lana jadanik: «*gaztaroan egina ez izanagati...*».

#### IV. BIDE BERRI BATZUK

Biziaren eta erlisionekeo moralaren arteko loturan aski urruntzen dira elgarretarik Etxepare eta Oihenart: arrazoin bakarra ezta hastetik aitzinatu dudana, aroen eta gizartearen, erlisionearen ere ezberdintasuna. Gehitu behar zaie ere alde batetik bizi-molde, ingurumen eta gertakarien eragina, bertzetik bakoitzaren jitea, nortasuna, ezpadugu ere nahasirik baizik senditzen olerkietako alegiatasunaren irazkian gaindi.

Oihenartek ekarri du olerkiari haren aitzinekoak egin etzezakeena: gogo klasikoa. Ezin berex daitezke hemen egitura formalerateko arta eta jakitatea, eta Aro Zaharreko mitologia zinezko, beharrezko literatura klasikoaren apaindura, eta ja berpiztetarrarena, hau lehenbiziko klasikotasun bat den neurrian.

Etxeparek baldin bazakien ere hortaz zerbait (olerki-jantzek azpi-entzun dezakate menturaz), etzuen lekurik «doktrina» zabalduz hasia zelakotz, eta oro edo abantzu hari buruz moldaturik, mitologiaren ekartzeko euskal literaturaraino.

Oihenart da izan egiazki Museen «izena herri hautan hospatu» eta entzun-arazi duena (XVII). Hitza bi erran-nahietan hartu behar da: zeihar eta sinbolikoan, olerkiaren arau edo erregela zuzenak; labur eta zuzenean, Museak berak, eta haiekin mitologiako jainko («*Febus, Temis*»), leku («*Parnason*») eta ere jakitate sinboliko guzia (neurri hau azpimarratu dut karbarien «*piko*» eta «*pikotzean*»). Gaia zabalago da (ikus «*sorzaina*» XIII 17), bereziki azken olerkietan, Zalgizen sonetoan edo Arrainen ilharhitzean. Ezaguna da mitologiako gogo klasikoaren apaindura literarioari erran-arazten zirela behar zenean egia modernoak, eta erlisione girixtinoaren gogamena bera: jansenismoko gogoak ikusi da, arrazoinekin, Racine baten tragedietan.

Urrunago ote doa Oihenart karbariek pikotzeari egiten dakoten otoitz bitxian, bekoz beko ezarriz baratzeko pikotzea eta Edengo sagartzea, eta bere buru moralaz arinak «*Eua amaso*»-rekin, eta girixtino sineste guziaren oinarria den «bekatu orijinalarekin»? Bide berriak, ohi-gabeak, egiazko sineslen etsaiak: Racine, «jansenisten *haur-bazia*» egotzi zuten Port-Royaleko «bakartuek», eta antzokia, antzertia eta mitologia utzi behar ukan zituen berriz onhartua izaiteko.

Oihenart zendu eta urte guti barne, haren aipamena handi zaitkeenean oraino (XVIII-garren mendean goraiatzzen da bai Euskaldun bai jakintsun arrotzen artean), izan zen euskal literatura bide hortarik baztertu nahi izan zuena, Gazteluçar jesuista eta olerkaria, Pauen 1686-an agertarazi zituen *Eguia Catolicoac*-etan. Nahi zituen Muse «profanoak» baztertu, eta olerkariak erlisione zintzoan geldi arazi:

«Urrun adi, Parnaseko Musa zahar profanoa;  
Eta zu, zato, zeruko Musa berri dibinoa.

(Ikus P. Lafitte, *Literaturaz*, P. Urkizuk bildu artikuluak, Klasikoak 35.zenb., 129. orr.). Dakigularik bizkitartean Parisen Jesuiten ikastetxetan emaiten zirela gai mitologikoekilako tragediak. Egia da mendea atzintzen ari zela orduko, erlisione katolikoa hesten (Frantzian «*Edit de Nantes*»-en haustea da).

Onartuko zuena Oihenartek mitologiaren debekatzeko hori? Hasteko olerkariak ez, eta elizatiarrek berek, mende bat berantago Monhok («*Apolonen kontra*», «*Bacchusec ez du triompharik...*») eta Camousarrik (Virgiliuz-en *Bukolikoak* itzuliz).

Bide berri horietan ezarriko dugu ere jadanik aipatu den «errealismoa», ez bakarrik bere baitan, baina gehiago Oihenartek nahasi duelakotz jakitate klasikoarekin eta bereziki mitologiarekin. Berriz itzuli gabe hemen XVII-garrean, XXVI-garrean eta bertze olerkietan (manamenduetako «*albor, idi*» eta bertze) direnetara, irudi edo itzuli bakar bat emanen da bururapen

gisa: Zalgizen buruan eta han, jainko zaharren «*Parnason gainean*», emaiten den «*erramu-boneta*».

### Azken-hitz

Nola atera eskolastika zaharreko «paraleloetarik»? Uste dut hortik iragan behar dela, nahitez, bi idazle edo edergile elgarren ondoan edo aitzinean ezarri nahi badira. Baina ikusi dateke ezte la lerrokatzean, paralelo ala ez, ikermen honen helburua, baizik eta bilatzean zer izan daitezkeen bi olerkari zaharretan dudarik gabe handienen arteko harreman eta loturak. Mende bat iraganik, hamaseigarrena, bere istripu, bortizkeria eta aldaketa guziekin, biziari, jendakiari, jakitateari esker, bada lokarri bat baino gehiago olerkari eta olerkaritza ezin ezberdinago bi hauen artean. Ezberdintasunak berak, ene iduriz, eztira oro ustegabekoak, baina zenbaitetan argiak eta ezagunak, erran nahi da Oihenartek berak nahi eta ezagun izan dituenak, bere gogo-argitasun zorrotzean.

Eztut erran nahi ere, osotasun guzian, ez ere menturaz gehienez eta xeheki, aitzineko «olerkari jendetiarrak» duela mugatu («determinismo» hutsa lizateke) Oihenarten gogo poetikoa. Bi neurri sartzen dira, bakoitzaren jite berezia baztertuz, honen eragina ageri eta ezagunegia baita, literaturako edozein lanetan, eta bereziki Oihenartenean: aitzinekoen ezagutza eta ondorioa, nahi bada «tradizionea», eta hau Etxepareren euskal olerkiek, herriko iraganak eta biziak dute mugatzen, eta aro bateko gogo orokorrak, europatarrak. Bien arteko harian, hegian ikusten dut Oihenarten liburua.

## OIHENARTEREN ERAGINA EGIATEGIRENGAN (Oihenarteren itzala Egiategiren obran)

Txomin PEILLEN  
euskaltzaina

### NONDIK NORAT

Denek ziozüe e'nizala zuberotarra, eta arrazuekin ezpeniz herri hontan sortü. Hanitxek ziozüe eztüdala egiazko xiberotar üskaraz idazten, hor ere arrazu dizüe. Eztait. Egün eüskalki hontan mintzatzen baniz, gure jeialdietan behin entzün dadin, gure aitzinekoen erresetüz egiten düt, ez orai entzüten dütüdan ükülkerier behatzez. Non eta noiz dago egiazko ziberotarra? Behin ene familiako frantzimant bat Maulen bazkaitan ari zen eta ondoan, berek sekülan deusereEuskaraz idatzi ez düenak, ari ziren, frantsesez prefosta eta goratik erraiten «il nous embête avec son basque, le vrai souletin, c'est le nôtre» pastoral idazle batez mintzo zirelarik. Arauz, züberotarrek ere entelegatüko näüela uste düt, bardin ezpaniz egiazkoan mintzatzen.

### GURE AITZINEKOEN ETSENPLÜ EDERRAK

Lehen, bederen, gure idazle arranoak goragotik hegaltaz ibilten ziren, hortakoz egün zer ispiritü zabala züen Tartas, Oihenart, Egiategi, Intxauspe, Lhande eta besteek, erakutsi nahi neizüeke, amorekatik eta jakin dezazüen Ziberotar zaharren arrenküra handi bat izan dela, beste eüskaldünek entelega detzen, eüskaldün güziek alkar entelega dezen, eüskara bat, eüskara bakotx bat egitez ta gure xokoko eüskaratik gorago hegaltatzez.

Ene xedeak eman ondoan, ene häütüak ezarriz geroz, ene ikerbideak ikus ditzagün. Mintzatzeko emanik zaitan denbora llabürrarekin ene bürüari zedarria ezarri behar deitzot: eztütüt aipatüko, nahiz eüskararen erabilpenaren hobetzen zerbait egin düen, ez Tartas, ez Belapeyre, ez Oihenarte sobera, besteek geia hartü beitüe. Oihenarteren ondokoak eta orozgain Jüsef Egiategi, Oihenarteren ondokoetarik bat izan beita, ikusirenko dütügü.

Aitzinago joan gabe, hona nor zen Egiategi: Joana Felipe de Bela Suediako erregeren kapitainarekin Polonian soldado egonik, Zuberoara erretiratü beittzen, lehenik parropia eskola batetan errejent izateko eta azkenik kolejioko erakasle. Züetarik batzük dakizüen bezala, eüskaraz *Leben libürüa* izeneko filosofia lana egin züan düala berrehün ta hamar urte, sekülan agertü ez zena bere denboran; erdia argitaratü dü Eüskaltzaindiak, bena bere bigerren libürüa Oihenarteri egiten deitzen goresmen ta aipamenekin hasten da eta haren bidea jarraikiz, Egiategiren bigerren libürüa, orano agertü eztena Oihenarteren obrak beno hanitzez lodiago eta nasaiago da

Zer dioen Oihenartez, Egiategik bere *Leben Libürüan*.

Bere Lehen libürü delakoaren «hitzaurrean» hona zer dioen Eüskal literatüraraz idaztean:

Mosde Arnalde Oihenartek dereikü ere ützi liburuñibat *Atsotitzak edo refranak*, izen diana, Parisen moldizkidatia, 1657 urthian. Jarraikiz dereikü beraren *Gaztaroa neurthitzetan* ta azkenekoz *Zaharzaroa neurthitzetan* eman, Pauen moldizkidatia, 1664.urthian Beherago obra harez zerbait dügü erranen (25.orr.)

Hona zer dioen gure idazleak. Zati honetan jakiten dügü ihon ediren ez den Zaharzaroa neurthitzetan Pauen agertü zela, olerki bildüma zela. Nere lehen libürüan Egiategik hitzamaiten dü bere libürüaren azkenean Oihenarteren erran zaharrak emanen ditüala, bena bere Bigerren libürüan hatsarrean düüt ediren, eta bigerren libürü hortan Egiategik bere bürüa Oihenarten ikasle bezala emaiten dü, lehenik erakasleari goresmen lüzeak eginaz:

«Mosde Arlande Oihenarten obretarik dago bata Atsotitzak. Zübe-roan sorthü den ethorki ederrenaren gozamenetarik da *Notitia Utriusque Uasconiae*, hüskaldun herrien iracasaldia dereizküna erakhusten; dena ere bere bilakinda (deskubripen) ederretzaz egiazki miragarria ezi gutik dirade obrak, fama halakoaz Iracasdian (fr. dans la République des Lettres) gozatzen diradianak; haren landan ezkiribazalerik batere, haren laidoriak aipatü eztütianik, ezetare haren mendekoer ber gaian sarpetü eztenik.»

Bizi zeno obra gangiraz (fr. excellent) bi ekhantza zütian eragin hen agortziaz ere zen gozatü. Hantik haren izena hilezindatürük (fr. immortalisé) fama zian bezain jakintsüen eretzian edertü; dü ere haren libürüak alabantza sekülakoa onkaitü, dagoelakoz errana bakantetarik dela bakhantena «inter rariores rarissimus existimatus»

Goraipamen lüze horren ondotik Oihenarten eskü-ezkiribü irakurgaitzak aipatzen dütü:

«Aitoren seme jakintsü haren eskietarik jalki diradian gauza guziek moldekai berä daude düda bagerik. Ezkiribü hanitz zütian



ützi, irakurtü ezinak dütianak arrotzer igaran erazi,damü handia herriri die egin galtzapen halakoa delakoz osoki galgarri.»

Ondotik errepikatzen deikü bi olerki bildüma eginarazi zütiala:

«Haren obretarik dago llibürünibat oraino Parisen parthe, berzia Pauen moldizkidatia, hartan da bidantza erranetzaz mintzo dirade ere han bi berezita, batan bere Gaztezarroaz, berzian bere Zaharzarroaz dütianak sothatzen (?) Mira zian bi obretan erakhustia hüskararen manüa , haren lüma bezalakoaren pian»

Jarraikian atsotitzez mintzo zaikü eta badaki ez direla oro Oihenartek bildürük izan:

«Diradian atsotitzak, hek Kantabriako alortekoak edo Mosde Oihenartenak, hen kokatziak ta gozaldiak (application et explication, fr.)dütü eman; dialakoz, hüskarak berze mintzoen gaintik erran gaberik doatzanaren nabastarria, bakhoizki berboetzaz pairatzian»

Heben Egiategik eüskararen abantailak, bere moztarzüna,bere tinktarzüna goresten dütü, Larramendiren hitzaurre famatü hura eüskaraz emanaz, eta lehen libürüaren hitzaurrean egin düan gisa.

## OIHENART, EGIATEGIREN MODELA FILOSOFIAZ IDAZTEKO?

«Urrhün girelarik gizon halakoari pare izan nahiaz, haren obrari jarraiki bat emaitian, gogatü dügü filosofotsü bizipenaren gatik etzagoela baizik:haren gogomenak ere hartakoz dütügü barnerentü

Bi mintzajetan beita Egiategiren *Bigerren libürüa*(lehena filosofiazkoa euskaraz baizik etzelarik)gure idazleak zergatik hala egin düan argitzen deikü, bi arrazu emanez:

«ta dütialakoz frantzesez bihurtü gurietan ber gerthaldia (etsenplua) dügü jarraiki, hüskaldüner frantzesia ikhasi nahi lükienner lana auher(alfer) e'laitekiala ere gogatü.»

Zorigaitzez, bere eüskararen hobetzeko Egiategik Larramendiren hiztegi bihürria baliatü züan zer zepotan erorten zen jakin gabe eta guri haren irakurtzea zailtüz. Ideian aldetik aldiz Oihenarte beno hanitzez hürrünago joan zaikü - agian gogoan zütian eta irakurri zütükian ehün urte lehenago Jakes Belakoak frantsesez eman zütüan «Tablettes» delakoak -ezen, ideiaz bestelako balinbada ber plana segitzen dü, alfabetoaren herrokan euskal hitzak emanez eta «Aberats» hitzarekin hasiz. Oihenartek eman ez dütian eta latinetik, frantsesetik, espanioletik ützüli erran zahar hanitx emaiten dütü bere bigerren libürü lodian, bena beti ondotik etsenplüz eta esplikapenez aberastürük: ageri da azkentan kolejio erakasle izan dela ezen bere eskolarako oharrak beitütü

hola bildü. Ordüan,horrek erran nahi dü bere libürüa agertü ezpazen ere ikasleak üken zütüala Egiategik, hona zer dion... Oihenarteri zor diona berriz aitortzen düalarik:

«Obra hau hirur parthetan erthailtürik dagoena. Lehenak Mosde Oihenartenak, bigerrenak ta hirurgerrenak harenaren üdü-  
rialala direnak ez izanik ere irakurtetik gogomenak parropiazko errejent mehe batenak.»

Obraren erditan, bazter batean idatzirik jakiten dügü kolejioko errejent ere izan dela eta düda gabe Oihenarteren diszipülü hau günian Maulen «herriko kolejioan» «Maitre d'Humanité»tarik bat, frantses iraultzaren mezperan, 1785 etik 1792 artino hor nonbait. Hain xüxen Zuberoako Estaduen kondairatik idoki ahal izan dügüna, apür da, bena badakigü eztabaida izan zela Leskarreko Barnabitekin, Mauletarren filosofia erakasle bat jarri nahi zutelako. Maulen kolejio baten ezartzeko eginahalak aspaldikoak ziren, XVI gerren mente azkenean, XVII.mentean eta XVIII.an gorabehera hanitx hortarako, heben llabürki kontatüko dütügünak.

Hamazazpigerren mente hatsarrean Arlande Maitia Lehena Oloruen, ber izeneko hirur apezküpitan lehenak Jesuister Maulen kolejio baten jarrea,gogoan sartü zien eta 1614.an erregeren baimen gütüna üken züan; nontik nahi den ondoan dügün jauregi eder hori aisago egin zen eta eztaizkigün estakürüen gatik asmü hori baztertü zen. Ondoko mente azkena, Frantses Iraültza handia beno lehen,egürüki behar beita beste parada baten ezagützeko, Bela Lasalle baten, Joanes batek urteko hamar mila libera emaiten baitzügen, neskatila ta motikoentako bi kolejioren eraikitzeko eta joanarazteko. Barnabitei egin esken-tza ezta бүрүтzen, 1776.an Züberotarrek filosofia erakasle bat nahi beitzügen kolejio hortarako eta hain xüxen Egiategi filosofoa dügü. Azkenik Iraültza beno bospasei urte lehen Züberoako Estatüek bozkatzen düe, hirur erakasle bakotxa 600 libera urtean ordaintürik hitzartzea, biga «Humanité» delakoen erakasteko eta besteak idazten erakasteko. Kolejio zahar hori,segürrik Egiategi-  
ren erakaslekü azken urteetan Domenikar seroren komentüan egin zen: orain aldiz «centro comercial» hor dago,beste bizitasun eta beste bide bat hartürrik.

Ideietan, bederen, Egiategik Oihenarte segitü nahi dü, bena ehün urte igaranik, eta XVIII.menxeko helbürü eta xede handiagoeekin,eskola euskaldüntü nahi beitü, ber denboran arrotz mintzajeak eskola horietan sarrerazi, bigerren libürüan erraiten beitü:

«Arrotzak hüskararen khoi eztiradila dakigü, ezetare hüskal-  
dunak arrotzetaz egarri handirik»

Hor, bere filosofia libürüan erran badü «Aspaldian dago errana, gizona dela hanbatetan gizon nola mintzo suerte beitaki» arrazu arruntagoa ekarten deikü orai hitz horietan:

«Ezkiridünak berze althe eztiradialakoz frantsesian baizik ari  
mintzo, haren ikastian hüskaldünak behardün dirade»

Heben diona argi da administrazioeak eta legekotarzünak bortxatzen dütüala eüskaldünak frantsesaren ikastera. Oihenarteren urteetan etzen holakorik Lextarreko parlamentüan epaileek eüskara jakin behar beitzüan, eta beste herriko gehienek ere bai., bortxaz, Bordelera joan beharrak Züberoa frantsesten dü.

